



ONE
DAG
RAK

TXOMIN
ACIKE.

TXOMIN AGIRRE

ONDARRAK

AITA ONAINDIA'K:

- 1) Bilduma**
- 2) Sarrera**
- 3) Oarkizunak**

CENSORES:

Fr. Joseph Al. a Virgine Carmeli
Fr. Joseph Dom. a Sancta Teresia

Imprimi potest:

Fr. JOACHIM a Sacra Familia
Provincialis
Vitoriae, 4 novembris 1964

Nihil obstat:

DR. ANTONIUS ZALDUA URIARTE
Censor eccus.

Imprimatur:

Dr. LEO MARIA MARTINEZ,
Vicarius Generalis
Bilbao, 13 octobris 1964

Registro núm. 6.720 - 64
Dep. legal: BI 2.040 - 1964

GRAFICAS BILBAO — BILBAO

ATARI ANTZEAN

Ondarroa ! Itxas ertzeko euskal erri atsegintsu, apaindurarik onenakaz jantzia ; millaka urtetan ortxe **lurraren** ta itxasoaren tartean jarrita, ainbat egite geigarri osotu dituana. Ortxe jaio, bizi ta il dira konta ezin-ala gizon ta emakume, itxasoagaz batez be etenbarik eta adoretu burukatuak; ortxe jaio dira gizaseme ospetsuak **jakituriz** ta onegitez. Baiña ortxe jaio zan, berariz, apaiz argi zintzo bat, Ondarroa'ko kale, portu, etxe ta mariñelak eta Euskalerra osoko edertasun bikaiñak, iñok baiño gartsu ta biziago, luma eder joriz kantatu ebazana: Txomin Agirre!

Nok leukaken berau bear bestean jaso ta goratzeko indar-adorea! Sen zail ta biotz **sentikor** baten **jaube zalarik**, gizonkiro abestu zituan itxasoko kresala ta **lurreko**

garoa. Elizgizon zanez, oso apala ta otzana genduan. Aurtan, alan be, bere jaiotzatik eungarren urtea dala-ta, apal ta otzan izate ori aizetan astindu bearrean gagoz. Onako gertaerak gaur eta beti zarataz jaitu oi dira, gertaerak zerbait diranean eta aldiko gizasemeak ortarako gai diranean. Agirre zerbait baiño geiago izan yakun; gu iñor ba'gara, beraz, aren jaiotza eun urte-burua yagokon aintza ta omenez ospatu bear.

Nik, beintzat, aren lan-bilduma au osotu ta aurkeztizok ezarterakoan, biotza arentzat ondo-naiez ta burua arekiko pentsamentu gurenez gaiñezka euki gura neukez, berez berez, ezeren eragin barik, aren gizantza arrotu ta maite-esker onezko abesti gori bat Euskalerra osoaren izenean ari oiuskatu al izateko. Ez nabil ao bero : Agirre'k merezi ditu guzlion txalorik gartsuenak.

Alderdi askotatik begira ekarri geinke Txomin Agirre; baiña, emen, ertz bitatik so-egiñik, lenengo bere *bizitza*, azalduko dogu urrats (oinkada) arinka, ta gero bere *irakurgaiak*.

1

BERE BIZITZA

Jaiotza

Lengo arratsaldean, asmo berezi batek eraginda ondarruratu nintzan, ango aize, zar-barri, kale, etxe, portu ta antzeko gauzaz asetu nairik, aurki. Erakusle legez, ez neban iñor nai alboan; umetan sarri egona naz bertan

eta gero be berrogei urtez askotan emon ditut ordu zoragarriak Ondarru ta inguruko mendi, erreka ta itxasoari begira. Ondarru'k «uretan daukaz oiñak —diño Agirre'k oso ederki—; aldats andiak iri edo kalietan; kale batetik bestera, zearretarako arrimailla pendiz urteakaz leunduak; etxeak bata bestien gaiñean, atzeko aldea lurpean sarturik eta aurrekoen tellatutik arpegia erakusten; iñok usteko ez leukean aiña gizadi etxe bakotxean, berrogetamarretik gora beti, umeak geienak; eta leio zulo danetan atorrak eta gonak, alkondaxak eta prakak, itxas gizonen jaka urdiñak eta oeko zapi zuriak esegita». Olantxe da Ondarru.

Erriko eliz-sarreran, eguzkira begira jarririk, ezker aldera Kale Nagusia daukat. Ikus or, beruntz goiazala pizkat, etxe-egal baten goi samar, arri landu bat idazkun onegaz : «Agirre'tar Domeka'ri —1864—, bere errijak-1920». Ondarrutarrak esker onez, Txomin il zan urtean bertan, jaso eutsoen oroitarri au. Eskumaruntz eta buruz buru Agirre-kalea daukat, Goiko kalea lenago; nasai samarra itxas-erri ontarako, aldapatsua ta arlandu laukiz azpi-apaindua. Gaur be dotore dago kale au, baiña aur-tengo bagillaren 7'tik 14'ra, Agirre'ren omenez egin zan Aste Aundian baizen txukun ta dotore, iñola bere ez. Orduan ate, balkoi, leio ta kale-bitarteak oialzapiz, estal-kiz, zintzilikiz ta lora-txortaz ederturik egozan; etxe-aurreak argiz, margoz ta lorontzi apaiñez beterik; kaleak bedarrez, orri ezez ta larrosa-atalez gaiñezka. Eta jentea, bertoko ta kanpoko, gora ta bera, kantari ta dantzari.

Gaur ez dagoz ain polito jantzirik, baiña txukun ta garbi, kolore bizitan daukiez geienak. Agirre jaio zana or daukagu, Gaixotegia baiño zerbait beratxoago. Ezta kas-karra, berak orrela uste ba'eban be. Uda batean Loiola'ra joareko ziran Azkue, Agirre ta beste ondarrutar batzuk;

alde aurretik itunduta egozan lez, Azkue'k Lekeitio'tik Ondarroa'rako bidea, Mendexa ta Asterrika'tik zear, mendiz egin eban. Antigua'tik beera amildu zaneko, an ziran bide-lagun izango ebazanak. Txomin bere etxe ondoan egoan, antza, Azkue'ren zain; eta bildur zan ain gizon andia bere aterpe itxurabakoan zelan atotsi ez ekiala. Azkue'k berak onela.: «Bere etxe ondolik igaro bear nuen ta berak itz auek otzan-otzanik zuzendu zizkidan: Ik, nerea lango etxe-tutu batean eztek sartu nai izango». Konderen baten semetzat artu eban bere adiskidea.

Gizon andi askoren antzera, etxe apal ontan jaioa dogu Agirre, 1864'ko maiatzaren 4'an; ementxe, gaur be orduan lez aurkitzen dan etxetxo ontako len-oiñean, arratsaldeko zazpiretan; berak bere idaz-lanak izenpetzeko iñoiz erabilli eban Goiko kalean. Bere gurasoak, aita Manuel Bizente Agirre, Motriku'ko semea, ta ama, Maria Madalen Badiola, ondarrutarra, izan ziran; aitaia, aitarren aldekoa, Juan Migel Agirre, ondarrutarra, ta Maria Bautista Salegi, mutrikuarra; ta amaren aldetik, Frantzisko Badiola, Motriku'koa, ta Barbara Eizagirre, Amoroto'ko alaba. Urrengo egunean, au da, maiatzaren 5'an, Domingo Anton M. Garramiola'k, orduko arimazain nagusiak, Ondarru'ko eleizan bertan bateatu eban, Domingo Aszension izena jarririk.

Umezaroa

Eun urtetik ona eztau Ondarru'k, ethez ta arimaz, al-kakuntza makala egin. Etxez, edozein erritan baizen bizileku zabal, jagi ta dotoreak, auzotegi osoak eregi dabez azken urteotan; arimaz orduan baiño iru bidar geiago bizi da bertan: urteko domeka guztietan ta udaldirantza

batez be, bertoko inguru ta bazterretan asti-orduak emoten: kanpotar asko agertzen da. Arraiñetarako ontzi ta barkuak, andi ta txiki, ugaritu ta barriztu egin ditue eunetik irurogei. Ondarru ez dago atzeratua gure erri-txoen oraingo aurrera-min leiatsuan.

Alan be beiñolako kale-pendizak eta etxe-bizitza askok lengo antzera diraue, igarteko aldaketa barik. Goiko kalea orain eun urte lez daukagu, orduko etxe zapal, leio estu, ate medar, bidarri laban ta guzti. Ezta kale bakartia, ixiltasunez jantzia: beti entzun oi da ume-zarata, bertan jolasean dabilzanena ta gora ta bera doazanena. Auxe da, gaiñera, Antigua'rako biderik ibilliena, ta an goian, baseliza ondoan dago erriko ortu santua be. Ta, bai ortu santura bai Antigua'ko Amaren oiñetara, askok eta askok igon oi dabe egunero.

Lengoan, ni ara nintzanean, umekondoaz beterik egoan Antigua'ko elizpe guztia; talde bakotxak eban bere jolasa : artu, emcn, garrasi, auska, dana zan euskera gozoan. Eleiz barruan neska gazteak eta andrazko zartxoak otoiketean ziarduen, itxasoan ziranakaitik Ama zaindariari laguntza eskatzen. Neu be, iñoizkorik beroen, ixiltasun aren magalean murgildu nintzan eskari samurrean; noiz-bait, giro aretan ezin luzatuz, eskumako orman josirik agiri dan idazkun ontan jarri nitun begiak: «Antigua'ko Andra Maria'ren eleiz au edertu eban Usobiaga'tar Don Eugenio Maria ongille ospetsuari. Bere erritarrak eskeintzen, deuten gomutakia. 14-VIII-1931». Altara aurrean ainbat eta ainbat argizai dagoz dizdiz dantzari.

Ondarru'ko umeak, neskato ta mutiko, kale-egal, mendi-zoko ta portu-bazterrak dabez jolastokirik oituenak. Txomin be, bere umezaroan, mundu txiki onetan dantzatua dogu: nik igarotako bide ta zidorretatik ibilli zan, gaurko mutikoen kirolak ebazan, jolasbide; ementxe ar-

nastu eban ondarrutarren izate berezia, bere kera apartekoa, bere aize ta lurrunez aseturik; gaurko mutikoak lez sarri jardun eban arrantzan nasa gaiñean jarrita, baita ordu luzeak erre be itxas zabalera begira, onen ezkutu ixiltua askatu nairik. Berberak diño *Itxasaldian* deritxon olerki jorian:

«Zeinbat bidar zure ondoan umetxu nintzianian,
Zeinbat bidar, itxasua, egin cle dot ames!
Zeinbat bidar ibilli naz ondartzeta bigunian
egin nairik etxetxuak desegiteko berez!»

Emen ikusi ebazan bere erritar sendoak, egunak eta asteak urrin emon ondoren, pozez beterik etxeraten; emen entzun zituan ekaitz orduan jo oi diran kanpai danbada luze astunak, eta Antigua'ko Amaren aurrean arrantzale gaixuen alde egiñiko otoitz gartsuak; ementxe ikusi eban askotan Ondarru osoa ibildone luze itzaltsuan, itxasoaren triskantza, sarraski ta eriotzak ziralata. Umetan, bereen artean ikusi ta ikasi ebazan zer guztiok, gero bere idazlan bizietan orekaturik itxi euskuzan itxastarren gorabera arrigarriok.

Erriko eskolan egin ebazan, sei-zortzi urteko zala, lenengo ikasketak; adimen argi zorrotzekoa zan ezkerok, igarri barik aurrerapen andiak egin ebazan, urte gitxitan etxe bat jasotzean lez bizi guztirako bear zituan lenengo ikas-oiñarri sendo koloka-eziñak jarririk. Arima arazoetarako, barriz, or eukan Andra Mari eleiza; guraso kristauen eredu ta jarraibide zindo ostean, bertan ikasi ebazan Kristiñau-Ikasbidea ta Kristo'ren jarraille zintzoari dagokiozan egikizun arlo guztiak; bertan artu ebazan eliz-sakramentuak, autortu ta Jaunartu sarri egiñik. Oso elizkoi agertu oi zan, barruko leia artez bizia kanpotiko era ta itxura neurritsuan aitzen emonaz.

Ez dakigu noiztik sentidu eban elizarako garra, ots, elizgizon izateko zaletasuna. Gaztetxutik antza. Umetan erakutsi daroagu geienik barruan darabilgun deíaren irrika: batzuk itxasoak erakarten ditu, beste batzuk legorrak; onek onetarako antze geiago dau, arek ostera beste atarako. Etxean ikusi ta ikasiak indar andia dau: Agirre'n aita arotza zan, sarri lagundu eutson berak be aroztegiko lanetan; ez eban, baiña, ogibide ta arazo ortarako griña geiegirik sekula be erakutsi. Jainkoak ez eban nai arazotu mundu ontako egikizunetan.

Eta Txomin'ek beste zerbait erabillen gogoan. Erriko eleizan, Kristau-Ikasbidea ikasteen batez be, abade jaunak guztiz irabazi ta samurtu eutsoen biotza, Jainko-gauzetarako berebiziko garramura aren biotz-ondoan sorturik. Entzun Azkue jaunari: «Elizgizon entzutetsu artean badira bat edo batzuk beren deia, Elizarako deia, garatuta gero, gizon duta gero izan dutenak. Maizenik, ordea, erdutzat agertzen zaizkigun elizgizonak txikitatik izan dute zaletasun ori. Gure Agirre'ri ere, gazte-gaztetan piztu zitzaion bere biotzaren muñ-muñean elizarako ta elizgizadirako garra». Abade izatea pentsau eban, ba; eta asmo onez gartu zan ezkeru, ez eukan beste ames ta pozizkirik.

Zelan, Daiña, garaitu ori lortzeko aurrean tarteratuko yakozan eragozpen soster eragilleak? Aita, dakigunez, arotza zan; neke andi barik bizi izateko lain ozta-ozta ateraten eban bere txirlora artetik; ez eukan iñundik be semeari apaiz-karrerea emoteko beste diru. Jaunak, alan be, gogo onekorik eztau egundo bertanbera izten. Eta Txomin'i be biotz leial bat aukeratu eutson bere barne-deiari erantzun egion: Bilbao'ko Santiago eleiz nagusian

1872'tik parroku zan Mariano Jose Ibarguengoitia jauna. Ondarrutar gaztearen mendu ona ta buru argia aintzat arturik; Bilbao'ra eroan eban, beragaz bizirik, «bere me-zamutil ta lankidexo» izan zeitean. Apaiz jainkozale onen ardurapean ikasi ebazan Agirre'k latiña ta inguruko ika-sikizunak; pozik ebillen gaztetxoa, baita onen Mekena eskuzabala be. Gazteiz'era aldatu zan gero gaiñerako eliz-ikasketak osotzera.

Ara orduko be, ikasmin ba'zan, onoimenez eta birtutez etzan gitxiago; Kristo'ren ordezkari bati dagokionez, Jainko-maitasunean eta urkoaganako lera bizian baratz loratsua zan bere biotz ederra. Barru-edertasun ori geie-nez arturiko mesedeak eskertzen erakutsi oi dogu, ta Txomin'ek ez ebazan iñoiz aztu umetan artutako onegite ta mesedeak. Gogora daigun Azkue'k diñoskun au : «Bio-tza samurturik oroitzen zituen Agirre'k, Seminario'an giñan egun txuri aietan, Bilbo'n igaro zituen urte gozoak: ango Luistarren kongregazioa, ango *Círculo Católico'n* egiten zituzten agerkizunak (teatru-lanak), eta batez ere nagusi izan zuen apaiz argitsu, sutsu, santu-usaindun uraren irakaspenak. Elizgizon andi ark berak eskuratu zion ikastaroan (karreran) bear izan zuen diru guzia, ta bearrago zituen atsa ta kemena ere berak biotzeratu. Ibar-guengoitia ta Labairu izan ziran gozaroen aldi artan aipatzen zituen izenak».

Gazteiz'ko Apaiz-ikastetxean laster irabazi ebazan nagsi, irakasle ta ikaskideen biotzak; ikasle gozo, eratsu, zintzo ta apala zalako, danak eben maite. Azkue'gaz batera ikasi eban; biak ziran adin bateko ta adiskide kutun, biak erritar lez, biak apaizgai burutsu, biak euskera ta Euskalerrria maite ebenak. Izatez, ostera, bata (Azkue) odol-gorri ta bestea (Agirre) odol-zurbil; Azkue sendo ta iraunkorrago lanerako, Agirre —«arpegi-zuri ta izakera

bigundun»— egokiagoa gizartean bizi izateko. Eta lekei-tiarrak onela dator: «Seminario'ko urte alai aietan odolgorri giñanok, sarberritan beintzat, batean zutik bestean belauniko, okerreriatxoren baten ordaiña artzen genuen artean, Agirre odol-zurbilla etzan bein ere bide zuzenetik ateratzen, ta elizan izan ezik bein ere enuen belauniko ikusi». (*Itzaldiak*, «Agirre, Beretergoan», Donosti, 1920, 72 orr.)

Agirre ta Azkue oso barruko ziran, alkar maite ebenak. Barrukotasun au adierazteko bien arteko jazokun bat eskintzen dausku Azkue'k. Ikasle zirala, Gabonetako oporegunetan, *El puñal del godo* antzerkia ikasi ta atondu eben. Agirre *Don Rodrigo* egin eben, Azkue *Tendia*, Muxika bergaxarra *Monje* ta orduñar bat *Don Julián*. Bakotzak bere kizuna ikasi ondorean, antzokian agerturik, esku ta besoai eragiten be asi bear eben. Teudia'k (Azkue'k) trakets-samar ebiltzan, «moldakaitz zerabilzkien» beso ta eskuak.. Gau baten gelaruntz joiazala, Don Rodrigo'k (Agirre'k) ixilka-mixilka esan eutson Teudia'ri: «I, eskuak erabilkeran, beatzak eztituk orrela banatu bear. Eskuketa bat ona izateko, elkar jo bear ditek beatzak».

Meza barria Urkiola'n

Aldiari berea ordaindurik, apaizgai gaztea ba-joian ikas-taroan aurrera. Gerorako egoki etorriko yakon orduan ikasia. Beraz, elizgizon bati dagokionez, adimena jakituriz ta biotza birtutez edertua, «gazterik umo» aurkitzen zan Agirre. 1888'ko maiatzaren 26'an, Pentekoste lau aroctako zapatuan mezakotu zan, orduan Gazteiz'ko Eliz-barrutian

txona lortu dau. Igongatxa begitantzen yakon mendi-gaillurrean aurkitzen da, ibillian gozatsu begira.

Kristo'k Golgota'n gizadiaren onerako Aita betikoari eskiñi eutsan oparia, berak be Irutasun gurenari eskiñiko eutsan. Jozakun ori, egia esan, etzan zaratatsu egingo; etzan barailla-zale; bakartadeko ixillik, ostera, erakarpen lilluragarriak eukazan bere biotzarentzat. Lenengo opari-eskintze ori, ba, ixillaren altzoan, ezeren iskanbil barik, bere senitarteko batzuk eta aingeruak lekuko ta testigu zirala eskiñiko eutson Irutasun santuari.

Urkiola gaiña etzan ortarako lekuri urriena. Eder yakozan arkaitzak, eder yakozan zugatzak eta lorak; orreik guztiok antxe eukazan, Anboto'k, Aillutz'ek, Untzillaitz'ek, Mugarra'k, Eskubaratz'ek eta Sabigaiñek inguratutako toki deigarrian. Meza eskintzeko, ba ete da iñun Urkiola bizkarra baiño opamai gurenagorik? Berak ederto *Ga-roa'n*: «Jaungoikoak jarri zuan Bizkaia'n Urkiola'ko mendia, Araba'ren ondoan, Gipuzkoa'tik urre samar; ta mendi orren gañean ipiñi zuten euskaldun siñistetsuak Antonio Donearen eli/etxea, zorion guztien itxaropenerako». Eta tontor zoriontsu orretan opatu nai izan eban bere lenengo mezea, millaka ta millaka euskaldunek gurputz ta arima osasuna aurkitu daben bizkar atseginkor orretan. Aren biotz-garra, oparia eskintean! Zein bizi eskatu eutson Irutasun deunari beretzat eta biotz-muiñean eroian euskal erri maitearentzat!

Munduan ezta, alan be, illuntze bako egunik; errez ostendu oi da izar kiñularia. Meza-emoille gaztearen biotzak be, bere pozezko urtegian, odol-tantatxu batzuk zitu-tuan dardari. Ibarguengoitia jauna, bere babesle esku-

zabala illa zan orduko; egunik ederren atan bere alboan euki nai izan eban, baiña aurreratxoago —1888'ko urtarilaren 31'an, 73 urteko zala— Jaunak bere atsedean argitsura eroan eban. Eta, «zorion guztien itxaropenerako» dan eleiza atan, abade onaren utsunea biotz-zulagarri yakon meza-emoillc gazteari. Bete zedilla, alan eta guzti be, Jaungoiko andiaren naia; odol-tantoa gogoz rnosuturik, biotz-samur eskatu eutson Irutasun gurenari egun atan batez be berarizko aintzaz ornidu egiala bere ongille mazalaren arimea.

Zumaia'n moja-kapellau

Abade eginda laster, karmeldar mojatxoak Zumaia'ko urian dauken ikastexera bialdu eben arima-zain. Eta antxe bizi izan zan, iñora be aldatu barik, il arteraiñoko guztian, ogetamar urtetik gora. Ondarru'n jaio zan itxasora begira, Zumaia'n bizi ta il itxasoari begira. Emetik egingo dau bere apaiz iana, itzez ta idatziz. Aita Iturria prantziskotarrak onela: «Zumaia'n egingo du, dagoneko, bere apaiz eta euskal-lan guzia. Bertan izango da animen zuzendari zintzo; bertatik ageriko da euskal-idazle jator eta trebe. Baña Zumaia'n urte askotan egonda ere, Euskalerrri guzian barna ibilliko da batetik bestera, an da emen bere liburuentzako bear zitunak biltzen. Ala ibilli bear, nai ta naiez, egin zuan lan betea burutzeko» (*Garoa*, 1956, VII orr.).

Era bitakoa da, bai, Txomin Agirre'k Zumaia'tik egin eban lan bikaiña, autortegían eta irakastegian itzez egin ebana ta bere liburu ta idazkien bitartezkoa. Zumaia'n etzan euskal-idazle lez ezaguna, baiña sermolari on ta autorrentzule artez jakituntzat eukien danak. Arima-zain

zintzoa zan, izan be; eta orretan jardun oi eban, moja-txoen ikasretxean ezezik, erriko eliz nagusian be bai, beti astitsu ta asperkaitz. Bere autortegi inguruan beti aurkitzen zan argi ta poztasun-billa ara eldutakoren bat.

Etzan, orraitño, mauka-zabal ta on uts orreitakoa; irakasle argi ta aita bigun zalarik, elizgizon benetakoari dagokionez ba-ekian osatzeko bear dan garratz-tantoa zauri gaiñean jarten be. Iñoiz, bere epe ta egoarritik urtenda, asarrearen izpia be erakutsi oi eban, Kristo'k berak bein edo bein egin eban lez. Gure erria, ez dakigu zergaitik, añenti samarra izan da; eta bein, Agirre oian gaixorik egoala, Zumaia'ko kale atan norbaitek añen edo birao ikaragarriak jaurti ei zituan Jaungoikoaren kontra; ezin berak olakorik eroan, ta oia itxirik, gogor be gogor arpegi artu ei eutson biraoti lotsagalduari. «Odol-zurbil, biotz-kiki» esan oi dan arren, bear zanean ba-ekian arek bizitasuna erakusten be.

Barren-ontasun askoren artean ba-eban bat besteen gaiñetik ñirñir egiana: txiro ta beartsuen lagundu-bearra. On-ereille amorratua izan zan. Sarri, jakiña, arri artean be ereiten eban; eskeko ardao-zaleen eskuetan be noizean bein jarten eban bere eskupekoa; augaitik ñok ezer esaten eutsonean, berak erantzuten ei eban: «Ezta ardura; onerespena (karidadea) Jainkoarengatik egin bear da, nor zein dan ikusi gabe». Orrela ezin bera be diru askoren jaube izan. «Bera il aurretxoan eta il ta gero, oraindik il-berri zala, bere ondoan nintzan ta bere azken-naia lenengoz irakurri zanean ere bertan nengoen», diñoskun Azkue jauna sor ta lor geratu zan aren txirozaletasuna ikusirik. liburuko orretan eukan guztia izten eban bearsuentzat, berari il ondoren elizkizunik apalena egiteko agindurik.

Izlari bikaiña zan. «Apaiz bezela —diñosku Azkue'k—,

bere erriko Antigua deritzaion baseliza txukunean itz egin zuen lenengo aldiz.» Meza barria emonda laster, urrean. Gero, al ebanean, or ibilli zan batetik bestera sermolari trebe, euskaldunari euskeraz Kristo'ren irakatsia emoten. Ospe andiko itzaldiak be etzitun gitxitan egin; 1898'an, esate baterako, Zestua'ko euskal-jaietan, onela mintzatu zan: «Ni euskalduna naiz, lau aldeetatik euskalduna, euskalduna biotz ta arimatik... Neretzat euskera, egaztientzat aizea bezela da, gizonarentzat arnasa bezela». Begoña'ko Andra Maria koroetu zanean, bederatzi egun iraun eben elizkizunetan, goizero norbaitek euskerazko itzaldia egin bear eban; an ziran garai artako euskal izlaririk ospetsuenak: Aita Klemente, pasiotarra; Aita Baertel, prantzizkotarra; Aita Laskibar, josulaguna; Iñazio Orbea, Berriatua'ko txauburua; Juan G. Dekalle, Elantxobe'koa; Kandido Uranga, Deba'koa; Ramon Pagoaga jauna. Txomin Agirre'k azkenengo egunean egin eban bere itzaldia, au da, 1900'ko irailaren 8'an, Begoña'ko Ama burestundu zan egunean, *Amak semea laztantzen dauan lez* gaitzat arturik. Beste bein be bardin egin eban, 1916'an, Bilbao'ko «Campos Eliseos»-en, lagunarte estuaren aurrean.

Arimen onak saka-eginda burutu ebazan bere liburuak be. Agirre, izlari ta idazle, mixiolari genduan oso; Aita Coloma ta A. Risco lez, nunbait. Maite eban Kristo, maite eban Euskalerrria. Ta berak gori-gori eukazan maitasun biok, beste askoren biotz-muiñetan be sar-erazo gura zituan. Liburugilleak ba-dau, edo izan bear dau beintzat, bere xede ta asmo berezia: irakurleen gogobiotzak jaso, argitu, indartu; txarra ezetsi ta ona erakutsi, gizartea makur dana itxirik Jainko-zaletu dedin. Ez, etzan a lurrun-billa ibilli, arima billa baizen.

Bakotxak darabilgu, geure izaeran sartuta, gurasoengandik arturiko izkera maitatu ta zaintzeko ixki bizia. Ezta arritzeko, beraz, Txomin'ek, elizgizon zanez ta euskaldun zanez, bere euskera maitea sustraitik ikasi ta bala-bala agotan ta idatzietan erabiltea. Orrela egin ezpaleu, ez eban gizabidez jokatuکو iñundik be. Zumaia'ra joan zaneko asi zan idazten orduko aldizkarietan : «Euskal-Erria», «Euskalzale», «Ibaizabal», «Euskal - Esnalea», «RIEV», «Jaungoiko-zale». Aren euskera gozo, errez, mardula atsegin yaken irakurleai.

Euskal alkarte ta bazkunen sortze ta eratzetan be ez ebillen atzeratua. Euskaltzaindia sortu zanean, batez be, beste guztien aurrelari lez agertzen yaku. Ederto Aita Iturria'k: «Amaika istillu ta gorabera ibilli zituzten Euskaltzaindia sortzeko, amaika alegin egin ziran sortu aurretik... 1886'garren urtean, Durango'ko euskal-jaietan Aristides Artiñano ospetsuak egin zuan deiatik asita, Manterola'ren «Euskal-Erria» ta geroagoko «Euskal-Esnalea» aldizkarien deadarretatik pasata, Euskal-Batzar sortzeraiño.. itz eta esamesa pranko izan zan. Dana dala, Oñati'ko Euskal-Batzar gogoangarriak eman zion asmoari ezkenengo bultzada; 1918'an, Arantzazu'ko Ama Gipuzkoa'ko Zaindari izendatua izan zala-ta, bere omenez eta zaindaripean ospatu zan Euskal-Ikaste-Batzar aundi arek, Batzar orren ikaste-saillen artean, ba-zan bat euskerari buruzkoa. Ta, ain zuzen, sail orren zuzendari gure Txomin izan genun. Lan txalogarria berea, noski! Aurki agertu zan Euskaltzaindia sortu ta eraturik» (Loc. cit.).

Azkue aukeratu eben euskaltzain-buru. Baiña Agirre be antxe agertzen zan beste euskaltzaiñen artean, euskaltzain. Izan be, iñok merezi ba'eban Agirre'k merezi eban izen-

datze ori. Bere lan ederren ordaiña zan, aurki. **Onek**, zetan esanik bez, entzute andia ekarri eutson. Lendik be, egia, bere itzaldi ta liburuak zirala bide, jakitunik andienakaz eukan artu-emon; beste askoren artean, Azkue, Kanpion, Etxegarai anaiak, Urkixo, Muxika, J. K. Gerra ta abar, oso begikoak ebazan. Ilundain, Sevilla'ko kardenal jauna sarri joan oi yakon Zumaia'ra, baita Ortega y Gasset, Zuloaga margolaria ta bilbotar Iturri-barria olerkaria be.

Eriotza

Iñoiz be etzan osasuntsua izan. Baiña, lanaren lanez, bizitz-aroaren erdirako oso makar aurkitzen zan Txomin euskaltzaiña; auleriak joa nunbait. Oñati'ko Batzarrean iñoizkorik zurbil ta maskalen agertu zan; alan be, an ereindako euskal-aziak bir-biztuko ebala uste eben geienak, eta urte batzuetan beintzat lankide izango ebela. Euskaltzaindiak illero egiten ebazan batzarretara «lau aldi soil-soillez Gipuzkoa'ko aldundian gureganatu al izan zan», diño Azkue zanak. Andik laster il zan, 1920'ko urtarrillaren 14'an.

Euskalerra osoak negartu eban bere eriotza, Gazteiz Goterkiko illerokoak au iñoan: «Joan dan urtarrillean, bizi izan zan lez santu-antzean, il zan Zumaia'n Domingo Agirre apaiza. Gazteiz'ko Eliz-barrutiak onegaz bere apaizetatik onenetako bat galtzen dau. A ezagutzeko zoria izan eben guztiak, beti ikusi eben aregan apaiz-onoimenez bete-bete egiñiko eredu bat. Txit eratsu, apal ta. goimaitasunez jantzia zalako, errez irabazten ebazan edozeiñen biotzak, elizgizon ta osterantzekoentzat onerako bultzagarri eder izanik. Baita galdu dogu, Txomin Agirre

galtzean, euskal izkera zarraren saineko langillerik gartsu ta argienetariko bat. Euskera ikasi ta zabaltzearen Txomin'ek egin ebanak argiro diñosku, Jaungoikoak zelango doaiz ornidu eban gizon au, eta onek zelan erabilli ebazan eurok urko-lagunaren onerako. Jaunak emon euskun; Jaunak kendu dausku. Onetsia bedi Aren Izen santua». (*Boletín Of.*, LVI, 1920-II-16, III orr.)

Berak ainbat laguntza emoniko aldizkariak, RIEV, «Euzkadi», «Euskal-Esnalea» ta «Euskalerrriaren Alde»-k baitik-bat, beste ainbeste iñoen. Zornotza'ko «Jaungoiko Zale»-k bazkide eban lenengotik, eta onela iragarri eban aren eriotza, 1920-I-15'an: «Beragaz euzkeldunok idazle goiartu ta bigunenetaiko bat galdu dogu; batez be edestixun edo gertirudijak idazten gitxi lakua izan da. Solasgarri garbi, samur, eztitsubak... utzi dauskuz». Eta «Araxes»-ek bere aldetik: «Il da Txomin Agirre! Ez bere senideak, ez bere adiskide giñeanok bakarrik, Euskalerra osoa dago baltzez jantzita. Giza-bizitza —esan da—, Erroma'ko Api bidea lez, gurutzez josirik dago. Era berean aurkitzen da erriena be. Gizonak lez, erriak be euren semeen eriotza negartzen dabe; euren ongille andien eriotza, euren adierazle bizi ta euren erraietako zati egiazko ta dardarti lez diran gizaki leiñargien eriotza negartzen dabe. Apaiz apal ta onbidetsua, zaldunen zaldun eredu, olerkari garaia, gure endaren kantatzaillerik gurenena, eusko mendietako Pereda, Txomin Agirre gozo, txit gozoa il da; orixegaitik Aitor'en semeak lutuz aurkitzen dira».

Eta, azkenez, Azkue'k, bere adiskide miñak: «Nere urteak zituen. Neri bezela, ari ere Jainkoak itsasondoan, arkaitz-gaiñean atondu zion seaska. Aurtzarotik asita ugiñen (olatu) burrundara indargarriak durundi egiten zigun belarrietan eta gure biriak itsasaize mardul txistu-

Sariak gogortu zituen. Ala ere, bere urteide geranok emen utzita, umo-umo zalako edo, berarengana, guk nai eta bear baiño askozaz lenago, dei egin zion Jaun saritzailleak. Azken-itzak, erdizka ebakiak, euskerazkoak izan omen zituen, noski Andre Maria'ri zuzenduak».

Antxe, Zumaia gaiñean, Arritokieta'ko Amaren baselizatik urre, erriko iltegia lurra emon eutsoen bere gorpuari. Aurten, aren iaiotz-eun-urte burua dala-ta, an gaiñean Bilbao'ko euskaltzale mordo bat; baselizan euskal kantuzko ta otoiitezko meza Jaunari eskiñi ondoren, Agirre'ren il-obi inguruan *Memento* bat esan genduan, gugaz ta Euskalerriaz errukitu zedilla biotzez eskaturik. Bere obi gaiñeko arlanduak daroan idazkun au aldatu neban nik: «Domingo Agirre jauna/ 1864'ko orrillaren 4' an jaiot zan/ 1920'ko ilbeltzaren 14'an il zan/; itzez, idatziz ta egitez/, zuzena izan zan/; Jaungoikoaren maitalea/ eta gizonentzat maitagarria/, ona zalako/. Andia da, Jauna/, bere atsegiña zure jauregian/: zoriona ta edertasuna/ ugarietan jarri dezu». Gero, Itziar'ko Amaren oiñetan auspeztu ondoren, Ondarru'ra gintzazan. Itxas-egal zoragarri au, ostera, soiñu ta dantza jaitan egoan borbor, ain zuzen Txomin Agirre'ren omenezko jai zaratsuetan. Bagillaren 14'a zan.

II

IRAKURGAIAK

Noiz asi zan Agirre idazten? Ez dakigu. Argitaldurik ezer agiri eztan arren, ikasle zala be ba-leiteke arek zerbait idaztea. Agirre ta Azkue adiskide kutunak ziran,

esan dogunez; biak ebiltzan, gaztetatik, su ta naiera batberak jota : batak besteari sua emongo eutsan ziur asko. Azkue, apaiz-ikasketak amaitu ondorean, laster asi zan Bizkaï'ko Aldundiak Bilbao'n jarritako irakas-aulkian euskeraz erakusten. 1890'garrenekoak dira Agirre'ren lenengo idazlanak; urte orretan argitaratu zituan Donosti'ko *Euskal-Erna* amabosterokoan *Ipui*, *On Pedro Nobia Salzedo-kuaren jaiotzako lelengo eunkidan*, *Aritzari ta euskalduneri*, *Naikua juat*, *Mariñela*, *Ama bat* eta *Ixasaldian* olerkiak eta *Buru-azurra* ta *Larramendi'ren Bizitzaren berri labur bat*.

Euskaldun apaiz zanez ba-eban asmo txalogarri bat lanok egikeran : *Omnia instaurare in Christo*, diran guztiak Kristo'gan barriztatu. Etzan txalo-min, bai ostera arima-zaie. Gar orrek eraginda gaillendu zituan bere lanak. *Auñemendi'ko Lorea* idaztean bakea opa dau erri ta gizadi danen artean. Beste aren nobela bieri buruz ondo dirausku Aita P. Lhande'k : «Beste bi irakurgaiak, *Kresala* ta *Garoa*, itxuraz, Jesus'en lege ta pakea goratzen ez ditula, lendabizikoaren antzera, ala ere orieri gure siñismenaren ezti ta esnea erraietatik darie. Biok, bai gure itsasgizonen bai gure nekazarien artean, Jaungoikoa'ren maitetasun ta bildurtasunik gabe zorion egizkorik izan ez ditekela darakuskigute».

Ondoren, aita josulagun berberak, gure nobelagiñak zelako gai ta arlotan jardun bear daben dakarsku gogora. Zoli ta trebe jokatu bear dau, batez be euskaldun apaiz nobelagilleak, Kristo'ren legea erriari atsegin yakon lez azaldurik, onen errai-zokoraiño eldu ta onurakor izan daktion. «Irakurgaikiñak —diño— bere gai mardula egiaren piperraz, itz samurraren gatzaz autsaztatzen dakianean, irakurleari Jaungoikoa'ren erakuspen samiñak polli-polliki isetsarazten diozka. Ba-dira, bada, ondo onak bezela, ira-

kurgai onurakorrak» (Itzaldiak, *Agirre, irakurgaikiña*, Donosti, 1920, 104 orr.) Era orretan alegindu zan Agirre, gure irakurgaille ernea, «arlo goi ta meiak» itxirik, Jainko-legea gai errez, arlo ezti ta euskera gozoz euskaldun baserritarrai emonik, euri-tanto guri antzean arein biotzetan zoriona ta bakea sar-erazten.

Bost sailletan banatu geinkez bere idaz-lanak : 1) *Gertirudiak*; 2) *Olerkiak*; 3) *Ipuñak*; 4) *Eliz-gaiak*, eta 5) *Kondaira-kimak*. Bostotatik jarri daigun azalgarri-izpitxo bat.

Gertirudiak

Auñemendi'ko Lorea. Auxe dogu Agirre-ren nobeletatik zarrena. Bizkaieraz dago, euskera errez ta aisa aituteko modukoan: «Euskalzale» albistariak 1897'garren urtean eragiñiko irakurgai-batzaldian sariztatua. Birritan argitaratu izan da; Azkue'k bere «Euskalzale»-n lenengo, 1898'garren urtean, 19'tik 267'ra, 30 ataltxotan; gero, urte berean separata lez osotu ta argitara emon eban Azkue'k berak (Bilbao, 1898). Arrezkero ezta argitaratu, ta orixegaitik ta gure gaurko bizitza bizitik urrintxo dagoalako, ezta bear bestean ezaguna. Nobela onek kondairan ditu bere sustriaiak, muiñoko aritzak lur tinkoan lez; baiña gai onek, munduko literaturan bere aldiak, bere goraldiak izan dituan arren, beti ez dauz giza-biotzak aizatu ta arrotzen.

Aita Lhande'k egiaz diñoskunez, erriari irakurgai ariñak, adi-errezak, gai ta arlo ulergarriak emon bear yakoz. Zeintzuk dira, baiña, gai arin-errezok, gure baserri-jentek arin irakurri ta neke barik ulertzen dabezanok? Zeintzuk izango? Beste edozein erriri eder yakozanak,

nunbait: «Euskaldunen gora-berak, euskaldunen esanak, euskaldunen bizitza». Or ar.robi bikaiña. Agirre'k bere lenengo nobelarako, Viloslada'k bere *Amaya* idatzi eban lez, berak be olako gai zar bat arrotu leikela-ta, Riktrudís deunaren bizitza aukeratu eban. Baiña gure baserri-tarrak ez eben ezagutu irakurgai au, eurai atsegin yaken gaia ez ebalako antza; paper artean geratu zan, naiz-ta ederto idatzia ta antze-pitxi askoz edertua izan. Laster konturatu zan Agirre, ta urrengo gertirudi ta irakurgai laburretan bestera jokatu eban.

Auñemendi'ko Lorea, alan be, etzan edozelako nobela. Agirre'k ba-ekian ordurako zelako lurra zapaltzen eban, aurretik be idatziriko lanak argi ta garbi diñoskuenez. Begoz emen adigarritzat K. Etxegarai'k aren liburuari ezarritako itzaurrean datozaan berbok: «Ondo egiña iru-ditu zaidala Agirre jaunaren lan polita, esan bearrrik ez da. Gaizki iritzi banion, ez nuen itzaurre au moldatuko. Nik derizkiotanez, Agirre jaunak gauza egokiak gogora-tzen dizkigu, eta ez bakarrik egokiak, baizik egoki esanak, zer esaten duen eta euskeraz mintzatzea zer dan ederki dakienak bezela. Biotzetik aterea, eta ez otz-otzik asma-tua da paperean dagoen guztia. Biotzetik aterea ez balitz, ez luke besteren biotzik, nere biotza berotu duen ainbat berotuko. Ori da egiazko izkiralari izatea, eta biotzetik biotzera dijoan ikusten ez dan ari me zolia eroso mugit-zen jakitea».

Eta zein da ari me ori? Zein da Agirre'k biotzak berotu ta mugitzeko darabilen ixil-zirkinkai ori? «Barrengo sua, maitetasuna, ona izan naia, gauza aundien egarria, Jaun-goikoa gauza danen gaiñetik mitatu bearra»; onexek dira biotzak lotu ta zirkintzen dituan ari zolia. Agirre'ren li-buru ederrean «ageri dira —diñosku K. Etxegarai'k— gauza egoki jarriak, aditzera emanik *zer* nolakoak ziran

Kristo'ren lege donea biotzez maitatzen zuten euskaldunak: Arnoldo, Ubero, Riktrudis, euskaldun zintzoak, leialak, beren erriari naitasun aundia ziotenak, baña beren erriari naitasun aundia izanagatik, bakoitzari berea ematen zekitenak».

Kresala. Ona Agirre'ren bigarren nobela, bera jaio ta bizi izan zan itxas-egaleko kresal-sundaz ondo asetua. *Garoa* ta *Kresala*, bere nobela nagusi biok, ezker-eskuma jarri ezker, ez dakigu zein oratu, biak bai dagoz ederto landuak, barru ta azal: *Garoa* gozo-gozo, *Kresala* bizi-bizi *Kresala'rako* asmatu zituan norkiak, bizi ta berezkoagoak dira; ta ezta arritzeko be: norberak bizi izana egoki, errez ta gartsuago azaldu oi dogu. Agirre'ri be orixe jazo yakon. Erri-izkera darabil bizi ta jator, arrotz-joskera ta beste lizun bage. «Txomin Agirre'ren Ierroak irakurri eta gure amama zanaren izkerea entzun —diño E. Erkiaga'k—, bardintsu zan guretzat: itzurrenez, esanez, keraz, itz geigarriz, erri-aizez. Cervantes andiak bere aldiko izkera bizia, gaztelania aberatsa, txorta mardo ederrean batuta utzi baldin ba'eban, gure artean orixe berberori egin izan dau Agirre ondarrutarrak». (*Bogaboga... !*, 1964, orrilla-bagilla.)

Bizkaieraz dago au be. Eta auxe ta Mogel'en *Peru Abarka* ei ditugu bizkaitarrok oraiñarteko euskal liburu-rik ederrenak. Noiz sortuko ete obeak? Iru aldiz argitaratua izan da: lenengo Donosti'ko «Euskal-Erria»-k argitaldu eban atalka, 1911'garrenean asi ta aurrera; bigarrenez, Durango'ko Florentino Elosu etxeak, 1906'garren urtean, eta irugarrenez, orain amar urte (1954) Zarautz'eko Itxaropena Argitaldaria, bere «Kuliska Sorta» liburu saillean. Prantsesera itzulita dago.

Len ao batez —lar ao batez— *Garoa* esan oi zan on-

darrutar idazle zaloiaren nobela-lanik bikaiñena; gaur, naiz-ta gipuzkoarrentzat mingarri izan, bestera esateko oiturea sartu da. *Garoa*, oso erromantiku ei dogu; *Kresala*, ostera, giar ta sakon egiña. J. San Martin'ek oraintsu : «Aituentzat eta gutxi jakiñarren zentzunez ondo begiratzen dakientzat, ez dago dudarik *Kresala* ohea dana. *Kresala* dogu euskeraz egin danik nobelarik onenetakua. Gaia, tartea, pasarteak, bizitasuna, gatza, errealidadea... Zer geiago eskatu geinke nobel bategandik? Indarra dauka, bai nobela bezela ta bai izkuntzaren aldetik. *Kresala'n* azaltzen dan guztia da egilleak bizitakua. Bertako Tramana, Kitolis, Brix ta abar, bene-benetakuk dira. *Garoa*, barriz, motela da; bertako pertsonajietan ez dago *Kresala'n* bezelako egiazkorik. Ezagun da egilliak berak bizi ez ebana ipiñi ebala. Ta alperrik emongo yakoz bueltak, beti «pastiche» bat izango da. Agiri-agirian dago Txomin Agirre'k *Kresala* bere bizitzaren barruan eroiala, ta *Garoa* azalez. *Kresala'g a z e z* deutsa bere denborako nobelagilleeri zorrik. Arro erakutsi geinkean nobela da. Gaian ba-dau zer bait erromantiku kutsu. Bere denborako ioera zan orrela, ta guztiok bezela, mendeen semia genduan Agirre be. Gure idazle aipatua, *Kresala'n*, bizkortasun biziaren jabe da. Bere irudimen aberatsa zuzenki ta zorrotz darabil. Ta ori ezta lortzen izkuntzaren aberatasun barik».

Ezta liburuto andia, baiña ba-ditu ogatasei irakur-gai buru gitxienez; eta or doaz, «gure begien aurretik —J. Gorostiaga'k diñoanez—, or doaz arinka ekatxak eta galernak, jaiak eta elizkizunak, nekeak eta arrantzuak, jardunketak eta eztabaideak, mendiak eta udabarriak, urteak eta... biziko biribilla beti bere lengo bidetik geldieziña». Eta berton agertzen diran gizon eta emakumeak ez dira

Agirre-ren idurimenak sortuak, bizi-bizikiak, Ondarru'ko «sardiñak legez» an bizi diranak, eta edonok edozein itxas-erritan ikusi daikezanak baiño.

Zer egiten ete eban ortarako? Erritarren bizitza bizi; belarria erne ta begia zorrotz, arrantzaliak batzen diran lekuetara joanik, arein autu ta esanak gogoan ezin ba'da txarteltxoan jarri. «Gogoan lenik ta gero txarteltxoan —diño Aita Lhande'k— jende txikiaren esan-erantzunak sartzen zituan, ta bere belarritik xuxen idaztortzara orri batzuetako gaiak lerratu zitzaiola esan dezakegu». Orrelaxe, argazki antzera artuak dira aren iduri guztiak. Ortik datorkioe ainbeste edertasun.

Garoa. Txomin'ek ba-ekian, ondarrutarrai batez be, berak egindako kresal-irakurgaia atsegin yakela; baiña ori baiño be obeago bat egiten ziarduala esan oi eutsen. Zein zan au? *Garoa.* Agirre-ren eritxiz, *Kresala* baiño bikaiñago zan *Garoa*. Baita izan be, duda-izpi barik, garai artarako : erromantiku-garaia zan, joera orri gaur gora andirik emon ez arren. Eleberri bi onein artean zein obazko iskanbil txiki au ortik sorturiko izkunea dogu nunbait.

Ondarrutar edo itxastar batentzat, gaiñera, *Kresala* izango da beti be obea, bere izakera, giro, ekandu, biotz-zartada ta esanak, ezertxo be murriztu barik, bizi ta egoki azaltzen ditulako. Itxas-ertzeko idazle batek berez goraltzen dau *Kresala*. «*Garoa* erromantikuago da, dotoreago —diño A. Zubikarai'k—; baiña *Kresala* biziago, jatorrago, egokiago; aundikirotsuago *Garoa*, giza-bidetsuago *Kresala*; bigunago *Garoa*, gordiñago *Kresala*: baketsuago *Garoa*, egitsuago *Kresala*. Segurutik *Kresala*'k biotzetik urten eutsan Agirre'ri ta *Garoa* billatua izango zan; *Kresala* ezin kontatu ala ugari ta ezin batu ala jausi-

ko zan bere lumatik, eta *Garoa'n* burua nekatu biarko eban; *Kresala'k* berez urtengo eutsan ta nai-ta izkuntza sakon ezagutu ta jator erabilli, *Garoa'k* nekea emongo eutsan. Niretzako *Kresala* berezkorrago da, ziatzago, erabillazan gizonen ezaupidetsuago eta sentikorrago. Nor-tasun geiagokoa. Eta, esakerak balio ba'dau, zazpikiago, barruan gorde ezin ala gertaera eta esakera igarten diralako *Kresala'n*». (*Zeruko Argia*, 1964, garagarrillak 14,5 orr.)

Lur barruan jaio ta bizi dan bateri, ostera, ez diñotso ainbeste *Kresala'k*; *Garoa'k* zorutzen dau, berak bizia baidakus irakurgai orretan. Ezta arritzekoa, beraz, Aita Lhande'k, naiz-ta Baiona'n jaioa izan, onela idaztea: «*Garoa* da gure Txomiñ'ek idatzi duan irakurgai ederrena, ta beiñere euskeraz idatzi izan dan ikusgarriena dala baditeke. Kondaira polik mee baten inguruan egilleak euskaldun nekazariaren bizitzako egikizun geienak josi ditu, ala nola, artzaigoa (I ta VII'g. buruetan), landako lanak (II ta IV), karobiaren berotzea (22'g. orr.), ogika ta ogi jotzea £ 23'g. orr.), eztaiak (50-5 'g orr.), aizkolariak (84 ta 103'g. orr.) ta abar. Gure oitura orieri lotuak diran euskerazko itz zarrak aditu ta bildu ditu. Ortik dator-kio bere euskeraren garbitasun ta aberastasuna. Norbaitek iñoiz gure izkuntza txiroa dala balerasa, irakur ditzala *Garoa'ren* 3'garren orrian Agirre'k «otsa» esateko jarri dituan ogei itz berexiak». (*Itzaldiak*, 1920, 110 orr.)

Istillu ontan nor ete da errazoidun? Amoroto'n jaioa naz ni, umeurteak baserrian emona; baiña nire erritxu jagi dotoretik ikusten da, bost kilometroko bidean, Le-keitio'ko itxas-bazter nasaia, gaur bare biar ekaiztsu. Umetan ta gero, an izana nozue sarri; txikitatik naz, bada, lurtar ta itxastar, baserri-zale ta itxas-min: mendiko edertasuna baizen atsegin yat itxasoak berea dauan lillura.

gordina. Sarri irakurri ditut *Kresala* ta *Garoa*. Zein izan yat atsegiñago? Bata bizkaieraz ta bestea gipuzkeraz, biak yataz eder. *Garoa*'k zoragarriro ta egokizko itxuran dakaz gure mendi-gizonen eta emakumeen lera ta oiturak: aita, beti azken itzaren jabe; «ama, langille ixil, ezkontza koropitzaille zuurra, etxeko ondasunen begiratzaille zuzena»; semeak, au etxe-zaintzaille ta bestea erbestera joateko griñak ikutua; giza-biotzeko maitasun bero ta gorroto ezesgarria. *Kresala*'n, barriz, era berean edesten dau itxas-aldekoena, arestian ikusi dogunez.

Jon Etxaide'k bere aldetik, 1948'ko azaroaren 9'an Donosti'ko bazkun batean egiñiko itzaldian, onela iñoan: «Nere iritzian alderik eztago bi eleberrien artean, *Garoa*, osoki jota, nun-naiko literaturetan agertu dan eleberririk bikañenakin berdindu litekela bai-derizkiot». Origaitik, bada, kritika-lan zorrotzak eskatzen dauanez epaipen arteza ta erabagitsua emotera orduko, nobela bion zeaztasun guztiak, gaia ta zaiña, aria ta matasa, notin-aiurri ta esaldien goraberak, sakonki arakatu ta berezi bear litzaitez. Lan au, orraitino, egiteko daukagu oraindik.

Lau argitaldi izan dauz. Lenengoa, RIEV aldizkarian; J. Urkijo'ri begiko yakon antza, eta berak sortu ta urteetan zuzendu eban agerkari eder orren lenengo zenbakian bertan (1909'garren urtean) asi zan *Garoa* zatika argitaratzen. Bigarrena, Durango'n egin zan Florentino Elosu'ren etxean, 1912,garren urtean; irugarrena, Tolosa'n Lopez-Mendizabal'enean, 1934'an; eta laugarrena, Zarautz'en 1956'garrenean, aita Prantzisko Jauregi, Amoroto'ko seme argiaren ardurapean, aita K. Iturria'ren itzaurre mamintsu bategaz.

Ni ta Ni. Auxe zan Agirre'k azken-orduan esku artean erabillen eleberria; euskal erdi-aroko goraberak, Oñaz

ta Ganboa'tarren arteko liskar ta burrukak aitaturik laugarren lan bat egin nai izan euskun. Baiña berau amaitu orduko, Jainkoak bere atsedean gozora eroan eban. 1917'garren urtean, «Euskal-Esnalea» aldizkarian argitaratu ebazan zati bi. Besteakaz zer jazo zan? Aita Lhande'k au diño: «Uste izan genezake bere azken-idazki au eiñ bat aurreratua zala, berak aspaldiz geroz aitatzen zigun-eta, biok Zumaia'tik Getaria'raiñoko bide ikusgarrian izketan bagenenbiltzalarik».

Eta, azkenean, begoz emen josulagun erne onek, euskal nobelagille ta nobela-gaieri buruz diñoskuzan itzak: «Agirre'k, itzaltzean, guri euskaldun idazle ta batez ere irakurgaikiñeri jarraitu biar diogun bidea erakutsi digu. Agirian jarri digu emen bertan, gure asaben oitura zarretan, gure nekazari, artzai, arrantzaille, langille, aurtxo, neskatxa ta agureen urrats edo pasoetan, ta gure Euskalerria'ren mendi, landa, baso, ibar, erreka, basetxe, ola, igar eta eleizetan idazgaiak badauzkagula baitezpadakoak. Naikoa da gure lur mamintsuagana uzkurtzea artatik diran uzta ikusgarrienak biltzeko, Nola'tar Paulin doneak zionaz : «Landu, anaia, ta iker ire erri onen lurra, ta sortuko dizkik uzta aberatsak ogiaren mamiaz beteak». Itz oneik gogoan zitularik, osotu eban aita Lhande'k berak be bere *Mirentxu* irakurgaia.

Olerkiak

Agirre'k idazten asi-barri zala, munduko idazlaririk onenak lez, olerkitxoak borobildu zituan lenengo. Nik dakidanetik, 1890'an Donosti'ko «Euskal-Erria» aldizkariak argitaratu eban bere lenengo lana, *Ipuia* deritxon poesi laburra. Lau ahapaldi ditu, zortziko nagusitan egin-

da. Urte atan eta aldizkari aretan argitara emon ebazan gaiñera *On Pedro Nobia Salzedo-kuaren jaiotzako lelengo eundikan, Aritzari ta euskalduneri. Naikua juat, Mariñela, Ama bat eta Itxas-aldian*; urrengo urtean, barriz, *Kantariak eta Itxas-ertzian. Zer pakeal*, 1895'an; *Gernika'ri ta Agure-kanta*, 1896'an; *Jesus'en Biotzari ta Ai balekitek!*, 1897'an; *Seaskatxo bat*, 1898'an, Segura'ko euskal jaietan saritua.

Euskal jaien XV'garren urteko batzarrean olerki-sariketa izan zan Arrasate'n, 1896'an; bigarren saria jaso eban Txomiñ'ek bere *Agure-kanta'gaz*. 1897'an, Oiartzun'go euskal jaietan be bertso-sariketa; Agirre'ren *Ai balekitel* olerkiak aldeera edo accessit merezi izan eban; jai ontan Blas Pradere'k, P. M. Otaño'k eta Baleriano Mokoroa'k saria jaso eben; Miguel A. Iñarra'k, Txomin Agirre'k, joxe Iñazio Garmendia'k eta Marzelino Soroa'k aldeera. Azkue zanak bein, 1897'an, Jesus'en Biotzaren gorapenez zer-edo-zer egitearren, euskal musikolari guztiei musikan ipinteko iru bertso pillo bialdu eutsoezan. Bertso oneik Agirre'k onduak ziran : ogei ahapaldi guztiz.

Aitatu doguzan oneititik batzuk, *Sara'ko Lorea ta Lora batzuk* «Euskalzale»'n be argitaldu ebazan; baita beste bi «Euskal-Esnalea»-n be, *Seiaskatxo bat* 1911'an eta *Ondarrabi* 1913'an. Ba-ditu oindiño beste amar bat Arturo Kanpion'ek erderaz egin ta Agirre'k euskeraztu eban *Larralde'ko Lorea* deritxon irakurgaietan. «Itzulpen arrigarria —iñoan Kanpion'ek—; oso apaiñ ta txukun egiña». Izan be, ederto bai ederto egiña dago, itz lauz ta bertsoz. Ona adigarri bat. Prantzi'ko matxinada dala-ta, gizon gaiztoz bete da Sara'ko erritxoa; zar ta gazte, arri egiñik, onela diño e :

«Guda gizona betarik daude euskal ibarrak
Bi agintzalle biral dizkigu beren Bilzaarrak,

T'erririk-erri ei deramate urkamendia
Isuri nairik baso-mutillen odol gorria
Ai! Arpegiko gorriantz eder arrosaduna!
Orra biurtu ikaratuen zurbiltasuna!
Antziñetatik izanduarren ainbat eraso,
Egundañotan onelakorik ezta emen jaso.»

Munduan iru gauza doguz kantagaiz gaiñezka: beian lurra, goian zerua ta alboan itxasoa. Agirre'k etzitun sapuztu iru gai-arrobiok. Izadiko ederra ta barnean sor-turikoa, gogai sendoz ta biotz-zauskada biziz jantzi eba-zan. Beraz, olerkari yaukal dogu.

Ipuiñak

Izkirimiri, alegi ta ipuiñak literatura guztietan erabilli ditue idazleak erria eskolatzeko; ebroetarrak maixu gen-duzan orretan, eta Jesukristok berak be, ia beti, ipuiña ta alegia erabilli zitun bere goi-irakatsiak erriaren biotze-an ereiteko. Agirre'k ez eban bere maixuaren bidea aztu, ta gorago aitaturiko eleberri ta gertirudietan ez-ezik, beste idatzi txikiago batzuetan be jokabide bardiña artu eban, erriari leun ta gozo atsegiña emonez erakusteko asmo ta gogoagaz.

Sail onetan onetariko batzuk baiño ez ditut sartu. Onda-rrutar idazle trebe au lenen ta bein apaiz, eliz-gizon gen-duan. Bere bizitzako urrats guztietan arimen ona billatu bear eban naitaez. Bere ipuiñak be, bada, elizkoiak izan bear. Bioaz emen izkirimiriak eta itxas-kutsuko batzuk, elizkoiak gerorako itxirik.

Itxas-aldeko semea gendun Agirre; itxasora begira jaio, bizi ta illa. Itxas zabalera begira bizi izan zan batez be,

eta dan lez margoztu euskun bera: batzuetan larri ta mingots, beste batzuetan bare ta atsegingarri. Euskal elertian berau izan dogu itxas-kantaririk bipil ta bikai-ñena. Lenengo «Euskal-Erria» aldizkarian, 1890'an, eta gero «Euskalzale»-n, 1897'an, argitaratu eban *Buru-azurra*'ri kresal usaiña dario; *Anton Betosko* ta *Lenbiziko samiña*, barriz, ezin obeto egiñak biak, itxas-bizitza lardaren argazkirik bete cgiazkoenak doguz. Egilleak bai dakiala giza-biotzari dardar eragiten !

Agirre-ren lenengo lanak dira oneik, baiña oso apain ta ikussarri borobilduak.

Eliz-gaiak

Ona lau ipuin elizkoi eder-ederrak : *Gabona ta Egunona*, *Jesus Umearen estalkia*, *Lulu ta Mañu* ta *Lañoa ta Griña*. Lenengo biak «Euskalzale»-n argitaratu ebazan, irugarrena «Euskal-Esnalea»-ren *Esku Egundiya'n* (1910) ta laugarrena «Euskal-Esnalea»-n (1911).

Baita «Euskalzale»-n azaldu ziran beste lantxo batzuk be : *Pulvis es*, *Convertimini*, *Maitetasuna*, *Iuxta crucem*, *Gogamenak* eta *Jesus'en Nekaldiko itzaldi luze bat*; «Euskal-Esnalea»-n *Esaera bereziak* (1913) ta «Cooperador del Clero»-n (Gazteiz, 1915) *Sept.em Dolorum B. M. Virginis* idazpurua dauan itzaldia. Ba-da oindiño beste eliz-itzaldi mordoska bat argitaratu barik.

Kondaira-kimak

1890'garrenean, Aita Larramendi-ren eriotzatiko bigarren eun urte-burua zala-ta, berak idatziriko *Aita Larra-*

mendi'ren Bizitzaren berri labur bat saritu eutsoen Donosti'ko euskal jaietan. Lan au «Euskal-Erria»-k (1890, **XXIII**, 545 orr.) argitaldu eban lenengo, eta «Euskalzale»-k pero (1898, 388, 397, 421).

1892'an edo, ostera bat egin eban Agirre'k Erroma'ra. Orduko gorabera ta tipi-tapa guztiak —bizi bizi ta oarkor alan be— *Joan-etorri bat Erroma'ra* jan luzean damoskuz. Au be «Euskal-Erria»-k argitara eban lenengo, 1892'an, pitinga bederatzi zenbakitan, eta «Euskalzale»-k gero, 1899'an, amasei ataltxotan.

1895'an beste lan saritu bat: *Iziar'ko Amaren kondaira laburtxoa*. «Euskal-Erria»-k dakar 1895'an (**XXXIII**, 72, 133 ta 166 orr.).

1898'an, Zestua'ko euskal jaietan, Gipuzkoa'ko Aldundiaren aurrean egin eban itzaldi ederra «Euskal-Erria»-k dakar 1898'garren urtean (**XXXIX**, 285 orr.).

«Euskal-Esnalea»-k (1916, ijibeltza 30, 122'g. zenbakian) Bilbao'ko Campos Eliseos antzokian Agirre'k irakurritako itzaldia.

Eta, atenez, RIEV aldizkariak dakar (1918, IX, 69 orr.) *Idia elizan*, euskal erriko oitura zar baten barri emoten dauan lantxoa.

Erderaz be argitaratu zituan beste lan txiki batzuk, bere-bereak eta itzulpenak. Antonio Arzak'en «Euskara» (*Euskal-Erria*, 1891, **XXIV**, 60 orr.), *La montaña, Pobre-cilla, Mi tierra* (Euskal-Erria, 1892, **XXVI**, 540 ta 541 orr.) ta abar, euskeraztu ebazan; eta *Zumaya, Apuntes histórico-descriptivos* (Euskal-Erria, 1900, **XLIII**, 278 orr.), *Bein da betiko, recensión* (Euskal-Erria, 1893, **XXIX**, 299 orr.), *Un bascongado ilustre y filólogo eminente; breve noticia biográfica del P Larramendi* (Euskal-Erria, 1891, **XXV**, 105, 129 ta 161 orr.) ta *Historia General del*

Señorío de Bizkaya, por el Dr. Estanislao J. Labayru (Euskal-Erria, 1902, XLVI, 20 orr. ta 1903, XLIX, 82 orr.) iatorrak ditu.

Ona, irakurle, bilduma au egiteko nik aurkitu al izan dodazan Txomin Agirre'ren idazlanak. Oso ugari ta opa-roa zan, dakigunez. Aldizkari-buru askok eskatzen eutsoezan lanak. Augaitik, ba-leiteke oindiño nik esku artean euki ez dodan aldizkari, liburu edo egunerokoren baten aren lanak izatea.

Aurtengo omenaldiak

Noizik-bein errietan sortzen diran gizon andiok goratu ta omendutea, zuzen eta egokia da, atzekuon akuillu ta jarraibiderako be. Ondarru'k giro ederrez ospatu zituan, aurtengo bagillaren 7'tik 14'ra, Txomin Agirre'ren aintza ta gorapenezko jaiak. An batu zan Euskaltzaindia, baita izlari errimeak, Erkiaga'k, Extaniz'ek eta Zugasti'k, ango bazterrak girotu be. Txalo ta musika, poza zan nagusi. Eun urte-buru ontarako Belaustegi'k musikea ta A. Zubikarai'k izkia beren-beregiz egiñiko ereserkiaren durundu gozoa !

«Gogoan zaitugu, Txomin Agirre,
Ondarru'ko seme argi ta errime,
«Kresala» ta «Garoa» —ren egille
Gure Euzkera zarraren ongille»

iñoen areto ta kale-bazterrak zoli ta ozentsu.

Kalerik kale euskai iduriak, eta tanbor-otsa. Eta bertsolariak, Arregi, Azpillaga, Lazkano, Agirre, Mugartegi ta Ibarzabal, kanta-kantari. Aresti, Lekuona ta Arrue'ren

etan» antzerkia, Bilbao'ko orkestalariak lagunduta; Deba ta Elgoibar'ko antzeziariak, Donosti'ko *Goizaldi'koak*. Azkenengo egunean, 14'an, barriz, emen ziran Bilbao'ko Gotzain eta erri-agintariak, emen ziran euskal dantzari talderik onenak, txistulari taldeak, Ondarru'gaz batera, omenaldirik gartsu ta joriena Agirre'ri eskiñi naian.

Baiña, onegaz naikotu eziñik, aurtengo abenduaren 20'an Lora-Joku ta guzti beste jaialdi eder bat ospatutea erabagi dau Ondarru'ko Udaletxeak. Lorazko Jokuetan amabi sari banatuko dira, agertzen diran lanik onenen artean: lanok olerkizkoak, itz-lauzkoak, teatrozkoak eta musikazkoak izan daitekez.

Aldizkari ta egunerokoak be urte-barru onetan gailendu izan dabe Agirre'ren izena; Ondarru'ko «Bogaboga...» ta «Zeruko Argia» batez be arduraz leiatu dira izen orri merezia emoten. Bertsolariak, ostera, goi be goi jarri dabe; ta ez bertokuak bakarrik, urriñekoak be euren txinta gozoak entzun-erazo dabez. Ona iru ahapaldi ixildu eziñak. Odolak odolari dei, ta Perigueux, berrogetamar milla biztanle ditun gaskoin arrantzale erriko Piarres Heguito'k, Ondarrutarren maitaleak, Txomin Agirre'ri, bere jaiotzako len eun urte-buruan, egiñak dira. Irakur:

«Agur, Ondarroa'ko itsaso bazterra!
Ehun urtez uhinak jotzen du leihorra,
Rango «Goiko kalean» sortu zen mundura
Domingo de Agirre, Euskalzain suharra,
Idazle, olerkari: hau apez zuhurra!

Apez saindu bat. eta arotzen semia
Laudatzen du Jinkoa maitatuz herria
Hedatu behar dugu bere kar handia,
Bizi dadin betikotz Euskera garbia,
Biotz horotan sartuz Agirre'n bizia.

Zubikarai jaunari eskaitzen dakot nik,
Eskerrak, goraintziak, bainan urrunetik...
Zeren, Ondarroa'ko berriak ukaník,
Kaskoin-herri txar hunian, Perigueux'n izanik,
Iduri zaut nizala urbildu etxetik!...»

Ondarrak deritxogun bilduma au be, Txomin Agirre'n guztizko goratzarrerako, aletxo bat besterik ezta. Gurari bizi onekin : Ondarru'ko seme argi orrek idatziriko liburuak umetatik guri erantsi euskun irakur-miña, euskeraganako maitasuna sortu dagiala millaka ta millaka biotzetan. Bai, aintzazko goresmenok uzta eder baten ereintza beitez euskal lur emokorrean.

Larrea, 1964 - IX - 15'an

GERTIRUDIAK

Gaur, askotan, irakurgai bat egin nai danean, gauza bakan ta oi ez langoen billa ibilten gara. Lenagokoak, gei-enez, gauza txiki edo uskeri batetik ekarren irakurgai baterako gai-matasarik apaiñena.

Agirre'ren bizitza oso baketsua ta jazoera latzik bakoa izan zan: lekaimetxo batzuen kapellau ta arima-zaiñari yagokona. Ez eban euki lazkeri, etsaikeri ta aurkakorik, ez egikizun arrigarririk: beretarren artean, lau ta soil, gozo ta baketsu igaro eban bizialdi osoa. Itxasoa ta lurra, ta bion artean eukal erri txairoa.

Ikuspegi onek ez eutsan ziurrik asko zabaldi lerdetik edo gai arrigarririk eskintzen eleberri edo nobelak tai-utzeko; bere idurimena ta biotza arrotu la biztu-azoteko ez eukala esan gengike bultzagai askorik. Alan be, onakoxe gauza errez ta kaskarretatik atera oi dau benetako

artista ta ertiliarik bere lanetarako bear dauan piper ta ezita; egiazko artista danak, ortxe sendiko gozotasunean dauka liburu-gairik naikoa.

Jauretxe orretan sartu oi dira egiazko artistak, eta bertako txokorik ezkutu ta ixillenean—famili naiz erriko suete ta eskaratzean—egokiturik, gure aurretikoen toki done orri darion arnas illezkorrez jaubetu itzal ta begirune andiz. Ortxe baitago gure zarren arima ta arnasa; ortxe baitagoz gure izanaren zatirik lirain samurrenak; ortxe baitago gure egikera berezia, gure-gure dana bere tasun guztiakaz jantzi ta edertua. Ortxe nabari daikegu oraindiño gure aztarna ta lorratz bizia.

Onek eztaula istori andirik? Gure asaben negar ta pozaldia, biotz-samin ta garrasi gozoak ortxe ez al dagoz? Eta ori ez al da istori? Gure Aguirre'rentzat bai. Ta ez eban geiagorik bear izan irakurgai bikaiñak osotuteko; itxasoa eukan eskumatik eta lurra ezkerretik, eta euskal erri bat —Zumaia— bien artean. Itxasoa ta lurra, Euskal-erri osoa, kondairaz ta gauza zoragarritz gaiñezka. Ba-dau, beraz, gairik naikoa nobelagiñarako.

Eta euskal jenteari, izakera berezian begiraturik, "arlo goi ta meiak utzirik, sail errex ta adigarriak" orrentzat idazten saiatu zan. Agirre, beti be, errez gozoa dogu; izkuntza edo euskera lau bigunekoa; gai edo arlo guri ta barre-eragille zalea. Irakurgaiak irakurteko dira, ta naitaez euskera adierrezean egin bear; gai ulergarriak aukeratu bear, eta euskaldunarentzat gairik ulergarrienak ez ete dira bere goraberak, bere esanak eta bere eguneroko bizi-tza?

Kondaita edo antxiña-antxiñako euskal gertaera bat, Erriktruda deunaren bizi-tza, gaitzat arturik, osotu eban bere lenengo irakurgaia: Auñemendi'ko Lorea.

Baiña gero, kondaira zarrak jostea baiño onurakorrago

iduritu yakon berak bere begiz ikusiriko gauzakaz beste biziago zerbait osotzea. Berberak diño Kresala'ren itzaurrean: "Bertan agertuko diran gizon da emakumeak ez-tira neure irudimenak asmau dituanak: oso itsua ezpanago eta amesetan ezpanabil, bizi-biziak dira, Arranondo'ko sardiñak legez; nik ikusi ditut Arranondo'n eta edonok edozein itxaserritan ikusi daikez".

Gero Garoa idatzi eban, euskeraz oraiñarte idatzi izan dan nobelarik ederrena. Gai ta matasa txanbelin baten inguruan euskaldun lugin la nekazarien bizitzako ainbat gauza ta jolas eder püotzen ditu, euskerarik garbi la aberatsenean.

Azken orduan, Jaungoikoak berera eroan aurretik. Ni ta ni, Oiñatz ta Ganboarren arteko liskar kondaira gai arturik, irakurgai polita idazten ziarduan.

Bitartean, egia, beste lantxo baizuk be osotu ebazan irakurgai txiki labur antzera. Polito idatziak, emen irakurri daikezuz batzuk.

IRU ERESI

Askotan esan oi da, ta egia anditzat daukat, lurrean izaten diran gertaera bakotxaren gaiñean bere iritxia eztaukan gizon bat bakarra eztagola, batzuetan emon, erakutsi edo agertu gura ezpadau bere. Baiña ezta izaten bakotxak bere adimeneko argi erraiñoaren indarraz asmau edo billatua. Gizonik geienak beren zentzun guztiak ugarturik legez, ta adimendua lotan edo lizuntzen euki oi daroe, bapere lanik eragiten ezteutselako. Orregaitik euren egikizun guztietarako besteen argi-bidea ta esana bear izaten dabe geienetan edo beti, ta iñok zirikatu ezik, ez leukee oinkada bat bakarra egingo.

Zeintzuk dira, gaur dan egunean bertan, gure Euskal-erri errukarriaren samiñak gozatuteko lanean diarduen gizon berezkor argitsuak? Euskal izkuntza ederraren gaiñean bear dan era ta zakontasunagaz lan egiten daben

gizonak zenbat dira? Iru edo lau, edo bost edo sei; edozetara bere gitxi: beste guztiok bataren edo bestearen eritxikoak gara; baiña geure aldetik ondar ale bat eztoгу ipinten..

Ozinbeltz'era batu ziranetik geienak onetariko gizonak ziran: biotz andikoak, euskaldun guztien antzera indartsu ta azkarrak, mendian jaio ta azirikoen taiuan.

Iñoiz bere siñiztu bagako gauzarik ez eban esango; baiña bai agintarien esana errez siñiztu, ume batek gu-rasoarena legez. Ta bein siñiztu ezkerok, olango gizonak siñizmenaren alde ipinten dabe laster adimen igartua, euren biotz andia... ta ukabill gogorra.

' rudari nagusien artean iritxi bi egozan: batzuk guda zorrotz ta ikarağarrizko bat gura eben; beste batzuk, (ez geienak, baiña onenak bai) Arnoldo'k itz egin eban ezkerotik, barriro gudetan asteko mugonean egozala ez eritxoen. Lenengo esan dodan ustekoak ziran Diego Etxalar'ek ekarri zituan morrosko gazteak, eta euren guraria ez eben ukatuten. Su andi baten inguruan egozan aldra batean Etxalar'en mutillok, beste erri batzuetakoakaz batera, Otxoa'ren upalategiko sagardauak edaten, ta, olango abanguneetan oi dan legez, pizka bat birbizturik, batzuk asi ziran eresietan. Orduan, Ustaritz'ko gizon batek deitu eban:

—Non da Peru padar koblakaria? Datorrela ona, ta esan daigula eresi gozo bat.

—Emen al da Peru padarra? —itandu eban besteak. Peru'k, alargundu zan ezkerok, eztau bere Txoldogain'go txabolatik lagun artera urteten, gertaldi andi batean ezpada.

—Bai, emen da —erantzun eban Ustaritz'koak.

—Datorrela bada, datorrela —deadar egin eben guztiak. Eta esan ta egin, bere eske joan ziran norbaitzuk, eta

ekarri eban laster, beste lagun batzuen artetik, gizon andi, gurgarri, urteakaz makurturiko bat. Txaloka artu eben upalategiko jentek. —Ea, zarra, ziñoen, euskal koblakari maitea, esan eiguzu gauza gozo bat. «Gazte egun-etakoa» deadar egiten eban batek. «Gudarakoa», beste batek. «Nai dabena, nai dabena» ziarduen geienak.

Koblakaririk onenetakoa zan Peru. Bekian biotz samur ta bero bategaz itz egiten, etorkizunaren barriak eza-gutuko ba'litu legez. Igarle baten antzera itz egiten be-kian; iñoiz bere aotik urtendako itz gorituak euskaldun gudarienak berotu oi zituan; baiña egun guztietan ezta gizona tentun batean egoten, ta egun atan ez egoan Peru gizonen biotzak ausardituteko tentun, gogo edo indarrean.

Koblakaria, inguruko gizonak aora begira jarri yakozala ikusirik, gogamena bere lenagoko egunetara jasoaz bakartadean itz egingo ba'leu legez, epel-epel, bigun-bigun, samurtasunik andienagaz, asi zan negarrezko soiñuan eresi au esaten:

«Neure emazte
Manu Mari,
zeiñek ein nau ni
koblakari?

Zugaz bizi nintzanean
baserri zar txukunean
gorputz sendoa neukan, ta
maitasuna biotzean!

Maite neban emaztea,
zar zanean naiz gaztea.
Maite neban! Eta nintzan
era berean maitea

Gorputzean odolak otz,
buru zuri ta azur zorrotz,
gaur... bakarrik bizi naz ni
neure errian bertan arrotz!

Neure emazte
Manu Mari,
zugaitik naz ni
koblakari».

Peru'k, biotzak bear eban antsíkaitza legez, bere lenen-
go eresi edo kantua amaitu tbanerako, entzule asko batu
yakozan, ta norbaitzuk samurturik gelditu ziran. Gizon
gazte batek ipiñi eban koblakariaren eskuetan sagardoaz
beteriko olezko ontzi bat, Peru'ri esanaz:

—Jaizu ta edaizu, lagun zaarra, ta zeure naigabeok
alde batera itxizuz. Sarrera ona egin dozu, beti legez,
baiña bigunegi edo, samurregi edo, eztakit nik zer esan
bere. Ez gaikezuz geiegi oillotu, biar edo etzi iñoiz baiño
gogorrakoak izan bearko dogu-ta. Ea, esaiguzu gudarako
eresi bat,

Peru'k, zurezko ontzia eskuetan ebalu, ezpanetara eroan
barik, zeruruntz begira, danon erdian, suaren garrak eta
biotzeko mugidaldeak gorri-gorri eukala, asi eban biga-
rren eresia:

« Neure emazte
Manu Mari,
zugaitik naz ni
koblakari».

Baiña zu baizen obeto
maite dot neure mendia,
euskaldunen jaio-leku
ta aitona zarren obia.

Arrotza emen ikustean
zaunkaz oi da zakurdia,
peri-ordu estuetan
eresi un koblakaria.

Ta eresiak berotzen dau
euskal baso-gudaria,
ta zaunkatik eztago urrin
zakurraren ainkadia...

Zenbat bidar urratu dot
oiuka neure eztarria!...
Ozinbeltz'ek zenbat bidar
entzun dau nire irrintzia!

Zenbat aldiz berotu dot
euskal gizonen biotza!
Zenbat bidar ikusi dot
nire ondoren eriotza!

Zenbat aldiz odoldu dot
neure aizkora zorrotza!
Zenbat aldiz amaitu dot
bizar gorridun arrotza!

Zenbat bidar ikusi dot
gure mutil menditarra,
besoetan ipiñiaz
ekaitz guztien indarra!

Begietan tximistea
ta iniernuko su ta garra...
Ta aren aurretik igesi
mendiz beera prankotarra.

—Ori, ori, koblakaria! —ziñoen Otxoa'ren mendekoak
eta Portun'en adiskideak—. Ainka ta zaunka, ikaratu ta
zaitu ta jan egin bear ditugu prankotarrak ostera bere.
Aurrera, Peru ! Aurrera, zarra !

«Gaur naz zarra, ta atzo gazte!
Zein arin doian gustia!
Bitartean idoro dot
urrien erakutsia.

ta bakean doianari
ortz-azurrak ezartea!

Geldi orain, menditarrak,
bakotxa geure lekuan :
elduko da ereti ona,
ta aupa, mutillak, orduan!»

«Ori, ori!» «Ederto!» «Txarto!» «Kanpora agurea!»
«Aurrera, Peru!» Jaungoikoak daki zer zarata ta nasteak
atera zituen Peru'ren jiran, azkenengo eresia amaitu eban-
ean. Bakotxak bere nagusiak eukan iritxian alde egiten
eban oiu. Milla bat keiña, betzigo ta irain alkarri esaten
nekatu ziranean, oraindik askoren orruak entzuten ziran :
«Aurrera, aurrera, Peru !» —Padarrak, oso beregandurik,
eta bapere aserre бага, beti zerura begira, jarraitu eban
erestun:

«Neure emazte
Manu Mari,
Jaunak ein nau ni
koblakari.

Illargi ta eguzki eder,
zeru goietako izarrak;
baso, txara, zugaztiak;
be-aldeetako ibarrak.

Mendi tantai, errekondo,
ibai zabal ta itxasoak,
gizonentzat sortu ditu
eure Egille Jaungoikoak.

Beragaitik bizi naz ni,
Beragaitik gara euskaldun...
Gauza guztien gaiñetik
maite dot neure Egillea!

Maite dot nik sorterrria
Maite neban emaztea!
Baiña bien gaiñ-gaiñetik
maite dot neure Egillea!

Neure emazte
Manu Mari,
Jaunak ein nau ni
koblakari.»

Peru'k bere eresiak maitu zituan, ta eskuetan eukan ontzi sagardaoz betea lurrean itxi ta aldendu zan giza-kumen artetik. Etziran gizonak berealakoan sakabanatu. Andik eta ordu betera entzuten ziran ondiño alkarri esan-en eutsezan sapokeriak, urriñeko aldetik, bata batera ta bestea bestera eioazala:

—Uutik, saskel ipurdí arrain ori!

—I, ba-dakit nik ze aizan i, ganbelua galanta.

—Baita i astaputz zantarra.

Baiña etzan ukabilkadarik izan, ta esanak aizeak eroan zituan laster; mendi egaletako oiartzunetan atsedean mailla batzuk eginda gero.

Gaberdi alderako dana egoan ixil-ixillik. Goi-aldean zeru garbi, urdin, odei bagea, izarrezko begiakaz lurrera begira; ta beian, barriz, errekatxoa menditik berako arkaitz artean zolitasun ta zarata andiakaz, ta Ozinbeltz ondoko landa lau luzean geldigeldi, iñoz esnatu ezpaleu legez; ariztiak iguiñ ta zabunik baga beso orritsuak zerurontz jasoaz; ta erretsiñol bat makal gaiñean ereslari. Gizon guztiak lotan egozan, gau ederraren apainduriak ikusteko adore barik.

(*Auñemendiko Lorea*, Bilbao, 1988, 29 orr.)

IL GAUA

Betorren gizona ta emakumea ugari Mendiola'ra, Arnoldo ilda urrengo illuntzean. Aideak, auzoak, gelditu jakozan adiskide apurrak, eta baita arerioetarikoen batzuk bere, sartu ziran jauregi atako atletik barrura, erioztaren aurrean oi dan ixiltasun ta begiruneagaz. Eriotzea /an etxe atako nagusi, ta bera esnatuteko bildurrean legez, biatzen gaiñean igoten eben goiko egotokira gizon ta emakume danak, itz bat alkarri esan baga.

Estaldu ziran aulki guztiak, bete zan mandio ta. Erdierdian, aritz olakaz antxiñetan egindako mai andi baten gaiñean ikusten zan Arnoldo'ren gorpua; Riktrudis'ek azkenengo josi eban soiñeko barri bategaz jantzirik; bizar ta ule luze zuri ederrak ondo garbitu ta orraztuak eger-tuten ziran. Bularraren gaiñean tolosturik eukazan eskuak, eta bien tartean zurezko kurutzetxo bat, kristiñautasun-aren agergarritzat. Lau argi-mutilletan egozan lau argi ta lurrezko ontzitxo batean ur bedeinkatua, eriñotz zati bat barruan ebalu.

Il-gaua asi zan. Amando, beste elizgizon lagun bi alboetatik zituala sartu zan gizntegian eliz-soiñekoakaz jantzirik; eta *Ne recorderis peccata mea, Domine* asi zan esaten latíñez. *Dum veneris iudicare saeculum per ignem* erantzun eutsen alboetakoak. Au da, euskeraz: «Lur-birakoai gogortadeko epai bat emotera zatozanean, nire erru, gaiztakeri ta utsegiteakaz etzaite gomutau, Jauna». Nire oinkada guztiak zure aurrean erabilli egizuz, Jauna», jarraitu eban apezpikoak. «Betiko desneke ta atsedena emon egiozu, Jauna, ta betiko argitasunak argi egin daiola.» «Jauna, guzaz erruki zaite.» «Jesukristo, guzaz erruki zaite.» «Jauna, guzaz erruki zaite.» «Jesukristo, guzaz erruki zaite.» «Jauna, guzaz erruki zaite.» «*Pater*

noster» esatean, Amando'k astindu eban illaren gaiñean ur bedeinkatuko eriñotza ta gizategiko guztiak, ixil-ixi-lllean, *Zeruetan zagozan gure Aita* arren egiten eben bitar-tean, eriñotzetik jausiriko ur bedeinkatuaren tanta bat gel-ditu zan, altiste eder balen irudira, Arnoldo'k eskuetan eukan kurutzearen beso batetik dindilizka, ta jausi ta za-baldu zan gero illaren soiñeko gaiñean, zerutik datozen esker on, apainduri ta aberastasunak gure arima barruetan zabaltzen diran antzera.

Amando'k, arrenak esanda bereala, berbaldi samur bat egin eban gizonaren ezerezaren gaiñean. Erakutsi eban argiro, zein neurtuak egozan gizonaren egunak, eta zen-bat doakabetasunez beteak; zein utsak ziran gure orduak, goizean eze ta eder izanik, eguerdi-ostean zimel ta gabean illik gelditzen diran lorenak legez, edo gure aurrean igeska doan keriza baten senean, edo beiñbere eraldi ta tentun batean ezin gelditu dan izatearen itxuran : jaso eban go-ren-gorengo mailletaraiño Arnoldo'ren leiñargitasun ta fede ona; ta amaitu eban esanaz, alangoak nai litzatez-keala euskaldunak errien osasunerako.

Amando'k azkenengo itzak esan zituanean, urten eban danen erdira andre alargunak, joan zan senarraren gor-putza egoan tokiraiño, begiratu eutsan artez-arte arpe-gira, laztan bat emon eutsan, ta era onetan asi eban bere eresi neurtua, astiro-astiro :

«Zu joan zara zorionera
zu joan zara, ta ni ez!
Zure il-oian laster naukazu
Uda ni bere, zu legez !

Orma zarrean nengoan untza,
jausi naz orma zarragaz:
bere azpian eguzki barik'
ni azkar igartuko naz.»

Bere barruko dolamen, errenkura edo inkesa bat legez, guztiz erraz ta berezkoa zan alargunaren asierea; baiña gogoratu yakon, ekanduak aginduten ebanez, aztertu bear zala zelan izan zan Arnaldo'ren eriotzea, ta argitaratu bear zituala ekizan albisteak, eta al ebanik gitxien esateko ustean, jarraitu eban:

((Zeiñek jan deutzaz, orma zarrari,
zeiñek jan deutzaz azpiak?
Ez prankotarren balenka motzak,
ezpada euskaldun piztiak.

Auñemendi! Esna egon zaite!
Piztiak dabilz auzoan,
ta kanpokoak gitxi dirala
piztiak zure kolkoan!

Auñemendi! Pizti dongea
biotza jaten neuk daukot...
Eta, alan bere, senarra legez,
nik parkatuaz il nai dot.

Jan zuk, piztia, jan zuk biotza,
ta ni lenbait-len amaitu:
nire biotzak, len ezpaziñan,
euskaldun egingo zaitu.

Euskalduna ta leñnargitsua,
piztikerien etsaia,
neure Jesus'en lore-zalea,
gizon guztien anaia.))

Mugidalde andi bat sortu eben andre Luzia'ren berbak bilkidako gizon ta emakumien artean. Danak ekien zergaitik zan piztien ipuiña, ta guztiak ikusi eben alargunaren parkaeran biotz andi ta bene-benetako euskaldun kristiñauarena. Asi ziran murmur bata besteari zerbait esaten, baiña danak ixildu zituan Riktrudis'en jagi-

ereak. Ederra ederren artean, Beste bat ez legezkoa zintzotasunean, biotzik samurrenaren jaubea, barbarik gozonen esanlea, argia ta ona, gizategiko guztiakgandik izan zan ondo ta errukiz begiratua Riktrudis umezurtza. Joan zan gorputz illa egoan tokiraiño ta asi zan esaten:

«Aita bat neukan nik lurrean.

«Maite ninduan, egunak eguzkia maitetuten daben gisara, gauak zeruko izarrak maite dituan antzera.

»Nire sita il da? Ez, nire aita ezta il. Ara emen bere gorputza : arimea Jaungoikogan dago : bata be.steagandik urte batzuetarako aldendu dira.

«Lurreko gizon gaiztoak il gura izan ba'dabe, eztira gomutau, gizagaixoak, arimea ezilkorra dala.

«Umezurtz errukarri bat egiñik gelditu ete naz? Ez zeruetan aita Arnoldo ta Aita Jaungoikoa.

«Ezteuste, bada, gizon dongeak bapere kalterik ekarri. Negargarrizko leku onetan malko batzuk ixuriko ditut; baiña zerutik legortuko deustez malkoak aita biak.

»Eztaukat, bada, zer iñori parkatu; baiña baldin ba'neuka, poz-pozik eta arima guztiagaz parkatuko neuskio edozeiñi.

«Neure aitak eta neure amak alan erakutsi dauste: alan agintzen deust neure Jaungoikoak.»

Riktrudis'ek amaitu ebanean, bere eresi ederto esanaren soiñua aidean gelditu zan, zidarrezko ezkillan baten durundia legez, belarrietan *gili-gili* gozo bat egiten ebala.

—Ze bigun ta eztitsu agertzen dituan aingerutxu orrek Jesus'en legeko erakutsiak eta bere biotzeko gurari doneak! —zirautsan atsotxu batek alboko lagun bati. —Naiago neban bere jardunak geiago iraun ba'leu, arimarako argi barri bat emoten deust-eta.

Zein zan Il *gauan* urrengo berba egin ebana? Aideak, Mendiola'n sartu ziranean, gorrotorako egozan, ta zer esan ez ekien jauregikoen parkameneko eresiak entzun zituen ezker, etsai apurrak lotsaturik gelditu ziran, iñok ez eukan geiago itz egiteko usterik. «Toki!» —esaten dau onetan, esku-makilleagaz beia jota, zutiñik egozan gizonen artetik erdira sartu nai eban gizon zar batek. —«Toki!, neu naz orain, senitartekorik lenago ezpadago.» Peru padarra zan. Joan zan gorputz illaren ondora, esku biak **ipiñi** zituan makillan, begiak jaso zituan goruntz, ta asi eban itz neurtuetan bere eresia.

Nik eztakit ze neurritan erestu eban, baiña esan zituan gauzen mamiña au da :

«Ai, Amoldo. Arnoldo! Nok esango eban zure illoi aurrean etxeko emakumeak bakarrik izango zenduzala ereslari?»

«Gizonik gizonena, gudalaririk argi ta sutsuena zu izan zara Euskaerrian.

»Lekobíde Bizkai'ko gizonen jaun andiak ez eban bere buruan zuk beste argitasun ta besoetan zuk beste indar.

»Aitor il zanetik ona, ezteutsa iñok nire Sorterriari zuk beste ondo egiterik emon.

»Ta ez dakust emen euskaldun agintari bat bakarra, lurperatu zaiezan haiño lenago zuri esker on bat emoteko.

«Kristiñau bizi ta kristiñau il zara : ondo datoz, bada, zure ondoan kristiñauen parkameneko eresiak.

»Baiña baita bere bizi izan zara euskaldun, ta euskaldun il, ta eztira txarto etorriko Sorterriaren eresi esker-tsuak.

«Neuk esango deutsudaz, antxiñetako lagun zar maitegarria. Neure txabolatik onaraiño ez naz bestetara etorri. »

Atsedentxu bat egin eban emen, arnasea artu eta begietatik bera etorkozan malko-ariak legortuteko; ta, gero, gaztetako egunetaraiño igonaz, jarraitu eban :

«Mendian jaio ziñan ta mendian bizi mendizale, menditarrek ondamuz aspertu zaituen artean.

»Zu ta ni mutikotxoak giñanean, alkarregaz ibilli oi giñan basoan, arrotzak orporik ipiñi eztaben toki itzaltan.

Odei-aldean erroiak *kras-kras*, zugaztietako adarrik gorrengotetan miruak dantzari, arkaitz-zuloetako sasi baltz tartean otsoren bat marruaz: ez genduan orduan beste gauzarik ikusi ta entzuten.

Gizondu ziñan gero, ta zure aurrean otsoak bildurrez igesi joaten ziran; eta erroi, buzoka ta miruak sarri ikusten genduzan goietatik jasten zuk ildako euskal etsaien aragi gordiña jatera,

Euskalerrriaren kontra etozan baxotxean, zenbat pran-kotar amaitu zenduzan! Zenbat)', aizkorakada baten, kendu zeuntsen arnasea !

Esan daiela Egurraldeko baso zabalak.

An ikusi ziran aurrez-aurre, alde batetik ule gorridun gizon andiak. Ausarditsua burutzat ebela, bestetik Lauburutarrak, Arnaldo menditarra agintaritzat arturik.

A, zer ekiña ! Gogorrek dira Rin ibai-ondotik datozen gudariak, gogorrek euskal mendietako gizon abarkadunak Zein geldituko da garailari?

Batzuk gure lurra irabazi ta azpiratuteko gogoak dartzak; besteak, curen erri maitea osorik eta lokarri baga gordeteko gurariak darabilz,

A, zer ekiña A, zer aizkora-otsa! A, zer oiua! A, zer irrintziak ! «Aurrera» —deadar egiten dabe gureak—, «aurrera, mutillak».

Eta aurrera doaz, aurrera gizon illen gaiñetik. Eurena

da garaipena. Zeiñek gelditu leike oñaztarri bat bere bidean?..

Bizirik gelditu diran prankotarrak Adur'en ertzeraiño joan dira igesi. An dagoz euren deseigoa siñiztu eziñik.

Euskaldunak olango garaipenik eztabe ikusi egundaiño, agintariari eskerrak.

Berak bota ditu azpira prankotarrak sendoenak, berak sartu deutse biotzetaraiñoiko ikarea, bere deadarrak zolitu dauz euskaldunen besoak.

Aidean dakarre agintaria menditarrak beren besoetan, baiña zizpuruz eta negarrez dator, bere bizian lenengoz. Seme galant bi galdu yakoz Egurraldeko basoan..

Ai, Arnolde, Arnolde! Agintaria zu ziñan. Nok esango eban orduan zure illoiaren aurrean etxeko emakumeak bakarrik izango zenduzala ereslari?

Bazaut eta ezin siñiztu neike. Non dira euskaldun gizon andiak? Semeak il yatzuzan, lagunak, ixillik dagoz, are-rioak pozarren. Zeure mendiak etzazauz, Arnolde.

Baiña bai zeruak. Euskaldun ona ta kristiñau benetakoa izan zara. Euskaldunak esker gaiztoagaz erantzun deutse: zeruak betiko zorionean ipiñiko zaitu.

Euskaldun ona baiño kristiñau benetako izatea askozaz obea da.»

Padarrak bere eresiari azkena emonda bereala, Pedro Mari'k esan eban beste bat, guztizko samurra, Arnolde'ren seme biak Egurraldetik berak ekarri ta kurutze baten azpian ipiñi zituala gomutaratuaz.

Ilgaua amaitu zan; Arnolde'ren arimeagaitik egin ziran beste arren batzuk, eta bata batera ta bestea bestera alde egin eben Mendiola'ko gizon eta emakumeak, banaka-biñaka, naibagez, lotsaz eta errukiz beterik.

Goizalderako etxeokak bakarrik gelditu ziran ia; morroiak lotan, aideak noizean beñ zizpuruka, ta andre Luzia ta aiabea negar barrietan, euren bakartadea gero-ago ta obeto ezagututen ebelako.

(*Auñemendiko Lorea*, 100 orr.)

EKATXA

Ipargoiko aizea, geiagoko barik, bat batera ta guztizko aserre amorratuan sartu zan Arranondo'ko erritxoan. Banean ta geldirik egozan kale bazterretako paper, zotz, zakar, lasto, buruko ule ta maluta galdu guztiak, arrastaka ta bira-biraka ibilli ta gero, egazti biurtu bai-lirean, jaso ebazan aize orrek etxien buruak baiño askozaz gorago; zabalik egozan ate ta leio danak, jo au ta bultza bestea, itxi zituan danbadaka egundokorik ariñen, kristal edo leiarkien erruki bage; etxe gaiñetan ondo lotu barik egozan telia zarrak eta tellatuen egaleko arriak zatitu ziran lipar batean kalekoen kontra, ta euren bizilekuetatik urtenda, asi ziran emakumeak eta errian egozan gizon banakak itxas aurrera, egiñaletan.

—Ai ene, gure txalopak ! —ziñoan atso gerri lodi, gonamotz, esku zikindun batek, ondo lotu barik eukan buruko zapiaren atzeko txistana dindilizka, oin bat ortozik eta bestean abarketa zar bat oso narrazean eroiazala—. Ai, ene Jesus !

—Ee, Tramana, begiraaa! —deadar egieutsan atzetik eiuau beste emakume argal, zimel, azurtsu batek, leio erdika bat goitik bera egan etorrela ikusirik; eta aurrekoa, okerkera ta gorutz begira alderatuten asi zanean, piper poto maillatu baten estropuzu eginda, jausi zan

surrez aurrera, bere alboan leio erdikea leiarren zidarots tintintsuagaz zatitu zanez batera.

Atzekoari barre gura andia etorri yakon, baiña kalean luze egoanari begiratu bat emonda, ez eبالa miñik artu igarri eutsanean,

—Auxe da andia, nai aiña barre egiteko astirik bez, —esanda, jarraitu eban bere bidetik, arin-aringa.

Jagi zan atso gerri lodia, jantzi eban obeto oñetik ia urtenean eukan bere abarketa bakarra, esku autsez beteak igortzi zituan mokor ondoan, eta artu eban len erioian abiadea, mar-mar bere artean jardunaz:

—Zeri barre egin bear ete deutsa gero berorrek, zantar zikin orrek? Brix izango zara zu beti be, erriko aize zoro gangarra. Orraitiok o...

Itxas aldera eldu zanean aztu yakozan bereala jardunbear danak. An egozan ordurako ia errian ziran gizadi guztiak. Emen erriko abade nagusia ta ondo jantzitako gizon bizardun baltzeran zabalote bat, betaurre luze-luzetik, txandaka, uretaruntz begira, ta inguruan gizon eta emakume asko, miñagaz baiño be begiakaz geiago itaunketan; arontzatxoago, txalopa jaube batzuk eta arrantzale zarrak deadarka, deizalea azkarra bazan edo ezpazan, goizalderako ekatxa ezagutu ba'zeitekean edo ezpa-zeitekean, alperrikako eztabaideagaz suak arturik; eta beste aldean emakume aldra andia negarrez, euren gona barrenakaz malko samiñak igortzika. Aldra orretan sartu ziran Tramana ta Brix, bata txilioka ta arrantzaka bestea.

Bildurgarrizkoa egoan Kantauri'ko itxasoa. Ur-lañozko est,?lki andi bat jarri yakon gaiñalde guztian, beren itxura gaiztoko aserrea eskutau nairik legez; betaurrerik onenakaz be, uraldera begira egozanak ia ez eben ezer ikus-

ten; agiri zan itxaso apurra berde baltzeran irakindua egoan, eta irakiñaren dardareak azal guztian atara eutsazan apar zuriak j̄garian ebiltzan itxas-artz gizon jantza-illeak zirudien. An barruan, laiñoak eta bisutsak estaldurik eukazan ur gazi zabaletan, gauza arrigarriren bartzuk gertetan ziran, baga ta olatuen orruak ziñoenez.

Uste onetan egozan beintzat Arranondo'ko gizataldeak eta, beste olango eretietan legez, Jaungoikoaren errukiarri eskari apal bat egiteko asmo zuzena artu eben danak. Asi zan eliz-ekzkillarik andiena, durundirik lodi ta illunekoak, astiro astiro, noizean beñ daungada bat joten, eta asi ziran ikastetxeko mutiltxoak kalean zear, makilla baten gaiñean oial zati baltza aizeratuaz, euren erakustazillea aurretik ebiela aingeruen gisako dei zoli bigunakaz Garbitokiko arimentzat eskean eta itxasoagaz burruka gogorrean ebiltzan gurasoentzat zeruetako Aitari arren egiten.

Zelango arrena ! Gauza samurragorik eztau iñok egundo ikusi. Umeak gurasoen bitarteko, errubageak iñoiz gaiztakerian jausi diranen alde, indarrrik eztaukienak indardunai lagundu naian, aingerutxoak gizonakaitik eskaluten, negarrez geienak, negarra ezarkorra da-ta, batak bere arrebea ta besteak bere ama negarrez ikusi dituelako ! Itxas-errietako umien arrena, euren txapeltxoak eskuan dituela, begi bustiak zerura jasoaz esaten dabien *Aitagurea*, Jaunaren agintaulkira zuzen-zuzen doiala uste dot nik, eta eskari orrek, askotan, euren gaitasunak eta indarrak baiño geiago erakarten dituala etxaldera Kantauria itxasoko arrantzale gizagaixoak.

Gure mutiltxoak eliz-atean amaitu eben eskea, ta an egoan gizaldreagaz batera sartu ziran eliz barruan.

Ederra da Arranondo'ko elizea. Kanpotik begiratu ezkerro, edozeñek daki godotarren egikerarik onenetakoa

dala; barrutik zer egikeratakoa dan ezin ondo igarri leikeo. Txurrigera'ren egunetako bost edo sei elizmai edo altara daukaz, zabalak eta galantak, nagusiaren eskumal-detik Done Pedro'rena, ezkerretik kurutzean josirik da-goan Jesus'ena.

Abadeak, Jesus'en elizmai. aurrera urtenda, asi ziran *Miserere* deritxon Dabid Igarlearen arrena esaten; eta erri guztia egon zan, ordu erdiren batean, gauza danak al daikezan Jesus onaren aurrean auspez, eskaririk beroe-nagaz itxasotar guztiak osasunez etxeratu eizala eska-tuten.

Eskaririk beroenagaz esan dot, bada danok dakigu es-kari batetik bestera ezbardintasan andia egoten dana: batzuk guztiz otzak izaten dira, beste batzuk epelak; baiña beroak be ba-dira, ta, nire iritxiz, itxasoaren erdian eta itxasoaren ertzetan egiten diranak bero ta biotze-koenak. Arrisku andiak emoten deutsa biotzari astindu-rik andiena, ta biotza astindua dagoanean gure aoak gau-zarik benetako, egoki ta zintzoenak esaten ditu. Eta noiz eztabil gizona arrisku andietan itxasoaren erdian? Noiz eztagoz itxas errzetako emakumeak guraso bat edo seme maitea galtzeko zorian?

Arranondo'koak elizatik urtebanean, kai-aldean gelditu ziranak asi yakoezan albistaritzan: nasara sartu zala po-tiñ bat. geienak agiri zirala aizebeko aldetik, estu, baiña oso urrian; batzuk Getaria'ra, Donosti'ra edo Pasai'ra sartu bearko ebiela, al ba'eben. Ori zan ziñoena.

Ta egia zan. Betozen txalopak, betozen bata bestearen atzetik. Eta bakotxak bereak ezagututean, ur-txakurrak nagusiaren aurrean baiño urduriago, «emen datoz Paulo-ta», «emen datoz Jose-ta» ziarduen gizon eta emakumeak; eta umetxoak, barriz, euren gurasoak nasa ondoan ager-tuten ziranean, urte batean ikusi ezpalitue legez, «aita!».

deituteutsien indar guztiakaz, «aitaa!».. Arrantzale errukarriak, danak bustita, zurbilduta, nekatuta, auldata, etenda, edorerik bage, goseak eta egarriak amaitu bearean, gizonaren itxurarik ez ekarren; baiña lurtean oiñak ipiñita laster ondo erakustebien gizontasuna, euren umeak besoetan artu ta malko lodiakaz arpegi biguna bustiteutsiengan.

Illundu arteraiñoko guztian, eta illunduta gero be bai, arrantzialien estualdia baizen beste auturik etzan ibilli Arranondo'n, bat ezpada beste txalopa danak etxeratu ziran baiña.

Sardinzar'en potiña zan agertu etzan bakarra.

(Kresala, Durango, 1906, 12 orr.)

ZER ESANAK

Errekarre ta mendi egal zoko batean dindilizka dagoan erri koskor bat da gure Arranondo. Uretan daukaz oiñak; aldats andiak iri edo kalietan; kale batetik bestera, zearretarako arri mailla pendiz urteakaz leunduak; etxeak bata bestien gaiñean, atzeko aldea lurpean sarturik eta aurrekoen tellatutik arpegia erakusten; iñok usteko ez leukean aiña gizadi etxe bakotxean, berrogetamarretik gora beti, umeak geienak; eta leio zulo danetan atorrak eta gonak, alkondarak eta prakak, itxas gizonen jaka urdiñak eta oeko zapi zuriak esegita.

Barregarri egoten dala erri au, diñoen albo-errietakoak, leioetan ainbeste zapi euki oi ditualako; baiña Arranondo'ko emakume garbizaleak ezin izaten dabie beste legortokirik billatu. Eztago inguru guztian alperreko lurrik. Uri onen burualdetik, ondo landuriko soro, baratza ta

sagastitxu batzuk agertuten dira, eurak erne, sortu ta azi daroen guztia erriaren aora eskiñika ba'legoz legez; bealdetik, mueta guztiko txalopaz beterikako ibaia igaro ezker, aurreko beste mendiaren ondoan estu-estu dagozan ontzitegiak edo itxasoak bere goraldietan besoak zabalduteko bear daben ondartzea. Beste lekurik eztago.

Erri onetako kale bedar, oker ta aldazxuetan itxas gizonen gozategi edo ardangelak non dagozan berialaxe igarri leike, ostro berderik ikusi ez arren: naikoa da zaratarik andiena non dagoan entzuten geratutea.

Alderdi guztietako sagardantegi ta ardantegiak, danak izaten dira bardin samarrak, itxas-errietan beintzat. Sagardantegia, bada, kale arian bertan edo arri-mailla bat igonda idoroten dan kortea edo tresna zarrak gordeteko gelatxu bat, beian lurra, goian amarauna ta egur biren gaiñean upel batzuk erreskadan dituala: sagardaoa ona izan dedilla ta non jarriarik egon ez arren, ezta izaten ardurarik. Ardantegia, bada, mai luze-luze bat, maia beste luze diran aulki bi alboetan, zaragi bat edo bi bazter baten ta lurrezko pitxar morko ta leiarrezko edanon-tzi batzuk, ormearen kontra josita dagoan arasa zar batean. Ezta geiago bear izaten.

Olango etxe zuloetan sartuta egoten dira arrantzaleak nekaldi gogor asko igarota gero, ukalondoak zamau bageko mai koipetsuaren gaiñean dituela, *tabako* bedar garraz merkiena erreaz, ketan ta deadarrez beti. Olantxe egozan Arranondo'koak, esan dogun ekatxaren atzaparretatik urtenda laster.

Ta gauza jakiña: gau atako autu ta jardunak, beste esanbear guztiak azturik, Sandinzar ta bere lagunen gaiñean ziran ardantegietan, sukaldietan ziran legez.

Gure arrantzaleak, arpegi baltzeko gizonak, esku gogor ta izketa zakarrekoak izanarren, guztiz biotz samurrekoak

dira; erantzuera gaizto bat edo ukabilkada bat edonori ta errez dakie emoten, baiña baita sakelean darabilen ondo igortzitako txanpon bakarra edo eskuetan daukien azkenengo ogi zatia be; edozeñegaz ta edozergaitik asertratuko dira beingoan, baiña, ordu estu ta larrietan, biotz guztiagaz ta edozeñi laguntasuna emoten be ba-dakie.

—Txo, Mangoliño, —esateutsan, mai ertz batetik bestera, garerdiko gizon lodikote batek bere lagun bati, —nun ikusi dozue zuek Sandinzar'en txalopea?

—Guk iñun bez, azkenean beintzat; goizean geure atzetik urten dau kalara, baiña, tretzak botaten gagozan bitartean aizeko aldetik joan ete dan diño. Esnepelenak ikusi ei dau azkenengo .. Ezta, Lapikotxu?

—Nik eztot ezer ikusi —erantzueban Lapikotxu, Esnepelen txalopakoak—. Ipargoitik etorren aizeak lenengo *brastadea* arpegian emon deuskunean, «ala mutillak» deadar egin dau atzekoak eta asi gara; baiña eztoгу ezer-tarako astirik izan. Itxaso guztia itxi dau bereala ta or etorri gara gu, oker, Jaungoikoak daki zelan. Tretzak itxasoan gelditu yakuz. Ara or gure aurtengo irabaziak. Biziagaz etorri gareanean pozik, eta Antigua'ko Amari eskerrak.

—Bai, bizia da lenengoa —jarraitu eban lenengo berbetan asi zanak—. Gu emen gagoz, estu ibillita be; baiña Sardinzar'ek zer egin daben eztakigu. Getaria edo Donostia artu ezpadau, joan zan a.

—Zumaia'n be sartu zeikean —ziñoan, oraindiño aorik zabaldu ez eban gazte batek.

Eta Mangoliño'k ostera :

—Zumaia'n? Etzara txarra be, Nielga. Ezagun dozu askotan izan etzareana bertan. Ona da, olango ekatxagaz, Zumaia'ko sarrerea.

—Onezkero, ba, iñun sartu ba'litz, albisteak etorri bear

eban. Axeik e, ondo ibiltekotan, ordu bietarako edo iru-
retarako jo bear eben legorra.

—Edo ez. Zokora joan ba'dira..

Aoan pipa motza ebala ta amabost egunean kendu ba-
geko okotz-bizarretatik bera adurra eriola egoan aguratxo
batek, tunda zarra txapelean gordeaz, jo eban Mangoliño
ukalondoan, eta esatera eioan gogamena kendu eutsan
aotik:

—Zokora? Uum... —murruskada bat egiñaz.

—Zegaitik ez, ba?

—Zegaitik, zegaitik... aretxegaitik.

Begiratu eutsien danak aguratxoari, zerbait geiago
esango ebalakoan, pipeari tenga-tenga obeto biztuten eta
ke batzuk botaten egoan bitartean; baiña berak gura aiña
pipea biztu yakonean, dsangada bat ardoa edanda gelditu
zan agurea ezer esateko asmo barik.

—Txanogorri, orixe da ganorea —esautsan Mangoli-
ño'k. Eta ikusi ebanean ezeri jaramonik egin bage, ba-
rriro ia amatau yakon pipeari tenga asten zala, Mielga'ri
itandu eutsan:

—Ze gizadi darabil Sardinzar'ek txalopan?

—Gizadi ona, gazteri indartsua : Ardauzuri, Gatzbako,
Moldakatx, Artobero, Kaiua, bere seme Anjel..., ez naz
danakaz gogoratuten; baiña emeretzi lagun, geuk legez.

—Anjel be bai! Errian dagoan mutillik zintzoena !

—Gutzizkoa: argia, *saiatua*, gizartekoa, ta erramulari
ona.

—Bai aita be, garai batean. Guk u Lekuito'koakaz *es-
Iropadea* egin genduanean, orain ogetamalau urte, arek
erramoan atarateutsan *grakadea* etzan bertanberakoa
—esaeban Txanogorri'k, bigarreanean pipea biztuta gero.

Era onetako jardunean egon ziran arrantzaleak luzaro, euren lagunakaz zer gertau ete zan kezkaz beterik eta Antigua'ko Amari arren egiñaz lotara joan ziran artean.

(*Kresala*, 18 orr.)

KITOLIS

Gizon txiki polit makur bat zan au, bere sorbaldetan larogeta bi urte andi jasoten zituan gizona. Iru edo lau uletxu zuri-baltz eukazan buru soil zetakaz betean, zutiñ-zutiñik; askozaz geiago ta zuri kiskur kirikolauak garondoan, bildots edo arkume baten irudira; bepuru luze betien azpian begi urdiñ-abar bigun-bigunak, arpegi baltzeran guztiz zimurtua; oial lodi zakar arabakindua-gaz egiñiko jaka zarra soiñean; praka urdiñ zengle baltzuei eusteko gerriko tendeltxu bat mokor gaiñean, ontzizoka lodi sendoaren antzera biurtua; ta olezko *zapata*, oiñ-zorro edo trauskoak oiñazpian.

Jai-egunetan obeto jazten zan, elizarako. Urdai zatia-gaz, krusalluko orioagaz edo izurdearen zaiñagaz noizean bein bigundu oi zirean narruzko oiñetakoak, alkondara zuri garbia, zarra ba'zan be, ta txintxonezko jaka-prakak: orixe zan jai-egunetako jantzia.

Itxasorako gauza etzala gelditu zan ezkerotik, egunero entzuteban meztaxu bat, egunero izaten zan illuntzeko *errosarioan*; gaixoren bati Jauna eruan bear yakonean, an joango zan Kitolis, argi bategaz; Jaunaren aurretik eliz-jiran ibilli bear zanean, an urtengo eban Jaun estalkiaren makilla bat jasoten; elizkizun guztietan, an egongo zan Kitolis alkate-aulkiaren atzean, belauniko.

na –asi zan esaten beren aterpeko lagunai. Toleta baiño andiago enintzala, bederatzi urte neukazanean, eruan ninduan lenengo neure aitak masira: neguko izotzak gogortu eustazan azurrak, orekan; udako eguzki beroak baltzitu eustan azala; besigu ta atun tatoakaz azi ta loditu ninduen; ni be, Mikol'en antzera, itxasoan bizi izan naz legorrean baizen geiago; baiña ontzi andietan ez naz egundo ibili' ta Kantauri'ko uretatik eztot urten, nai ta naiezean edo *arribadaren* baten izan ezik. Alan be, naikoa neke igaro dot itxas orretan.

«Iru aldiz egin dot tirabira. Lenengoan, Arrio atzean, besigutan gengozala; bigarreanean, aortxe (ara ortxe) erriko sarreran; ta bietan berialaxe artu genduezan erri-tar lagunak. Baiña irugarrengoa!, itzala ta ikaragarri-zkoa izan zan irugrren ori. Ain zuzen, ibaian zear kanporuntz giñoiazanean, uragea edo erramua zala ta etzala, beste txalopa batekoakaz aserratu giñan; deadarka, zarataka ta arrokerizko berbak alkarri esanaz urten genduan ur-zelaira, ta iñori etxakon gogoratu Antigua'ko Amari beti esaten yakon Agur edo *Salbea* esatea.

«Gabon aurrettxoa zan. Ba-gagoz, ba-gagoz illunabarrean, potin txiki baten lau jaguntxu, berdeletan, Orio'ko aurrean. Bakarrik gelditu giñanian a, berandu be bazala-ta, otz be baegoala-ta, arrain pizka bat be ba-geukala-ta... asi giñan etxeruntz, *Terralxoa* egoan, legorretik datorren aizea. Jaso genduan triketa, ta ba-getozan kezka barik, atzekoak eskuak besapean berotuten zituan bitartean, eskota tosta bati lotuta genkarrela.. ta, alako baten, *brast*, joten gaitu aize bunbada gogor batek, eta *dsaust* danok itxasora, txalopa barruko arrain, otzara,

bt

soka ta tresna guztiakaz batera ta nastean. Alan be urten genduan urazpitik, or batak eta emen besteak, danok otzak ikaraz; inguratu giñan, jgarian, popaz gora egoan txalopara, ta itandu geuntsan alkarri: «gizonak, zer izan da au?» Baiña iñok erantzun bearrik ez egoan, guztiok genkian da. Ardurabagekeritxu bat, ustekida geiegia. Zeñi, baiña, otuko yakon alangorik, itxasoa bare-bare ba'egoan?..

«Egundo alango negargarririk iñok eztau ikusi. Gure urrean etzan iñor, eta antxe egon beariko genduan ur gaiñean, goizerarte. Goizerarte! Ta oraindiño, geienez be, etziran seirak izango !... Otzak eta bildurrak dardaraka geunkazan, ta amabi, amairu, edo amalau orduan egon bear alantxe! Ta, gaiñera, goizean iñor etorriko yakun ez jakin! . «Ia, mutillak, —esan euskun atzekoak, gu pitin bat azkortuteagaitik— eskeñi daiogun Antigua'ko Amari, danok ortozik eta erramuak lepoan ditugula bere elizatxora joatea, emendik onean urteten ba'dogu, ta asi gaitean orain *errosarioa* esaten». .

«Ipiñi neban neuk Ikomes (Nikomedes), neure amabi urteko seme ederra, *killa* gaiñean auspez, eta asi giñan arrenetan... Jaungoikoak ba-daki guk zenbat arren egin genduan, *Errosarioaz* ostean, zeruko done guztiai *Aita gurea* ta *Agur Maria* ta milla biotzeko eskari luze ta labor egin geuntsezan, alde batera ta bestera geure gorputz minberatua biratuteko utsunetxu batzuk artuaz... Onetan gengozala, amarrak aldean, aizeak ekarren indarrean eta txalopearen zabunetan igarri genduan itxasoak irakiñ bear ebala ta gure aurrean ebillela eriotzea. Illun egoan; belarrietara etorkigun aizearen txistuari destañazkoa neritxon; Getaria'ko ta Zumaia'ko itxasargiak agiri ziran lurrean, eta niri, illen argiak iruditu yatazan. Geu gengozan ilten osasun guztiagaz !...

«Ze ordu ete da?» —itandu euskun Matxin zarrak, eriotzondoko soñuagaz—. «Amarretatik amaiketara» —esan geuntsan. Ta berak, oraindiño belarrietan daukantan esateko erarik illunenagaz: —«Zein luzea dan gaba!» —jarraitu eban—, «zein luzea! Nik ezin neike iraun, laster amaitu bear dot, eta zuek ikusten ba'dozue gurekorik»... Ez eban geiago esateko astirik izan, bada olatuaren bultzada batek kendu euskun albotik. Orraitiño ekarri genduan atzera ta esondu geuntsan oratu eiola gogor *karelari*; baiña ezertarako ez eukan adorerik eta aotik bitsa eriola, *damu dot, Jauna, damu dot, Jauna* esanaz, an joan zan ondora..

«Itxaso geroago ta andiagoa etorren, olatuak geroago ta indartsuagoak, geroago ta mekotuagoak gengoan gu. Neke gitxiagoko egoera bat billatu naian, ain laster ipinten genduan gorputzaren astuntasuna esku baten gainean, ain laster bestearanean, orain igoten genduan *killa* gainera, orain *karelara* jatsi, gainean ezin egonda... Gau luzia zala esaeban Matxin'ek. Bai ondo luzea! Ta zer ete da betikotasuna, samiñetan egon ezkeru?... Neure semetxua, neure Ikomestxu, otzikara andiak artu eban, eta negar muxinga, inkesaka ta zotiñez, *aita* bai *aita* así yatan deiezka ta deiezka. Axe zan errukarritasuna! Aitak ezin ezer egin bere seme kutunaren alde, biotzeko negar gorria baiño besterik; aitak ezin goiza ta laguntasuna erakarri, bere bizitzea emonda be... etsi genduan, ezkiñan luzarorako. Jo genduzan beste бага batek burutik bera, kendu euskun txalopea esku artetik, eta aldebanatu giñan irurok barriro.

«Urpetik azalera urten nebanean, asi nintzan jgarian semearen billa. Ez neukan neuk orduantxe indar askorik eta arrokeri andirik bez! Idoro neban semea, ta txaloparaiño eruan be bai, ta esan neutsan txalopeari gogotik

eutsi eiola; baiña alperrik. «Ezin, aita —ziñoan—, ezin!» Artu neban orduan neure bularraren ondora, potiñaren ta neure gorputzaren bitartean ipiñi neban, ta bere soiñari ta potiñari alegiñakaz elduten gelditu nintzan... Ixillik gengozan danok, bildurgarrizko ixiltasunean. «Ikolestxu», —deitu neutsan andik apur batera—; «Ikolestxu, ondo zagoz?» Ez eustan ezer erantzun. Zelan ba, ilda egoan da!»

Negar malko lodia erion Kitolis'i bere arrigarrizko jazoerea mailla onetaraiño eldu yakonean, eta entzuten egozanak be ez eben urriñean negarra.

«Nik eztakit ze ordu inguru izango zan —jarraitu eban—, beste olatu batek txalopea ta semea besartetik kendu eustazanean, eztakit zelan oratu neutsan osterata be txalopeari, eztakit zelan egon nintzan goizeko zazpi ta erdietan Getaria'ko potiñ batek artu genduzan arte-raiño. Azkenerako, sena ta konorta galdu yakuzan, taket batzuk giñan atzekoa ta ni, zoraturik gengozan, zer egiten genduan ez genkiala eutsiten geuntson txalopeari, lapeak atxari baiño gogorrago, atzamarretatik odola eriogula... Gaixorik egon nintzan gero ia illabetean, eta sendatu nintzanezako... itxasora barriro. Baiña ez geiago Agur edo *Salbea* esan barik.»

Ixil-aldi bat egin ondorean, Kitolis'i biotzeko naigabea kentzearren, asi ziran aterpeko gazteak eresian, eta etziran geiago ixildu euren lan guztia amaitu arte.

(*Kresala*, 8" orr.)

ARRAIN SALTZAILLEAK

Arraiña polito ekarren ta, potiñak errira sartu ziraneko, an egozan nasa gaiñean emakumeak.

patik atara, garbitu ta gazitutea, txikia ba da. (Sardina ta antxobeia). Andia danean (besigu, legatz edo atuna, batez be), saltokira eruatea dabie asko, bada txalopa guztiak dakarren arraiña batera saltzen yakue mandazaiñai.

Emakumeai yagoke, gaiñera, erdal-errietara bialtzeko lantegiak erosi daroen arraiña oriotan erre ta upeltxuetan tolostutea.

Ta, azkenez, euren egitekoa da, errian cta inguruetan jateko bear dana, kalerik kale saltzea.

Iru eratako saltzailleak ezagutzen ditut: txalopa jaubien emazteak, emakume ixil ta onak geienetan; potintxuak dakarren arrain txikia, erre edo egosi barik luza-roan euki ezin dan arraiña, errian bertan kalerik kale saldu oi daroenak; eta besteai erosita auzoetako errietara al dan arrain mueta guztia eruatzen dabenak: *astodunak* deritxue azkenenguoi, astoakaz doiazalako erririk erri.

Astodunak ziran Tramaría ra Brix, edo obeto esateko, asto jaubeak, bada errietara alogerekoak bialdu oi zitu-tuen; langilleak biak eta biotz onekoak, baiña ezagutu ziranetik bala bestearen arerioak edo arerio legez bizi ziranak, eztena baiño miñ zoli ta zorrotzagokoak, aora yatorkoen zatarkeria edozeñi esan bear eutsienak, alkar ikusi orduko beti erriertan ziarduenak, atzamarkarako beti prest egozanak. Eurak ziran emakume agirakari guztien buru ta nagusi; agiraka egitea zan euren arrotasuna. Orain bat eta gero bestea esan arren, ez eutsien ardura; guzurretan iñok artuagaitik etziran lotsatuten, bada deadar andiena egitebanak edo atzamarrik sencioenak eukazanak irabazi oi eban auzia. Ta deadar, garraxi ta txillioak egiten, orrelantxe ziran ba eurak mutillak. .,edo emakumeak! Utsa, bear izatebien aseriatze-ko, ta aserre egozanean, entzutekoak izaten ziran euren

destañazko esanak .., edo ez entzutekoak, ikusgarria euren gorputz, buru ta eskuen eragin aukerazkoa.

Aitatu dotan egun onetan be, ezerez bategaitik asi ziran, era Jaungoikoak daki zelan amaitu eben aserraldia, eztarriak itxi ta zer-esanak eta indarrak amaitu yakozanean.

Otzarakada bat atunegaz etorrela, nasa gaiñean egozan emakumien artetik igarotean, bultzada bat emoeutsan otzara orregaz Brix'ek Tramana'ri, uste bage edo naita, ori eztakigu, bada era bietara gertau zeikean. Tramana'k, burua biurturik, ikusi eban bere arerioa ta asi yakon:

—Nor da berau, ainbeste leku bear dabena? Erregiña dalakoan birau natxako ta Brix sorgiña baiño ezta.

Tramana'ren esan garratza entzun orduko, itxi eban Brix'ek lurrean bere otzarea, ipiñi zituan esku biak gerrian, eta inguruetakoi begira, buruari eragiñaz, esan eban :

—Ara, ara oin be zelan asten dan kaskamotz, zikin, ordiori.

Ta, arerioari ausarditsu arpegia emonda, jarraitu eban:

—Entzuizu, Traman zabala, atso popandia, zein sorgintsulan ikusi nozu neu? Zeu izango ziñan sorgintsuan zu, baiña orditurik, eta ez zenduzan ezagutuko zeugaz ebiltzanak be zuk.

—Oredituta neu? Zegaz gero ordituta? Zeuri atzo *aman-talpetik* kalean jausi yatzun bonbillekoagaz?

—Eee? Zeeer? Neuri bonbilla jausi yatala atzo kalean? Guzurra diñozu, zaskil, zantar, txarri, urde, zorritsu, lotsabage orrek.

—Miñ emoten deutsu egiak, miñ? Alperrik ukatuko dozu ba, Marikontzek be ikusi zenduzan da.

—Marikontze eskallu, txatxala, ezkel, petralari ta zuri,

ezpa-daukazu, neuk lenago bartzak (ligarrak) ausi neutsuzalako dala.

—Zeuk bartzak kendu neuri? Eztago toki txarrean. Nire buruan eztago bartzik. Burua garbi daukat nik, Tramana: zuk, zital zikin orrek, egundo zeure bizian euki eztozun bestean garbi.

—Zegaz Garbituta? Txanton Kaiuanetik zeroiazun paitarragaz? Obeto egingo zenduan begietako nnakarrok be garbitu ba'zenduz.

—Txanton'enetik paitarra ba'neroian, ondo neroian: neuretik, ez zuk lez iñoren lepotik..

—Ja jaiiii! Len eztozu ba esan ez eroiazula?

—Len, ta orain, ta beti, neuria egia, neuriaa.

—Uutik, mielga ustel gosekilla! Zuaz nire aurretik, bestela...

—Bestela, zer? Neu joango naz, nai dotanean, zu lango emakume baldar, koipetsu, zetakaz beteriko bat neure aurrean ez ikusteagaitik...

Etzan onenbestegaz amaitu Brix eta Tramana'ren arteko ekiñaldia: aldendu ziran alkarregandik, jardunean; baiña billatu eben barriro alkar bi, iru ta lau bidarreraiño, ta an izan ziran angoak azkenerako, batak besteari oratu eutsiengan.

Askok usteko dau zatarkeri geigi ipinten ditudala emen: izan leiteke; baiña Brix'ek eta Tramana'k esandakoen laurenik eztot ipiñi; ta alan be, erritar gizonak euren txalopetako arazo ta zeregiñetan, ezeri jaramonik egin бага jarraitu eben. Betikoa zan da! Beste batzuk izan ba'ziran, baiña Tramana ta Brix... Ba !...

(Kresala, 66 orr.)

Ura zan gizona, ura!

Zazpi oiñ ta erdi bai luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.

Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zain-suak, txit azkarrak bere oiñak, zindoak bere bular-auspoak.

Irurogeta amabi aldiz ikusi zuan, Aloña mendiko ariz-tietan, ostro berdea berriz jaiotzen; baiño etzion eramango emeretzi urteko mutil batek ez aizkora jolasean, ez burni astuna jaurtitzen, ez mendietan gora edo ibarrean zear laisterka.

Kaiko andi bat esne goizean jan, azpantarrez izterrak estaldu ta makilla bat eskuan artu ezker, prest zegon egun osoan, zein ariñago bezela, beorren atzetik ibiltzeko edo, neke askorik gabe, ardi galdu gaixoaren billa gau guztia igarotzeko.

Argiak ziran Joanes'en begi gozoak. Oitua zegoan Joanes zerura ta lurrera, gabaz ta egunez, arreta andiz begiratzen; ta iñork baiño lenago ikusiko zuan, goi aldetik, odei tarteko arranoaren ibillera apaiña edo ia gizon danentzat estaldurik zegoan izarraren kiñua, ta lur aldean, lokatz bigunetako abere oñatza, bide ondotik joan ziran eperren aztarna, sasi maxdularen ertzeko erbi-oi zapala, arkaitz zuloetako egazti arraparien kabia, ta an be-beian agiri zan urlia erriko orduari zar ta illun samarra.

Ernaiak ziran Joanes'en belarriak. Oso egiña zegoan Joanes mendi oiartzun guztietara. Milla aldiz bai entzun zituan, bakartasunaren erdian jarrita zegoala, urrutiko trumoiaren orrua, ekaitz aizearen durundia, artzaiaren dea-

ren arnasotsa, otsoaren aiaraua, azeriaren zaunka, beorren irrintzia, mosoiüoaren oiua, basauntz bildurtiaren zalaparta; abere arranen dulun-duluna, ardien bee negartia, suge zarraren txistua, belien garraxi latza, zozoa-ren txortxorra, txori kantari askoren txiotxo alaia, erre-kastoen pol-polla, zugatz estreon pirpir biguna, eltxo gogaikarrien zunburruntxoa... ; itz gutxitan esateko, iza-kiak berez dituan ra mendi basoetan diran abere, pizti sortutako gauza guztien amaigabeko soñu txiki ta andi, ixil ta bizi, garratz ta gozo, miñgarri ta eztitsu, pozkor ta ikaragarritzko danak. Berialaxe antzematen zion Joa-nes'ek nondik zetorren soñua, ta baita ere esango zukean garbiro ta zuzen zer zan ta non zegoan soñu bakoitzaren jatorri ezkutua.

Etzan laones jakituri andikoa, baiña bai asko ikusia, ta asko ikusi duan gizonak beti daki zerbait, eta sarri jakintsu usteko askok baiño geiago.

Ba-zekian non ta noiz jaiotzen ziran gibelurdiñik go-zoenak eta zein tokitan zeuden katramilla, belatxeta, ka-r-raskilla ta beste orrelako belar mota gizonarentzat osa-sungarriak.

Ba-zekian non idoroko zituan artaldearentzat bear zi-ran janaririk on ta egokienak.

Ba-zekian nola sendatu bear ziran beor, bei ta ardien zauri ta gaixotasun ezagutuenak.

Ba-zekizkian baso guztietako laster bideak eta bost ordu bide inguruko arkaitz zulo ta aterpe denak.

Ba-zekizkian zer leku zeuzkaten goi urdiñean izarrik nagusienak eta artizarrak batez ere. Eguzkian bertan ikus-ten zituan, geienbat, egunaren orduak; illargiaren jiran, aizeak zeraman bidean ta laño ta odeien egoetan irakur-tzen zuan urrengo egunerako giro ona edo giro txarra.

Ba-zekian, gaiñera, ta au zeukan gauzarik omentzat, guraso zarrala erakutsi zioten Eleizaren legea ca Jesu-kristok lurtean erabilli zuan bizitza samurra, ta lege ta bizitza oiezaz bakartadean gogoraturik, ikasi zuan, dana Jaungoikoari zor zion gizonak txit apala bear zukeala izan, bere nekietan patxada andikoa ta lagun urkoaren naigabietan egiazko onginaiz betea.

Kristo'ren legea zan Joanes'en argia ta argi orretan ikusten zituan, kupidaz, gizonen argaltasun ta ibilpide okerrak,

(*Garoa*, Durango, 1912, 1 orr.)

AZOKA TA DEMA

Azoka ta dema zalea da euskaldun basetxetarra. Eten-gabeko lanean egongo da iru edo lau aste osoan azokaren pozez, baiña etzaiozute azokaren itxaropenik kendu, bada orduan egoak moztuta txoria bezela geldituko zaitzute, jangar ta nakar, abailduta ta ezertarako eza.

Azoka da, menditarrentzat, ez bakarrik salerosketa garaia, baita ere albisteak jakiteko era ederra, lagun arterako beta egokia, jan-edanerako epe gozoa, atsedeen ordurik onen-onena.

Gauza oiek guztiak bear ditu gizonak nozean beiñ, ta gure baserritarrak iñork baiño geiago noski.

Ezta padartzarako jaio, bakartasunean bizi bada ere. Paduak eztu izutzen, baiño gogait eragiten dio. Mendian dauka kabi maitea, baiño be aldietan biotzak eskatzen dion jolas deigarria. Atzeka, lotua, itz gutxikoa dirudi ezezagun ta andikien aurrean, baiño iztuna, edegia, ausar-a da bere ideko adiskidien ondoan.

Esan dezatela Tolosa, Billapranka, Billarreal, Zuma-

bada erri oietan izaten dira batez ere Gipuzkoa'ko azoka ta demarik izentsuenak, eta bertan agertzen da gure mendi-gizona bera dan bezela, batere estalki gabe, anima guztia garbiro ikusten zaiola.

Nai ta naiezkoak dira Euskalerriko azokak eta ongarriak gaiñera uri ta etxadi askorentzat, baiño ta demak? Ez ongarri, ez nai ta naiezko, baserritarren gogokoak izanarren.

* * *

Done Tornas egun batean A4ondragoi'ra joan bearra izan nuan. Azoka eguna zan ta egunik andienetakoa. Zazpi milla aingeru ! Ba-zan uri artako kale arietan itzotsa, zaratea, ixkanbilla ta nastea galanki. Egurrez tontortutako gurdiak, errenkadatik ertenda, urrengoai ibillera galera-zitzen; atzetik zetozen itzaiak, mendian bezela oiuegiñaz, beren uztarrientzat biderik ezin edekita; jolasbilla edo apostura bakarrik joan ziran gizonak, ardangeletako ateaurrean, betiko leloari utzi gabe, alkarri ardoa eskeintzen; artu-emunera zijoazen emakumeak, beso ta buru otarraz beterik, zerbait galdu etzezen, alderdi guztietara begiraka ernai; leio burnietan lotutako beiak ausnarrean, kalearen erdia berentzat bear zutela; idizko edo biantxa gazte juriak, atzeraka ta alboraka, zalaparta gogorrean, enparantzaruntz iñola ere joan nai ezik; patxadako asto zamatuak, nunbaitetik sartu bearrean, aldamentako guztiai bultzaka; txerrikume pizkor urduriak, beren taldetatik arrapaladan iges eginda, gizatar-tean edo aberien anketan usaika. ., nik eztakit zenbat tresna, ele, gizadi ta lazka ikusi nituan enparantzarako bidean. Edonun zegoan traba, esia ta era-

gozketa, non-nai adarkada edo ostikada baten arriskua; bazter guztietatik entzuten zan oo ta aida, arre ta ixo, jeun eta kaixio, alajaña ta arraiopola, aspaldikoa ta lagun zarra, txintzarria, kurrinka, orroa, marrua, arrana ta arrantzeta.

Lan andiak izan nituan enparantzara igarotzen.

Antxen zegoan azoka. Bertan zeuden sagai baserri-tarrak ekarritako edo baserrietan geienbat bear izaten diran gauzak. Alderdi batean, arto ta gari, baba beltz, zuri ta gorri, intxaur ta gaztañak, zorroetan; udare, sagar, azi, landare, urdai, urdaiazpiko, Iukainka, gaztai, arrautz, oillo, oillar iraindu, oillanda ta oillaskoak ctarretan edo lurrean zabal-zabalik; oial, txapel, zapata, galtzerdi, mantar, soka, abarka larru, kopetako, paela, tupiñ, pertza, lai, sega, nai, atxur ta aizkorak mai gaiñetan, edo agatxoetan esekita.

Emakume saltzaille ta erosleak, jarrita edo zutik, ari ziran ekiñean beren gauzak gora jasotzen edo bera bota naian, era ta gogoia zetorkioten bezela

—Zer? Eztakitala nik gaztaña zer dan uste al dezu? Au ezta bizkai gaztaña, au amalatz erdi ustela da

—Jas! Orire esan. Gaztaña zindoagorik.....

—Eta au zindoa al da?

—Bat edo bestek ezta ezer esan nai, emakumea. Bai, kendu zaiozu azala, ikusi zaiozu mintza. Gurean eztago amalatzik, gurean bizkai gaztaña, ibarbeltza ta txapardoa baiño besterik ezta.

—Zerori zera zu naikoa txapardo. Tira, danak eramatera zenbatean emango dirazu?

—Ara errege sagar ederrak.

—Burdintxak nai nituzke, gaixoentzakoak.

—Burdintxarrik eztaukat, baiño bat urtebiak, kanpan-

—Kaskarrak, ukabilla beste ba-dira ta?

—Ukabilla noiakoa dan.

—Beti andia, euskaldunarena ba'da. Atxurak eta laiak zabaltzen ditu eskuak galanki. Zenbat ipiñiko dizkitzut?

—Oillaskorik bear al dezu, andrea?

—Ez, kapoi batzuen billa nabil.

—Ikusi zaizkidatzu auek, artu zaizkidatzu eskuetan; ba-dira amalau libra gutxienez.

—Ze amalau libra gero, ezurra ta azala besterik eztauke-ta?

—Nai dezu amabi baietz?

—Nai dezu ezetz?

—Pillumena, ekatzu pixu ori,

Emakume saltzailleekin batera jarrita ikusi nuan Zabaleta'ko Ana Josepa, illuntxo, aserre antzean, ia iñori itzik egiñ nai ezta, arrautza-oillasko batzuek saldu naian. Zer ote zuan ain muker egoteko? Geroxeago jakingo degu.

Beste alderdi batean agiri ziran txerri ta abelgorri talde nagi narrasak, ume-pilla guri politak, aketz gazte gogor andiak. Ba-zeukaten gizonak naikoa zer ikusi Urdama sendoak, zezenko eder bizi mamintsuak, urrux egoki garbi txukunak, esne-bei gizen ta bikaiñak..., danetik zegoan elea ugari, oso ugari baiña.

Entzutekoak ziran baserritarren galdeak, abere jabien erantzuerak eta guztien gogozko goramenak.

Txal baten ondoan:

—Biantxa polita dezu, adiskidea.

—Bai, ama ere eztu onek edonolakoa.
—Zenbat erralde bezela izango da?
—Ogetamaseitik berrogeira.
—Orrenbeste? .. Noiz jaio zan?
—Biar izango ditu amairu illabete.
(Alderdi guztiak begiratuaz)
—Itxurazkoa da. Eztu aitzekiarik...
(Egon-egon eginda).
—Saltzeko al dezu?
—Uste orretan ekarri det. Etxean beste zazpi bei ba-
dauzkagu.

—Zenbatean?
—Garestitxo. Jatorri onekoa nola baidan .. Oraintxere
onen amak sei pitxarro esne emango ditu, umea egin zua-
la bi illabete bada baiña.
—Zenbat eskatzen dezu, ba, txalagatik?
—Iru ontzako ta erdi eskatu bearko.
—Gizona! Zillarrezkoa balitz ere. .
—Ezta zillarrezkoa, baiño bai aragiz ondo betea. Ara-
giak berak ere, erraldeko ogetamarrean, ia orrenbeste jo-
tzen du. Begiratu zaiozu nolako atzealdeak dauzkan.
—Ez, ezta neretzako egiten dana; merkexeagoa bear
det. Billatuko al degu, aukera badago-ta.
—Gaitz izango dezu, ba, ona ta merkea billatzen...

Idi erraldoi biren aldemenean:
—Auetxek dira Tolosa'ko dema irabazi zutenak.
—Mutillak! Egundaño ez tet onelako idirik ikusi.
—Bai, gure bei koxkorrak baiño baba geiago jan dute
idi auek.
—Baita indarrare alaxen dute. Lau iltze ta erdi egin
zituzten ordu betean berrogetamar *kintaleko* arriarekin.
—Zenbat akullu ziran?

—Asko esan nai du orrek.

—Bai, baiña onak ziran Elgoibar'koak ere, aiek obeak idiak baiño. Idietan zegoan alde guzita. Onelako idirik etziok lau *probintzietan*.

—Zetara ekarri ote dituzte?

—Erakustera. Bizkaitarren batzuk zaletu omen dira-ta.

—Dirua bearko da, ba. Neuk erosi al ba'nitu... Pozik emango nituzke ornar bat ontzako. Adiskidea, zenbat eskatzen dezu idiakgatik?

—Emezortzi ontzako.

—Lekutan zio.

Esne-bei on baten inguruan :

—Arranoetan ! Eztauka errapea makala ! Au ezta orratik gure lurretako enda.

—Ez, olandatarra da.

—Ezagun du ille ta adarretan ere.

—Otzana?

—Eztago arkume otzanagorik.

—Esnetsua?

—Bai, bai. Onek esnea iturriak ura bezela ematen du. Jokatuko nioke edozeñi eztaula gaur Mondragoi'n onek aiña esne ematen duan beirik sartu.

—Zenbat pitxarro?

—Amar baietzean emango nuke.

—Aita San Antonio'k bedeinka dezala-ta, ederra beia.

—Izugarria!

Orrelako izketak zeuzkaten abelgorri tartean zebiltzan baserritarrak. Jo batera ta jo bestera, elerik egokienen ondoan gelditzen ziran geienbat gizon pillatxoak, beren iritziak esaten ta auzokoen aberastasuna ikusten. Ta no-

lako alaitasun ta arretaz ikusi! Ele aurrean jarri, anak jaso-erazi, kopetan atz egin, atzetik begiratu, lepoan ikutu, mokorrean igortzi, bizkarretik paparrera neurtu, aurtxoak oi diran gisara itz gozoz palagatu, musu eman ez beste guztiak egiten zizkaten. Askotan esan oi degu, ta egiaz, gure baserritarrak ukulluko beiari txit samur begiraten diola; baiño ezta batere miraritzeko gauza: beia da, nekazarientsat, lanerako lagun indartsua, osasungarriko janaria ematen dien aberea, etxe askotako ondasunik andiena. Ia non dagoan norbere ondasunari maitero begiraten eztion gizon bat.

* * *

Asko ziran egun artan Mondragoi'ra inguratutako azoka zaleak, baiño dema zaleak askozaz geiago. Demaren bat altzan? Bai, ba, aspaldikorik andiena. Zabaleta'ko Iñazio Mari'k eta Abadiño'ko Jose Domingo'k egin bear zuten aizkora jokia. Biok ziran trebeak, vaioak, izen andiko aizkolariak; biak iduki zituzten illabete ta geiagoan jaten ta edaten, arrautzaz ta aragiz asetzen, ixillikako indar neurtzeak egiten, ta egun orretan agertu bear zan bietarik zein zan nagusi.

Ori zan ba euskal gizaldien billaldirako Mondragoitarak erabilli zuten kakoa, orrek erakarri zituan uri artara alderdi guztietako baserritarrak: Bizkai aldetik Durango, Iurreta, Garai, Berriz, Zaldibar, Abadiño, Izurza, Mañari, Axpe, Arrazola ta Elorrio'koak; eta Gipuzkoa'tik, inguruetako zalpurdieten eraman al izan zituen guztiak eta ordu batzuetan oiñez ibiltzeko almena zuten gizon danak.

Bazter guztietara begira nebillela ta iñor ezagunik ikusteko usterik gutxien neukanean,

rreko bat emanaz.

—Patxiko!

—Berbera.

Nere umetako lagun bat zan Patxiko au, erri txiki bateko sendakiña, baiño erri andietakoak baizen argia; berritsu samarra, baiño bene-benetan jakintsua; edozeñen gaiztakeriak agertzen zituana, baiño bakoitzari berea ematen oso zintzoa; euskalerritar itxutua, baiño iñorentzat gorroto gabea; zerbait lotsagaldukoa, baiño txit egizale purrukatua; mingaiñ zoli garratzduna, baiño biotz bigunaren jabe ona; beli erriertan jardun bear zuana, baiño jolastzaillerik andienetakoa; itxuretan norbaitzuen etsaia, baiño cgietan askoren maitalea; gizon bero, bizi, ozpindua, baiño adiskide leial ziur-ziurra.

—Zorionean zatorzkit —esan nion.

—Zoritxarrean arkitzen zaitut —erantzun ziran.

—Nekeren bat al dezu?

—Zuri erakutsi bearra. Ezta neke txikia, baiño lagun-gatik itz aspertu bat egin bearra.

—Aspertu aitzera beñere izketan?

—Zurekin ez. Ni baiño itz-jario andiagoakin ezin izaten det nai aiña egin.

Ta neri ezer geiago esateko astirik eman nai ezta, berak galdetu, berak erantzun, ta ezer sakondu gabe, gogora zatorzkion autu guztiak lardazkatuaz, asi zan nere gizona.

Oarkera batzuk egingo nizkion Patxiko'ri astirik eman balit: baiño zeñek artu gizon txirimol arrekin itz egiteko tarterik? Aitaren egin orduko ezkutatu zitzatan, ta ez nuan geiago begiz jo.

Baiño ba-neukan zeri begiratu. Gizon gazte, andi, bikain bi zetozen enparantzara, makutsik, astiro, ermo, lerdan, ausarditsu, aizkora berri bana bizkarrean zekardela.

Iñazio Mari ta Jose Domingo ziran. Beren ondoan zebiltzan, toki egiñaz, aien alde, lagun ta auzokorik urrenak, arroxko ta zurikeri andietan, alderdi guztietara begira, aizkolarien oso adiskide zirala andierazi naian. Arrokeriak ere bere maillak oi ditu: gorengoan jarri ezin dana, sarri egoten da goikoaren oiñetan arro.

Jose Ramon'ek zekarzkian beste aizkora batzuk, anaiarentzako; ta beste askoren artean Peru Odolki zetorren Iñazio Mari'n aurretik, besoai eragiñaz, itza, pitsa ta kertenkeria zeriola. Joanes etzan iñondik agiri.

Aizkolari bietatik Bizkaikoa zan gaztiena, gipuzkoatarra bezin eder, zabal, sendo ta zaintsua. Oraindik etzuan iñungo enparantzan jokatu, baiña bere erritarrak ziotenez, nai baiño indar geiago zeukan, zumea baiño bigunagoa zan, ta begia ipintzen zuan tokian jartzen zuan aizkora. Jose Domingo azpiratzeko gixonik etzan jaió.

Eldu zan ordua! Enparantzako gizatalde ugaria zabalundu zan ekaitzaren aizeak ikutzen dion zugaztia bezela; saltzailleak eta erosleak, gizonezko ta emakume danna, utzi zituzten beren tokiak bere-bizikorik azkarren, urbildu ziran guztiak gizon-ustai trinkoaren atze aldera, ta mai gaiñetan, zorroetan, gurdietan, arri-mailetan, inguruetako leio ta tellatuetan, buru mordoska berriak agertu ziran artega, enparantzara begira.

Nik eztaik zergatik iruditu zitzaitan bildurra sartu zitzaietela gizon askori biotzean, bada lentxoago garraxika zebiltzanak ixil-ixillik gelditu ziran, parre algaretan zeu-

denai kopeta lañotu zitzaien, ta destañarik andienak esaten zituztenak, esia ipiñi zioten, ezpañetan, biotzetik zetorkioten geiegizkeriari. Bai, bildurrak zeuzkan gizonak beren marrátik erten gabe, bildurrak zeuzkan alkarri zor zioten begirunean, maitasunak baiño askozaz obeto.

Ala ere bizkaitarren batzuk, beren ustea edo irabazinaia ezin gorderik, ba-zebiltzan deadarrez:

—Ontza bat urre Abadiño'koaren alde! Ontza bi urre Jose Domingo'n alde!

. a gipuzkoatarrik beroenak edo jokalarienak onela erantzuten zioten:

—*Ai ba*, eginda daude bi ontzurreak! Baita zortzi nai ba'dituzu ere, baita idiak ere! Peru Odolki'k lepoa nai zuan jokatu.

Bitartean gure aizkolariok, aoa zabaldu gabe, osoro benaz, patxada onean, *plaza gizonai* zegokioten bezela, kendu zituzten oiñetakoak, eman zioten eskuai txistua, artu zuan bakoitzak bere aizkora, ta jarri ziran tente zuaitz gaiñean, beren lan ikusgarria asteko aginduaren zai.

Une larria! Ergai estua! Apostularien deadarrak eta billera gizatsuko durundi zurrumurroak berealako baten bukatu zitzaizkiginn, biotzak taupadaka geunzkan, ainbeste milla gizon eleizan bezin geldi ta ixillik geunden.

Baiño ezkiñan luzaroan egon. «Asi!» esan zuan agintzailleak, eta gure gizaseme bikain biak, bat batera, sartu zituzten beren aizkorak zuaitz lodien biotzetaraiño, koi-petan sartzen dan labana baiño ainbat errezago. Ta aizkorak erortzeaz batean baserritar guztiak, trumoi ikaragarriaren itxurako alarau luze bat egin zuten, ta asi ziran batzuek berriren berriz biriak bota bearrean, eztarriak eten bearrean oiuka:

—Ia, Jose Domingo maitia, ekin ortxe, ekin, zu lakorik eztago-ta! Ia, Iñazio Mari, ia Inxio, ia Ixio! Aufa!

Etzan lenengotik igarten garanari zein izango zan. Biak jokutzen zuten ederki; biak jotzen zuten zuaitz gerria gogor, azkar, zuzen, bear zan tokian bertan, alderdi batera ta bestera ezpai zati andiak boteaz, surtako egurrak txingartak botatzen dituan gisara.

Lendabiziko zualtza berdin-berdiñean bukatu zuten... Orobat bigarrena... Ta irugarrenaren gaiñean, asieran bezela zeuden jokalaria, zail, zimel, zauli ta kementsu, zizt eta zazt, dinbi ta danba, bata besteari aurreak artu ezinda. Apostularien armintasanak etzuan neurririk. Jaungoiko Donea! Zerk gertatu bear ote zuan!

Jose Domingo ta Iñazio Mari'n erakusleak, gizon oituak, zuaitzen ondoan makurtuta, makillatxo batez erakusten zioten nun jo, ta eskuaz kentzen zizkaten katigatuta gelditzen ziran ezpai zatiak, izugarri pizkor; ta aurrean zeuden beste adiskideak, ortzak estutuaz, ezpañak okertuaz, buruari eragiñaz, ziñuka, inkesaka, jaupadaka, aletin guztiak egiten zituzten aizkoradunai *laguntzen*.

—Ia, Jose Domingo! —entzuten zan ziotela—; ia, Jose Domingo, jo gogotik, ondo zuaz ta! *Alimo*, Ixio, *alimo*, bestea nekatu dek eta, geiago aiz ta, *alimo*!

Egundaño alakorik! Azkenengo zuaitzean, seigarrenean, or nunbait zebiltzan biak, berdin samar zeuden oraindik. Berdin, baiño biak unatuta, adikatuta, piper gorria baiño gorriago, izerdi patsetan, koipe ta lurruntetan, arnasa estuz, sutegiko auspoen antzera puzka, ta okotzetatik bera esne itxurako pitsa erortzen zitzaiea. Amaitu bear zuan jokoak eta nola iñork etzekian. Ura urduritasuna! Ura ezurretaiño ikara! Ura nik neukan errukia! Naiago nuan toki artara joan ezpa-nintz.. ' Aizkolariok zearka begiratu zioten alkarri. Aiene! Galtzeko

zorian zeukaten lagunak dirua, etxeko pakea, erritarren arrera ona, beren izen andia ! Baiño etzuten etsi nai, ez **etsi beia** jo arte. Len baiño gogorrako jarrai zioten beren arloari, **len** baiño zoliago, biziago, nabarmenago jarrai zioten, ezker eskui, or ta emen, ongi ta gaizki, zuzen ta **oker**, gizon lauso aserratuak gisara zuaitzak astinduaz, ta iskanbillarik andienean, ikusle guztien «ia, ortxe ! aurrera ! ekin ! jo ! ausi ! bota ! ebaki ! » ta beste oiuen estuen **artean...** «Et!.. et!... er!... biba ! !.. » bukatu zan jokoa.

(*Garoa*, 79 orr.)

NI TA NI

(*Ona emen Txomin Agirre'n azken-irakurgaiaren zati bi. Euskal-Esnalea'n argitaratu ebazan 1917'garren urtearen erdirantza, 169, 200 ta 210'garren orrialdeetan, 1920'ko urtarrillaren 14'an il zan bera. Bien bitartean, ez ete eban geiago idatzi? Norbaitek esan dau azken orduan erre egin ebala.*)

I

Aranzibia

Ikusten dezu or, irakurle, Ondarroa'tik laster, Markiña'rako bidean, Artibai ondoan, jauregi antzeko etxe lasai bat, zarra, zartatua, untzez jantzia, arabakiz betea, uzta-mandio, abere-ukullu, nekazarien aterpe biurturik, eta, txapel zuloan zear aitonari ille txuriak bezela, ganbara leioetatik lasto moltsoak agiri zaizkola?

Aranzibia deritzo. Orube ospetsua iñoiz, etxe aberatsa, zaldun azkarren bizilekua zan. Etzenkizula izenik ere?

Siñisten dizut. Txiroa ta zarra errez aztu oi dira, ta azutakoak eztaukate izenik. Amaika izengabeko gauza bada lurrean.

Baiño ni zar zalea naiz. Ta zarraren itzalez lilluraturik, antziñetako paperak ikusiaz, jauregi ondarrak aztertuaz, arri banatuai galdezka, abe lizunduai begira, asabien bitzita ulertu naian, ames asko egin det eta egi batzuek ikasi ditut.

Ara emen ames ta egiak naste.

Garai bateko egunetan, 1390'tik aurrera noski, Amoro'tik Gorozika'raiño, Murelaga'tik Ondarroa'ra bitar-tean, inguru danetako soro ta belardiak, masti, sagasti, mendi ta basoak, arkaitzak eta lurak, gaillur, aldapa, egi ta ibarrak, ola, jgara, erreka, iturriak, eta gauza guztien Egilleari or-emen jasotako elizarik geienak ere, nagusi bakar ta oso jakiña zeukaten : Aranzibia'ko jauna.

Aranzibia'ra eraman oi zituzten, auzo ta urrunetako maisterrak, saski, zorro, pitxar ta upeletan, sagar, udare, keriza ta matsak, ezti ta esneak, intxaur ta gaztañak, gaztae, arrautz, oillaskoak, uso, arkume, erbi ta eperrak, aingira, eskaillu, lasun ta legatzak, sagardo berri ta txakolin zarrak; lurak, ibaiak eta itxasoak zeuzkan edo zekarzkian ale, arrai, aragi ta edari mota guztiak; erruz, oso erruz, bear zan baiño askozaz geiago; nagusientzat eta morroientzat, bertako jaun ta mendekoak ase ta indartu zitezen, beti ate joka zebiltzan eskale ta bidastiak naikua jan ta edan zezaten.

Itzalpe onera bezela, ardangelarik merkiena zalako, Aranzibia'ra joan oi ziran, zaldiz ta oiñez, Gipuzkoa'tik cdo Markiñaldetik, Zaldupe'n bera ta Gardotza'n zear, edozein ordu ta abadunetan, era ta alderdi guztietako adiskideak, odoíekoak eta ezagunak, pake zale ta gudalariak, andreakana ta zaldunakana, jolas-gosean ta lagun eske,

Aranziora'n danentzat zegoan aukera. Emakumentzat, andrien alboan, abegi ona, lastan zintzoa, atsedean biguna, ta sarri, gazte maitearen albistea; gizakumientzat, gizonen artean, tremsea ta burruntzia, tupia ta upela, ipui loi ta gordiña, esakera doillor ta zakarra, burrukarako bide azkar ta ziurra. Andreak gela bazter berezian egon oi ziran, orain ajolakabe ta beingoan kezkatu, batak bes-teari esku-lana erakusten, ames gozoak aixa eralgitzen, algaraz, negarrez edo eskari ak egiñaz; gizonak, ostera, egotokirik zabalenean, bigurri, lotsagabe ta ojuka, orko ta emengo jazoera txarrak esaten, urlia edo sandiaren asmo gaiztoak jakin erazten, alkarri su ematen, txakoliñaz batera gorroto itxua irentsitzen. Andrien gelatxoan gurutzeta zan billaldiko buru, itxaropen ta apaindua bakarra; zaldunen artean guda-tresnarik zorrotzenak zeuden giza-tegiko edergarritzat; basurde, artz, orin ta otsoen larruak ormetan goi esekita; bele, miru, zapelaitz ta arrano igitarrak sapaian bera zinzilik.

Aranzibia, gizaldi aietako beste jauregiak bezela, etzan jauregi atsegiña, etzan emakumientzat egokia. Etxien artean ar-emeak ba'lira, etxe ura arra zala esango nuke. Orregatik ainbeste burni. Burni ta larruak oial ederren lekuan; egazti arrapariak txori pitxien orde; argia baiño sua geiago; lorea baiño egurra obeto; leuna ta limurra oso urri; trinkoa, latza ta garratza txit ugari.

Milla lareun ta ogeta zortzigarren urtean Peru Ortiz Aranzibia zan jauregi artako nagusia. Gizon gogorra, zaldun setatsua, gudari ausarta, indar andien jabea, arrokeriz ok egiña, bere aurrean buru apalak ikusten oitua, auzo-etako jauntxo danak azpiratzea zan bere aiolarik andiena.

Peru'k etzuan bera baiño geiagokorik iñola ikusi nai. Altsu izatea, etsai izatea zan beretzat. Eta norbaiti eskubidea geitu ba'zizaion cdo aberastasuna zerbait azi, laster idoroko zuan Peru'k borrokarako aitzakia. «Adiskidea —ekingo zion, kopeta goibelduaz—, ire maisterrak nere zuaiza ebaki omen ditek; ire artaldeak nere zelaian ibilli omen dituk; nere aiolarik eztekala esan omen dek; gezurra dala?, gezurra litzake erorrek esana ba'litz; ordainduko diakala?, eztiat ire dirurik bear, i baiño aberatsago nauk; ez adi gordeta egon, eman zak arpegia, era-kutsi zak ire altasuna, erten zak, kasket indarge orrek.»

Era orretako gizonak dauden lekuan errez oi dator esetsaldia, ta egun gorri aietan era orretakoak ziran zaldun geientsuak.

Ara zergatik, gaur batak eta biar besteak, ango mendian ta arontzagoko basoetan, goizean galtzaille ta gabean garailari, egundañoeko guda makurrak zerabiltzaten Euskalerrri guztian.

Alperrik nai zuan emazteak bide oietatik Peru alden du. Alperrik oillarrari kukurrukurik ez egiteko esan. Berezko akatsa, jatorrizko griña, odolean daramagun bigurrikeria, izakeraz datorkígun errentasuna Jaungoikoak bakarrik kendu dezake.

Bi seme-alaba zituzten: Gonzalo ta Laura; Gonzalo, mutil sendo askatu?, arrosko samarra, bere buruari asko zeritzona, txit borroka zalea, aitaren jarraitzaille bero sutua; Laura, gazte on ta errugabea, txukun ta maratza, ixil ta ezia, neskata guri ta liraiña, inguruetako emakumerik eder ta maitagarriena.

Biak ziran gurasoen biotzekoak, baiño aidak, bere antzera Gonzalo zala-ta, mutillaren alde joera geiago zuan. Onen gogorkeri bat jakin orduko, arpegiz arpegi esan oi zion: «ederrak eman dizkok, beraz; ondo egin

dek; orrela bear aut; ondorengo bikaiña zeukat.. Ator, nik erakutsiko diat iri etsai ergela zuzitzen. Aranzibia azpiratu duanik ezta jaio, ez arrania!» Ama, oster, bere alabarekin onela mintzatu oi zan: «eskerrak zu zauzkatana nere pozerako, bada gizonakandik ezingo det gauza onik itxaron. Gure Gonzalo'k zezenkoa dirudi, ta, gaiñera, bere aita dagokio beti zirika. Eztakit zertarako azi nai duan, edo, egia aitoren bai ba'det, geiegi dakit. Bildurrez nago naigaberen bat sortuko ez ote zaigun». Baita sortu ere.

Alako goiz batian goiz Laura samurrak bear baiño len utzi zuan bere oe garbia. Zer zan atari aurreko iskanbilla? Zer ziran oiur ta burni ots aiek? Nondik zetorren oi ez bezelako zalaparta ura? Bere gelako leio estutik ikusi zezakean, nik orain irudimenez dakustan bezela. O zenbat giza nabarmen! Betosko illunez zaldi gaiñean Peru; zaldi gaiñean Gonzalo, ausardia dariola; beren ondoan jauregiko morroi, maister, artzai ta egurgillak, eundaka; zelai ta mendi egaletan, Likona ta Ubillatarrak, Kareaga ta Arostegi'ko zaldunak, orube askotako Aide Nagusiak ta ogipekoak, entzute andiko ta izengabeko gudalariak; zar ta gazteak, bizarge ta bizartsuak; aizkora, ezpata, gezi ta guda-makillaz txit orniturik, oial bigunez ondo apainduta edo ardi larruz ozta jantzian; oleska, jolaska edo zaldien antzera irrintzika; goikoak mende-koari zital aginduaz, bakoitzak bere lagunari erme dea-darrez, edozeñek edonori zerbait eskatu edo emanaz; aizak eta i, eup eta begira, tori ta ekak, ator ta au, ernai, alaitsu, biziro ta urduri, egundañoko ardaillarik ero ta ikusgarriena darabilte.

Zertarako bildu ote dira ainbeste gizadi?

—Egun on, Laura —dio Berroeta'ko zaldun gazteak, txapela kenduta, begiak leiora boteaz.

—Eizera.

—Otsoren batzuk agertu al dira?

—Naikoa otso... Abendañotar oiek..

—Abendañotarrak..., zer gaitz egin dizute?

—Zure aitak ba-daki.

Laura'ri etzion aitak ezeren albisterik eman. Beti bezela, emakumien ixillik asmatu zuan Peru'k guda berri-rako aitzakia. Etzuten andreak orrelako gauzetan sartu bear. Aien ustea ta malba lorien salda otza, or nunbait.

—Tira, mutillak —esaten du guztien mintzoa etenaz—, goazen azkar, egun argia da, naikoa berandutu zaigu.

Ta gudari rrebeak Peru'ren atzetik alde egitean, gizadi trinkoaren oiua ta oiartzunak apurka, maillaka, urrutiruntz amaitu ondorean, toki aietako erregetza pake do----- beragandu zaio.

Eguzkia zeru garbian jaiki da; aran-zelaiak intzez edertirik daude; astamenda, sasi-lore ta baratzetako lili pitxiak beren usai gozoa oparo zabaltzen dute; ipar-aize legunak zuaitz adarretan jolas limuria darabil; Aranzibia'ko etxe barruan, enara pitin pizkorra beiñere ixiltzake, jardun txoro pozgarrietan dago; Artibai eder txukuna, bere kolkoa garbi erakutsiaz, ertzetako landareak narotuz, alai ta bizi, zuri ta kiskur, gli-gli, glu-glu, kutio-kutio, itxas alderuntz gurguraiz dioa...

Laura'k ezta ezertxo ikusten; izadiaren otsik batere ezantzu. Ezta bere animako lainoa kenduko dion eguzkirik, ezta bioizaren nekea aztu craziko dion usai ta zurmur ezirik.

Zearo konkortua, bertan bera eroria, leio zuloan billatu du amak.

—Zertan zaude?

—Al dakit, ama?

—Noiz zutindu zera?

—Aspalditxo,

—Bada, orduan...

—Bai, dana jakin det. Nere begiz ikusi ditut gizon itxuak gure enparantzan, auzoa birrintzeko leiaz; nere begiz ikusi ditut Legarmendi'n gora lotan zegoan amorrua esnatera, eriotzaren atarira zoli joaten. Aurki dira etsaiok aurrez-aurre: alde batetik nere aita, nere anai bakarra, ta bestetik, ai, amatxo!, beste aldetik Joane Abendaño, alako gazte on ta burutsua !

—Au naigabea datorkigu !

—Ta noiz ! Zorioneko amesetan nengoala !

—O nere Laura errukarria ! O nere alaba gaixoa!

i:

Ezaupideak

Nola egotzi zaio Laura sotillari Joane'ganako maitetasuna? Nola, baiña, gizakumien zurikeriak beñere aintzakotzat artu ezpa-ditu, Aranzabal'go mutil gazteai, Ubi-lla, Murga ta Berroeta'koai, egundaño ezpa-diete jaramonik egin, gizartean beti ain atzeka izan bada, ain menta ixilla, elurra bezin otza, arkaitza beste legorra, naigabearen gisa illuna, mintzorik gozonentzat batere oiartzun gabea?

Gauza danak oi dute beren aro ta garaia, anima guztiak beren ordu samurra. Lilia zabaltzeko udaberria bear da, illuntasuna uxatzeko eguzkia, elurra kentzeko aize bigunepela, legortea euri lanbroak kendu dezake, naigabea albiste on batek osatzen du ta biotzaren atea irikitzeko norbere antza duan anima bezelakorik ezta.

Laura'k ezeren kezka gabea zirudian, ezin erne dan azia, lotan dagoan usoa; baiña Joane idoro zuanean, zero esnatu zan, udaberria sortu zitzaion, biotza zabaldu, argiz bete, zeruko intzez busti.

Markiña'ko urian ezagutu zuan Joane. Ondo goguan dauka.

Oñaz ta Ganboa'tarrak, arako pake une baten, Ibar-guen'go alabaren eztaietan, Jemein'go zelaiaren erdian, egundañoako jai ta kirolak egin zituzten.

Nai al dituzu ikusi, irakurle? Atoz nerekin batean; eztiugu iñork ezer eragotziko; irudimenak ezta esirik.

Begira itzatzu : aspaldikoak izanarren, oraingoak dirudite jolasik geienak, egunero ta edonun zerorrek ikusiak; baiño gaurkoen itxura dutenai begira okitzen ba'zera, le-nagokoak oartzen geratu zindezke.

Ori gizadiz bitu da! Or daude Lekeitio, Mutriku ta Ondarroatarrez gaiñera, Zaldibar, Zearrotza, Ibargoi, Barinaga, Berriatu, Asterrika, Amoroto, Mendeja ta Giza-buru'ko seme guriak; bertan dabilta, zar ta gazte, auzo jauregietako andre ta jaunak, eta gaztien artean Txuri Espilla, Mikela Egurtza, Goizalde, Otxaran, Maria Bille-la, Menda Lasarte, Izartxo Aranzabal, Lorea Iarza, Elurdi Urkizu, Aldonza Murga, Laura Aranzibia ta beste ainbat etxe oneko alaba, oso arretaz orrazturik, garbi ta txukun, zein baiño zein lirain ta ederrago.

Zaldun ezkongaietatik elemena da: Santxo Ibar-guen, Otxoa Iarza, Fortun Ubilla, Diego Arostegi, Peru Billela, Matxin Aranzabal, Gonzalo Aranzibia, Tristan Berrio, Alonso Likona, Ñuño Mendia, Lope Ibañez Okerra, Er-nando Murga, Garzia Amallo, Rodrigo Lizardi, Floristan Larreta, Rui Ortiz Urkia, Iñigo Diaz Aulestia ta ezta-ki nik beste zenbat andiki ernai ta lerdin.

Elizkizuna ta ondorengo betekadea amaitu diranean, au

da, arratsaldeko iruretan, ikusgarria dakust eliz-aurreko enparantza. Koipatsuz ondo eginda, txakoliñez birbizturik, ezeren lotsa gabe, izerdi patsetan, alkarri bultzaka, zakarkeriak esanaz, bakoitzak bere ustea arro azalduaz, bere altasuna erakusteko leiaz, dakianak dakiana egiteko amoz, giza mordo lodia agiri da zelai zabalean.

—Ikusiko da ni aiña zein dan burni jaurtitzen.

—Eztu iñork nik beste zama jasoko, arrania !

—Nai dek ik baiño zapart ohea egin baietz?

Orrela diote batak eta besteak, kirol unearen zai oso artega.

Noizbaten ere, ez nai bezin agudo, asi da tuntuna jolaserera deika, ta dei orri ondo erantzunaz, atabal otsaren neurrietan, ia mutillak!, azkar, zoli ta bizi, eskuak gerrian dituztela edo besoak zabal jarrita, orruntz onunzka, gora beraka, ezker eskubi zabalunduaz, belaunez lurra jotzeraiño edo anak burura jaso bearrik, izugarritzko pizkortasuna erakutsi dute Lekeitio, Mutriku ta Onda-roa'ko arrantzaleak

Geiagorik eztakite, legorrean beintzat; eztezateke ezer besterik egin; baiño ezta batere bear lasai geratzeko. Norbere gaitasunari begira ba'gaude ta bestiena ikusteko itxu, gu aiñakorik ezta. Arrantzalien ustez berak dira Jemein'go gizonetan aurren ta gorengo. Antxume irudira irridatzea da, nunbait, egitekorik andiena.

Baiño eztira danak uste orretan. Olagizon bi, Ansofegi'ko Esteban ta Eizmendi'ko Paulo, garerdikoak biak, tantai luzeak, kankallu zikiñak, zeataz beti lardatuak betondo ta belarri, sama ta esku, ogipideko aztarna, ikatzaren beitzunea beñere kendu gabe darabilenak, txandea eldu zaiela-ta, burni-aga banaz enparantzara sartzan dira. Ta entzun adiskidien berealako deadarrak! Adi lagun guztien irazkiñak !

—Orain dek ire garaia, Esteban ! Ara or ire leikidea ! Gaillendu zak bein, arraio ori ! Azpiratu zak betiko !

—Azpiratu? Al izan bear! Bergaiñ ba'leuka! Naian ba'letxiok.. ! Arkume bat Eizmendi'n alde! Zaragi ardoa, txekorrik onena, Paulo'k irabazi baietz !

Guztiak oiuka dabiltzala, gure olagizonok, ixil ta benazki, beren txamarrak kendu dituzte, eskumuturrak zerbait jaso, paparreko aleak askatu, bular-auspoak arnasaz bete, oiñak lerro erabakian ondo jarri, ta keñu egin zaiotenean, ai Paulo maitea!, ia ortxe Ansotegi!, bein batak eta urren besteak, lerrotik batere erten gabe, zankoak beren tokian geldi zauzkatela, soin guztia iru edo lau aldiz makurtuaz, ankape lenbizi ta biurrean gero, zuzen, altsu ta zunburruntsu, jaurtigi dituzte burni astunak, egur ariñak oi diran aisa, Paulo'k eun ta iru oin, Esteban'ek eun ta bi t'erdi.

—Diamotxo diamotxoena ! Oiñ erdiz eraman dio, oiñerdiz bakarrik

—Oiñerdiz edo zazpi arraz, galdua eman ta kito.

—Aupa! Zaragi ardoa irabazi diat!

—Aupa ! Txekor andiaren jabe nauk ! Gora gu ta gutarrak! Gora napar beltza! Gora gure laguna! Gora Eizmendi! Paulo, i bezelako gizonik etziok !

Ez, e? Zaude apur baten. Ister lodi, gerri zabal, besa labur, lepomotzeko giza motroilloa agertu da: Balzola errotaria. Patxada osoan zelaira ertenda, alderdi guztietara ausar begira, «datorrela —nai luke adierazi—, datorrela beste gizon bat, naiz Bizkai'koa, naz arabarra, naiz giputxa». Bere berdiñik eztagoala ziurtu danean, amar arreako iriñ zorroan eutsika, «ipiñi —mintzatzen da—, ipiñi beste sei lakari». Ta gerriko ugala berriz loturik, eskuak txistuz igortzi ondoren, lurrean erdi etzinda, sartzen du

ezkerreko eskua iriñ zamapean, oratzen dio zorroari eskubiz burni kakoz bezela; astiro astiro, pitinga narrazka, alderatzen du sorbaldaraiño; anka ta buru ekiñaz, ukalondoaren laguntzaz, eskumuturren adorez, indar bai indar, doi doi doi belañikatu da; ta bukaeran gero, zaiñ danak agirian dituala, soin guztia ikaraz darabilela, oreka ezin gordez, etetzeko zorian, lertu bearrean, gorri gorri, ta berebiziko gora ta ogenak entzuten ditu.

—Beajon daikela, errotari! Ori dek gizontasuna! Ori dek errotsu izatea! Ire indarra nai nikek soro bazterrean! Ezagun du orrek naikoa talo jan duana! Gure lepotik, alegia, gure lepotik! Orren laka ondo neurtua izan oi da, bere alde!

Baiña ibil gaitezen arintxoago, bada oraindik zer ikusi asko daukagu.

Iru gazte azaldu dira gero, makülaz edo makil gabe, abidan edo kukubillo asita, zenbat arrako zaparta egin zitekean erakustera; lasterka zaleak urrengo, bere azkartasuna billaldean ikusi zedin; ta beste jolas oiturik eztala uste degunean, ara nun ekiten dion Arizpe artzaiak gaztaiña adarrez berak eratu duan txistua joaz, *txiribiri txibiro*, *txiribiri txibiro*, beti batean, geza ta parregarri, enparantzako guztiai gogait eragin arte. Bazterrean egotekorik ezta emen iñor.

Be-maillakoena izan da orain arteko jofasketa, sari-eske dabiltzanena; andikiak gerorako berezituak daude. Baiño bada orratik aitakoren bat, Lope Ibañez Okerra, bere menak ondo jakinda, iñoren ona ezin eramunik, ari ta oni parrez, au ta bestea urruinduaz, geien zanari aitzakiak emanaz, zelaira ertengo ez ertengo, txaloen gosean larri egon dana.

—A ze nolako geldotzarrak! —zion—. Dardarrik ez, motell, dardarrik ez! Abiada gabe bear dik! Oso aula

al aiz? Geiago ezin al dek? Orrenbeste ba-gaituk, orrenbeste bai, alajainkoa !

Azkenian ere, iñola etsi eziñik, beta joanda gero, aldameneko bati burnia kenduta, Arizpe txistu jotzeari jarraika dagola, zaloi ta zardai, jaurtigitzen du eskuaga Paulo'k baiño bi oiñ arontzago; ta bein asi danean, asto, kaiku, zentzuge, arrandiz burua galduta, ergelez oso eraturik, zelaiko gizonak arritzearren, belauñ gainean, ara ! ara! ara!!!, burni lodia oker-oker egiten du.

Ze uste zuten, arraie pola! Jakin zedilla noraño zan Lope !

Baiño eztu zaldun orrek nai aiña txalo izan. Gizadirik geiena, une artan, beste norbaitek artegatua darabil.

—Ixo, ixo —diote—; Munabe dator, Munabe ipui zalea.

Zein da bera? Gazte atsegin bat, betilluntxo, zurbil samarra, argien alboan txito argia, zintzuen artean zintzuenetakoa. Orube andiko semea bada ere, bera baiño len jaio ziranak kendu diote jatorrizkoen ondasuna, ta nola eztan guda zalea izan, Zearrotza'ko apaizen urgaitziz, jakituriaren eske gogotsu ta luzaro ibillia da. Beste iñork ez bezela ikasi du antziñetako gertaeren berri, ta berorrek esan oi ditu Euskaldunak Erroma ta Godotarren kaltean erabili zituzten esetsaldiak; berorrek azaldu errikoien mintzo beroan, Lekobide'ren adorea, Utxin Tamaio'n altasuna, Lelo'ren billaukeria, Altobizkar'ko egun gozoa; berorrek, jazar aldietan, mendi-mutillen anima otzak astindu; berorrek, atsedean garaian, jauntxo askoren jai ta batzarrak alaitu.

Ara zergatik adierazi iluten barreneko poza Munabe ikustean.

—Toki, toki; sartu dedilla —diote—, eresi dezala !

Ta danak ematu diranean, Munabe'k asi du eztiro bere jarduna.

«Ni ez nator —dio— zuen sari billa. Nik nai nukean saria, ai!, eztet egundo iritxiko. Ipui bigun bat esatera nijoakizute: karnabatxoaren ipuia.

«Barinaga'ko oianean sortua zan. Antxen, gurasoak ainbeste ardura./ tajutu zioten kabi epelean, anaien ondoan, oartu zuan lenbizi gure lurraldearen izakera; antxen, lumaz jantzi orduko, bere sor-lekutik gora begira, ikusi zuan izar zuri argi bat, gauza guztien gaiñetik eder. O zein ederra ! O zein zoragarria !

«Izar ori zan, geroztik, karnabatxoaren gogo bakarra. Osterantzeko izaki danak, zuaitzak, zelaiak, abere, pizti, landare, zomorro ta tximeletak, txori lagunak, erreka ta loreak, osoro utsak zirudizkion.

«Beste senideak, zerbait azi ondoren, egaka joan ziran mentsu, sasirik sasi ta adarrik adar, jaki bearra nun idoroko, txio berria nola ikasiko, edo, ezeren arreta gabe, txantxangorrien atzetik, txoro jostatzera.

»Baiño ez gure karnaba. Alperrik bere amak itundu : Oa i ere, pitintxo; joari, maite, iretarrakin batean; uxa, ibilli akit or zear; i bezelako umientzat egun guztiak dira jai.

«Jolasa baiño zeregin ohea zeukan. Goizean goiz kabia utzi, al zuan aiña zeruruntz igon, ta naigabez itoko ez ba'zan, biotza zerbait arintzearren, moko ta egoak zabal zabalik, bere naiera samiña ixuriaz, eresirik limurienak biraltzen zizkon izar ezkutuari, lotan dagoan kutunari maitaleak oi dion gisa.

«Ori zan bere arlo ta zoria. Orrela igarotzen zituan egun osoak eguzkitik illuneraiño, ta gauak ostera, maitea berriz agertu oi zanean, añube, izu, minbera ta lotsakor. bere bazterretik zerura begira.

—»Lo egin zak, laztan orrek.
 —»Ezin det, ordea.
 —»Andi-zale aiz; asko nai uke.
 —»Eztet nik, ama. ezertxo eskatu.
 —«Baiña beti ago izartegia ikusten: ori **etziok ondo**.
 —»Ezta oben begiak izatea.
 —«Zertan jartzen dituk zeruko argietan?
 —«Berenez dijoazkit.
 —»Ai, seme ! Goiko izarra gugandik **urruti ziok**.
 —»O zein urruti!
 —»Ezin dezake ire ajolarik izan.
 —»O, ez! Egundaño ez!
 —»Iñozo ago, bada.
 —»Nor ezta iñozo, eretietan? Abere ta **gizonak, iñoz**
 gurari bat erne ba'zaiete, maitasunaren **eztenak** biotzean
 ikutu ba'diete, berdintsu dijoaz iñozokerira. **Utzi zadazu**
 nerean, ama. Izar maiteak eztit **ezer entzungo**, ez **nau**
 beñere ikusiko, naizanik ere jakingo **eztu**; **baiña nik**,
 itxaropen gabe, izugarrizko beastunak **irentsiaz**, nere
 abotsik emienak berari joko dizkat eta nere **bizitza** osoa
 oparo eskeñiko diot. Ori da nere apeta, ori nere **adua**.

»—Bai adu txarra !

«Ainbat. Zeruetako izar zuria, aldakorra nola **baizan**,
 bere bidean zijoan edertsu, igarri gabeko igian zijoan
 beti goi-ertz aldera, ta arako gau eder baten, gaillur-
 mugari musu emanaz, beste argi apañez inguratua, os-
 tendu zan naro ta bare ortz urdiñean bidasti.

«Orduan karnabaren lorra! Orduan benetako gaba!
 Orduan biotzaren illuntasuna! Jangar ta makar, estu,
 atsege ta gaixo, sukarez kiskaltzen, izar maitea **aztu ez-**

joaz, txiio. txiio !... zearo urtu zan karnabatxoa,

»Orra or ipuia esan.

»O! Jaungoikoak jabon zaitzatela zuen begiak izarrean jartzetik!»

Adipenez egon dira zelaikoak Munabe'ri entzunaz, baiño eztiote arrek iñoiz bezela gogoia bete. Emetxoa zan ipuia, samurregia, egokieza. Zer zeukaten zer ikusi gizar-tean txori ta izarrak? Or zioz ba! Ezin egunoro betatsu izan .. Ala ere, nik ba-dakit nori iruditu zaion egoki ta betatsu.

Baiño ezta gizadi au ipuiak aditzearren edo betiko jolasak ikustera inguratu; beste gauza bat nai luke garai onetan, ukaldi ospatsua, indarketa berria, gudari gazteak arestian erakarri duten jolasa: zaldikoen borroka.

Orregatik bitu da geienbat zenbatu ezin ala gizon Jemain'go zelaian; orregatik daude soillaru jasoetan ;ski ainbeste neskaxa ta andre aberats; orregatik, Munabeixiltzean, gizataldearen lazka, marmarra ta irakitea.

—Zaldunak, betoz bein zaldunak! —egiten dute oi.

Ba-datoz. Buru ankorrak goi dituztela, begi zoliz alderdietan begira, anka liraiñak ondo astinduaz, albo ta paparretan oial bitxiz apaindurik, abere aukeratuak, zaldi eder bikaiñak ozar datoz enparantzara, ta beren gaiñean jαιο burni jantziz estalduriko gizon gazteak.

Zeintzuk? Ugo Iturbe, Beltran Zubiri, Rodrigo Zumelzu, Arnaldo Zamudio, Jordan Mugartegi, Santxo Muxika, Ortuño Berroeta, Joane Abendaño... Soiñean ta abere mardulen oialetan bakoitzak bere jauregiko agi-riak dakarzki: batak otsoa, besteak pertza, onek gaztelua ta urrenak gurutze ongarria, zakurra, zuitza, buzoka, basurdea; margo zurian, azpi gorrian, elge urdiñean, lurki

nabarrean; urrez egiña, zillarrez betea, artille oriz eratsu josia edo ari orlegiz oso poliki antolatua, bada orrela eskatzen du asabien oroitza, gurasoen izena ta norbere bu-rua goratu bearrak,

Berariz da sotil jauregitarren agerketa, benetan da-
kusgu eder, egiaz daude ikusgarri zaldun gazteak eguzki
leñuruan dizdiraka.

Min du Gonzalo'k oietakoren bat izan bear eza; baiño
alboko emakumeak, Lorea otanak, gozaten dio barruko
samiña. Naigabez dago Lope Okerra gertatu ezalako,
baiña urrengo baten aisa iritxiko ditu ordaiñak.

Orain bi ta gero beste bi jartzen dira zaldunok aurrez
aurre, artzen dituzte eskubiko besapean guda makilla
sendo luzeak, adiskidien bularretaruntz zuzentzen dituz-
te, txaranbelaren agindu errea garbi entzuten da, ta bat-
baterako zalapartan. abiadarik zorrotzanean, tximistaren
antzeko erasoz, jotzen dute alkar erruki gabe, soiñari
txinpartak atereaz, aga lodiak errez zatitzeraiño.

Ta gauzaren arrigarria! Zaldi belatzak, jazar gogo-
rrean, bultzada zailletan igoturik, pitsa dariotela, au! ta
kemenge, atzeraka asiarren, zaldikoai etzaiote ia nekerik
ezagutu, beren lekuetan deus zirkiñik egin eztute. Aiek
gizonak!

Lenbizikoak, Iturbe ta Muxika, Zubiri ta Zumelzu, Za-
mudio ta Mugartegi, norbere azkartasuna jakin erazi
ezkero, utsalkeriz gaiñezka galetsi dute zelaia; baiña bu-
kaerakoak, Abendaño ta Berroeta, eztira ain aurki asper-
tu. Berriz ta berriz eraso diote alkarri; ezingo dute bo-
rroka utzi zein geiago dan ikusi arte. Biak dira gizon tre-
beak, biak indartsuak, biak Laura'ren maitaleak, ta Aran-
zibia'ko alaba ukaldia ikusten oartsu dago. Neskata
orren begirada bakoitzak kemen berria sartzen diote gure

gotsuena.

Labea bezin gori, sumiñez oso itxu; lagun izanik etsai bezela, giza zintzoak petral eginda; beroz jarrosiaz, itzez urruinduaz, irain ta birao, gajo ta kerten, arrano ta alajain, azpirako aiz, susituko aut, birrindu adi..., azkenean ere, norbaitek erori bear zuan ta erori zan Berroeta. Zorigaiztoko erortzea!

Abendaño'k, dagoan lekutik bere garaipena Laura'ri eskeintzean, Laura'ren arpegian poz andia ikusi du, ta aserre itsupenak beingoz irionik, ziñez lurrekoari galde-tzen dio:

—Miñik artu al dek?

—Animan.

—Ba! Ori eztek ezer. Aztuko zaik.

—Ez nere bizian.

—Ekatzak eskua.

—Iri!

Eztute besterik esan. Berroeta'ren jarkera da oparo sarkor.

Kirolak amaitu dira. Gizadiaren deadar-marruak urruti aldeko trumoiaren oiartzuna dirudi, ta egiaz, itxasoetatik jaiki dan odei beltzak dionez, ekaitz andia dator.

Billerako gizon ta emakumeak, egualdiari jaramon gabe, zaldiz ta oiñez, ijiji ujuju, bide ziorretatik aurrera, beren etxietarunrz dijoaz. Danak daramate zerbaiten ustea, norbaiten oroitza, zorigaiztaren azia: gorrotoa, edo zorionaren laiñoa: amesa. Batak, urliaren itzak dakarzki burura; besteak, sandiaren indarrak; onek, arako mutillaren gaitasuna; arrek, berari jo dizkaten txaloak. Berroeta'ri bere atsekabea oroitzen zaio; Izartxo'ri Munabe'ren ipuia; Lorea'ri Gonzalo'ren irudi bikaiña; Aranzibia'ko

alabari Abendaño'ren eskeintza. O! Gazte arren ondoan beste guztiak lotuak, baldarrak eta atsegingeak zerizkion: ura bakarrik zan vaio, ura bakarrik animako utsunea beteko dion gizona..

O zenbat aldiz Joane ta Laura'k esan diote alkarri Jaungoiko altsuak bata bestearentzat egin dituala !

(Euskal-Esnalea, 1917, 169 orr.)

OLERKIAK

Olerkaria, poeta! Zer dogu berau? Itzez edo berbaz ederra dagiana. Edertasuna izadian, begi aurreko munduan daukagu batez be Egilleak eurrez ereinda; haiña geuk be sortu geinke geure arimako indarren bitartez, oneik neurri egokitsuan euki ta erabillirik.

Antxiñakoak iñoenez, kontrarioen arteko kidetasuna bear da gorputzaren osasunerao; gaixoa ezta besterik odol-geldi edo soin-gaien batasunik eza baiño: jan geiegi edo gitxiegi, indarketa larregiz sortu oi da au, otza edo bereo, legorra edo ezoa beren lekutik urtenda dagoalako. Ekar barrero gaiok euren neurrira ta gorputza osasuntsu dagoke. Osakaiaren egikizuna ezta besterik.

Arte-gauzetan be bardintsu jazo oi da. Ipiñi gai-zati guztiak bakotxa bere lekuan, eta or lan eder bat. Bata-sunik eza itsusi ta motz dogun lez, gauzen neurri ta

nastu ta neurriratzen dituana arimea da-ta, arima ori be-egokitasuna eder ta onurakor. Bizitz-kemenak eta gaiak rori be naitaez neurri ta eder-sorburu izan bear; berak damotso gorputzari daukan era ta egokitasuna; barru-adoreen zelaian batez be, berak egiten dau batasuna gorputzeko lau izakera berezien artean. Giza-seeok, baizuk odol-gorri edo zuri gara, beste batzuk odol-bizi edo zurbil. Odol-mueta oneri begiraturik, bakotxak ditu bere gaitasunak au cdo a egiteko: batzuk gai dira erti-lanetarako. beste batzuk erriketa ta aginpiderako.

Zein odol-klasekoa ete gendun Agirre? Azkue jaunak onela: "Berez ere mendu ona, aiurri egokia, izakera bikaina zuen gure ikaskide Agirre'k, lur ongi laiatu ta ezo batek galazia artzen duenez, apaiz baten ontasunak artzeko. Paketsua zan, apala zan, etorkorra, ortzargia ta otzana. Ezti utsezko breska, argizai gabea zirudien aren biotzak. Arantze gabeko arrosarik eztala diote. Ura belarkia izan balitz, bai. Odol-gorri izateak baditu odol-zurbillak eztauzkan alde bat edo bestetxo, alderantziak geiago. Odol-gorri geranok, lanean asteko, zaiñetan darabilgu baikortasuna; odol-zurbillak geienak izan oi dira ezkor. Odol-gorri geranok iraunkorrigo izan oi gera geron asmoetan, lanean sendoago; baiñan gizartean bizi izateko, alde andia daukate aurpegi-txuri, aiurri biguñ-dun gizonak. Au gazterik ikusten nuen ta, begiak lausotutxe izan arren, zarrago ta argiroago dakust orain", (itzaldiak, 1923, 71 orr.)

Dana dala, Agirre arima eder ta onera makur baten **jaube** da. Arima orrek ezirik eukazan bere joera ta griñak; onela aren barne-baratzean geroago ta mardulago egiñaz joiazan onbidezko lorak dakarren zorion-aparra. Zorion alaia, zer da besterik otzantasuna, indar-neurri bardiña, men naroa baiño? Auxe dakusgu Agirre'ren

ure poza. Oreka ta barainetik sortu oi da ederra, barru egokitsuaren ispillu legez. Agirre'ren idaz-tiak bere arima neurritsutik darion lurrun ezti iraunkor dirudie. Edegi edozein liburu —Auñemendi'ko Lorea, Kresala naiz Garroa—, ta orixe aurkituko dozu: arima minbera, eder-zale, gozo ta guria. Igali-zugatzak, barriz, bere ariko frutuak emon daroaz.

Liburu oneik eztagoz bertsotan idatzirik; baiña nok esan iru liburuok poesirik ezabela?Giza-maitasuna, itxas-zorakorpena ta euskal baserrietako guru ta ire usain olerkitsua ez ete dauz gizonki kantatzen?

Baiña olerkiz be gaztetan batez be idatzi euskun Txomin Agirre'k. Ela bere olerkia zelakoa dan jakiteko, berari galde egiteko diñosku K. Etxegarai'k: "Ar zazute zeren eskuetan Agirre'ren idaztitxo bat, eta irakurri zazute Irakurtzen de: Menean, ez da noski zuen biotza len bezela egongo. Barren-barrenen, len etz.enuten sua uler-tuko dezute. Zer dala-ta izango da ori? Zuen begien aurrean daukazuten idaztia olerkia dalako".

IPUIA

Mendi altutik errekatxo bat
garbi-garbiya zetorren:
t'egun batian euskaldun zar **bat**
bere onduan zegoen
(agure zarrak, lenagokuak
mendi-zaleak ziraden)
Euskal-erriko samintasunak
ta naigabeak pensatzen.

Miñaren miñak orra nun dioz
malko eder bi atera,
eta, egiñik beren bidia
arpegi xarretik bera
erori ziran, igarri gabe,
errekatxo leiarrera
non, beti beruntz, etorri ziran
ibai txit zabal batera.

Ibai zabala, uri ondotik!
zetorren beti zikiña,
eta, batere jaramon gabe
besteren negar samiña,
errekatzoko malkozko urak
garbi ziranak antziña,
loitu zituan. Ala biar zan
egiteko bere diña !

Ibai zabalak bezela, askok
loitzen duu ur garbiak,
naiz birtutea bezin leiarrak,
naiz izan malko iturriak.
Askorentzako mundu onetan,
Euskal-erriko semiak,
zertzuk dirade malko batzuek?

(*Euskal-Erria*, XXII, 1890, 145 .)

ARITZARI TA EUSKALDUNERI (*Amalauduna*)

Oztasun andi bat zure inguruan,
Arbola maitia, ikusten dogu;
zugaz aztu dira euskaldun semiak
ta bizitasunak dira amaitu.
Ezta orri barririk zure adarretan,
adarrak guztiak yatzuz, igartu;
Geiyago eztaukazu zuk udabarririk,
galdu zara dana, betiko galdu.

Eta egur igarrak sutarako dira,
goruetarako legez atsua;
igartua bada Gernika'n arbola,
beragaz ein daigun danontzat sua :
eta euskal-semiak suaren onduan
egin daigun ondo atso-gorua.

(*Euskal-Erria*, XXII, 1890, 376 orr.)

NAIKUA JUAT

Bakartadeko baserri gaiñ-gañekua,
goi zagozana zero onduan ain baketsua,
bekaizkotzen dot zugan daukazun bizitz gozua;
zugandik dago asko urrerago gure Jainkua.
Maitetan zaitut, maitetan zaitut, baserritxua,
zarialako neure asaben bizilekua;
maitetan zaitut zarialako lengo-lengua,
erdera бага bizi zerana beti dontsua.

Alde egin deustat, beian itxi dot uri arrua,
auxe dalako euskaldunentzat oneen lekua,
auxe dalako iñor ez dagon toki ezkutua,
emen poz-pozik dakit nik joten txirolarrua,
mendi-mutillak, artzaiak legez gaztaiñ-txistua;
ementxe onduen dakit esaten nire kantua,
ementxe onduen... eztago iñor?... astera nua.

Garbia ta urdiña zerua gañian,
zelai loratsua dana apaindua,
arbolaz beterik inguru guztiak,
erreka garbia, txori-kantua..

Emen dago loren usaiñ gozua !
Abarka oñatzak bide txidorretan.
Ez dau erdeldunak emon pausua.

Ezta ona eldu erdal-berbetarik,
ezta emen entzun oraiñ artian.
Ez al dau eukiko sekula indarrrik
igoteko ona, bizi gaitian!

Nai ta bazter baten nai genduke bizi
eta bizi deilla gure euskeria;
ezta berezkua izatia maite
norberaren gauza ta bizitzia?

Zergaitik aukezten dabe euskeria,
zergaitik kendu nai gure ekanduak?
Ez garalako gu erdaldun gisara,
ez garalako gu eurak lakuak?

Arbola gañian dagon txoritxuak
gizonen gisara eztau kantetan;
baiña orregaitik, zeñek esan leike
eztala kantu au ona benetan?

Ezta birtutia ezkutuan bizi?
Eta dauka berak argi biarrik,
baldin bada argia mundu guztirako,
baldin bada argia bera bakarrik?

Bizi beitez beian erdaldun guztiak,
beian bizi beitez uri-zaliak;
itxi guretzako baso ta zelaiak,
itxi guretzako gure mendiak.

Maite ba'dozue zeuen erderia,
zeuentzat beietan gorde egizue;
erdera bagarik ondo bizi gara,
bakarrik euskera nai dogu gorde.

Iñor eztago entzuten nire kantu-soñua,
menditik mendi oiarzunetan aldian dua;
aritzak eta gaztaña-arbolak aizeak juak
dabiz sosiguz, gora ta bera euren buruak...
Mendietako baimena dauka nire kantuak?
Eztot besterik bat bere biar: naikua juat.

(Euskal-Erria, XXII, 1890, 562)

MARINELA

—Nora zuaz, mariñela?

Nora zuaz, gizona?

—Itxasora, naiz denpora
izan txarra, naiz ona.

—Baña ez dozu ikusten
odei zabal illuna,
ekaitzaren zaratia
ez entzuten urruna?

—Ogi бага geratu da
neure seme kutuna.

—Geldi zaite.

—Ez, aurrera.

—Mariñela, etzaiz jun..

Arrantzaliak geiago
ez ei eban erantzun.
Bateltxuaren gañian
itxasoruntz juan zan;
ur gañian gora bera
pixkaten ikusi zan,
ta gerora, aize-euriak
lanbrotan gorde eben..
Ezta geiago barririk
jakin gaur arte emen.

(*Euskal-Erria*, XXII, 1890, 525 orr.)

KANTARIAK

(*Nere adiskide Jose Arlola'ri*)

Kantatzen du txoriak / udabarrian / arbol gañean,
Erakusten gorputza / liraiñ, saltoka / adar tartean;
Baiña txori gaixua / negu tristea / daiorreanean,
Estuturik egoak / burua gorde / bar-barreanean,
Eriotza zai dago / ixil, mutua / bazter batean.

Txoria bezelaxe / adiskidea / gera kantari,
Txoriari bezela / etorko zaku / negua guri.
Zorionekuak gu / izango gera / azken orduan,
Jaunaren adiskide / bizi bagera / kristau moduan!

(*Euskal-Erria*, XXV, 1891, 388 orr.)

ITXAS-ERTZIAN

I

Zeru zabala goibela dago,
odeiak duaz aidean,
aizea gogor ate ta leio
oiuska irriñartean,
arbdlak oker, eta orriak
igesi ekaitz aurrean,
andrak negarrez itxas aldera
eziñ egonik etxean.
Txalopak dira itxasoan ta
galerna dago gañean.

II

Neguko arratsalde otz ta laburrean
eztozu ikusi eskale zarra
burua makurrik, oñak arrastaka
ta eziñ jasorik gorputz argala?

Eztozu ikusi, penaz beterikan,
ume zurtzik iñoiz, jaberik bage,
burutsik, oñutsik, ugarrez betea,
ta buruaren duiñ, kalerik kale?

Bada, or dagan aldra orretatik
unetxo batean gelditu leikez
agura eskaleak eta ume zurtzak,
ta alargun tristeak beti negarrez.

—«Ara bat!.. Bestea! .. Ba-datoz?-diñue—,
Iziar'ko Ama, erruki zaitez;
Itxasoko Izar argitsua zara,
gugana ekarri egizuz arren!»

Eztator geiago! Alperrik egozan
begiak botiaz itxaso aldera
agiri ete zan bisutsen artetik
txalopa aztarrenik gora edo bera.

Alperrik! Lanbroa, lañoa ta bitsa
zan bakar bakarrik ikusten zana,
ekaitz indartsua aize eguetan
erraz menderatzen itxaso dana.

Ixil egozala, ixil ta bildurrez,
kanpai danbadatxo il bat entzuten,
biotza ebela larri ta saltoka,
begiak negarrez, ta ara nun daben,

Oñaztari bizi bildurgarri batek
odei zeruko bat urratu oso
eta bat-batera, itxaronik bage,
trumoi gogorraren burrunbada jo.

Ondorean barriz asten da txingorra
t'euria gogotik zaparradan,
ta uluaz, txilioz, saltoka igesi
jendia guztia banakatu zan.

Dana ez! Bakarrik aitzaren gañean
gelditu da oraindik emakume bat.

Aize-euri tartean zein gogorra dagon!
Nork artuko ez leuke arri zatitzat?

Begira egizue: aizeak aidean
bere soñ illuna *pli-pla* darabil;
obiratz bateko dirudi bandera,
aitzian sartua, gorputza makil.

Aize soñuaren tartean itua
diadar mintsu bat dator beria...
Eztozue entzun?.. Ixo, danok ixo.,
diadarrak diño: «Neure semia!»

Jausi da andrea zentzuna galduta
aitzaren gañean oso-osorik;
arri gogor ta ezemaguriak
beregana artu dau errukiturik.

O! seme bat eukan, seme bat kutuna!
Zelan ez zatitu aman biotza?
Olatuak bultzau legorrera badau
bere semearen gorputz illotza! !

III

Jaungoiko itzala! Zure egintza da gauza gutzia,
zuk puztu dozu ikaragarri ekaitz sendua,
zuk dozu indartzen, zuk aidatuten dozu olatua,
zuk dozu sortzen aize, euri, txingor **t'edur zuria**.
Odei zeruko baltz izugarri keiñatzallean
egun sentiko eguzki errañu gozuan legez,
lur barruetan gordeta dagon sutokarian,
gau baketsuan, zeru urdiñeko izarren **bidez**,

au erakusten zein zaran andi ta zein altsua.

Zergatik, bada, gure Egillea, ain ona izanik
ipinten dozu Izate orren alizatea
negar, zispiro, malko samiña ta naigabea
ereiten sarri mundu onetan? Jauna, zergatik?..
Baña, zer diñot? Parkatu egizu galde arrua.
Mundu neurtuko gauzen barririk ezpadot baldin,
egintza zure sakonen barri zelan nik jakin?
Gu gara egiñak auts pizkategaz : zu Jaungoikoa !
Parkatu, Jauna, parkatu egizu nire galdea;
beti egin bedi guregan zure borondatea.

(*Euskal-Erria*, XXV, 1891, 562 orr.)

ON PEDRO NOBIA SALZEDO-KUAREN

jaiotzako lelengo eunkidan

»Nun dira orain zure semiak

Foru ta euskera-zaliak»

Arrese

Ara bat emen, neure adiskide,
Arrese koblakarija;
ara On Pedro Nobia-kua
euskaldunetan andija;
berak egin dau liburuetan
Foru-zalentzat argija,
berak maitatu ta erakutsi
gure euskera garbija.

Zer diñostasu, adiskidia?
Eztala oingo gizona?
Eztozu ikusten eztala ondiño
antxiñetako aitona?
Ez al dakizu gure sustraija
dala zabal ta zakona?..
Ain laster, bada, galdu ete da
euskaldun arraza ona?

Egija al da foru santuak
eztoguzala maitetan,
egija al da gure euskeran
eztakigula kantetan?
Egija al da galdu ginala,
galdu giñala benetan,
egija al da eztaukagula
lengo odolik zanetan?

Galdu badira gure foruak
ta galdu ekandu zarrak,
ausi badeutsez gure Aritzari
maite genduzan adarrak.
zer dogu egiten, adiskidia,
zetan gagoz bizkaitarrak?
Zer dabe egiten euskaldun seme
argitsu eta azkarrak?

Ondo dakizu, neure Arrese,
zer giñian ta zer garan;
gure izenak lenago iñoiz
munduba arritu beban,

asaba zarrak, erri-zaliak
kristiñau ziran denporan..
Gaur... ago ixillik, neure lumia,
zetako gejago esan?

Izarraitz'eko mendi aitua
eta Anboto'ko tontorra.
Gorbea ta Oiz, zuek lerdena
beti dozue gangorra;
ta naiz ikusi eguzki ederra,
naiz euri, edur, txingorra,
zuen burua makurtuteko
dozue gerri gogorra.

Bizi izaten ba'gendu ikasi
euskaldunak zuek gandik;
guzti-guztiok izan ba'giña
lengo-lenguak oraindik,
auspeztu baga gure burua
egon ba'giña zutiñik,
galduko ete zan gure legia,
galduko ete zan forurik?

Kontau egizu, koblakarija,
lengo bizitza zuzena;
ipiñi egizu kondairan ondo
erri andi baten izena;
kantau egizu oingo bizitza,
erriarentzat zekena;
kantau egizu zelan genduan
Aritz maitia lerdena.

A! Zure kantik esnatu al balei
euskaldunen lo-zorrua !

no

Zure kantuak esnatu al baleu
bijotz andijen barrua!
Esnatu al balitz emengo izate
biar dan beste arrua,
mundu guztia arrituteko
ez geunke egingo orrua?

(*Euskal-Erria*, XXII, 1890, 53 orr.)

ZER PAKEA!

«Qué *descansada vida*
la del que huye el mundanal
ruido.»

(Fr. Luís de León)

Non da bazter zakona,
bart ames eindakoa,
munduko diar ta garrasirik aiture gabe
an egoteko pake-pakean ongo gizona?
A! Ta zer gauza ona
(uri-zalentzat erri andiak aparte utzirik)
dan egotea bakartadean ixil-ixillik,
pozez begira mendi-zelaien alaitasuna,
lorenz ta orriz nola jantziak
dauden arbolak, ta zein garbiak
mur-mur gozoan beti dabiltzan errekatxoak !

Emen dagon pakea!

Gaztaña arbola baten azpian nago jarririk,
bere kerizpe maitagarriaz inguratutik:
ara non dagon nik opa nuan bakartadea.

Dakust, or beian, ibar jantzia;
aurrean daukat baso itzala
aritz arbolaz oso betia,
nagon lekuan, gaztañadia:
beratxoago, intxaur-pagoak;
belar berdean, marrubi gorri gozo-gozoak,
aldamenean, sagarren lorak,
txori kantariz beteta arbolak;
lore politak nere inguruan,
t'intza biribil beren kolkuan.

Manea baño Sortitza dala zenbat ohea!
Eta nola ez, gizonak egin badu manea?
Eta sortitzak Jauna ber-bera badu Egillea?

Gauza guzia dakust paketsu, ixil osoan..
Bakarrik dantzut arbisk burrunba nere alboan,
aize biguna jostakaria arbol ostroan,
ta zinzerri bat *dilin dolonga* urrutitxoan.

Erraietatik sentitzen da emen bizitz berria,
biotza samur, adñn argia,
arima-ariman damorri bigun maitagarria,
ta Jaungoikoa bedeintzen modu obia.

Munduko diar ta garraxirik ez det entzuten..
Pake osoan bizi liteke emen gizona.

A ! Ta zer gauza ona
(uri-zalentsat erri andiak aparte utzirik)
dan egotea bakartadean ixil-ixillik,
pozez begira mendi-zelaien alaitasuna,

lozez ta orriz nola jantziak
dauden arbolak, ta zein garbiak
mur-mur gozoan beti dabiltzan errekatxoak!

(*Euskal-Erria*, XXXII, 1895, 39 orr.)

GERNIKA'RI (1)

«*Kantalaria, kantau etozu
bertsoetan Gernika'ri*»
*Au entzun eta berialaxen
ara nun nagon kantari*

Nire biotzak zuretzako dau
bere tokirik onena;
mundu guztiko errietatik,
Gernika, zaitut maitena,
eta zelan ez, baldin bazara
erririk euskaldunena,
ta aman aotik kantu gozuan
ikasi neban izena?

Nik ez nekian nuntzan Gernika
ume nintzala oraindik,
t'irudimenez ikusten neban
(ameslari bat izanik)
andre zabal on baten gisara,
ibar berdean jarririk,
uri eder da zuri garbi bat
Antzak kerizpeturik.

(1) Aita Agustindarrak euren Ikastetxea zabaldu ebenean egilleak irakurria.

bere ostroak mugitzian,
maite maitero orri guztiak
mun-ka egozan kurutzian;
zerren kurutze santua euan
aritz adarren tartian
bere besuen kerizpe ona
zuri emoteko bakian!

Aritz gañetik zerua urdiñ
odei senik bagekua..
Zure lurrean alai jentia..
Bizitza Jaungoikozkua..
Lege zuzena, gizaldi askok
zintzoro gordetakua..
Zeiñ maitagarri, zeñ ederra zan
zure izate baketsua!

Egun batian zure gañera
jausi zan ekaitz dongea,
sarbaskiturik arbol santua
ainbesteraño maitea,
eta bertatik gelditu ziñan
errukarri ta tristea.
Ai mingarria! Galdu zenduan
Aritzaren estalpea!

Egun orretan, ondo, Gernika,
bete ziñan atsekabez,
baña ez bakarrik: zugaz batera
beste asko giñan negarrez ..

Ai! Eztakie erbestekuak
zer galdu daben, on ustez!
Ejenplogarri ziñan zu eta
oraiñ ejenplo ederrik ez!

Aritz azpian zenbat goiante
jaio zirian gozorik!
Zerren ementxe euki oi ziran
goiant-aziak gorderik.
Birtutia da goiant-azia,
eta erbesteak, alperrik
gurako dabe goiantik izan
erein baga birtuterik.

Kerizpe bigun osasuntsua
zuri kendu jatzunian,
kurutz santua urratu eben
arboliaz batian.
Ekaitz arruak ezteutsa itxi
Jaungoikuari bakian !
Aritz santua jo nai dabenak
jo biar dau kurutzian !

Gaur ikusten dot Gernika'rentzat
esperantzaren argia:
eskol'onetan barriz barrero
ereingo da birtutia.
Ta itxaro geinke Jaungoikuagan
egun obak ikustia.
Miraritsua fedia da ta
emen badago fedia!

(*Euskal-Erria*, XXXV, 1896, 350 orr

LORA BATZUK

I.—MENDI GANETIK

Guztientzakoa

Mendi-ganetik eguzki argia
gozoro dator goizean :
gozoagoa da zeruko doia
gure ariman sortzean

Batzuntzakoak

Esnatu dira mendi-zelaiak,
dakustaz eder jantzirik.
Eguzkiaren mun bigunakaz
orritz ta lorez josirik.

Esnatu bedi gure arimea,
apaindu daigun onbidez,
Maria Amaren arpegi ederra
ikusi eztaigun asarrez.

II.—ITXARO DAIGUN

Guztientzakoa

Itxaro daigun Ama onagan
zorionera joatea,
Bera dalako, Jaunak eginda,
zeru ederraren atea.

Batzuntzakoak

Ama gurea goietan dogu
zeruetako edergarri;
bere semeak gabiltz lurrean
negarrez eta errukarri.

Ai! Neure Ama, etzaitz aztu
nazala Eba'ren umea,
Jesus laztanak Kalbario'an
Zuri emoniko semea.

Erregiñatzat koroeturik
Zu zagozala zeruan,
zelan geintekoz pozez gu bizi
erbesteturik munduan?

III.—USAIN GOZODUN

Guztientzakoak

Usain gozodun lora ederrenak
txortatu bitez eskuan,
larrosa orriak zabal daiguzan
gure Amaren altzuan.

Batzuntzakoak

Ederrak dira baratza-lorak
intza kolkoan gorderik;
baiña ederrago biotz garbia
zeruko doez beterik.

Eskein eiozu biotz donea
zeruetako Amari.
Ai! Ez eroan eskeintza loirik
garbitasuna danari!

{Euskalzale, 1897, 142 orr

A M A B A T

Seiaska marroiz baten aurrean
makur, ama bat, lengoan
begira egoan ume berea
esna edo lo ete egoan.
Ezaguturik esnatu zala,
arturik bere altzoan,
maitasuneko berba ederrakaz
amak onela ziñoan:

«Semetxo neure biotzekoa,
semetxo neure kutuna,
zuk argiturik ipiñi dozu
nire arimako illuna;

Jaungoiko andiak emon daizula
indarra eta osasuna.
Ilgo ba'ziña... galduko leuke
zure amak bere zentzuna.

Semetxo laztan sortu zareana
errai neureen erdian;
semetxo eder, bardin bagea
itxasoan ta lurrian,
etzara jaio jauregi baten
aberastasun artian...
Baiña zu zagoz, maitea, asko
aberastasun-etxean.

Jauregietan jaio direanak,
errege direanak sortu,
ezingo dira, neure biotza,
bein bere zugaz negurту.
Aginpidean izango dira
geiago, ezin ukatu;
baiña ederrez, neure kutuna,
ederragorik eztozu.

Zure bekoki zabal garbian
ta begi urdin gozoetan
ezagutzen dan argitasuna
ikusten eztoz besteetan...
Ta urre irudiko ule kiskurra?
ezpada urrea benetan,
urre-zidarrak baiña geiago
balio dau nire usteetan.

Kutun, laztana, biotzekoa,
neure semea zu zara;
zure ondoan aztuten yataz
samiñak eta negarra.

Zu nire poza, nire atsegiña
betiko izango etzara?
Naiko deustazu, maiteko nozu
maite zaudazan gisara?

Ze ao polit zoragarria,
ze samurra ikusten yatzu!
Zure ezpan bigun, orban bagean
irri-barrea daukazu.
Menturaz, baietz, aingerutxo,
baietz agintzen deustazu?
Etxe onetako lora ederrena,
indar!, mun bat egidazu.

(*Euskalzale*, 1897, 22 orr.)

S A R A ' K O L O R E A

Madalenatxo Larralde'koa,
Sara'n sortu dan lorea,
noraiño zoaz ain goiz ta apaiña,
ain eder eta gaztea,
gerra-denpora bildurgarrian?
Nora, bakarrik, maitea?
—Bera'rontz noa billatu naian
arimarentzat pakea.

—Baiñan etzera, Malen, bildurtzen
bakarrik, gazte eder ori?
—Nere bidean ni bildurtzeko
zer egin diot iñori?

— Zer egin dezun? Zer egin dio
arkumeak atsoari?
Zer egin dio txori gaixoak
mirotz erpe sendoari?

Ai! Bildur zaite, Madalenatxo,
Sara'ren edergarria!
Mirotz guziak t'otsoak baiño
txarrago da gerraria:
bere legea da gorrotoa
ta amesa odol-egarria;
laguntzat dauka bandera beltzdun
eriotz negargarria.

II

Pinet gogorra da Sara aldean
prantses martitzen burua,
betosko illun, begirada txar
ta itz garratzean maisua.
Gudari askok egin bear du
martitz orren agindua.
O! Jaungoikoak egin dezala
biotz samur t'onekua!

III

Or dator Malen . Arpegia du
gozo, biribil, leuna;
maitasunezko begiak dauzka,
begirada txit biguna,
gorputz lirain ta ondo betea,
sasoiko azkartasuna.

dan Madalena txukuna !

- Nondikan zatoz? —galdetzen dio
gerrari batek zorrotzik.
—Bera'tik, jauna, —erantzuten du
Malen gureak —Bera'tik.
—Zer egin dezu gaur Bera'n? —Jauna,
autortutzea bakarrik.
—Eztet sinistzen, salari zera:
lotua zaude bertatik.

IV

Ai! Ba-darame gaizkile-gisan
euskai mendiko usua.
Gezur txiki bat esan nai ezik
galtzen du bere burua.
Gazte zera ta, bizitzagatik!
gezur bat, Malen gaxua !
—*Salbe Rejina*. Gaztea ba'naiz,
gazterik nai det zerua.

O mingarria ! Men egin zaio
Pinet'en aginduari.
Zer egin dio txori gaisoak
mirotz erpe sendoari?
Zer egin dio arkumetxoak
otsoko amorratuari?.

(*Euskalzale*, 1897, 43 orr.)

TESUS'EN BIOTZARI

*Erriak: Maitasunen egarrian
bizi zareana munduan,
ase zaitte maitasunez
Jesus'en Biotz dontsuan.*

Batzuk

I

Nik billatu dot
maite nebana:
ona emen dakust
altara aurrean.
Ai, neure poza !
Ai, neure ezitia !
Gorde naizula
Biotz zurean !

II

Neketan nago,
Jesus laztana:
lasterka nator
bide luzean,
iturri garbi
gozoetara
oriñ azkarra
doan antzean.

III

Eskeiñiarren
lurreko eztiak,
nazalako ni
gozo-zalea,
zer emon deuste?
Ur-tanta mingots
gose-egarrien
esnatzailea.

IV

A! Ba'lekie
jenteak zer dan
zure ur garbien
gozotasuna!
Zeinbat samiñek
leukake ezitia,
ta zeinbat gaisok
bere osasuna!

Zuretzako Zuk
egiñak gara;

Zugandik urrun,
Jesus biguna,

Zugan nai dogu
bizi maiterik.

gure biotzak
eztau bakerik.

Erriak: *Gurtu daigun*
Jaungoiko gure egillea,
gizon danen janaritzat
altara orretan gordea.

Batzuk

I

Or barruan
dago umillik,
estaldua,
gizonaren
janaritzat
Jaungoikua!

II

Zeru-lurren
jaube ba'dan
eztirudi.
Ogi pizkat
ikusten da
zuri-zuri.

III

—Jaun donea,
noizko dozuz
ondasunak?
Zeiñek olan
estal zaitu?
—Maitasunak.

Erriak *Artzai donea*
zeran Jesus,
zure artaldean
ar nazazu,

Batzuk

I

Zugana nator,
Jesus nerea,
maite-maitea,
ni Zugana:
bada Zu zera
maitegarririk,
Zu zera artzairik
gozoena,

II

Ibilli ba'det
bide galdua,
etsai-mundua
jarraiturik,
emen naukazu
gaur parka-eskean,
aldara aurrean
auspezturik.

III

Aztu itzatzu
nere uts-eitiak,
eta guziak
estal zatzu.
Damu det, Jauna,
oben egiña:
negar samiña
ken zadazu.

(Euskalzale, 1897, 179 orr.)

AGURE-KANTA

Negu beltzaren beltzenetako
jai arratsalde batean
nere gelaren leio-zulotik
begira nengon pakean;
anima bizi bat bakarra-re
etzan agiri kalean;

etxeko denak festan ziran-ta,
bakarrik nintzan etxean.

Esango nuan lotan zeudela
mur-murrak ixil osuan,
senti ezpanu era batera
norbait kantari auzuan,
boz bigun, makal, samurgarrian,
esakera samintsuan .
Gizon zar baten kantua zan ta
ara emen zer csantzuan.

«Jarrita nauka bakartadean
indar-ezaren indarrak,
pegar soñuan kantari nago
nere barruko negarrak,
nere barruko negarrak !

Oroimen bizi ta ibilkariak
nere aurrean, nasturik,
a!, zenbat jolas ipintzen dizkan
gozo ziranak mindurik,
gozo ziranak mindurik !

Gaztea nintzan! Gizon sendua,
gogor, indartsu, lerdena:
azkarrak ziran lagunak baiñan
ni danetan azkarrena..
Bai!, danetan azkarrena.

Gaur, indar gabe besuak eta
begiak dauzkat lausuak.

burua zuri, belarriak gor
eta txit sorrak pausuak,
eta txit sorrak pausuak...

Festarik ba'zan inguruetan
lagunak nituan billa;
juaten nintzan alai ta garbi,
arturik nere makilla,
emen daukaten makilla.

Gaur ere leku bazter ontara
datorkit fest'oiartzuna.
O! Zertarako! Asearentzat
dena da garraztasuna,
den-dena garraztasuna

Festa-oiartzun urrutikoa,
nola zu zatoz nigana?
Ai! Neretzako mingarri zera,
gaztearentzat laztana..
gaztearentzat laztana..

Zoazkit, bada, nere ondotik,
txoratu itzazu gazteak.
Ba-daukazu lan: oiek zartzean...
Atzetik datoz besteak,
atzetik datoz besteak.

Nere sasoiko gizon lagunak
il ziran danak, negarrez!

Laster askoan ikusi ditut
aien senideak farrez,
aien senideak farrez!

Bakarrik nago goizean eta
arratsaldean bakarrik;
gaurko egunean iñork eztu nai
aldamenean aur zarrik;
iñork eztu nai aur zarrik.

Egur igarra bezala nauke
sutondoan baztertua,
suaren garra daukat laguntzat
ta nere Jaun zerukua,
baitare Jaun zerukua.

Zertarako da egur igarra
len izanarren ezea?
Zertarako da landara zimel
lore ta likurt gabea,
lore ta likurt gabea.. ?

Nere aurrera iñoiz ba'dator
etxeko gizon gaztea,
galdetutzen dit ajol-antzean :
«Nola dago aiton gurea!
nola dago aiton gurea !»

Ai! Ezpaneki berea dala
ajola gezurrezkua !
Ez nuan noski orain jakingo
nola dan gaurko mundua,
nola dan gaurko mundua.

Ikaraz nago, beti bildurrez;
eztakit ondo zergatik.
Onenbestean gizona aultzeko
badu neguak indarririk?

Nik ikusi det lenago ere
Izarraitz-gaña lañotan,
nik ikusi det elur txuria
Ernio mendiñ askotan:

Nik ikusi det zero goibela
lurrari argia kentzen,
nik ikusi det ekaitz gaiztoa
itxas gizonak ondatzen :

Nik ikusi det olatutzarra
bitsez aitzetan burruka;
nik ikusi det negu-txoria
triste aidean oiuka :

Nik ikusi det egun laburra,
gaua izarrik gabea;
truixu ekaitz ta txingor artean,
eztet nik galdu pakea.

Neguan bertan neretzat beti
alaiak ziran egunak;
nolatan, bada, ikaratzen nau
negu beltzaren illunak?
Zerren orduan, gaztea nintzan!
osasun eder batekin;
zergatik neukan udaberria
beti barruan nerekin !

Negua da ta gogoz euriak
kaleak bustitzen ditu;
nola ni ere negua naizen
malkoak ezin gelditu,
malkoak ezin gelditu!

Aseko dira euriz landarak
eta berdetu kanpoak.
Ni, legorrago geldituko naiz
ixuritzean malkoak,
barren-barrengo malkoak!

A ! Zein otza dan gaurko aizea!
Nola ni nagon ikara !
Leio-zulotik oiuka dator
gizon iltzaille gisara,
gizon iltzaille gisara.

Legor ta zailla dakat gorputza,
baiñan anima samurra;
nere anima da zerurako,
gorputzarentzat .. or lurra,
gorputzarentzat or lurra.

Biak nik maita ! Baiño geiago
anima, nere jabia.
Pensamentuen jaio-tokia,
sentimentuen kabia,
sentimentuen kabia !

Bakartadean billatu nai det
animarako osasuna;
bakartadean billatu bear
maikoen gozotasuna,
maikoen gozotasuna !»

Kantari zarra ixildutzean,
oso samurrik nenguan;
kantua daukat gaurdaino ere
ementxen, belarronduan,
darnorrigarri, bigun, tristea,
negargarrizko soñuan .
Etzait aztuko kantari zarra,
etzait aztuko beinguan !

(*Euskalzale*, 1897, 186 orr.)

AI BALEKITE!

*Et in terra pax hominibus
bonae voluntatis.* (S. Luc, II, 14)

I

Zaudete ixillik, gizon argalak!
Zuen oiuaak naukate miñaz.
Eztet nai entzun munduko esanik.
Lurtarrak lurrez jantziak daude,
lurrez ta griñaz!

aldi askotan gezurrak dira;
ta baldin ba'naiz egizalea,
jaso bear det gorontz anima,
betiko Urira.

An dago egien iturburua:
naikua urruti gizonakandik!
An dago beti gozotasuna.
Andikan datoz ezti-tantoak,
ta egiak andik.

Zaudete ixilik... Sinai mendian
Moises onari, legea emanaz,
itz egin zion Jaunak berberak;
aingeru eder baten aotik
dakust esanaz :

«Jaunari emen zeru goietan,
Bera dala Egille altsua,
eta lurreko erbeste-beian
biotz oneko gizon guztiai
pake dontsua !»

II

Ai, gaur ba'letor lur onetara
Jaungoikoaren mandataria!
«Nun da pakea —esan lezake—, onen saria,
zeruetatik nik ekarria,
gizonarentzat Jaun Egilleak aukeratua?
Eztet billatzen pakerik emen, ta bai kontrara
arrokeriak, etsaitasunak, eta ondamua.

Zer da, jenteak, gertatzen dana zuen artean?
Nun dira Jaunak eman zituan erakutsiak?
Amaitu ziran biotz oneko gizon guztiak?...»

Arrazoizko itzak litezke izango, begiratzean
munduko gauzak nolatan diran gaurko egunean:
ekaitza sortzen dan bezelaxen, ustekabeen,
ala sortzen da guda lurrean.

Ta nola ekaitzak dakarren sarri
kanpo ta baratz, lora ta alorten ondamendia,
nola datozen aren ondoren oiuka aizia,
zerua beltzik, errekek arro, eta itxasoa
bere aserrean ikaragarri;
orrela dakar guda makurrak neke gaiztoa,
zitalkeria, ikusi-eziña, aserretzarra,
gorroto beltza, sua ta garra,
ta luzaroan ezin legortu degun negarra.

Gudak gogortzen ditu biotzak,
ekartzen ditu samiñ zorrotzak,
itxutzen ditu gizon argiak,
eta aztu-eragiñ zeruetako erakutsiak.

Gudazaleak nai duena da mendetu etsaia,
ta mendetzea naikua eztala, zuzi ta astindu,
jo ta maillatu, ausi ta puska, triska, birrindu.
Ta itxumenean ezta ezagutzen norbere anaia!

Pozez ba'dago gudalaria
urrian dabil malkozko aria;
guda-gizonak beste gisatan ezin du goza:

ostikopean daukan anaiak atsegintzen du
ta etsai negarrak pozez zoratu;
ta negarretik datorren poza,
o!, nik eztakit zenbateraiño madarikatu !

Dunduritzen det guda zuzena, bear danean,
dierriaren alde izatean,
ta Eleizarentzat mesedezkoa;
baiñan oiezaz gaiñetikoa
eripetzen det nere anima bar-barrenean!

HI

Zer dan pakea? Aztu zerate?
Pakeágandik urrutietan al zabilzate?
Maita ai dezue gudalarien lan-bide okerra...?

Pakea degu gau izartsuko illargi ederra,
baso-mendien ixiltasuna,
umanzitxoen auski leuna,
ugeldietan ibaiak duten malsotasuna,
itxasoaren barezko eguna;
bakartadean bizi diranen arren soñua,
erru gabeko ume aingeruen lo-lo gozua,
euskal artzaien bizi-modua,
jauregi zarren orma kondairar untzez jantzia,
ekaitz ondoren agertzen zaigun goiko ustargia,
Jaungoikoaren farre-irria !
Neke gabeko atsedean ordu ta naikidea,
zeru bidean guk biar degun arnasa artzea !
Anima zintzo garbi-garbien bizitz donea,
zerutik Jaunak biraldu zigun karidadea:
orixen degu kantari nagon pake maitea!

Pakeak dakarz bere laguntzat,
maiatzak bere lorak bezela,
bedeinkaerak, itz ongarriak,
samurtasunak ta poz berriak;
atsegin bigun animakoak,
mundu onetan billatzen diran ezti-tantoak!
Manearentzat dauzka txaloak,
birtutientzat on-eresiak;
berak legortzen ditu malkoak,
berak saritzen ditu izerdiak;
paketik dator jakituria,
gizonarentzat onenetako apainduria;
paketik dator duikinde ta sal-erosketa,
lan-bide onean irabazten dan ogi-pusketa,
soroetako narotasuna,
etxadirako arki-bidea,
ganbara zabal arto ta gariz ondo betea,
gutxi-geiago denok nai degun diru-ondasuna,
alkarganako mitetasuna,
abegi ona, ikasi naia,
adiskideai egiten zaien *agur* alai,
baserritxoan ikusi oi dan pozezko maia,
berri onakin biotz barruan daukagun jai !

Paketik dator animarako doai santua,
gizon guztiak begira dezen zeru alde;
paketik dator, zerua bera!,
pake zalien beti-betiko bizi-lekua!

Pake gozoa. Zeruko alaba !
Zure ontasunak, zure gairiak,
zure ekarrera osasuntsuak,
eztitu ikusi gizon itxual,
eta orregatik, etzaitu maite!

Ai, balekite mundu guztian zein dezun Aita
ta zure ondoren zuk dakarzuzan mesede andiak!
Elitzatezke iñola izango gizon ta erriak
gaur diran baizen doaikabe ta errukarriak !

(*Euskalzale*, 1897, 266 orr.)

ITXAS-ALDIAN

Zeinbat bidar zure ondoan
umetxu nintzarian,
zeinbat bidar, itxasua,
egin ete dot ames !
Zeinbat bidar ibiili naz
ondartzeta bigunian
egin nairik etxetuak
desegiteko berez !
Zeinbat bidar goietatik
txori-aldrak ikustian
egaka arutz ta onuntz,
eta neuk egorik ez,
pentsau dot Jaunak zergaitik,
gizona egin zanian,
emon ez eutsan egorik,
izan ezkeru ain errez!

Zeinbat bidar, neu bakarrik
jarririk aitzen gaiñian,
ikusi dot aitza bera
dana zuritzen bitsez,
ta olatuaren indarrak
berunzkuan, aitz tartian,

daruazala arriak
biraka nai ta nai ez,
geratzen zirala batzuk
arri andien azpian,
beraren leguntasuna
eskatzen ba'lebe lez!
Zeinbat bidar, zeinbat bidar
aitzetan ta ondarran,
juan yataz ordu onak
laguntxuakiñ barrez!

Baiña juan zan umetasuna,
juan ziran ume-kontuak.
ta juan dira orduko amesak,
ta ez dira amesak oinguak.
Arri ta arantzak billatzen ditu
Adan'en ondorengiak:
eztau zapaltzen ondar bigunik
ibilleran nire orpuak.

Munduko gauzak gizonak gaukez
guztiok zereginuak;
lurrian zelan bizi pensetan
duaz udak ta neguak .
Ta bitartean, txori-aldra asko
len lez, zabalik eguak,
urrin dabilta. Ze urrin diran !...
Ta urriñago zeruak !

Itxas ondoko arriak legez,
munduan garan artian,
bira-biraka gabiltza danok
lurreko ujol tartian;

eta alperrik ibilten gara
laguntasunen atzian:
ezta, nai arren, zeri eldurik
beti billatzen bidian.

Gaur bere nago zuri begira, itxas altsua;
zagoz gogorra, bildurgarria, orroetsua.
Zu aiña ezta sekula izan mendi aitua,
zu aiña ezta izan sekula dana mundua.
Gerralariak euki ba'dabe lurra goitua,
nork goitu zaitu, orain artian, zu itxasua?.

Ara emen dator danen gaiñetik, zure olatua,
bits, irakiñez guzti-guztia koroetua...
—Alper-alperrik, jasorik gora zure besua,
nigana zatoz. Desegingo da, gizarajua,
burrunbadaka, aitz-ondarretan, zure amorrua.
Zure gaiñetik, danen gaiñetik, da Jaungoikua;
Berak emonda artu zenduan toki neurtua;
nai eta nai ez bete biozu bere agindua.

Bildurgarria ba'zagoz bere oraingo unían,
gustagarria zeinbat bidar egoten zarian,
leun, baketsu eta urdiña zagozanean!
Eta ze pozik egoten nazan illun aldian,
eguzkiaren argia agurka ia danian,
ikusten zelan urre-kolorez jazten zarian,
begira zelan kaira txalopak etorten dian,
aize biguna sentitzen gozo neure arpegian
ta olatuaren zarata urriñ bake-bakian!

Orduan iñoiz entzuten ba'dot eliz-gaiñian
kanpai-danbada kristau guztiai erregu eskian,
nik entzuten dot kanpaien otsa biotz-erdian,
ta erregutzen dot bizitsuago, modu obian.

Garratz ta gozo beti daukadaz zure onduan
neure umetako, sasoi dontsuko gauzak goguan;
eta agiri ezpada iñor nire inguruan,
zeruraiñoeko egaak egiten ditut orduan,
zeren, nai bada igo ta igo txori moduan,
naikua ego daukagu gure pentsamentuan.

(Euskalzale, 1988, 58 orr

SEIASKATXO BAT!

Jaiki gizonak, jaiki artzaiak,
Jauna omen dator eskale;
egin dezagun Aur Jaungoikoa
animen guztien jabe.

Ara nun dagon	Lotan zaude Zu
jaio berria,	jasto gañean,
Jaungoiko izanik	esna ta deiez
lurrez jantzia...	arai aurrean,
Begira nago,	intzez beterik
Aur pozgarria,	gau illunean,
nola daukazun	arrenez eske,
zer miraria!,	dei samurrean,
esna biotza,	ar zaitzagula
lotan begia.	guk, biotzean.

Ai, nere Jesus,
atoz **nigana!**
Zorioneko
Zu zaukazana!
Nere biotza,
o Jaun otzana!
Zuk ba-dakizu
zurea dana .
Zaude nerekiñ,
Jesus laztana!

Gizon lurtarrak,
esna ta jaiki,
jaiki ta zabal
biotza ireki.
Jauna da eskale!
Zein ezta erruki?
Egin animan,
epel ta garbi,
seiaskatxo bat
Jesus Aurrari!

(*Euskal-Esnalea*, 1911, 170 orr.)

ERESIAK JESUS'I

Danentzako

Goazen guztiok Beien aldera,
goazen guztiok len-bait-len,
sortu geranen Jaun ta Jaubea
jaio dalako Belen'en.

Batena

Illuna dakust gaba,
eztago jarrik;
baiñan ez det sentitzen
argi bearrik.
Jesus nerea!
Nun billatu zu baiño
argi obeaV

Ille kiskurrak ditu,
ta begi urdiñak,
zerua bera baiño
obeto egiñak.
Nere laztana!
zuri begira dago
lurbira dana

Pekatatrien billa
zatoz jurrera,
maitasunez biotzak
irabaztera.
Maite nazazu !
Bada pekatari bat
emen naukazu.

(*Euskalzale*, 1898, 8 orr.)

ONDARRIBI

Ondarribi, Ondarribi,
Euskaldunen orubea,
Erregien jauregi ta
Gaztelu zarren jabea,
Giza-leialen seaska.,
Sorterriaren atea,
Alperrik bele arrotza
Izan da zure zalea.
Sendoa badezu noski
Arrizko gerri lodia
Zenbat aldiz sandoago
Biotzaren ausardia !
Nola zu arrotzak ausi,
Kementsuen arrobia?
Nola beleak garaitu
Arranoaren kabia?

Sagunto'rena bezin goitarra.
Zeiñ eder zeran ta dizdilari!
Izaki dana dezu opari:
Eguzkiaren errañoetan dator zugana
Zeru bikaiñen musu laztana.
Ibar naroak lore limurrez inguru zaitu;
Zure omenean antola degun zortzikoari
Arkaitz zuloak oiarzunetnn dio jarraitu;
Itxas altsuak, bagaz t'orroaz, bere gisara,
Negu beltzaren gau illunean
Oroitzen dizu antziñetako gud'eresia,
T'uda garaiko egun barean
Esku zabalez biraltzen dizu zure oñetara
Bere ur garbien apar zuria.
Mintzo danetan gaillurreraño jaso zera;
Gizon argiak, ipar aldetik,
Leiatsu datoz zu ikustera;
Kondairaleak zure kemenez zuzperten dira,
T'Ama biguna, Guadalupeko mendi gaiñetik,
Txoratzan dago maitagarriro zuri begira.
(*Euskal-Esnalea*, 1913-1914, 118-19 orr.)

TXORI ALAI

«Txori alai pitintxo,
ereslari eder zintzoa,
eztiat aspaldi entzun
ire txiotxo gozoa.

Gaiso al aiz?

Ator garaiz.

Milla bidar egunoro
i oroituaz bizi naiz..
Ibai aldeko urritzetik
soñu leuna datorkit,
ereslaria bai ona!
Kirkirrik ezta inguruan,
gorde da igelen flin-flona:
bakarra dago zelaia;
aspertu zan igitaia
neska-mutillen eskuan;
izarrak abia dira
odei tartetik begira:
dana dago isil-isillik,
nere txoriño kutuna,
aditzen ire jarduna,
biotzaren eresia,
zeñ ezta !,
zeñ biguna!»

{Larralde'ko Lorea, 1935, 79 orr

AU ONDAMENA!

Au ondamena ! Au zorigaitza!
Ai, gure Sara maitagarria!
Ai, basotarren Euskal-Erria!
Zuen burura zeñ izugarri dator ekaitza!
Frantses arro ta odol zalea
txito egin da gure lurraren jaun ta **jabea.**

Atzotik ona dagon aldea !
Oraintsu emen, ibar zelaian,
 jolasa naian,
 jetxi ta ega,
 igitai-sega,
alai ta atsegin ibilli oi zan
eguzkiaren argi-musua,
ezpata zorrotz gañean, ara,
gudaren txingur balitz gisara,
edo etsaiari esnatu zaion gorroto-sua.
Gabiroiaren atzaparretik,
lortu eziñaz kabi epela,
estu dijoan uso bezela,
igesi goaz frantses artetik.
O gizon oiek Deabruaren aideak dira !
Bart arratseko ordu beltzetan,
nabarbenkiro irriz ta parrez,
eliz-ateak txautu indarrez,
eta Jaunaren ontzi donetan,
 zital ziztriñak,
mozkortzeraño edan dituzte ardo zikiñak!
Urren oster, kanpai zoliak,
gure maikoen ta gure pozen ereslariak.
ikutueran negar musiña berenez jota
eliz-burutik lurrera bota
Orain, azkenez, kai zabalaren erdi aldean,
ote zakarra bezin añote,
zuaitz gaztea dute gaur jarri.
Askatasunen zuaitza dala omen diote :
o zein gezurra ! Bere itzalean
loturik daude gizon zintzoak izu ta larri.

(Larralde'ko Lorea, 1935, 89 orr.)

EUSKALDUN BAT!

Euskaldun bat! Euskaldun bat
euskal etsaien artean !
Au gendukan ikusteko,
gure Aita Jaungoikoa!
Menditar gizon yaioa
Galtza-Gorri'ren aldeko !
Sorterriko lur maitean
erdal izkerak erausi;
bide-gurutzeak ausi,
kanpaiak zearo artu,
eliz doneak lapurtu
dituztenakiñ batean !
Borteren bat izango da
Euskal-Erria'n azia
O bildua ! O likitsa !
Naskagarrizko piztia !»

(*Larralde'ko Lorea*, Zarautz, 97 orr.)

IPUIÑAK

Ipuinzale zan Agirre. Bere nobelak ipuin antzera egiñak dira geienbat, kondaira ta egunerako bizitzatik arturiko aleak txukundurik: Auñemendi'ko Lorea edestitik jasoriko ondar-mondarrez, Kresala Ondarroa'ko arrantza leen bizitz-atalez ta Garoa euskal baserritarren kezka ta bizitasunez. Irurotan daukaguz gertaera ta iduriak maisu batek baizen egoki ta apain alkar josita.

Lar mena ta bekoki illun dakusgu gaurko gizona, irribarre geiago ikusi gura genduke bere ezpan-gaiñean: "Irripar egizu" idatzi dabe egunokaz, bultzi, biltoki ta bidecgaletan. Txomin Agirre'k ba-eban arima onaren ezau-garri dan irribarre ori ezpan-ertzean lilitsu. Garratz-tan-tarik ez eutson urten ari luma muturretik; umore ona bai, ta sarri atan be. Bere idaztietan barra-barra erein

eban barren-giro gozatsu orren azia; ez gero bat-bateko barre-algara ezin-bestean ekarria eragiteko, berez-berez datorrena, biotz-zauskada ta gora-beraz betea baiño. Ederto alkartzen ditu arek poza ta goibela, malkoa ta barrea.

Naiz-ta euskaldunok berez umore ta aldarte onekoak izan, euskal idazleak eztabe alderdi jakingarri au euren liburuetan larregi goratu: Larrarnendi ta Iztueta'k euren liburuetan, Bilintx'ek bere ahapaldietan, bertsolariak euren jardun ta saioretan, eta milaka izkirimiri idatzi dabezan idazlari ixillak zertxobait. Agirre'k be idatzi eusku-
zan olango batzuk; ederto A. Arrue'k: "Kresala'ren eta bereziki Garoa'ren orrialdetan umorea non-nai nabaitzen da. Ta ez gañera nolanaikoa: umore berezia, umore baikorra, umore arin-alaia. Itz balean: euskal umore jatorra'.

Aren ipuiñetan ba-da beste saiets bat be gogoangarria. Idazle onak, geienbat, berak ikusia ta berari jazoa eskiñi oi dausku. Berak ikusia ta ikasia dakar batez be bere liburu irakurgarrietan. Ondarrutarra jaiotzez ta Zumaia'n, itxas-ertzean, urteetan bizi izana zalako, itxasoaren orroe ta intziri zakar-gozoz maminduta egon bear, nai ta ez, aren liburu ta ipuiñak be. Ixasgaia zan beretzat aukera-koena, begikoena, alaigarriena, galzori ta sentimentu barrenkoiakaz beterik egon arren. Ondo ausnartu ta gogoan erabillia, errez-errez, adierazo oi dogu.

Gauza onetzaz entzun A. Arrue jaunari: "Euskalerrria itxas-ertzean kokatua dago. Itxasotik eta itxasoari dagoz-
kien ogibidetatik euskaldun asko bizi izan oi dira beti. Bestalde, itxasgizon trebe ta izen aundiko pranko ere eman ditu gure Erriak. Alaere, ordea, euskal-idazle gutxiek erabilli dituzte beren lanetan itxas-gaiak, naiz eta batzuek kostan bertan edo inguruan jaiok izan. Eztugu Domingo Agirre orietakoa. Bere Kresala gertirudian eta

bere olerki ederrenetako batzuetan itxasoa —ta itxasoa bakarrik— kantatzen da. Ta, nola gañera? Beste izkuntzetako idazlari galúrrerenetan bezain egoki noski". Ta urrengo olerki zatitxo au dakarsku gogora:

*uZeinbat bidar zure ondoan,
umetxoa nintzanean,
zeinbat bidar, itxasua,
egin ete dot ames!))*

Gaur diñoenez, Kresala ei dogu bere nobeletatik ederrrena, ta Kresala'k daukan zatirik bikaiñena Kitolis deritxona, osorik biotzean ikutzen dauskun gertaera bizia. Baiña ba-ditu beste ipuin txikiago batzuk, emen doazan Buru-azurra ta Anton Betosko adibidez, kresal-usaiñez beterik, ederto baiño edertoago egiñak.

EMANGO NION

Bein batean, Getaria'ko gizon bat San Anton'go tirarte edo izaroko aitzean, ba-zegoan, ba-zegoan arrantzan, kaiñabera bar eskuan zuala, orain durdo bat, gero lasun bat (korrokoi bat) eta geroago itxaskabra kaskarren bat ateriaz.

Onetan, ikusten du ur garbi-garbiaren barrundean, bere karnatareu ondoan jira ta bira, ego ta buztanari eragiñaz, zortzi-amar libra inguruko lupi (lupin) andi eder bat. Pozaren pozez ikaratzen da getariarra lupi eder ura ikustean, eta arnasaraiñoko guzia gelditu nairik, esaten du. lupiari begi biak botiaz:

—O Aira *Santanton* Getariako!, nik arrai au arrapatzen ba'det, libra olio argitako.

Au esanaz batera eltzen dio arraiak amoari, ta ba-dakar

tuari egin zion agindua: «eztet esan argitako, ezpadaze *printzeko, prijitzeko*».

Baiña, ara non, eskua lepora bota baiño lenago, askatzen dan amotik lupia, ta dxaustada bat egiñaz, erortzen berriz uretara, ez geiago agertzeko.

Orduan arrantzaleak, burua makur zuala ta erdi negarrean, esan omen zuan: «O Aita *Santanton!*, ori esanarren emango nion, emango nion».

(*Euskalzale*, 1897, 46 orr.)

ERLOJU KONPONTZEN

Aita-seme batzuk erloju zar bat konpontzen ari zirala, sartu zan auzoko atso bat aien etxean.

Gizonen lanari pizka baten begira geldituta, esaten du atsoak:

—Zertan ari zerate?

—Ikusten dezu, erloju erlojua konpontzen.

—Erlojua konpontzen? Ori ere ba-dakizute?

—Jakin ez, Maintoni? —dio etxeko andreak—; oiek oso *astruziosuak* dituzu : naikoa dira oiek Jaungoiko berrri bat asmatzeko ere.

(*Euskalzale*, 1897, 54 orr.)

MARRUBI ITZALA

Beasain aldean burni-bideak egiten ari zirala, langille bat, Andaluzia'ko semea, gezurti andia, beti omen zegoen

lagunen artean bere erriko anditasunak esaten: bi *librako* pikoak, zazpi librako laranjak, eta onela.

Egun baten, beste langille batek, Orio'ko semeak, esan omen zion:

—Neronek ere ikusi det, ba, ementxe, Gipuzkoa'n, zuk zure errian ikusi eztezun bezelako gauza bat.

—Zer zan bera?

—Esango dizut berealaxe. Nere auzoko gizon bati galdu zitzaion bei gorri bat, eta irten giñan adiskide batzuek bei arren billa. Orio'ko mendi batean gebiltzala bi lagun, ikusi genduen Izarraitz mendi gaiñean gauza gorri-gorri bat. «Zer dek au?» esan genion alkarri.

«Bera izango dek» esanda, ba-goaz lau legua bide ta geiagoan Izarraitz mendiraiño; ta, igarotzean, zer uste dezu billatu genduela? Obeki, zer zala uste dezu Orio'-tik ikusi genduen gauza gorri ura?

—Beia?

—Ez, jauna, ez; marrubia.

(*Euskalzale*, 1897, 59 orr.)

PAZIENTZIA

Il zan gizon bat etxe batean, eta bere emaztea negarrez urtzen zegoan, senar izan zanaren gela ondoan.

Auzoetako emakumeak asi zitzaizkon itz onak esaten alargunarl, bere naigabe zorrotza zerbait arintzeagatik.

—*Pazientzia* artu bearco dezu, Maintoni, pazientzia —esaten zion batek. Eta alargunak erantzuten zuan:

—Bai pozik, berak nai ba'luke.

Aldemeneko etxe batean bizi zan mutil galant bat, *Pazientzia* ezizenekoa.

{*Euskalzale*, 1897, 134 orr.)

Joan dan udan kanpotar gizon andi bat etorri zan Gipuzkoa'ko erri batera, bero-egunak gure mendi tartean igaroteko asmoan.

Erri guztikoak jakin eben laster kanpotar ori gizon argitsua zana, paper albistarietan irakurrita batzuk, entzunda beste enparauak.

Jai-egun baten ba-dago eliz-atarian gizon aldra andi bat, eta kanpotarra elizara sartzen ikusten dabenean, asten dira bere gainean itz egiten.

Jakintsua zala ta jakintsua zala entzutean, aldrako gizon baserritar batek esaten dau:

—Ezta gizon ori ain jakintsua, ta gutxiago ere.

—Nola ez, ba?

—Nola? Erri onetan denok dakigu non dagoan *Errekatxo* baserria, ta orrek etzakik : neuk erakutsi bear izan nion lengoan.

{*Euskalzale*, 1898, 5 orr.)

BURU-AZURRA

I

Antxiñetako denporan gertaua da.

Urrillaren azkenengo arratsaldian X-ko portura etorri ziran bertako txalupa guztiak, bela zuriak aizez beterik beltzarga ederrak zirudiela.

Eguzkiaren amaierako argi erraiñuak urreztzen zituan itxas-gizonen erramu bustiak.

Iñoz ikusi eztabenak eztaki zein begiragarria zan txalupa etorrera au.

—Arrantza ugaria —esan eban erritik betaurre luze bategaz begira egoan gizon batek, pizka bat urreratu ziranean txalupak.

—E?... Santu guztien jaia ondo igaroteko eria —erantzun eban beste batek.

—Benetan, On Pedro? —ziñuan inguruko emakume aldra batek. —Ene! Gauzen gizonei aparia prest jartera—. Eta banatu zan erri guztian zabaltzen barri ona, Jaungoikuari eskerrak emonagaz.

Gau atan X-en sukaldiak atsegiñez, beterik egozan. Zelan ez? Aspaldian itxasua ain urria, ain ukatua euki eben bertako arrantzaliak eze, ezin izan eutsen kendu ogi apur bat euren semetxuentzat, eta egun baten ekarri eben eza-gutu ez legezko irabazia.

II

Bizitza doakabetsua eukiagaitik beti izan dira gure mariñelak alegere ta bizkorrak. Ondo erakutsi eben X-en Santu guztien egunian euren irrintzi ta saltuakaz.

Oraindik osta ziran igaro txistu-danboliñ soiñuak ixildu ziranetik lau ordu, oraindik uste zan zirala entzuten gaztiak kantau zituen zortzikoen oiartzunak, deitu ebenian itxasorako. X-ren mariñelak, nekiaren ezaguerarik emon бага, jagi ziran biziro, eta laster, erraunak azkar erabiliagaz asi ziran itxasoruntz.

Errekan ziar, barratik kanpora urten baiño len, txalupa baten barruan euki eben berba-aldi au:

—Triste zagoz, zaarra; jai urrena al da?

—Bai, jai urrena da; baiña ez nau orrek tristetzen; ezta biar egitiak bere : uste dot dakizuela alperra ez na-

zana. Bakarrik samintzen dau nire biotza ez gordetiak geure asabeen oitura onak. Guztiok ez genduke lagundu biar gaidu ez daitian ezertxu bere euren ekandu ederretatik?

—Ondo esana; baiña zerk berba eragiten dautsu orretara?

—Eztakizube gaur zer egun dan? Gaur animen eguna da, eta gaurko egunez etzan itxasoratzerik lenago.

Geienak ez eben berbarik eraso; batek erdi bildurrez esan eban.

—Atzoko bat/arrian ia patroï danak euken ez itxasora juateko iritzia; baiña Prantzisko'k errazoia... ren itxuri-agaz berba egin eban esatian igaroko egun askoan ezer ekarri ezta orain, zerbait emon gura dabenian itxasuak, ez juatia ez deitzola. Orregaitik beragaz erakidatu ziran beste patroï guztiak.

—Ekandu onak kentzia gauza ona da? Eta egin leike iñok errazoia... gaz berba gauza txarraren alde? Frantzisko luzaruan erdal-errietan egon da ta areetatik gurako dau barri au sartu, beste asko legez; baiña euskaldunak ba'gara, euskaldun zarren gauzai jarraitu biar deutsegu.

—Egia esateko, zenbat guretariko itxaso onek iruntsi dituan... ta!

III

Illunabarra zan. Zeru odei baltzez jantziak esan zeikian mundua lutuz estali gura ebala; itxaso sekula ez legez bariak Kanpo-Santu baten itxuria eukan; itxasondoko mendietan arbólak, orri бага ta illak, azurrutsaren antzekuak irizten ziran eta otiaren lora oriak illaren koloria emoten eutsen gauza guztiak.

X-ko txalupak etozan portura motzik, aize apur bat

baga, indarraren indarragaz ekarriak, eta erritik begiratirik laba-txori batzuk iruditzen ziran.

Kaira eldu ziranian, ezagunak itauntzen eben:

—Zenbat?... zenbat?..

—Eztogu iñok arrain bat ikusi, —zan erantzuera.

—Bai, —dirautsa onetan aguratsu batek—, Prantzisko'renak artu dau zerbait.

—Zer?

—Gizonen baten buru-azurra !

Eta egia zan.

Gertaera onetatik gaurko egunera urte asko juan dira; baiña X-ko mariñelik ezta geiago itxasora juan Zemen-dia'ren 2'an.

Gaiñera ezteutse jaramonik egiten sekula erdal-erri-tarren esanai.

Ai, au egingo ba'lebe euskaldun guztiak !

(*Euskalzale*, 1897, 354 orr.)

MAINTON ITZONTZI

Era bitarakoak oi dira emakume sendatzailleak, edo sendatzailletzat arturik daudenak. Batzuk, biotz onekoak, berez artarako jaio dirala uste dutenak, borondaterik onenarekin jokaten dute beren aide, ezagun eta auzokoeta-koak sendatzen, iñoiz, sendatu bearrean, ondatzea gertatu izan ba'da ere. Beren iritziz, amonak erakutsitako miritzi edo *ujentua*, ta Itziar'ko *Barberu* zarraren neska-meagandik ikasitako loizoki edo *enplastoa* sendagarri berdingabeak dira : onelako ta alako osatu zituan berrialaxe: orko agurea ta emengo gizon gaztea, arako etxeko-andrea ta urlia zaldun, osagille onenakin orra ta ona ibilli ta

zituari bi egunean.

Ez al dezu ezagutu onelako sendatzaillerik, irakurlea? Baietz deritzot. Erri bakoitzean ba-dira bat edo bi. Askotan poz-pozik eta farrez lertzer egon izandu naiz orrelako emakumien aotik, gaixo ta eri dauden erritarrak zer eritasun duen aitzen. «Odolak *paratu* du, jauna», esaten due gaixoa lodi samarra danean. «Pasmaok jo du», diote askotan. «Isipula barrura sartu zaio orri», esaten ziran, oraindik egun asko ezjala, nik dakidan norbaitek, zarren zarrez iltzen zegoan atsotxo bategatik.

Baiña orrelako sendatzaillak errugabeak izan oi dira askotan. Geienez erriko osagilleari ematen die zeregin apurren bat, eta erriko osagilleak berai buruko miña, al ba'due.

Ta eztaue beti al izaten. Toki guzietan izaten dira maitatuak emakume oiek, batez ere gaixoen etxeetan, ta gaixo edo erriaren etxeok egiten due alegiña orrelakoak etxean daukaten sarbidea ta oskaiak estaltzeko.

Txarragoak dira bigarrenko erakoak. Beste beren gisako emakumeak baiño argitxoagoak geienetan, jostorrazaren zulotik sartuko litezkean emakumeak, oso lotsagabeak, lanari gorroto diotenak, edari-zaleak (txuri ta gorri, datorren bezela) erdi aztiak, erdi sorgiñak, begi-gorri, mutur-zikin ta esku beltzekoak; ikasten ditue *enplasto*-egiera batzuek, olio ta ardo nagusi dirala, billatzen ditue onelako edo alako belarrak; ta ba-dijoaz etxerik etxe, batzuetan deitu zaietelako, ta besteetan ezagunak diralako, beren oskaiak zeruetaraiño jasotzen dituela.

II

Onelako bat zan Mainton Itzontzi, atso argia bera ta edari-zaletxo ere bai. Gauza asko zekizkian Mainton'ek.

Berak zekian ondoen, ziotenez, umeen arpegiko atz edo *kirkirrak* ateratzen, Mairuen denborako lauzikoak eta artale batzuk paperean batuta,

Kirkirra bat eta
kirkirri bi,
kirkirrak ditu
amabi;
amabitik
amaikara,
amaikatik
amarrera..

ta orrela berutz, arnasa batean *batetik utsera-ño* esanaz; berak zekian buruko ezkabia kentzen, zapatagillen pikea urtuta, lurruna zeriola, gori-gori, ezkabitsuen buruan jarriaz, beren diadar ta oiu garratzen errukirik gabe; berak osatzen zituan sabeleko miñak edari gogorrean bustitako zapi gardostua sabel gaiñean ederki zabalduta; berak ematen zituan izaiak, eta gorputza barrutik garbitzeko, asko jan-ondorean bear izaten zan... *zeeko zea*; berak maniatzen zituan jai-otorduan aurtxoak eta ilda gero emakumeak; eta etzan, azkenez, gaixo-mota bat Mainton'ek zekizkian belarrakin osatu ezin zezatekeanik.

Gau batean deitu zien neri (antxiñatxoan zan, ta nere erritik urruti) gizon eri bati laguntzera, bada gaizki zegoan gizagaixoa, birikeri, alboko edo alborengoarekin ta bere autorrera azkenengokoa egin nai zeukan. Nere lan guziak bukatuta, gizon eriarekin egonaldi on bat egin ondorean, asi nintzan sukalderruntz bere emaztearekin itz bi egiteko asmoan; baiña sukaldeko jenteak gizon baten ezpata-soñua aitu zuenean, asi ziran itxumustuan ta zala-partaka zerbait estali naian, ta bultzatu zuen sukaldeko atea.

Ta orduan, emakume batek, atea zabalduta esan zuan:

—Ta zer da ba, medikua izanda ere?

—Nola Mainton daukagun **emen**..

Ta alaxen zan: an zegoan Mainton, koipea zeriola okotzeko bizarretatik bera, ezkerreko eskuan lukainka-mutur ta ogi-zati bat ta cskuikoan *baso* andi bat ardoz betea zituala.

—Zer ekarri dezu onera, Mainton? —galdetu nion.

—Ara, jauna, —erantzun ziran, eskuetako gauzak mai baten gaiñean utzita, bere mantal zikiñarekin begietako makarrak eta musuetako dindirria kendu zituanean—; **ara**, jauna, araiñeun goizean andre Joxpa kaleberrikok, bost eta erdietako mezatara nijoala, bada nik, egunero ez, *bidiak* bezela, baiña sarritan entzuten det meza, eta jaietan ez tet nik mezarik uts egin igaroko lau urte ontan, arako, berorrek dakian bezela, askilletan bera eronta berna-ezurra puskatuta egon nintzan ezkerro, zergatik badakit nik Jaungoikoak lagundu bear diguna gauza guztietan: ta egunoro erresatzen diet nik Aita San Roke'ri *libra* gaitzan *peste*, *sarna*, *errabi*, *mormo* ta beste gaitz guztietatik; Aita Santiago'ri *libra* gaitzan ..

—*Tira*, zer esan zizun Joxpa Kaleberriko'k?

—Esan diot ba, jauna. Billatu nuen nere Joxpa ori eleizara zijoala; ni bezela... andra ona da, jauna, zintxo, leiala, *fiña*, amaika bider eman dit neri arrek gosari ederra, mezatatik ertetzian, *nezesidadian* nengoala ezagututa! ligia da, neronek ere, bere joan-etorrietan..

—Zer esan zizun?

—Esango diot, ba...

—Baiña bereala, eztaukat astirik egoteko-ta.

—Ara ba, esan zian, Pedro-Mari Sagastikoa, gizon ona, jauna, langillea..

—Bai, bai, ta...

—Esan zian gaizki zegoala, ta erriko *merikuak* etziola *asertatzen* zer gaitz zeukan. Ta orduan, etorri nintzan, jauna, *karidadea* egiteagatik, jauna...

—Ta zer du, ba, Pedro Mari'k?

—Zer izango du, jauna? Txilborreko aizeak albo jo.

* * *

Ez nuan geiagoko itzik aitu nai izan. An gelditu zan Mainton Itzontzi, berriketan, lukainka-muturrari ainkaka, ta bere aizeak (aizetsua omen zan) albora jo etzaioten bildurrez, ardo ontzia ustutzen galanki, Pedro Mari'n etxekoen lepotik, beste askoren lepotik edaten zuan bezela,

(*Euskalzale*, 1897, 187 orr.)

ANTON BETOSKO

I

Beti billatzen neban leku batean. Lapa bat aitzari elduta egoten dan gisara, itxaspistraka utsez janaritua, Anton Betosko, ego-aizeak aiña urte zituan gizona, arrizko jarri-lekuan jarriarik, beti egon toki baten, geldi-geldi, mutik egin bage, besoak bularrean ta besoan gaiñean okotza ebala, tinka-tinkaro itxasoari begira, ur zabalaren azalean beti zerbait ikusten ba'lego legez. Egun-sentia agertzen zanetik eguzkiaren amaierako argi - erreñuak marboilaren azkenengo arian gordeten ziran arteraiño, an egongo zan Anton Betosko, meza donea entzuteko

m

sasoian ta lapikoko gatz pizkabategaz gozatutako india-
rrak (baberrunak) koillarakada bitan jaten ebazan bitar-
tean izan ezik.

Arrantzale izanikoa zan, esaten ebenez, jaiio zanetik
bere indar guztiak galdu zituan artean; baiña nik ene-
ban arrantzale ezagutu ta nire sasoko gizonak bere ez.
Niretzat, Anton, beti izan zan, urte askoan, itxasurreko
jarri-lekuan billatzen neban gizon illuna, iñori jaramonik
egiten ez ekiana, «egun-on» edo «arratsalde-on» esaten
yakonean, arpegia ondo jiratu bage, bein bere ondo aditu
eneban kurrinka bategaz erantzuten ekiana.

Zer zan Anton? Gizatxarra etzan, bada eleizarako bidea
bekian ta eguerdi-illuntzetako Agur Mariak esaten bein
baiño geiagotan somau neban, bere txapel koipetsu zarra
eskuetan ebalá. Zegaitik iges egiten eban jenteen artetik?
Zerren Anton'ek naigabeak eukazan, biotzaren erdiko nai-
gabeak, eta etzan mundua Anton'en naigabe-zale eta, An-
ton bere ez jenteen jolas gura

II

Ezagutu neban ondo jai-egun bateko illunabarrean.
Erriko enparantzan gazteentzat egoan soiñu zoroari iges
egiñaz, igaro nintzan itxas-aurrera, eta an, neure ustez,
bakarrik nengoan neure gogorazioe ez gozo-gozoakaz.
Eguzkia, itxasoaren azkenengo marran, geldika geldika,
andientza gozogarrian, asi zan ur-azpitan ei daukezan
jauregi miragarrizkoetara jasten, lotarako asmoan, goizean
goizetik egin eban bide luzeagaz nekatua ba'lego legez.
Baiña ez itxasoari urre gorrizko jantzi eder bat eskeiñi
baga. Aitz-ondoko ur guztiak marmarradan ebiltzazan soi-
ñeko ederra eurakanaiño eldu etzalako, ta or jo ta emen
bultza, itxas-bazterreko arriak astinduten ebazan alde guz-

tietatik; eta aitz andiak geldi egozalako olatuari arpegi emoten, jagiten ziran olatuak gora-goraka., inguru guztiak beren aserrcaren bits ta txipistiñez beterik... Erri aldetik osta-osta entzuten neban enparantzako tanboliñaren soiñua. .

Itxasoak, illunabarrean, neketan dagoanari gauza asko esaten deutzaz. Asi yatan, niri bere, arimako oiñazeakaz nengoalako, milla ipuin damorrigarri esaten; ta zelan gorra enintzan, ba-nengoan, ba-nengoan, itxasoaren erakutsi osasungarriak entzuten, neugandik ez urruti eztulzar bat entzun nebanean. Begiratu neban zein ete egoan inguruan, ta ikusi neban, bapere miraritu bage. Anton Betosko, betiko jarri-lekuan. Egon nintzakon begira pizka baten, baiña berak uretarako bakarrik eukazan begiak eta eninduan ni ikusten... Itxasoa, asi yatan ostera, aguratu aren gaiñean beste ipuin barriak esaten, atsekabeak, samiñak, naigabetsuak; eta adierazoten emon eusten, nire naigabeak Anton'en naigabeen ondoan etzireala bapere mingarri. Orduan samurtu yatan neure biotz guztia gizontxu zarraren naigabeak gogoraturik, eta otu yatan beragana joatea apur batean itz egitera. Esan da egin, ba-noia Anton'enganantz zarata pizkat bidean egiñaz, itxumutuan beste gizon bat bere ondoan ikusteak izutu ez eian aguratzua, ta urreratu nintzanean, dei egin neban:

—Kaisio, Anton.

—Kaisio, —erantzun eustan, arpegia biurtu bage,

—Giro al dago Itxas-aurrean?

—Nitzat beti.

—Bai, beti ikusten dot ementxe, ta zerbaitek ba-dakar, giroak, gogoak, edo... Baiña, zer gertaten yako? Negrerez dago berori? Zegaitik, Anton? Miñen bat dauka? Eztago ondo? Zer dau?

—Ezer bere ez, gatzetxoa.

—Ezer bai, zerbait bai, esan gura eztabena; nik jakin bearko eztodana ausa; baiña..

—Zerbait, zerbait; zein da lurrean eroakizunen bat eztaukana?

—Bai, baiña batzuk geiago beste batzuk baiño; batzuen naigabea andiangoa besteena baiño.

—Egia da ori, ta nire naigabea andienetakoa.

—Andienetakoa?

—Bai; zuk eztakizu nire kondaira.

—Ez, jauna; ta nai ba'leidake esan, gogo andiagaz entzungo neuskio, bada aspalditxoan ezagututen dot be-rori ta beti begiratu deusat errukitasunez, zegaitik ez-takidala.

—Bein bere eztot beste orrenbeste entzun neure erri-tarren aotik.. Zarra naz ni, neuk bere eztakit zenbat urte daukadazan sorbalden gaiñean, ta geienak itxas orretan igaro dodaz. Sartu nintzan itxasora prakak jazteko gauza nintzanerako, ta or ibilli naz beti tostartean ezetarako izan nazan bitarte guztian. Neure sasoiria etorri nintza-nean, ezkondu nintzan erri onetako neskatilla bategaz. Zuk eztozu ezagutu nire emaztea?

—Ez, jauna.

—Katalin eritxon; baba-lorea baiño ederragoa zan gaztetan, berakatz atala baiño *piñagoa* beti ta iturriko ur garbia baiño garbiagoa... Seme bat izan genduan, Serapin. Eztozu ezagutu nire semea?

—Ez, jauna.

—Ez egoan errian ta inguruetan beste bat bera lan-gorik. Mutil sendokote baltzeran begi argiduna, *trinketa* baiño andiangoa, balea baiño indartsuagoa, aitzia baiño gogorragoa, erramuetan ezagutu dodazan mutillik azka-rrena, jgarian izurdiak baiño ariñagoa, tanboliña bera laiño alaiagoa, ogi bedeinkatua baiño ohea, lagun ona

ta seme bat beste semeak eztirean antzekoa. Maite neban ! Neuk azi nebala egin *kontu*, amak baiño geiago. Leorrean giñeanean, neure belauenen gaiñean dantzan, txikitxoia zan artean; anken gaiñean ibilten ikasi ebanerako, neugaz elizara, neugaz Lezo'ra, neugaz Itziar'era, neugaz Urkiola'ra, neugaz Antigua'ra; eta laster neugaz itxasora. Amak ez eban nai itxasora eroan neian; onegia zala, ederegia zala, alperrik galduko zala; baiña itxas-zalea zan mutilla be, aitaren semea, eta ni barriz enengoan ondo neure aurrean bera ikusi barik. Ai, aman esana entzun ba'neu ! Enintzan gaur ain bakar ta larri egongo !

—Zer? Galdu egin vatzun semea?

—Eztozu entzun zelan ito zan Serapin?

—Ez, jauna, nik.

—Etzenduan entzungo. Paperetan zerbait irakurria zareala daukat entzutea, baiña ez eben ipiñiko Serapin'en eriotzarik. Gizon andien gauzak bakarrik izkiratuko ditue paperetan.

—Zeiñek daki nor dan andiena Jaungoikoaren aurrean, Anton !

—Egia; zeñek daki? Esango deutsut zelan galdu zan Serapin. Aintziñatxu igarotako gauzea da, baiña gaur bertan gertau ba'litz legez daukat gogoan. Entzuidazu. Besigutako sasoiia zan. Urtarrilleko goizalde baten, ordu batak inguruan, dei-zalearen lenengo deia entzun orduko, jagi nintzan, begiratu bat emon neutsan zeruari ta itxas-aldean, ta asi nintzan jazten. Jagi zan Serapin bere, ta nagiak ezin botean egoala, esan eustan:

—Au logurea daukadana, aita!

—Bai, erantzun neutsan; atzoko erramuetek nekatua egongo aiz, ta gaiñera bart berandu oeratua izan bear dok, eure ta nire tretzen naste ta mokoloiak ezin desegi-

ñik egon aizalako. Baiña iparra yaukagu ta tosta artean etzin-aldi bat egiteko astia izango da.

—Zer egualdi dago? —didar eieban onetan, Katalin'ek bere zulotik.

—Egualdi ona —erantzun neutsan—; zeru garbia, ¡zarratu ederra, itxasoa bare ta izotza gogor.

—Izotz andia? Orduan, Serapin, semetxua, artuik jaka lodiena, or daukak oe-adarrean, ta batuizak ondo burua ta kokota lepobilkai andienagaz. Ta ez eroan zirezko erroparik, astunegiak yagozak eta. Jakia or daukak otzaran..

—Bai, bai. Ama, ezkara gu alperrik galduko. Agur, arratsalderarte, Jaungoikoak nai ba'dau.

—Aingeru Jagoleak lagun.

Ta Katalin aopean zeruari erreguka geldituten zan artean, urten genduan *Kurutze Santuaren* eginda. Guk legez, urten eben beste arrantzaleak euren etxeetatik, eskumako besapean tertz-otzarak eta ezkerrekoan mundil bana edo biña zituela, ta *trisk* eta *trausk*, geure zurezko oiñetakoakaz erri guztia esnatuten genduala, jantzi giñean kaleetan zear kai-alderaiño. Gure txalopako lagunak batu giñeanean urten genduan bereala, ta ordu bat eta erdie-tarako ondarpe edo *barraz* kanpotik gengozan.

—Nausia jaso gora ta lo —esan geuntsan alkarri; ta esan da egin: aida baten ipiñi genduan nausia ta laster luzatu genduzan ankok belapean, gidaria (patroia) izan ezik besteok.

Lo-aldi bat eginda jagi nintzanean, *Kalatik* ezkengozan urriñean. Aize gogortxuagoa zan, iparkoia; itxasoa eragintxuagoa egoan, ta *brankatik*, azkenengo ur-ertzean odei-matasatxu bat agiri zan deabruaren arpegia baiño baltzagoa.

—Beltxior, —esan neutsan gidariari—; itxura txarra

dakar egualdiak eta begiratuik ondo, gaurko arrantzea itxita, obeto ete dan erriko *bandan* (erri-aldera) astea.

—Egia, Anton; itxura onik eztago ta gure atzetik etozan batzuk errialderuntz asi dira; baiña orra or aurreko kaian ikusten dodaz Mitxel Tolet, Martin Lanbas ta beste batzuk, eta orreek baiño gitxiago ezker. Txalopa barria daukagu, indarra bere bai barruan, ta beste batzuk egiten dabeena egin daikegu.

—Bai, baiña gure al izate ta indarrak eztira ekaitza-renak aiña.

—Ekaitzari, Anton, sarritan iges egin dautsagu zuk eta nik; eta gaur eztot uste bere atzaparretan jausiko gare-anik. Bear bada egualdiak atzipetu geinkez beste askotan legez, ta mingarria izango litzateke, besteak arrantza onagaz ta gu utsik etxera joatea.

—Aup! Gora, mutillak, bakoitza bere zeregiñetara.

Jatsi genduan bela nausia, asi giñean tretzak bota naian, baiña ezin zan. Itxasoa geroago ta irakiñago egoan; aizea, geroago ta gogorragoa zan ta mastetatik beera dindilizka egozan soketan, txistuka ta kantari ba-ziarduan jardun txarretan; zero-alde guztia, odei baltz bildurgarrikoz estaldurik, euri-tanta lodi-lodi batzuk danga-danga botaten asi zan. «Ganean dogu», esan geuntsan guztiok alkarri. «Iza triketa» —ziñoan diadarka Beltxior'ek—; iza triketa ta bira erri-alderuntz».

Aizeari *popa* emon geuntsan; bira zirean Tolet, Lanbas ta beste danen txalopak bere, itxasoari tretza ta mundil guztiak itxita; ta ba-gentozan, ba-gentozan leorruntz. Ba-genkarren guk aparra! Goizeko lenengo orduetan gengoan, baiña illundu eban barriro eguna ta ezkenduen ia txalopa barrukook alkar ikusten; aizeak buruko txima guztiak eroan bear euskuezan aurrean; arra bete bidean gengoan gizonak ezkenduan alkar aitu-

ten: ain zan sendoa ekaitzaren durundi-ots ikaragarria! Goitik eta betik, euriak eta olatuak, busti baiño geiago maillatu bear genduezan bere joera indartsuakaz. Jatsi genduan triketa ta ipiñi zan erdian *burriketa* txikia, gidariaren aginduz baiño obeto bata besteen ziñuakaz alkar aituta. Bekian an barruan bakoitzak zer egin bear eban, ta ez egoan alperrik gure artean; *tangarta* eukanak tangartagaz, beste edozein ontzi eukanak eskuko ontziagaz txalopako urak kanpora bota; Ama Birjiña Antigua'koari, Itziar'koari, edo Lezo'ko Jesus Kurutzekoari eskeintsari onak egin, ta *Nere Jesukristo Jauna* esan biotzaren erditik, bada-ezpada..

An gura neuke nik ikusi olango batean Jaungoikoaren etsairik andiena! Intxaur-oskol baten sartuta legez gendozan, naita-naiezko dantza negargarrian, bein brankaz (aurrez) zerura begira ta popaz (atzez) leza amaigabeen sarturik; orain baborreko karele itxasoaren barruan genkarrela; gerotuago estiborreko aldera eginda azpi-erdiko aria uretatik kanpora ikusi zeikeala; noiz ondatuko, noiz ondatuko, otzak eta bildurrak ia konorta kenduan, ta biotza danba-danbaka genduala... An nai neuke nik ikusi gizonik arroena! Nire orduko burutasunak itxasoko ur gaziak baiño gaziago ta mingotxagoak zirean. Nekarren gogoan, eztakit zelan ta zegaitik, zein maite neban neure Katalin, etxe bazterrean negarrez ta arrenetan egongo zana orduan; zer egingo neukean neure amako seme Serapintxu'ri bizitza on bat emoteagaitik... Eta an bertan egoan Serapin, neugaz batera, intxaur-oskolean, arrain gaiztoen janari izateko zorian... An nai neuke nik ikusi gurasoa bere seme kutun bategaz!

* * *

Anton Betosko, gizon illuna, kaskar-itxurakoa, **arraik** baiño otzago ta gogorragokotzat geunkana, bere erritarrak biotz bagakotzat eukena, parra-parra negarrez **egoan**, bere esago (isrori) edo kontaera mailla onetaraiño ekarri ebanean. Damutu yatan gauza ain samiñak nik gogoratutea aguratxuari, ta berak atsedean bat egiten eban bi-tartean, malkoak eskuturragaz leortuaz ixillik nengoan ni berari begira, zer esan enekiala.

Malkoak zelانبait erdi legortu ondorean, jarraitu eban bere kondaira esanaz era onetan:

Azkenean bere gertau bear ebana gertau zan. Etorri yakun ganera aize-bolada (bunbada) ezin esangarrizko bat; eten zan dxartada baten burriketea loturik eukan sokea; ta beleak, aurrerantz eroian indarragaz, bota eban gizon bat ankaz gora uretara. (Geroago jakin neban Jose-Maialasto izan zala, gizon argal luze bat arrantzalerik onena baiño ohea, zazpi umen gurasoa. Buituta (puztuta) billatu ei eben gizagaixoa andik iru egunera). Gizona uretara jausi zanean, danok egin genduzan ibillera ta arazo itsuetan, gidariak bere arreta pizkaren bat galdu bear izan eban, zer egiten eban ez ekiala; txalopea **gelditu** zan zuzendari basa, ta *el, et, et...* *Aitearen* egin orduko, azpikoagaz gora egoan, ta gu, azaldu giñeanok, igarian zer edo zeri eldu nairik.

Jaungoikoak alan gura izanda, ain zuzen, Lanbas'en txalopea etorren tximistak baiño ariñago gure **atzetik**; eta, aidean eioala, gelditu eziñik, al ebanak al ebana jaurti euskuen, al ebanak al ebanari oratu eutsen, **ta** sartu zituen norbaitzuk txalopa atan. Nik eneban alango zorionik izan: nire semeak bai; baiña (emen dator onena) ikusi eiebanean bere burua Lanbas'en **potiñean**, begiratuaz izaturik beste gizon guztiai, itandu ei **eban** Serapin'ek naigabez erdi zoratuta: «Ta aita? **Nire aita**

nun da?» *Eta* igarri ebanean danen arpegieta itxasoan gelditu nintzala, zer egitera eioan neurtu baga, iñori jaramonik egin barik, maitasun egiazkoaren garragaz suturik, umantasunik andienagaz, danen esku artetik urtenda, *dxast* sartu ci zan barriro itxasoan aitaren billa; ta asi ei zan igarian, izurde baten gisara, olatu guztiakaz burruka arrigarrizkoan, eriotzeari arpegia emoteko bildur baga, bere aitaren alde. Olangorik aitu dozu sekulan?

—Bein bere ez nik, Anton.

Nigana eldu zanean semea, enintzan ni asko geiagorako: otzitua nengoa, indarrak galduak eta begiak erdi itxiak neukazan; entzun nebanean neure belarrondoan Serapin'en deia: «Aita, aita, jarri neure ganean, oratu neuri, ni indartsua naiz eta neuk eukiko dot, laguntasuna datorren artean». Irribarre maitasunezko bategaz erantzun neutsan, azkenengoa!, neure seme benetan maitagarriari, esanaz, dana moteldurik:

—Nundik laguntasuna, Serapin?

Galdu neban laster neure zentzun guztia, ta eneban jakin zer igaro zan gero, andik eta ordu batzuetaraiño. Laguntasuna etorri zan niretzat, baiña ez Scrapin'entzat. Totel'en txalopeak artu ei ninduan beste gizon baten gaiñean nengoala, ilda legez, aotik bitsa neriola. Baiña ez eban astirik izan beste gizona artzeko, ta an ondatu zan Serapin, an emon eutsan bere arima aingerutarra Jaungoikoari, onezgunerik andiena egiñaz azkenengo asanasetan! Ai! Zergaitik enintzan ni ito orduan, neure Jaungoiko donea? Zergaitik?

Barriro asi zan Anton negarrez ta neuk bere eneban urrin malkoa. Nor da samintasun andi baten ondoan samintzen ezti.na? Bere gogoraziño e naigabezkoetatik al-dendutearren, esan neutsan Anton'i:

—Ta Katalin?

III

Geiagorik esan haga, jagi giñean Anton ta ni gengoan lekutik, ela asi giñean etxerantz, ixil-ixillean.

Erri-aldetik entzuten genduzan enparantzako jentearen zurrumurru estaldutxua ta gazteriaren jolasetako garrasi ta oiuaq, erderakada batzukaz nastaurik.

Eta garbiro etorri yakun gure belarrietaraiño deadar andi bat, Jaungoiko Donearentzat iraingarriena, mada-rikaziñoë arrigarria, gaztelarren izkuntzan esandakoa ..

An, atzeko aldetik gelditzen zan itxasoa marmarrada gaiztoan, orroaka ta orroaka Egillearen kontra esandako madarikaziñoiagaitik gogarpetu nai ba'leu legez .

Zerbait esateagaitik esan neutsan Anton'i:

—Itxasoak, gaur bere, aserratzeko ¡txuria dauka.

—Ezta mirari. - erantzun eustan bide-lagun zarrak—; ezta mirari itxasoa aserratzea Jaungoikoa aserre dauka-gunean. Eztozu entzun enparantza aldean norbaitek esan daben astakeri ori? Bada, zeñek daki orrelako gauzakaitik aserratzen ezpada itxasoa?

—*Beti*, Anton, —esan neutsan bere burutaziñoiak obeto jakitearren.

—Eztot nik orrelangorik esan, eztot nik esan *ben*, eztot nik ziurrean esan; baiña itauntzen dozun ezkeru, esango deusut: askotan baietz, nire eritxian; beste askotan gizatxarrak ikasi daien ta ondu daitezcan; ta noizean bein negarrezko tokian gagozala aztu eztakigun. Uste ba'dozu, bear bada eztodala nik siñiztuko Serapin ito zan egunean

Jaungoikoaren eskua ibilli zala gure ganetik, oker zabiltz, gaztetxua. Egia da, ezkenduan guk gaztetan gaurko mutillak esaten dituen gisako izkuntza txarrik esaten: ez milla aingeruak gitxiagorik bere! Kristiñauagoak giñean ta euskaldunagoak; baiña enintzan zerura zuzenzuzen sartzeko gizona, ta Jaungoikoak, ondoen bizi nintzan egunetan, bialdu eustan bere zigorkada bat. Min andia emon eustan, ori bai ba-daki Berak zeinbateraiñokoa! Baiña ezagututen dot neure mesederako zala. Lurrari geiegi lotua egongo nintzan ni, baldin ondoegi bizi izan ba'nintz, ta gaur ez barriz. Ortxe, itxas-aurrean. gizonakaz erdi aserratuta euren erderakada ta gaiztakeri arrotzakaitik, ia munduagaz aztuta; bakartadean, geiengentan beintzat; eta norbait alboan daukadanean iñor dagonik gogoratu bage, bizi naiz neure adimentua Serapin ta Katalin'egaz daukadala, Jaunari erreguka eroan naitala *neureakana* ainbat lasterren... Onezkero laster izango dot deia.

Onetan eldu giñean errira, ta, «gabonak» alkarri emonaz, eldendu giñean bakoitza geure etxera.

Arriturik itxi ninduan Anton Betosko'k bere esakera ederrakaz. Zelako biotza berea! Zelako kristiñautasun egiazkoa! Ori bai dala, esaten neban neure artean, kallean zear niñoeala, ori bai dala benetako euskalduna; baiña baztertua bizi da gizagaixoa, baztertua munduan! Baiña, gero?

* * *

Gau atako lenengo orduetan ezin neban lorik ekarri neure begietara. Nik adimenean nerabillen burutziñoea, au zan: Zein ete da andiagoa, Serapin ala Anton bere aita?

(*Euskalzale*, 1897, 60, 67 ta 75 orr.)

LENBIZIKO SAMINA

I

Itxasaldeko erritxo batean zan.

Senar-emazte gazte batzuek, Joxe Antonio ta Mari Joxepa, onak oso, osasuntsuak, langilleak eta Jaungoikozkoak, eguneroko lanean galanki nekatuarren, pozez ta zoriontsu bizi ziran beren seme laztan baten begi ederretara begira.

Semetxo au baiño beste ondasunik etzuten. Jaungoikoak eraman ziozkaten zerura beste bi, jaio berriak, eta etxeko pozgarri bakarra Joantxo zan, zortzi urteko mutil polita, argia, pizkorra, ikasten zerbait aurreratua; ta gurasoen eritziz erriko apaiz nagusiak baiño geiago laster jakingo zuana.

Arrantzalea zan Joxe Antonio, Mari Joxepa berriz jostuna, ta itxasotik ekarri bear izaten zuan batak bazkari ta aparia jartzeko etxean bear zana, ta saiatzen zan beste egur ta oliotarako aiña bada ere irabazten, bada itxulapikoan aurreratutako txanpon gutxi izaten zuten.

Gabon aurreko egunetan gure Joantxo ezin zan ixildu bere aspaldiko jardunean. Oetik jaiki orduko ta ikastetxetik zetorrenean bereala gela barrutik edo sarrerako atetik asten zan deadarka:

—Ama, *onenbeste* (amar edo bederatz, edo zana zalakoa) lo egin ta Gabon.

Illabetez lenagotik asi ziran ikastetxeko umeak «*onenbeste* lo egin ta Gabon» alkarri esaten, bada udazkeneko euri zaparradak agertu orduko, danak zebiltzen Gabonetara begira. Ta urrutietatik begiratzen ditugun gauzak, geure gogokoak izan ezker, nola ta ezin izaten diran

ondo ikusi, edergarri askorekin apaintzen ditu geure irudimenak, eta guztiak izan oi dira alaiak eta onak; gero, bertan gaudenean, begien aurrean edo esku artean dauzkagunean, ain eder ta onak iruditu ezagaitik.

Gure Joantxo'n Gabonetarako jantzi berria agindu zioten, ta oso urduria zebillen Gabon egunaren zai. Bere lagunak baiño irudimen biziagoaren jabe zan, ta askoz ames ederragoak egiten zituan. Gabon gabeko gozoak iñoiz baiño gozoagoak iruditzen zitzaizkon, gabaren erdian entzungo zuan meza donea, aingeruak erestu edo kantatuko zuten meza bezela; ta batez ere urrengo goizean ipiñiko zioten soiñeko berria, beiñere baiño ta ederragoa, bere ezagunen soiñekorik apainduenak bezin obeto egiña, oial bigun bigunezkoa, gorputzean oso egoki jarriko zitzaфона, antxiñetatik bere gogoak eskatzen zion antzekoa. A zer barruko pozarekin ikusiko zuan bere burué orrelako jantziarekin kalean zear! Nola begiratuko zioten bere lagun ta adiskideok! Bere jantzia izango zan ikustekorik onena erri guztian!

—Ama —esaten zion Mari Joxepa'ri egunero—, lengo urtean txikia nintzalako lo egin nuan ta ez nintzan gaiberdiko mezatara joan; baiña aurten, aundia naiz ta, eztet egingo lorik, eta gozo asko jan ondorean, elizara joango gera, ezta?

—Bai, kutuntxo —erantzuten zion amak—; azukrearekin egositako intxaur ta sagarrak eta goiendun esne ederrarekin egindako ai gozoa jango degu.

—Ta urrengo goizean soiñeko berria jantziko det, ezta?

—Bai, aitak Gabon aurreko egun abetan, diru asko irabaziko du itxasoan, ta nik erosiko dizut soiñeko berria, ta neronek josiko dizut txukun ta ederki.

II

Egun aietan Joantxo'ren aita iñoiz baiño ere gogo an-diagorekin zebillen arrantzan.

—Arraiak diru andiak egingo ditu —esan oi zion emaz-teari—, ta itxurak diran bezela zerbait ateratzea bada, izango ditugu txanponen batzuk esku artean, ta bete bear zaio Joantxo'ri aspaldiotan daukan ames edo naia. Dana erosi bear zaio berria. Bear du gizagaisoak; oiñe-tan ia zer sarturik eztauka, txapela oso maiztua darabil, ta soiñeko adabakiz betea jai andietarako itxurazkoa ezta.

—Bete bear zaio, bai, bere gogoa —erantzuten zion emazteak—; ain zintzoa dalako bada ere, ain argi ta biotz onekoa, ain ederra mutila. Ez gurea dalako, baiña eztago inguruetan Joantxo bezelako umerik.

Orrelako gogamenak buruan zituala jaikitzen zan Joxe Antonio goizean goiz, sartzen zuan otarran ogi legor zati bat egun guztirako jakitzat, eta an joaten zan *urezko* zelai zabalaren erdira, naiz ta aserrezko arpegi beltzarekin marmarrean billatu.

Egun batean, lotan zegoan umeari, bear bada bere jantzi berriarekin amesetan zegoan semetxoari, begiratu gozo bat eta laztan luze bat emanta gero, joan zan itxasora Joxe Antonio..., baiñan etzan geiago etxera biurtu. Ekaitz gogor batek irten zuan eztakit nondik, eta ur gaiñean zebiltzan gizon asko ondatu zituzten bien artean. Bere semearentzat jantzi berriaren billa zebillen gizona ito egin zan. Ai! Ekaitzak eta itxasoak eztaukate biotzik !

III

Gertaera mingarri ori jakin zanean, negar andiak egin zituan Joantxo'k, batetik bere aita guztiz maite zualako,

ta Gabon gabeen gauza on ta gozo askoren zai zegoan. Eldu zan apal-ordua, ta amak ipiñi zion eskuetan ogi zati bat, Jaungoikoak daki nondik eta nola zorretan lortua, ta jarri zuan mai gaiñean erretillua bete sopa edo zuku, azukre pitin batekin zerbait gozatua: etzegoan geiago ezer, Orduan negar barrietan asi zan Joantxo. Martin'ek, Anjel'ek, Josexo'k eta beste bere lagun askok esan zioten ikastetxean, onelako ta alako janari ederrak zauzkatela gaberako, ta berak, Joantxo'k, etzuan alako gauzarik ezer..

Goseari zerbait emon bear zion, ta astiro ta zotinga jan zituan bere zukoa ta malkoz bustitako ogi zatia, ta gaberdian joan zan mezatara amarekin batean, baiña etzitzaion bere biotza batere alaitu. Beltza zegoan gaba, otz egiten zuan oso, elizako argiak motelak iruditu zitzaizkon, kantarien deadarrak bestetan baiño garratza-goak, eta txintzarrien soiñuak buruko miña ematen zioten.

Etzeukan Gabon gabak zer ikusi andirik, Joantxo'ren ustez. Beste era batekoa iruditu zitzaion berari urrutiko egunetatik begiratzen zionean. Ai! Biotza illun dagoanean illun ikusten dira begien aurrean dauzkagun alaitasunak.

IV

Urrengo goizean joan zan berriz ere meza nagusitara gure umezurtza, garbia beti bezela, ori bai; baiña aita-ren jantzi zar batekin nolabaitean egin zioten soiñeko beltza jantzita, ta ikusi zituan bere lagun batzuen

soiñean beretzat ames egindako jantzi berri, eder ta egoki josiak, sartu zitzaion ostera ere illuntasun andi bat animaren erdiraiño, ta egun-argia gauturik bezela gelditu zan Joantxo'rentzat.

Meza amaitu zanean, irten zuan elizatik, eta lagunen jolasetan gelditu gabe, iñori itzik esan gabe, ixillik eta lurrera begira, negar egiteko gogo aundiarekin, etxeratu zan bereaía. Amak begi bitartean irakurri zizkon semeari biotzeko naigabe ta samiñak, eta bereak danak aztuaz, ain andiak izanda; ere, artu zuan altzoan Joantxo, zerbait gozatu naian, estutu zuan bere bularraren ondoan, ta biak negarrez, bata besteari musuka, onela itz egin zioten alkarri:

—Ama, Martin'ek eta, Anjel'ek eta, Josetxo'k eta, zer jantzi ederrak dauzkaten !

—Zeuk ere eukiko dituzu, maite, oienak baiño obeak

—Noiz, ama?

—Zerura joaten geranean. Ara, Jesus ere, gu bezela, beartsu jaio zan lasto batzuen gaiñean, ta bere aita amak asko maite zuen, baiño etzuten jantzi berririk erosteko dirurik izan.

—Jaungoikoa izanta jantzi barririk ez?

—Ez lurrean; zeruan dauzka bere aberastasun guztiak

—Eta noiz joango gera zerura?

—Eztakit; baiña orduan ikusiko degu jantzi berriaren billa joan zan aita; gozotasun ugariak izango ditugu, soiñekorik aberatsenak, neurrigabeko pozak, beti, betiko ta samingabeko zorionak.

—Eta bitartean?

—Bitartean, semetxo, negarrezko lekuan gaude-ta, samintasun asko eraman bear. Gaur daramazu, maite, lenbizikoa.

(*Ibaizabal*, 1902, garagarrillaren 29'an.)

ELEIZ - GAIAK

Arimak, naiz-ta Jainko batek berberak egiñak izan, eztira iñolaz be bardiñak; ez gara danok izakera bardiñekoak, batzuk setati ta bizi, beste batzuk otzan ta gozo baizen. Orati'ren aburuz, kutxa ixil bati eragiñez, zotz egitean dagokiguna daukagu bakotxak. Agirre arima on baten jaube genduan: leun, gozo, mee, alai, leiñargi ta maitagarri. Orrelaxe, bai, beragaz bizitakoak eta beure argazkiak dirauskuenez. Ez eban ak beaztun izpirik. Norbere idatziak be barren-erakusle txairoak doguz: irakurri urrengo lantxuok.

Gcn-deiari zintzoro erantzunik, apaiz ikastaroak osotu zituan. Gero, aren lumatik urtendako idazlan guztiak apaiz-kutsuz gaiñezka dagoz, apaiztasunari dagokion bidez zuzendu ebazan bere kemen ta lanak. Gogo artez on baten jaube zanez, ederkiro ta olerkitsu utsitu oi eban

barnea; ta, apaiza, Jaungoikoari eskiñia zanez, arimen onerako lan egian batez be. P. Lhande Euskaltzaindikoak onela idatzi eban bein: "Apaiza ta olerkaria. Ortan dago Agirre zana, oso-osorik. Bere irakurgaiak, ez neurtuak la ez eleizan erabiltzekoak diralakoan, gutun oriek apaiz cdo olerkariari eztagokizkionak dirala ez esan niri. Nik diot Agirre egizko apaiza izango ezpalitz, ba, Kresala baita Garoa idatzi gabekoak geldituko zirala, ta bera olerkaria ez izanaz, bi ipui orietako dakizkidan zati gaxo ta mardul asko ezin zuzenduz aspertuko zala. Itz batean, Agure biotz-biotzetikako apaiz olerkaria zalako irakurgaiakin ospetsu biurtu zan".

1888'garrenean mezakotu zan ezker, ogetamar urtetik gora Zumaia'n karmeldar moja irakasleen kapellau izan zan; beti apaiz zintzo ta langille. Urte mordo ortan Agirre'ren idazlana etzan ezagun, bai ostera arima-zaiñaren egitekoa. "Zumaia'rentzat —diñosku aren adiskide L. Urteaga'k— etzan ezagun On Domingo euskal idazle yaio bezela, apaiz langille, animazale burutsu ta jiña bezela baizik. Sermolari onenetakoa ezik aixorrenzule edo konpore zintzo, asperkaitza gendun benetan. Aren izakera sotillak ainbeste jende erakartzen zuen bere aitortegira".

Kristo'ren antzera, on egiñik, soin ta arima beartsu zanari lagunduaz, emon eban bere bizitzaldi laburra. Ederrez irakatsi, bere amessik biziena. Orrela idatziak dagoz urrengo lantxoak, apaiztu ta laster osotuak geienak. Orretarako zuzenduak izan ziran bere irakurgaiak, "gure siñismenaren ezti ta esnea erraietatik" darioenak nunbait. Diran guztiak Kristo'gan barriztu zan aren ikurra ta ezaugarria bere eleberri edo nobelak idaztean be.

Ezta, ba, arritzeko Agirre'ren idazlanetan eleiz-usaiña aurkitzea. On-ereille izan yakun danentzat, gizartean eta **liburuetan**. Bai txunkun egiñak urrengo lantxoak!

GABONA TA EGUNONA

I

Beti da gaba illun ta bildurgarria. Il-jantziakaz legez soiñekoturik etorri oi da, ta beragaz batean oi dakaz beti damorrigarrizko gogamen larriak, eta askotan gizon ausarditsuanaren biotza emeturik itxi daroen bildurra ta artegatasuna.

Beti da gaba guzurrez ta ezkutapenez betea. Berak es-taldu oi ditu gure begiakaz sortitz edo izakearen erdian egunez ikusten ditugun gauza danak, eta eregiten ditu, irudimenarentzat, lur lau zabalak, irudimen orrek gura daben eran sortu daizan gogoak eskatzen dautsazan izate guztiak, gauza bakotxari nai dan itxura, margo ta neurria emonaz.

Baiña, bear bada, ezta egundo izan gaba, gure Eroslearen Ama gozoa ta beren senar done Jose, Israel'go erregeen ondorengoak izanarren, Belen'go ateetan alperrik deituta gero, nun-nai ortik eta ona dabillen etxadiaren gisan, korta batean aterpetu ziranean baizen illuna; etzan iñoiz bein bere izango gaba, Jesus askatxu batean jaio ta Zeruko Aingeruak Jaungoikoaren goraldia goietan ta gogo oneko gizonentzat bakea lurrean izan zedilla deitu ebenean baiño.

Irudituten yat niri orduko gaba otza, gizon berekorrenen biotza legez; baltza, guzurraren erdian ondaturik dagoan arimearen itxuran; izugarritzkoa, gertaera andien aurreko uneak direan antzera. Izaki guztia arriturik egongo litzateke baldin, aginduriko Mesias'en agerrerea aurretiaz jakin ba'leu legez. Gure bizileku onetako zugatza, garau ta orririk baga, curen adarrak, gorutz jasorik eukezala, zeruari argi, bizi ta berotasun eske egozan besoen irudia izango eben, lurraren beso argal azurtsuen irudia; lurbirako itxasoak, ekaitz orduetako indarra ta sendotasuna zingo barruan ezkutaurik, oi ez eben bake ta ixiltasunean egongo zirean, olatuen orroe altsua baiño ots andikoago ta gurgarriago zan Aingeruaren deadarra entzutearren; ta bestetan ain eder agertzen dan goialdea, illargiaren ta izarren argi makala estaldu nairik, odeiz jantzia ikusiko zan; bada etzan orduan Egia baiño beste argirik bear, ta Egia, Jaungoikoa izanik. Ume baten jazkeregaz etorren orduko gaba *Gabon* egitera.

II

O ze gauza bearra zan guretzat iñoiz guzurtauko eztan ta iñok guzurtauko eztaben egia eder onen etorrerea! O ze bearra dan gaur dan egunean bertan ! Gaur dan egu-

nean, Jesus jaio zanean legez, egia maite dabela diño gizonak, egia gordeta daukala; baiña Jaungoiko baga dagoanean, gauza ziburra da ezerala gizona egiaren jaube.

«Neurea da egia» esaten dau asmorik nastauenaren aldeko gizon urten azartuak; «neurea da egia», astakeririk andiena nagusitzat jarri gura leukeanak; «neurea da egia», gogamen ta itz guztiak beren buruari dautsan geiegizko guraritik dakazan gizonak. Ondo estaldu bagako guzurra diñoan umetik así ta izenik andieneko ikas-lekuetan euren erakusmen galgarriak zabaldu oi dituen gizon entzutetsuetaraiño, jardunlariak eta liburugilleak, gizon jakintsuak eta erri-zaintzailleak, gauza guztien asterrena ta izate danen sustraia idoro nai dabenak, danak esaten deuskue erabatean, arrotasunezko itz soiñutsuakaz: «neurea da egia, neuk diñodana da egia».

Baiña, aian ta *guztiz* bere, beren indarrean siñistea daukan gizon arreak egia beragana erakarteko oso dauka kemen gitxi. Uste ta gogorik onenagaz lan egiten dabenean bere, jakituriaren bide neketsu latzetatik joan bear dabenak, Jaungoikoak bere iakituriko aberastasun neurrigabeetatik emon dautsana argi apur edo izki bat bakarrik dauka laguntzat, eta arei orregaz alegiñak egiñarren. ez-titu iñok lurreko ikaskizun guztiak egundo ikasiko. Ta Jaungoikoagan dagozan ikaskizunen gaiñean barriz eztago zer esanik, bada gure argaltasun ta ezcreztasunentzat goregi dagoz Jaungoikoaren gauzak.

Eta guztiz da ziburra, gaiñera, Jaungoikoa alde batera itxirik ibiltan direala gizonak askotan, ta beste askotan uste ta gogo txarragaz diarduela izketan ta lanean, beren griña gaiztoetan oker esondetuten diralako.

Ortik yatorkoz, sarri okerreko eritxiak, ortik etorri dira ezin esanala guzur erakusteak; ortik ainbeste arkuntza-

III

Jaungoiko ta bere erakusmen bagako bizia, guzurra ta nastea ugari daukazan gaba da.

Zuzenbidetik dabiltzan gizonak sarri oker dabiltzanen azpian euki daroazan gaba.

Iñoiz oker dabiltzanen mendean azpiraturik egoten ba'gara gu, azkortu gaitezana Jesus Bera, lurbira guztia erakusmen zerutarragaz argitu ebanetik laster, eriotzara bialdu eben okerreri ta guzuraren aldekoak.

Eta Jesus izango da gure erabagitzaillea adimeneko gogamenak eta biotzeko abian izan ditugun gurariak erakutsi bearke doguzan ordu estuan.

O Ume Jaungoikoa ! O neure Jesus ! Ze pozgarria dan gure erabagitzaillea Zu izatea, ta ez gizonak ! Zuk eztaukazu illuntasunik, Zuk eztaukazu gaurik, Zuk griñarik eztaukazu. Lurbireari argi egitera etorri ziñan argia zara, Eguna zara, Egia zara.

Ta naibagez beterik daroagun bizitzako gaba igaro daigunean, Zuk emongo deuskuzu beti betiko Egun ona,

(Euskalzale, 1899, 397 orr.)

JESUS UMEAREN ESTALKIA

(Erderatik biurtua)

Maria ta Jose'k Jesus Umeagaz Belen'etik urten ebanetik laugarrengo eguna zan.

Idumea inguruan Hor izeneko mendi tontorrera eldu ziranean, Maria Donea oso nekatua egoan. Jose onak asto gainetik bera erasten lagundu eutsan, ta, atsedean bat egiteko asmoagaz, atx andi baten ondoan jarri ziran.

Jesus Umea lotan egoan, ta **Bere** arpegi zerutarrean ikusten yakozan errubagetasun ta bake gozoari begira gelditu yakon Ama. Jaungoikozko bakea zan, lurbira gutzia laster bete bear eban bake ona.

Otz egoan, guztiz otz; aizea geroago ta gogorrago etorren; zeru dana odeiz estaldu zan beingoan, ta asi zan edurra gogotik. Maria'k otzetik eta edurtzatik ez ekian zelan Jesus gorde.

Aizearen oztasunak esnatu eban Umea: edegi zituan begiak eta negarrez asi bearrean, irri-barrez asi zan Amaren altzoan..

Zorionekoa Jesus Umearen irri-barrea ikusten eban Ama!

Baiña edur-matasak, Jesus Jaungoikoari ikututean, *lanazko* ta *sedazko* matasa biurtuten ziran; ta, **guztizko** egokitasun apainduan alkaturik, oialdu ziran, ta Ume Jaungoikoarentzat estalki bat egin eben.

Ta milla eratako matasak larrosa txikiak eta egundoko izartxuak ipinten zituen Jesus'en estalki gainean.

Ta agertu ziran bertan altiste edo perla ikusgarriak, arri argitsuak, urre ta zidarrezko ariak; eta oialaren egaletatik bera lurreraiño jatsi **ziran**.

Zer ederra zan Jesus Umearen estalkia!

Ta bitartean lotan ta irri-barrez egoan Umea.

Betorren edurra goitik bera baratz-baratz, ta geroago ta luzeago, geroago ta zabalago **egiten** zan Jesus'en estalkia.

Ta beko ibarretaraiño jatsi zan, ta goiko mendietaraiño igo eban.

Ta estalkia, itxaso zabalak igarorik, Erroma'raiño eldu zan, ta Erroma'ko beartsu ta iñoren mendean egozan gizonak estalkiaren ertzari mun egin eutsen; bada euren biotzaren erdian orduraino egundo ezagutu bagako sua ta berotasuna billatuten ei eben, Jesus Umearen estalkitik urteten eban berotasuna ta sua.

Jaungoikozko estalki ori lurralde ta ugarte guztietara zabaldu zan, ta umezurtzak, eskaleak, gizon zarrak, gaixoak eta jaube-bageak milloika beraganatu ziran; ta estalki orren tolostura bigunen artean Lurbira guztiak aurkitu eban berotasun barria.

* * *

Estalki ori Elizeak toki danetara eroan eban maitetasunezko estalkia da.

Gutziz ondo gordeten dabe Maitetasunaren edo Kari-dadearen Arrebak; Lander, Txiro edo Beartsuen Arrebak; *Juan de Dios* Donearen Anaiak, Kristoren Ikastetxetako Anaiak eta beste Elizearen erdian sortu diran Alkartegiefako gizon ta emakume on askok. Orrek dira guraso bageko ume, beartsu ta gaixoen buruan Jesus Umeari estalkia ipinten deutenak; bada gaixoak, beartsuak eta umeak dira Belen'go aska baten lasto gaiñean jaio zan Jesus'en irudi egiazkoak.

Baiña ba-dira otzez ta goserik dagozan ume asko; irri-barrez bizi bearrean, euren soñeko zar urratuen gaiñera malko samiñak botaten dituen ume errukarriak, Jesus Umearen irri-barre gozoa ezagutu eztaben ume gizagai-xoak. Ezteutse bein bere Jaungoikoari deituten, zerren

Jaungoikoaren izen donea gurasoen aoran arao ta birao zikiñen artean bakarrik entzun daben; ta gurasoen griña gaiztoak baiño beste gauzarik ikusi ta ikasi eztabeelako, or dabilz umeok urien erdian, jateko ogi zati bat eztaukela, euren gorputzentzat berotasun pixkat eta arimentzat maitetasun apur bat billatu eziñik; bada gaurko egunetako gizonak, Ebanjelioaren argi ta berotasuna geitu bearrean, argi orí amatau naian alegiñak egiten diardue, ra jaube bageko umetxo guztiai arimearen eriotzea eskintzen deutse.

Era orretan il zituan Erodes gogorrak umetxu asko euren gordelekua izan bear eban urian bertan.

O Jesus Umearen estalki ederra ! Ondo zure bearrean dago gure lurra, irxurazkoa, apaiña ta aurreratua dirudi baiña.

(Euskalzale, 1898, 402 orr.)

PULVIS ES

Autsa zara, gizona. Alperrik zagoz gaur diru askoren jaube; alperrik bizi zara etxe andi, eder, arri landuz egin ta burdiña apainduakaz inguratuetan; etorriko yarru ordu larri batean, ordurik larrienean, eriotza baltz atzapar zorrozduna, ta nai ta nai ez itxi bearko dozuz zeure ondasun guztiak, eta gura ta gura ez lurperatuko zaitu, ta auts biurtuko zara.

Obeto esateko, zeugan daukazu austasuna, aragi zati batzukaz ta azal mee bategaz estaldurik; eta eriotzeak ikututen deutsunean estalkia kenduko yatzu ta autsak aterako dau bere arpegia, bera dan gisan agertuko da autsa.

Ze u agertuko zara zarean legez, gizona. auts einda.
Pulvis es.

Eleizeak gogoratuten deutsu, zeure diruakaz arrotasun geiegi artu eztaikezun, zeure lagun urkoari anaia on bat legez begiratu daiozun. *Pulvis es*, esaten deutsu: autsa zara, aizea, lanbroa, kereiza, ezerez bat, eta biar edo etzi zure gomutarik eztau iñok lurrean izango.

Ta noiz izango da zure lurpera joatea? Noiz izango danik ezin neikezu esan nik, baiña laster izango dana bai, zeuk usterik gitxien daukazunean. *Qua hora non putatis.*

Zeure sabela beteten zagozan bitarteren baten, zeure diruak bata bestien gaiñean pillotuten zagozan eretian, norbaiten itz bigun guzurrezkoak pozik entzuten zagozan orduan bear bada

Zure diruari esaten deutsezan itz eztitsua, gizona, ez zuri.

Baiña burutsua zareala ta ez dirutsua ba'diñostazu, buruan eztaizula aize geiegi euki dirautsut, bada aizea oraindik lurra baiño bere gitxiagokoa da.

Zure bekoki panparroiaren gaiñean, Elizeak, egia osasungarri bat esanaz, eutsezko kurutze bat ipinten deutsu ; Kurutzea, Jesus, Jaungoiko umillaren ikaslea zareala gomutau daizun ; autsezkoa, nondik urten zenduan ta nora biurtuko zarean aztu eztakizun.

Eztozu, bada, zeure burua zarean baiño geiagokotzat euki bear, eztozu arrotu bear, ta zeure arimako argi ta indarrak, jaun Egilleak emonak, Jaunaren erakutsiak egi-teko erabilli bear dituzu.

Orretarako jaioa zara.

Egia da arima bat daukazuna, illezkorra, txalo zalea,

gauza andietarako sortua; baiña arimearen bizilekua ezta lurra, bere janaria ezta gizonen txaloa.

Jaungoikoak txalotuko deusuzan gauzak egin daikezuz, bada, gizon irakurlea, betikotasunera zeure edergarritzat eroan zeikezan apainduriak.

Eta etzaite bein bere aztu Elizeak zer dirautsun garizumako atean: *Pulvis es*: autsa zara.

{*Euskalzale*, 1898, 59 orr.)

CONVERTIMINI

I

Txit ona da Jaungoikoa.

Txit ona izan ezpalitz, aspaldiko urtietan ondatuak egongo giñan betiko, bada gaiztakeri andiak egin ditugu.

Gizonik geienak galdu dute siñiztea, beren biotzetatik Jaunaren bildurrak iges egin du, arrotasunaren erdian ipiñi du bakoitzak bere jarrilekua, ta bakoitzak bere bu-ruari esaten dio: «ni naiz nere Jaungoiko».

Txit errukitsua da Jaungoikoa.

Txit errukitsua izan ezpalitz, okerkerirako bakarrik gendukan bizitza kenduko zigun antziña, gure andi-naiko gogamen guztien aria etengo zigun, bidegabeko Jaungoikotasunaren amesetatik aterako genduzan, ilko giñan, garbiro esateko, ta onezkero inpernuko leize zuloan geunden, ondo esna.

Txit ona ta errukitsua da Jaungoikoa. Eztu nai gure betiko eriotza, ta gu galdu ezkaitezen, azken orduan zorrionerako bide gozoa artu dezagun, deadarka daukagu, guraso samur bat umeai bezela: «*Convertimini ad me*,

in toto corde vestro» : Atozte nigana biotz ta anima, bada ni naiz zuen Aita, ni naiz zuen Jaungoikoa, ta nik bakarririk eman dezakezutet egiazko Jaungoikotasuna.

II

Baiña Jaungoikoaren ontasun andiak biguntzen ezpagaitsu, begiratu dezagun gure ezereztasun ta uskeria.

Ikusi ditzagun gauzak diran bezela, ez gaitezen amesetan bizi.

Neurtuak daude gure egunak, gure orduak oso laburak dira.

Zer zeran jakin nai dezu, gizona? Inun gelditu eziñik mendian bera datorren errekatxoa, aizeak bira-biraka darabillan zugatz-ostoa, aidean bereala desegiten dan kea, eguzkiaren argiak kentzen duan goizaldeko lainoa, itxura utsezko gauza bat bezela, orain eder ba'zera laster itxusi izango zeran gauza, gaur lore ta biar simaur izateko jaioa.

Orregatik ipintzen digu Eleizak autsa gure kopetaren erdian.

Auts ori zugatz berdea izan zan, mendi gaiñean arro bizi izandako zugatz bizia; baiño il zan, erre zuten, ta orain autsa da.

Zu ere, gizona, zugatz berdea izanarren, ilko zera laister, ta zure ondorengoak auts artean ikusiko dute zure autsa.

Ta eztue zure autsa zein dan ezagutuko, zergatik auts guztiak berdiñak diran.

III

Nai ba'dezute, kristauak, benetan ta betiko andiak izatea, zoazte Jaungoikoagana; bada Jaungoikoak bakarrik

jasoko zaituzte autsetik zeruraino, Berak emango dizute, ilda gero, bigarrenko bizitza iraunkorra.

Kristauak, Jaunaren ontasun neurrigabeak bear bezela biguntzen ezpa-zaituzte, zuen betiko zoriontasunagatik bada ere, zoazte Jaun Egille altsuagana.

Etzaitztezte itsutuak egon, etzaitzeko oker bidetik ibiili.
Convertimini!

(*Euskalzale*, 1899, 50 orr.)

MAITETASUNA

*Cum dilexisset suos, qui
erant in mundo, in jinem
dilexit eos* (Jo., XIII, 1).

I

Zer gauza gozoa dan maitatzea! Jaungoikoak gure biotz andi-naikoaren erdian ipiñi digun antsi, gurari edo nai-izate ezin-asetakoa da maitetasuna, ta bere atzetik gabiltza beti jaio geran guztiok, gauzarik bear-bearrena ba'gendu bezela, askotan zer egiten degun eztakigula bada ere.

Maitatzen du amak semea, nai ta nai ez bezela, baiña samurtasunik zoragarrienarekin, ta ain poztzun ta atsegin bigunez betetzen du maitetasun eder onek eze, berarekin aztutzen ditu amak lurbira onetako naigabe, samin-tasun ta negar malko guziak. Maitatzen du semeak ama, estutasunetan agertzen dakian indar sendoarekin; maitatzen dute anai-arrebak bata bestea; maitatzen dira seni-deak, adiskideak, ezagunak, erritarrak; bakoitza bere mai-

llan, bere neurrian; askotan beren aikarganako maitetasun ori gogakida, ezaguntasun, laguntasun, adiskidetasun edo beste orrelako izenen baten azpian estaltzen ba dute ere.

Maitatzen dira basoetako abere okerrak berez, jaiotzaz, zer egiten duten ezta kitela, ta maitetasun au erakusten dute beren umetxoentzat janari billa dabiltzanean, edo aien bizitza etsaien atzaparretatik gorde bear danean. Maitatzen dira txori ta egaztiak, eta ikusiko dituzue oiek ere perill orduetan, beren egoak zabaldurik umetxoak maitagarriro esta'du naian, ta aiek gatik beren bizitza emateko prest.

Zer geiago? Gisaren baten esan genezakeala uste det lurrak berak ematen digula, al lezakean eran, maitetasunaren eta gorrotoaren esangarri bat bezela. Begiratzea baiño eztago nola dagoan lurra, neguko egun beltz laburretan, muker, makal ta jantzigabea, egualdi txarrari arpegirik eman nai ezpalio bezela; ta nola udaberrian apaintzen dan guzia, ostoz, belarrez ta lora ikusgarritzkoz, eguzki garbiaren erraiñoakin pozturik.

Ain da zabala ta danentzakoia, ani da gauza guzien izatearen erdian dagona maitetasunaren legea!

II

Baiña lege onen indarra gizonagan eltzen da goren-goreneraiño, ta Jaunaren irudira egindako gizona, jaiotako gauza guzien erregea, ainbeste gogo sutsu neurrigabekorekin betea, ezin leiteke bizi maitetu gabe ta maitetua izan gabe.

A! Zein pozgarria dan gizonarentzat maitatzea ta maitetua izatea! Ondo zekian Jesus'ek. Bere jakituri Jaun-goikozkoarekin ondo neurtua zeukan gizonaren gogoia, ta

guziz, oso ta ziatz nai izan zuan bete. Nola? Jaungoikoak berak zigun maitetasunik andiena agertuarekin.

Egiazko maitetasuna ezta itzakin bakarrik erakusten; baita ere, ta askozaz obeki, biotzeko emate ta egikera onen bitartez. Orregatik Jesukristo gure Jaunak egikera on askorekin nai izan zigun erakutsi bere maitetasun azken-gabea. Zerua, zorioneko toki gozotasunezkoa utzirik, lurrera etorri zitzaigun Jesus, ta gizonari zion maitetasun-agatik lurrez jantzi zan; Bere gainean artu zituan gure doekabe, estutasun ta naigabe guziak, arimako aberastasunez ta zeruko apainduriz gu betetzeagatik; makurtu Zan zerutik lurrera gu lurretik zeruraino jasotzeagatik, eta denok dakigu estalpe txiro batean jaio zala, abere artean, umetxo baten antzera. *Quia parvulus natus est nobis.*

Ta Jesu aragiz jantziak, gizonarekin bere burua obeto bat egiteagatik, gorde zituan bere aberastasuna, andizatea ta Jaungoikotasuna bera, aldi askotan: baiña bere maitetasuna etzuan gorde. Gurasoen mende bezela egoteko urteak igarota gero, sartu zan lurbirako jente ta barrailaren erdian. Zertara? Zeruko egia eder betikoak erakustera, gizonen 3din ¡Munduak argitzera, Jaunaren egia jakin zezaten, ainbeste maitatzen zituan gizonak zeruko bidetik ibilli zitezten. Bere Jaungoikotasuna erakutsi bear zuanean egin zituan gero mirari asko, or ta emen: zertarako? Batzuek estutasunetik ateratzeko, besteen malkoak legortzeko, ildakoak pozez ta alaitasunez beterik bere etxadietara biurtzeko. Ta, azkenik, maitetasunez zoratu balitz bezela erabagi zuan gizonagatik iltzea, ta il zan eriotzarik lotsagarrienarekin, gazkille baten irudira, urkamendi batean, lapur biren erdian..

Iñor ba'dago kristauen artean Jesus'ek digun maitetasuna egiazkoa ete dan siñiztu eziñekorik, begiratu de-

aroetua, alboa burniz irikia, odolusturik eta ilda, ta esan dezala maitetasunaren agergerri oberik eman al ba'dezake iñork.

III

Benetan da arrigarria Jesus'en egikera samur au, iñoiz ere kondairetan irakurri eztegun aiñakoa da, maitasunez beterikako biotzik andi ta umantsuenak egingo ez luke ten gisakoa..., ta, ala ta guziz ere, Jesus, gizonari maitetasunezko agergerriak ematen etzan ase.

Geiago egin zuan. Il bear zuan aurreko egunean, bere ikasleakin azkenengo aparti bat egiteko ustean, apaltegi batean jarri zan. Ze ordu andiak gau artakoak! Guziok dakizue, irakurleak, bukaerako orduetan, azken agurra egin bear danean izan oi dala maitetasunik bizi, zoli ta zakonena; orduan bustitzen dirala iñoiz negarrik egin ez tuten begiak, orduan biotzeko taupada, naigabe ta larritasuna izaten dala iñoiz baiño garratzagoa. ondo dakizue zuen etxeko bati eriotzako orduan lagundu diozutenak. Orrela, bada, zegoan Jesus gizonari agur egiteko zoria etorri zitzaionean, gizonari eman zizkan maitetasunezko agergerriekin ezin aseta zegoan, maitetasunez gaiñezka, maitetasunez iltzen, gizonagandil alde egin bear zualako samiñez beterik; eta orduan, maitetasunaren asmorik goitandi ta ederrenean, agorturik Jaungoiko txit altsuaren aberastasun ugaria, Jaungoikoaren al izate guzira koari azkena billaturik, erabaki zuan: Bere burua, betiko, gizon maitearentzat lurrean utzitzea, au da, Altarako Janari Donea sortu zuan.

Zeruetako aingeruen izkuntzarekin ere ezin lezake iñok mirari onen ez titasun zerutarra erakutsi, irakurleak; baiña

gure poztasunerako esan genezake, utzi zigula Jesus'ek gure Erakuslatzat, gure Laguntzat, gure Aitatzat, gure Janaritzat, Jaungoikoa Berbera, asiera ta amaierarik gabeko Jaungoiko Illezkorra, betiko bizitza ta betiko osasunerako Ogia, zeruak berak baiño milla ta milla aldiz geiago balio duan Izate berdingabea. Eman zezakean gizonarentzat geiago Jesus'ek, Jaungoikoa izanik ere, Jaungoikoa bera baiño? Ai, ez! Jesus'ek emate onetan garaitu zuan Bere Burua, ta gelditu zan geiago gizonagatik ezin eman zezakeala, ez lurrean ta ez zeruan bertan.

Ta emate ain miragarritzko onek noiz artean iraungo du lurrean? Beti, gizona gizon dan arte guztian: *Usque ad consummationem saeculi.*

* * *

Maitetasunaren billa zebiltzaten gizonak, zer nai dezute maitetasun geiago? Ara emen Jesus, Izaterik maite - garriena: atozte Jesus'egana denok, ase zaitzete maitetasunez Jesus'egan.

{Euskalzale, 1898, 108 orr.;

JUXTA CRUCEM

I

Ama! Ze izen bigun, gozo ta samurra dan amaren izena!

Zein gozoz, zein erraz, zein berez urteten deuskun izen eder onek gure aotik !

Ama!, deituten dau umetxu bildurtiak bere estualdi

guztietan; ama!, gazteak bere poztasuneko ordu dontsuetan; ama!, gizonak eta emakumeak, nai legorreko nekean, nai itxasoko baga ta arrisku artean dabiltzala; ama!, jaiotzatik laster, ama!, eriotzako ordu larrian, sortu garean adimendun guztiok: ama! beti.

Zegaitik? Zerren gizon danok, iñok erakutsi baga, jatorriz dakigulako ama dala izaterik on, samur ta errukitsuena.

Amaren biotzean ipiñi dauz Jaungoikoak biguntasunik andienak, gozotasunik eztienak, samurtasunik samurrenak eta amaibageko errukitasunik pozgarrizkoenak.

Ama guztiak dira, bada, negarrezko ibar onetan Iarritasunen erdian dabilzan gizon gizagaixoai errubagako atsegin onak emoteko jairo direan izateak.

Errukarria amarik eztaukan gizona.

Baiña emakume danen ganetik bardinbagako emakume hat dakusku, errukitasunaren iturrian bertan mirariz sortua, ama guztien Ama izateko Jaunak aukeratua, gizon danentzat bear diran atsegintasun ugariak biotzean daukazana, gizondurik eta neketan dagoan Jaungoikoarentzat bear dan aiña samurtasunegaz aberasturiko Ama.

Ama ori Maria da, Jaungoikoaren Ama ta gurea bere bai.

II

Ama batentzat, zer naibagea da bere semea ilten ikustea?

Ai! Esan al leikeanik naibagerik andiena. Ta seme ori bada berez ona, zintzoa, jakintsua, maitagarri kutuna, seme bakarra?

Ai! Orduan seme orren eriotza, amarentzat, samiñik astun, zoli ta gogorrena da.

Ai! Orduan Amaren miñ ta zoritxarrak ertz, azken ta neurririk eztauka.

Ta seme ori gaizkille baten irudira il ba'dautse, lapur biren erdian, Ama beraren aurrean, bere biotza urturik emongo leuskion Ama orrek laguntasun apur bat emon ezin deutsalara?

Ai! Orduan Amaren negargarritasun itzala agertzeko gizonen artean miin ta izkuntzarik eztago.

Bada Maria'ri il dautse semea kurutzean, seme on, kutton, jakintsu, maitagarri, bakarra; Seme-Goraso, Seme-Jaungoiko; Erakusle argi zuzena; ta Maria kurutzearen oiñetan dago malkoz beterik Seme illari begira. *Juxta Crucera lacrymosa.*

Ai! Ikaragarritzko gau illun baltzak lausotu dautsaz Maria'ri zeru ta lurrean argi egiteko emon yakozan begi ederrak, puzoiz beterikako sube okerrak ainka egin dautsa biotz eztsutan, pekatu dongearen olatu garratzak bere besoetan amaitu gura izan dau Maria'ren bizitza done ta bedeinkagarria; baiña Maria ezta il, lurrean gelditu jakozan semeai begiratzearren dago bizirik, negarrez, zotitñez, beaztun mingotxak iruntsiaz, samurtasunezko jarri-lekuaren ondoan zutiñik, *Juxta Crucem lacrymosa.*

Kristiñauak: naibage andiak beragaz dau ixil ta ezkuto indarra gizonik otzena berotzeko, biotzik gogorrera biguntzeko, bururik arroenak makurtzeko. Naibage sakon baten aurrean eztago gizon arrorik, bular gogorrik eztago, eztago areriorik bere; ta zeinbat eta naibage andiagoa izan, ainbat eta andiagoa da errukia.

Samin andi baten ondoan arro, gogor ta arerio legez dagozanak, eztauke biotzik.

pera, *juxta Crucem*; belaunikotu gaitezen gure Amaren
ondoan, errukitu daigun errukitasuna.

III

Zabal ta gazia da itxasoa. Zerua bildurgarria da, aize
indartsuaren soñua ta trumoe gogorraren burrunbada
entzuten dan ekatx eretiko gaberdian. Ikaragarria da
eriotzako ordua. Baiña Maria'ren illun larri ta gazitasu-
nen aldamenean, ezta gazia itxasoa, ezta illuna ekatx ere-
tiko gaba, ezta larria eriotzako ordua bera.

Alan ta guztiz bere, ain andi, sakon ta mingarria izanda
bere, Maria'ren samiña baizen errukaria dakust beste
samin bat: siñiste bageko gizonena.

Maria'ren naibageak ba-daro beragaz batean gozotasun
apurren bat, bada naibage orregaz bere lurreko semeak
zerurako irabazten ditu, ta ama batek, semeen zoriona-
gaitik, pozarren eroan oi ditu nekerik andienak; baiña
siñiste bagako gizonak ezin daike gerorako ezti apur
bat idoro. Andi ta sakona da Maria'ren oiñazea : neurri
ta mugarik eztauka: baiña era berean da andi ta sakona
siñisgaiztokoan illuntasun minbera, zerren dan beti-
betiko illuntasun negargarria; ta betikotasunaren mu-
garik egundo eztau iñok billatu.

Egin daigun arren errukarri orregaitik. Eztira kurutze
ondora joango.

Eztira Maria'ren aurrean belaunikotuko.

Eztauke biotzik.

Eztauke amarik!

(Euskalzale, 1899, 98 orr.)

GOGAMENAK

Begiak ikusteko egiñak dira, ori bai; baiño baita ere negar egiteko. Orregaitik negar egiten degu ainbeste bidar.

(*Euskalzale*, 1899, 264 orr.)

JESUS'EN NEKALDIKO ITZALDIA

(*Zatitxo batzuk*)

Nere aditzaille maiteak : Gaurko egun triste, astun ta negargarrian, kristauen aurrean itz egin bear duan apaizak ezta batere jakituri bearrik, ezta iztun ederra izateko premiarik, Jaungoikoarentzat aditzailleen biotzak irabazteko. Naikoa daia uste det Jaungoiko kurutzeari josirik dagoanaren istori edo kondaira esatea, biotzik otz la gogorrena berotu ta biguntzeko; ez bakarrik kristauen artean, baita ere siñiste gabeko gizonen artean egunoro gertatzen dan bezela mundu zabalaren azkenango mugetaraiño Ebanjelio osasungarria zabaltzen dabilzenakin.

Gauzarik pozgarriena ikusi bear balitz bezela, jotzen dira otsande edo pregoiak Jerusalem'go kaleetan; batzen dira jenteak arpegi alaiekin, inguratzen dute Jesus; ta zaldien perra-ots, tronpeta-soiñu, borraruen diadar ta oiudu odolgirodien artean ba-darame estropozuka, tiraka ta

bultzaka, Kalbario'ko mendirontz Jesus otzan, umil ta malsoa.

Kalbario'ko mendira daramela, ertetzen zaio bidera Jesus'i negarrez emakume bat. Kristauak! Emakume ura Jesus'en Ama zan! Zer esan neike geiago gauza onen gaiñean? Semerik laztan ta maitegarriena urkamendira daramatela borrreru biotz gabeko batzuk, bidean billatu duala, bere Amak ! Zer esan neike geiago?

Urkamendi artara nolabait igotzean, jostzen due Jesus kurutzean, iltze gogor batzuekin, egur igarra balitz bezela; jasotzen due ajolakabe kurutzea, ta ara or!, Jaungoikoaren odolez bustirik dagoan mendi gaiñean Jaungoikoa, Jesus laztan donea, gizonaren itxurarik gabe. Begiratu ondo, pekatariak, pekatuaren egikera gaitoa, maistasunaren agergarririk andiena. Jesus'en arpegi zerutar berdingabea, loiturik eta maillatua dago; bere begiak, begirik gozoenak, malko minkatxez erreta dakustaz; eztauka indarrik burua zutik idukitzeko, ta kurutzearen ondoan jartzen ba'du berez, sartzen zaizka barrurago arantza zorrotz ikaragarrikoak; oiñen gaiñean utzitzen ba'du gorputza, urratzen zaizka geiago lengo eritasunak; eta eskuak ezin due jaso gorputz guztiaren astuntasuna. Ta kurutzearen inguruan borrreru biotz gabeak farrez ta burlaz dabilta! O Jaun ta Jaungoikoa! Noizko dituzu zure aserre santuaren tximista bildurgarriak?

Ixo! *Pater*, dio Jesus'ek kurutzetik; *Pater, dimitte illis, non enirn sciunt quid faciunt*: Aita, nere Aita, parkatu zaiezute, zer egiten duten eztakitelako». Aditu dezute, kristauak? O Kristo Jaungoikoaren erakusle done ta miragarrikoak! Jaungoiko altsuak bere eskuekin egindako lur zati batek iltzen du kurutzean bere Egillea; ta Jaungoikoak, bert etsai odol-zaleak farre ta ziñu edo burla

egiten dioten bitartean, kurutze gaiñetik parkazioa eskatzen dio Aita zerukoari bere iltzailleentzat!

Nere aditzailleak: zuen artean izan ba'dira bata bestearen ezin ikusi ta gorrotoak: zuen artean iduki ba'dituzue alkarri egindako injuri edo irain garratzak, izan ote dira Jesus maitagarriari egindakoak aiñan andiak? Eta eztiokatzute biotz-biotzetikan parkatu gaur batak besteari? Jesus'en irakastegiko edo eskolakoak ba'gera, nolatan bere erakuste doneari eztiogu jarraituko? Nere anai maite-maiteak: pakezko mandataria naiz ni emen, ta nik esaten dizutet Jaungoikoaren izenean: parkatu dezaiozutela alkarri edozein aserre zuen artean izandakoa; eta nai ezpa-dezute parkatu, jakin dezazutela beintzat Jesus'en irakatsia: parkatzen eztuanarentzat, eztagola parkaziorik Jaungoikoaren aurrean. Ta nor dago emen Jaungoikoaren parkazioa bear eztuanik, nor da Jaunaren aurrean zorrik eztaukanik?

Gure arrotasun ta panparroikeri deabruzkoaren kontra, nolako erakustea Jesus maitearena! Illezkor izanikan ilkor eginda, Jaungoikoa izanik gizon eginda Jesus, ta gizonen artean azkenengoa. Urkamendira eramaten dituan gaizki ta gizon iltzailleak, azkenengo orduetan, nai duen laguntasun guztia izaten due, ta mundu guztiak errukitzen ditu: Jesus'ek laguntasun apur bat eztauka, bada, esaten detan bezela, kurutze inguruko borreroak farre ta ziñu egiten diote; ta bere azkenengo egarrían beastun samiña eskeñi diote.

Baiña, ai!, nere kristauak: etziran judeatarrak bakarrik Jesus'i beastuna ematen ziotenak eta Jesus'en errukirik etzeukatenak, etziran bakarrik. «Eztet errukirikan», esaten du gaur ere, Jaungoikoaren izen donea madarikatzen duan gizonak; «eztet errukirikan», izkuntza loietan farrez egoten diran gazteak; «eztet errukirikan», beren mingain

«eztet errukirikan». Eleiza Donearen agindubete nai eztituanak; «eztet errukirikan», Eleiza Donearen aginduak bete nai eztituanak; «eztet errukirikan», norbaitek egingdako iraiña edo okerra parkatu nai ezantuanak. Kristauak, Jaunarekin errukitzen etzeraten kristauak: billatuko dezute zuek Jaungoikoaren errukia azken-ordu larrian?

(*Euskalzale*, 1897, 124 orr.)

GOGAMENAK

Beti ikusten det lenagoko gizonak eta antziñetako egiteak bakarrik doanditzen diradela. Zergatik ori? Zergatik ezтира doanditzen oraingoak? Bear bada, orain gauza doandigarririk eztagoalako.

* * *

Zer gauza on datorkigu beste gauza bat antziñetakoa edo gizaldi luzeak ikusia izatearekin? Nik ezin det ulertu. Bakoitzaren onbidea da gauza on bakarra, edo, geienez, bakoitzaren argi ta azkartasuna.

(*Euskalzale*, 1899, 272 orr.)

ESAERA BEREZIAK

1. Gaiztoak or bealdean bizi dira, diotenez; zenbat eta berago, gaiztoagoak; zenbat eta erri andiago, okerragoak eta ugariagoak. Eztakit nik nola dan, baña gizon txarrak gutxitan oi dira mendizale.

2. Arrokeriak biotza betetzen duanean, toki gutxi izan oi da biotzean gure Jaungoikoarentzat.

3. Ille arroen azpian zentzun gabeko txepetxburu asko izan oi da, ta jantzi apañaren barruan bada-ezpadako biotz aldakor txakillak ugari.

4. Zarra, iñausitzen danean, zapuztu egiten da; gazteak indar berria artzen du.

5. Zarrak beti dauka zer erantzun; gazteak beti zer ikasi.

6. Eztago iñon griña gabeko gizonik eta arantza gabeko lurrik.

7. Sustrai txarrak edonun ta edonoiz eman dezake kimu berria, ta gizonak dauden leku danetan oi dira gaiztakerirako sustraiak.

8. Naigaberen bat, ez bearren bat datorkizunean, artu zazu patxadan, alperrikako aserre gabe. Aserrearekin gauza on gutxi egin oi da; patxadarekin bear dan gutzia bear bezela.

(*Euskal-Esnalea*, 1913-1914, 14 orr.)

LULU TA MAÑU

I

Lulu

Neuk ikusi nuan nere ondotik zijoala, guri, galant, apaiñ ta arro, alderdi guztietara lerden begiratuaz, kaleko arriak orpoakiñ indartsu joaz.

Etxe andian jaioa, alaba bakarra, palaguz betea, zuri-kerien artean azia, nai zuana egiten oitua zegoan ta bere gogo aldakorra zeukan legetzat.

Begi ederren jabea zan. Begi aiekin askotan begiratu oi zion eztiro bere arpegiari; bere barruan, adimenarekin egundaiño ez.

Begi aien suak sarri piztu zituan gizonen biotzak maitasunean, ardagaia bezela; baiña Lulu'ren biotzak etzuan iñor maitatzen. Beretzat aiñakorik etzegoan.

Burua argiz baiño aizez beteagoa zeukan; biotza, an-dikeriz gaiñezka.

Txalo billa zebillen ta gaztien txaloak ugari bitu zituan; baiña gizon benatsuen destaña ta irriak ere bai.

Anitz adiskidek Lulu'ri ondamuz begiratzen zioten, baiño ba-dakit Lulu'ren animan kabi andia zeukatela naigabeak.

Etzan bera bakarrik ederra ta aberatsa!

Ta bakarra nai zukean, danetan bakarra ta gorengoena.

Goizalde batean, adrskidien arteko jolas-billera ospatsutik, ero ta ameslari, apaiñ baiño erdi jantzian, etxera zijoala, aizeak ikutu zion alboan, ta odola goritu zitzaion, gaisotu zan.

Neuk lagundu nion azken orduan. O eriotza samiña Lulu'rena! O ze illun, garratz ta bildurgarria iruditu zitzaion betikotasuna!

—Begiratu zazu zeru aldera —esan nion.

—Nere arpegia zan nere zerua —erantzun ziran—, ta lurpean sartu nai dirate! O, ni ez naiz ilko! Nik eztet il nai!

—Oroi zaite Jaungoarena zeraJa, Beragana joan bear dezula.

—Nik eztet il nai!

Baiño il zan; lurrean nai zuana iritxi baiño len il zan, negarrez, ikaraz, illuntasunean, itxaropen gabe..

O nolako kupida eman ziran!

II

Mañu

Soiñeko zirpilsuz nolabait estalia, oiñetako zar ibiltzen lertuak jazten zituala, makillatxo bat eskuiko eskuan ta ezkerreko besoan otarra txiki bat, nere alboan igaro zan, argal ta erkin, Mañu errukarria.

Beartsuen alaba, umezurtza, eskean zebillen erri ta erbestean, iñoiz beñ lagunaxekin, sarri lagun gabe, bada ba-zekizkian auzo-errietarako bideak.

Arpegi zuri aingerutarra zeukan, ta begi zabal andi bi, argi gabeak.

Etzuan ezer ikusten, itxua zan gaisoa.

Etzuen *ezer* ikusten bere inguruan, laiño batek estalzen zion argien argia; baiña barruan, barruan berak aiña ikusten zuanik etzan iñor. Zeiñ garbiro ezagutzen zuan bere argaltasuna ! Zeiñ gozoro begiratzen zion etorkizun ederrari !..

Joan ziran urte batzuek, gutxi.

Adu txarrak, obeto esan bear det, Jaungoiko Doneak zigorkada gogorrek eman zizkion bitartean; baiña etziztaion Mañu'ri barruko argia itzali, animako pakea ezerk etzion kendu.

Neguko egun batean, berandutxo, bakarrik zebilela galdu zituan bideak eta sasi-ondo batean igro zuan gaba, euritan, basatan, arantza tartean, ekaitzaren oiur arrigarrak entzunaz..

Eri jarri zan, ta neuk lagundu nion azkenengo garaian.

O eriotza ederra Mañu'rena! Bere eskuetan Jesus'en irudia zeukan, ta ezpañetatik begien aurrera eramaten zuan irudi laztana.

--Zerbait ikusten al dezu? —galdetu nion.

—Nere amak. Askotan somatu nuan nere seaska ondoan

—Zoriona?

—Bai; beti ikusi izan det urruti, ta orain oso urrian daukat.

—Nork erakutsi zizun zoriona ikusten?

—Nere amak. Askotan somatu nuan nere seaska ondoan negarrez, itxua nintzalako; baiña geiagotan esan oi ziran, laztanga laztanga, begi argidun itxuak zirala kupidagarri; Jaungoikoak ni oso maite ninduala, ta betiko argi alaia gordeta zeukak neretzat. Ori da zoriona, ta nere ondoan dakust...

Mañu il zan; pozpozik eman zuan azkenengo arnasa, patxada osoan, bigun-bigun, farre antzean..

O nolako bekaitza utzi ziran gazte arren eriotzak !

(*Esku-egundiya*, Irun, 1910, 31 orr.)

LAÑO A TA GRINA

Gure Jaungoikoak gizona egin zuan egunetan ez omen zan batere lañorik lurrean. Zeruak argi ta eder, itxasoak batí ta urdiñ, errekaak txukun ta pozkor, zelaimendiak alai, naro ta loretsu. Izadi guztia agiri omen zan oso bikaña, bere margo, neurri ta gaitasunak garbiro erakutsiaz.

Baiño, gizonaren biotzian arrokeria asi zanean, gizonak Egillearen agindua urratu zuan une gaiztoan, zeruak jantzi omen ziran odeiz ta bereala agertu omen zan lañoa ibaian, itxasoan, zelaian ta mendian, arrokeriaren lurruna bezela.

beingoan amuko zatiaren itxuretan, oraiñ beruna bezela jo astunean ta gero, keiaren irudira, me, lasai ta ibilkor . beti da lañoa inguruetakoko argi kentzaille ta itxas, baso, mendi, soro ta bidien estalki.

Era berean griña gaiztoa. Goitar andikien buruan edo betar txikien erraietan; bataren zioz, bestien erruz, zerbaiten alde, norbaiten etsai; auzoa dala ta erria dala, arrentzat piper ta onentzat gozo, aistian zuri ta aistian gordiñ, laster palaguz ta aurki aserre; latz edo leun, gaizki edo geza, zital edo eztizikoitz edo eskuzabal, gogoa ta iritzia aldatzen zaion bezela .. beti dabil griña adimeneko argia illuntzen, ondo egiñak aztu erazitzen, egia maitagarriak estaltzen, okerrari zuzen itxurak ematen, gauzarik itsusienak edertu naian.

Griñaren kolkotik ertetzen dute, labe zulotik garrak ertetzen duan gisara, satorkeriak, azpi jateak, gaizki esateak, zearka ibiltzeak; nasteak eta koropilloak, auziak eta maratillak, masiak eta gezurrak ugari, oso ugari.

Bildur izan, irakurle, lañotan galtzen bazera: nun zabiltzan eztezu jakingo.

Bildur izan, griñaz beterik iñori edo zenbaiti begira bazeude : eztezu ezer ikusiko.

Ez, griña dun gizonak ez du ezer ondo ikusten, ta bakoitzari berea ematen eztaki. Nola baiña, lausotua ba' dago ra gauza guztien neurriak galdu ba'zaizka? Artega, beroa ta txit berekoia, ezer entzuteko ta ulertzeko asti gabea, usteren bat sortzen zaionean, itsuturik dijoa, naitasunak eskatzen dion tokira, edonortara dijoa, edozeiñ bidetik, aurrean dauzkan eragozketa denak ausi, ebaki ta zapalduaz, esiak, esanak, aginteak eta legeak, Jaungoikoarena geien ta lenbizi.

Griñadunak bere gogoa du lege, bere adiña du argi.

Ordutik griña txarra, ordutik lañoa, biak alkarren aide.
Ala ezpada, ala dirudi.

Askotan dakust lañoa gure mendietan, maiz ikusi det
gizonaren adimenean griña gandua.

Anboton edo Izarraitzen, naiz egi buruan naiz egal
gerrian, gaur beltzeran ta biar urdinka, goizean trinko
ta arratsaldean arro, noizbaiten matasa lodiaren antzera ta

Argi pitiña, argi laburra, errañurik zabaltzen eztuan
argi motela.

Argi orren aldamenean, bere burua bakarrik agertzen
zaio.

Ara zergaitik darabillen bere izena mingañean: «ni
andi, ni azkar, ni gañeko, ni trebe, ni zintzo, ni jakintsu,
ni...»

Ni bakarrik?

Geienez ere, griñadunari norbait ba'dagokio edo adis-
kideren bat urrean sumatzen badu, baliteke adiskideari
esatea: «bai, zu ere bai, zu nere urrengo; ainbestekoa
zera, naikoa egin dezu, poliki samar, erosotsu; zu ta ni
aiñakorik ezta».

Zu ta ni, edo bakoitza bere maillan, ni ta zu.

Ta bestea?

Bestea ez da iñor, ezta ezer.

Irakurle, lañotan ote gabiltz?

Bada ezpada, begiratu zero aldera, begiratu sarritxo.
Antxen daukagu artizarra, dizdiz, bein odei tartean, bein
ozkarbi urdiñean.

Zerura begira dabillena ezta galduko.

(*Euskal-Esnalea*, 1911. 33-34 orr.)

KONDAIRA-KIMAK

Azkue zanak sortu ta zuzendu zituan lenengo "Euskalzale" (1897-1898-1899) ta gero "Ibaizabal" (1902-1903) astean asteango albistariak. Aldizkari batek gai askori ikutzen dautso: eguneango barriak, jazoerak kronika antzean, gai sakonak, erti ta jakintzazkoak, kritika, olerki ta ipuiñak. Agirre lenengotik asi zan Azkue jaunaren aldizkari biotan idazten; eta, nire ustez, gai-arlo guztietatik jarri eban bere aletxoak, ta lerden oso jarri be.

Kondaira, jazoera ta kronika eder yakon. Erakusgarri bat besterik ez aitatzearren, ona Erroma'ra osteran idatzia.. Idazkortza ta papera aldean erabiltzan nunbait, eta zer ikusi ta une bakotxean zer sentidu axe jasoten eban arretaz; eta gero, sail mardulean emon euskuzan ixango alako tipitapa ta zeaztasun guztiak. Munduan ba-dira

*gaur periodista nebeak; geure ingurukoak baiño ez aita-
tzeko, Jabierre ta M. Descalzo baitik-bat. Bizi-bizi da-
moskuez barri ta albisteak! Guzurra niñokeanik ez dot
uste oneik baizen bizi, giartsu ta oarkor Agirre'k idatzi
ebala esatean, berak Erroma'ra egiñiko joan-etorrian ikusi
ta nabaituko guztia. Kondaira orixe da, izan be: ez jazo-
kunen barria lau-lau emon bakarrik, idazleak oneik azaldu
bear ditu, bere eritxi ta epaia emonez Orixen dago Agirre'k
bere idatzian.*

*Erromara eldukeran, jakiña, Batikano'ra lenengo age-
rraldia. San Pedro'ko eleiza aurrean sor ta lor, txundituta
geratu zan bertatik. Eta nor eztau erasten olako ikuski-
zunak? Luze samarra dan arren, bego emen zaitxo bikain
au. Eleiz miresgarri a andik eta emetik ikuskatuaz, zein
ederto utsitu eban bere biotz-zokoa!*

*«Neure oraziñotxua aitu dodanean —diño—, asi naz
alderdi guztietara begira barrero, bost otoigope zabaletan
jiraka, gelditzen nazala izaturik metarri, altara, pintura,
taillu, oroikarri bakoitzaren aurrean; begiraka gora, bera,
alboetara, lurreko arri nabartxo egindako ziamarrei, boi-
llerdi urreztuari, gauza bakoitzaren atalei, Eleiza guztiak
daukan andientziari nire begiak neketan eta biotza artega
daukadala, ezin adituan nabillela zelan dagozan baturik
ainbeste marmol, zillar, urre ta arri piñ.*

*«Ate ondoan jarri naz. Askotan irakurri izan dot le-
nengo begirunean ezala igarten Eleiz onen anditasun
guztia: alan dirudi. Toki onetatik ikusten dana esan leike
eztala gauza arrigarria. Baiña nire buru-gaiñeko urtai-
tziña goi dago; bai, guztiz goian; eta zabala da; bai, oso
zabala: luzea, egiaz luze: ederra, eztoz ederragorik ikusi.
Emen alboan daukadazan metarriak andi ta sendoak dira
ezin geiagoan; eztaukat dudarik: metarri batetik bestera
pauso asko dago; asko benetan: metarri gaiñ eta txokes-*

deian dagozan santuen tailluak ondo amaituak dagoz; baita, bost otoigope daukaz olakoak, 98 metarri bardiñak, altara asko ikusgarriak, eztakit zenbat oroigarri gaikeran egiñak, ela an ikusten dodan jendeari txiki deritxot, eta .. bai, bai, andia da. ederra da eleiza au; baiña ain dago ondo neurtua dana. Egin daigun beste jiratxubal. Ai, one! Orain ezagutzen dot obeto andi-edertasuna; nekatua nago, baiña ez gogaitua. Goazen ostera, egin daidan beste jirabira...»

Era onetan, lau ta txukun, edestu euskuzan orduko biotz-zauskada ta goraberak. Bai, kondaira-zale genduan Agirre, batez be ostera au, Auñemendi'k ko Lorea, Aita Larramendi'ren bizitza, Itziar'ko Amaren kondaira, Zumaia'ko erriaren edestia ta abar lekuko.

JOAN-ETORRI BAT ERROMA'RA

(Zatitxoak)

AITA SANTUA

Katoliko batentzat Erroma'ren gomuteak, Erroma'ren izenak bakarrik dakar burura, aitatu ez arren, an, laiñu tartean, ondo-ondoan, gauza guztien azkena legez, beste izen maite bat, beste gomuta eder bat: Aita Santuarena. Erroma'ko edozer gauzaren gainean berba egin danean, naiz-ta Aita Santuagaz zer ikusirik euki ez, nire irudesleak (idurimenak) beti ikusi izan dau, erri onetako izate guztiak baiño gorago, odeiak lurraren gainean dagozan gisara, izate andi mirarizko maitagarri bat, erdi-lurrekoa erdi-zerutarra, gauza danak bere mendean daukazana Jaungoiko Egillearen izenean.

Niri betl gertau yatana beste danai gertau izango yakela deitzat. Orregaitik, ziuertsu nagola uste det esatean eztagola emen, España'ko erromeri zale guztietan, bat bakarrik, Erroma'ra etorteko pentsamentua artu eban unean bertan goratu ez ebanik Leon XIII'garrenaren irudia, poztu etzanik bereala Kristordea ikusi bear ebalako bere begiakaz; ziuertsu nagola deitzot esatean pentsamentu onegaz indartu giñala danok ibillera luzerako, eta gure biotzaren erdian ordurik dontsuenentzat daukagula Aita Santua, Pedro'ren ondorengoa, Zeruetako giltzak bere eskuan daukazan Kristordea ikusteko ordu bedein-katua.

Ezagun dogu danok arpegi ta ibilleretan. Batikano'ko jauregian gagoz erromeri zaleok eta beste españatar uri onetan bizi diranak, daukaguzan jantzirik onenaz, barruko atsegiña arpegian agiri yakula, pairezagaz urduriturik.

Egun andia guretzat gaurkoa. Zortziretan esango dau mezea Aita Santuak gure aurrean *Duke sala* edo tarbean, amabietan etartuko gaitu esku-munerako *Sala Klementina* esaten deutesen gelaan.

Sartu gaitue mezea entzun biar dogun lekura, eta zain gagoz geroago ta urduriago. Sala onen erdian dakusguz larden gordelariak, alabardak besoan dituela; euren agintari bat gora ta bera dabil alderdi guztietara begiraka. Mezatarako gertu ein daben altarea guztiz da polita: seda gorritzko dosel bat gaiñean, brontzezko kurutze bat eta sei kandela altaran, etzinkyi bat aurrean eta beste bat ebanjelioko aldean ikusten dira. Oraintxe datoz korura Sixto'ren Kapillako kantariak.

Pazienziarik-eza geroago ta geiagora doa guban. «Emendik ikusiko da obeto», «ortik etorriko da», «andik urtengo

dau», diñoe nun-nai. Emen dator!... Lenengo sartzen dira gordelariak, gero zaldun sekular batzuk, gero Obispo edo Kardenalak (eztakit ziartu zer diran), eta azkenek ikusten da ate zuloan, santu bat nitxoan legez, irudi gozo bat zuri-zuria, megopearra (gogozkoa), irribarrerik maitagarrienagaz bedeinkatuten errespetoz beterik belauniko jarri dan jente guztia: Leon XIII'garrena da. Begiak gara guztiok Aita Santuaren mugidarik txikienak ikusteko, mutik ezta entzuten, arnasa-otsik bere ez dantzut, arpegi askotatik bera malko gozo ugariak jausten dira lurreraño.

Altara aurrera etorrita erregua egin dau Aita Santuak; ipiñi deutsez mezatarako jantzi bedeinkatuak, meza santua asten da, eta koruan Sixto'ren kapilleak musika soiñurik eztsuenak kantetan ditu.

O zer laurka! Betor ona luma jakitun urrezko lirain bat eta agertu bei itzik eder ta egokienakaz laurka miragarri au ! Belauniko nagon lekutik kana batzuk aurrerago daukat Jaungoiko altsuaren Ordezkoa bere Sakrifiziorik ikaragarriena ospatuten. Kantua dantzut gozotsua ta garbia, bigun ta leuna batzuetan, sendo ta orroetsua bestetan; baiña beti zoragarri ta ondo neurtua maisu jakitunaren eskuagaz. Nire inguruan milla arima samurtuak gozoko negarretan dagoz; zeruko zoriontasunaren apurren bat daukagula emen esan leike...

Amaitu da mezea, eta urten dogu salatik. Neure biotza eztot iñoiz samurrago euki, eztakit konortean egon banaz barruan egon nazan arte guztian, eztakit arnasik artu ba' dot Leon XIII'garrenaren jantzi zuria urten daben atetik sartu dan artean. Artu daidan arnasa orain : atsedean bat emon daiodan neure arimeari.

(*Euskalzale*, 1899, 219 orr.)

BESUBIOA, POMPEIA, NAPOLES

Amaitu ditugu Erroma'n geunkazan zeregiñik nagusienak. Erreguu dogu San Luis'en illoi aurrean, ikusi dogu Aita Santua: gauza bi, gureztat zorion andi bi izan diranak.

Orain jira aidako bat egin bear dot, Napoles aldera. Nire borondatea egin al ba'neike, beste leku askotara joango nitzateke; baiña eztago danetarako denporarik. Ostatuko lagunetatik ezin izan dot irabazi bat baiño besterik *biaje* onetarako: beste lagun on bi batu yakuz gero. Laurok gagoz burnibidearen gelditokiko sala baten: españatarrik ezta geiago. Gabeko amaikak dira, otz egiten dau; or ta emen, txoko guztietan, gizon langilleak eta baita emakume batzuk bere jo dagoz neurdiñ zorro zarren gaiñean, edo pardelen batzuk burkutzak arturik; biajari geienak rraskillak, malmutzak eta motxaille itxurakoak deritzataz, neure logureak argiak diran baiño illunagoak dirala idoro eragiten deust...

Billendeak artzen gagozala esan deusat lagun bati: «Gu bakarrik izango gara españatarretatik». Eta: «Ez», erantzun dau alboan gizon batek Katalunia'ko semeen mintzoeran; «emen gara beste batzuk». Alan zan egiaz; etxadi osoagaz egoan erantzur> eban gizona. Danok poztu gara olango leketan oi dan gisan, eta sartu gara alkarregaz manurga batean. Berbeta aldi bat egin dogu deadarka, bata bestea ondo aitu eziñik, trenaren zarateak estaltzen ebalako gure esana; baiña nekatuak gagoz eta lotarako asmoetan asi gara.

* * *

Begiak edegi ditut gerotxuago, egoera on bat ezin bilatuta. Manurga onetako argi motelak erakusten dau laur-

ka polit bat; nor dago goruntz begira, aoa zabalik, azkenengo zigarroaren mutur edo punta esku adorebagean daukala: nor buru ta beso ondo estaldurik, korkoitz baten irudian txokorrian okertuta: nor, jarri-lekuaren erdian, bere burua gora ta bera, aurrera ta atzera darabillela, norbaitegaz daukan izketan *baietzka*, *baietzka* ba'lego legez; nortzuk bata bestearen gaiñean buruak okerkeran ipiñita zerbaiti bultzaka dagozala uste da... Baiña lo egin daidan al ba'dot, bada loaren bearra daukat.

Goizeko lenengo orduetatik entzun dot erdi lotan *biolin* soiñua. Pentsau dot biajari goiztar umore onekoren bat dala. Geroago ta urrerago entzuten neban soiñua, baiña ez dot jaramonik egin soiñularia gure manurgan sartu dan artean. Esnatu gaitu oso guztiok; jo ditu eta kantau ditu *napolitana*, tristetsu batzuk, barre pizkat eragiñaz..., eta barria kendu deusku azkenean txapela erantzita ipiñi deuskunean aurrean eskerako platertxu bat. Biolindunak urten dabenean sartu yaku ostera beste bat eta beste onenbeste egin dau. Emengo oitura izan bear dau manurgarik manurga soiñua jo ta eskean ibiltea. Ezta txarto: norbere etxetik Napoles'eraño, edo nai dan lekura arte joan ta bidean batu *biajerako* edo geitxuago soiñua joaz: ezta txarto. Goizeko zortziretan eldu gara Napoles'era. Geldilekuan billatu ditugu españatar bi geiago, gu ekarri gaituan treneko bazterren baten etorri diranak. Bailadolid'eko ikasle gazte bi dira. Alkarregaz solas pixkat eginda bereala erabagi dogu Napoles'en orain sartu бага jarraitutea Pompeia'raiño eta andik igotea lenengo BesubioVa sei adiskideok. (Kataluniatarrak emen gelditzen di'ra.)

Alan bada, minutu batzuk geroago urteten daben tren baten sartu gara seiok, ta ba-goaz. Agertzen da ezkerretara, entzute andiko baia, zabala, urdiña, ontziz betea; agertzen dira millaka etxeak, atzetik daukezan mendiak

Besubio mendia, erraietan gordeten daben ekirtza edo fabrikaren bateko kee baltza tontorretik goruntz erakusten dabela. Urdin ederra dauka zeruak, argi indartsua eguzkiak, arpegi alaia daukagu trenean goiazan guztiok...

Baiña itxi daigun Napoles geroko. Ia eldu gara Pompeia'ko deseigoetara... Bertan gagoz.

Pompeia'n jatsi gareanean urten dauskue bidera mutilxu batzuk paper banagaz, bakoitzak ostatu baten barri emoten. Iru edo lau etxe barri ikusten dira biajarientzat egiñak, eta beste gauzarik ezta agiri. Sartu gara lenengo billatu dogunean, eta zerbait jaten dogun bitartean agindu deusagu jabiari gertau daizala iru zaldi Besubio'ra igo daigun iru lagunek, bada beste irurak Pompeia'n gelditzen dira, mendian gora igoteko kemen bagea. Gosalduta beingoan jarri gara zaldi gaiñean bi ikasleak, ni eta gidaria, ta beste mutil koskor bat atzetik saltaka dogula, zigor bategaz zaldiak erabilteko, urten dogu mendiruntz.

Lenengo bidaldi zabala beingoan igaro dogu, gero sartu gara bide estuagoetatik gorantz, mendi barrenean dagozan erritxuetatik ziar. Ezin leiteke siñistu barren onetako lurraren narotasuna. Biziro ta indartsu jasoten dira arbola mueta asko alortez bete-beteak; batez bere mastiak ikusgarriak dagoz, gizonen buruak baiño mats mordo andiagoak dakustaz, ale bakoitza gaztain ale bat aiñakoa ba-dauke. Mats onegaz egiten ei da *Lachrima Christi* esaten deuten edaria.

Atzera gelditzen dira or beian etxiak, arbolak, mastiak...; geroago ta urriagoak dira landara berdiak; lurra auts baltzaren kolorea dauka, aldatzean gora geure zaldi zar azurtsuak ezin eroanik nekatu gara; beroak erre bear

gaitu. Atsedean bat egin dogu oraindik bidean billatu dogun etxetxu batean; edan dabe gidariak eta mutil koskorrak botella bat Besubio'ko ardao *alla nostra salute*; igon dogu zelanbait ondar baltzian gora Besubio'ko suak artutako arri-pilla itxura gaiztoen artetik, eta eldu gara azkenean izerdi bitsetan *Stazione* esaten deutsen tokira. Emen jatsi gara zaldietatik, bada ain dago pika emendik gaillurrera eze auntzak bere ezin leikee igon.

Oiñez bada bere igongo dogu. Laguntza barik, makkilla puntadun banagaz, soindoiña (sotana) gerrian sorokituta, aupa mutillak!, goora onezkero arnasa dagoan artean... Or jarri, emen etziñ, arnasarik ezin artuta, izerdi tanto garbantzo alia aiñakoakaz, eguzkirik beroenaren azpian, lur goriaren gaiñean, *txirrist eta larrapast!*, gaillurrean gagoz. Asko aurreratu gara zulo aldera, entzuten da barruko murmurrada bildurgarri bat, oiñak ipinten ditugun tokian keiak urtetan dau, arpegira yator-kuz azufre usain gogor andi bategaz aidean dabiltzazen ondar baltz edo auts apurrak. Goazen aurrerago..

Puaa! Perill onetik iges egin dogu. Aize bolada batek keetan estaldu gaitu, ta une batean, ia siñiztu dot nik beintzat ito bearra. Goazen inpernu zulo onetatik urrutira. Dana da keia, dana da baltza, dana berotasuna, dana da itzala; gauza alai bat ezta agiri: bakarrik emoten deust barreguria lagunen arpegia ikustean; afrikatarrak dirudie: olan egongo naz neu bere. Goazen beruntz.

Jatsi gara *Stazione'ra* aida batean, erdi bilinbolaka, oiñetakoetan libra biña ondar ta arrikoskor ditugula; artu ditugu zaldiak, eta Pompeia'n gagoz ia iruretan zia-beste oneek ipinten.

Gorputzak garbitu doguzanean joan gara Pompeia'ko deseigo edo errestoak ikustera. Sartzen da *Porta-Marina* deritzaion atetik...; pausu batzuk aurrerago ikusten da

ezkerretara musaga txiki bat, erri onen gaiñean egoan auts edo lurra kentzean billatu diran gauzakaz; etxeetako tresnak, ontziak, ogi ikatz biurtuak, garia, alortak, gizon ta emakumeen gorputzak auts egiñik, baiña euren itxura guztia ondo gordeten dabeela; emakumien urrezko apa-induriak, mailatu ta baltzituak batzuk, garbiak eta egin ziran moduan beste batzuk. . Barruzko tristetasuna sartzzen dabe gauza oneek.

Kale onetan gora igonda billatzen dira beste kaleen ariak, denpora atako burdi edo manurgak egin zituen utsuneak ondo ezagun dirala kaleetako arri latzean. Teillaturik eztauke etxeak, marmolezkoak dira asko, atariak arri koskorraz egindako ziamarrak daukez; barruan ikusten dira Jaungoiko guzurrezkoen talluak eta pintura zikin asko.

Lenago ainbeste barail egoan erri onetan ixiltasuna bakarrik dago. Iñor ezta agiri uri guztian ingeles biajari bi baiño besterik... *Quomodo sedet sola civitas plena populo !... A ! Zelan dagoan bakar ta tristea lenago jente alaiz beteta egoan uri au ! Emen dagoz Jaungoiko guzurrezkoen altarak, emen dagoz jostaketarako lekuak, emen dagoz kaleak ixiltasun negargarrian, emen dagoz pekatu naskagarrietako etxeak, baiña jendeak nun dira?... *Gelditu ziran kanpoan etzinda gaztea eta zarra...; il zenduzan (Jauna) zure aserreko egunean: eritu zenduzan eta etzenduan euki errukirik. (Lament. Jer., II 21.) O Pompeia! Zure Igarlak ikusi zituen zuretzat gauza guzurrezko eta burbulloak. eta ez eutsuezan agertu zure gaiztakeriak penitentziara biurtu ziñaitetzan (Id., II, 14).**

Jaungoikoaren zigorra ikusten da emen. Lenago Pentapolis'ko uriak ondatu ziran antzera (esan giñaike bildur baga) amaitu zan Pompeia bere dongatasunagaitik. Dударik eztaukat ikusi dodana ikusi ezker.

Illunabarra da. Eguzkiaren azkenengo erraiñu erdi illak biraltzen dabe lurrera bere amaierako argi apur misteriozkoa .. Uri errukarri onen gordalariak gogoratzen deuskue atea itxiteko sasoi dala ta arimea ezin esandako damorritz beteta dogula, ba-goaz Napoles'era eroango gaituan trenera. Zerk dakarkigu gure arpegietan agiri dan tristetasun au?

Illunabarrak..., toki onek..., gure arima nekatuak?

(*Euskalzale*, 1899, 267 orr.)

MARINA SAENZ LIKONA-TARRA

(*Azkue'ko R. Maria jaunari*)

Eztaukat astirik, adiskide maitea, gura dodan erara erakusteko argi ta garbi nongoa zan Aita Done Inazio'ren ama zorionekoa. Baiña, beta geiago dodanean, uste dot eztaJa gatx izango irakurleari begien aurrean jartea, ez bakarrik gure Santu andiaren amama, baita ama bere, bizkaitarra ta Ondarroa'koa zala.

Jesus' en Lagundiko Aita gurgarri askok esaten dabe orain nik diñodana: beretako bati baiño geiagori entzun deusats. Batez bere olango lanetan bere burua asko nekatutako batek, paper zarrak ondo ikusita gero, baitu dau, Marina Saenz, Likona'koa Done Inazio'ren aitagaz ezkondu zanean, amaika urte zala Azkoitia'n egoala. Amaika urtegaz ezin ezkondu zeitekean. Beraz etzan Azkoitiarra. Nongoa zan? Gauza egokia dirudi esatea Ondarroa'koa zala, bada Ondarroa'n bizi zirean bere gurasoak, eta alan esaten dabe orain berreun eta geiago urteko liburuak.

Beste egun baten, abagune obean, alegiña egingo dot orain esan dodan guztia, gizon jakintsuen laguntzeagaz, *Euskalzale'ren* irakurle maiteai argitara ipinteko.

—Ba-dakit Jesus'en Lagundiko A. Arana gogoangarriak esaten ebala beste gauza bat, baiña A. Arana Azkoitiarra zan. ta Azkoitirra zalako, Azkoiti'ko gauzak biotz mamiñean erabilten ebazan ta aomen guztiak gitxi zirean bere erri maitea apainduteko. Ostera, A. Arana gizon argia izanagaitik, bat besterik ezta; eta goratxoago esan dodan legez, Jesus'en Lagundian bertan asko eta argiak dira, Aita Done Iñazio'ren ama ez Azkoitiarra, ta bai Ondarroatarra zala uste ta esaten dabenak.

Liburu zarrak, paper zarrak, gizon burutsu asko, danak Ondarroa'ren alde dagoz: zelan bada egongo ezta arrazoiari berea emon gura deutsan guztia?

(*Euskalzale*, 1897, 247 orr.)

ETXEBARRIA'TAR SILBERIO FRANZISKO JAUNA

Gizon doneak euki oi daroen eriotza on bategaz il zan Eibar'en, igezko jorraitaren 2'an, irakurburu onetan ipiñi dogun izenagaz ezagutzen genduan abade onbidez ta jakituriz betea.

Elorrio'ko uri leiñargian jaioa zan, Balentin Berrio-Otxoa'ren errian; baiña ume-umetatik Bilbo'ra joanda, gizondu artean Bilbo'n bizi izana.

Erdaldunak *Instituto* esaten dauksen Bilbo'ko ikastetxean ikasi zituan abade jaun onek irakaskera asko, ta bertan egin zan *batxiller* erreztasun andi bategaz. Gerroago, Bitoria'ko ta Salamanka'ko abadeen ikastetxeetan

Ondo dakie au orduan bere lagun zirean abadeak.

Baiña, bear bada, gero etxe bazterrean egiten dituan lan eder askoren barririk norbaitzuk ez eukitea izan leike. Lanerako jaioa, lanerako gogotsua, lanean poza, lanean desnekea, lanean arimako gozotasun ixil kemengarria billatu oi eban Etxebarria jaunak, eta lanean igaroten zituan egunak eta gabak, oso-osorik askotan, beti irakurten, beti ikasten, bein bere ikasteagaz aspertu eziñik. Jaun onek ekizan gauza batzuen albistea, bera esondaritzat (aolkularitzat) euki daben abade batzuk bakarrik dauke; berak paperetan ta liburuetan argitaratu dituan gauzak, askok ezagutzen ditugu, danak ez baiña. Ezagunak dira *El Basco* zeritzaion paper albistarian ipiñi zituan Foruen gaiñeko erakuskera jakingarriak eta beste beargai eroso egiñak; ezaguna da *Crónica de la Peregrinación de Nuestra Señora de Begoña* izeneko liburutxua; ezaguna *Historia del Santuario de Nuestra Señora de Begoña*, aukera, egokitasun ta jakituri geiagogaz egiña; ta ezagutzen asia dago, azkenez, Etxebarria jaunaren libururik jakintsuena *Caephas*, Salamanka'ko Apezpikoaren itzaurre bategaz oraindik oraintsu argitara urten dabena. Au bai dala liburua! Liburu orregaz eskatu leike bere egilleak Elizearen gaiñeko gauzetan jardun daben eskribitzaile, andien artean jarrileku onoretsu bat.

Ainbeste otserru (indar) ta jakituri daukazan liburu bat ezin daike edozeiñek amaitu. Eztago edozeiñen eskuan adimenaren indarrez Elizearen lenengo egun don-tsuetaraiño sartzea; gaur, ta biar, ta etzi, egunero, egia garbia ikustearren ta egiagaz luzaroko orduetan, liburu-zarrak ikusten begiak boteaz jardutea; ainbeste ipuin alperrikakoren artetik norbere lanbiderako egoki datorren gauzea ondo aukeratutea; milla papertzar, lo eragiteko

aduste (gogai) sitsak jana, asmau ta igartea; or ta emen egiten diran oar guztiak, ekifiaren ekiñez, garbiro ta sail batean ipintea; eta, guenez, izkerarik garbi, leun ta era-koenagaz erri ta erbesteko gizon askok arreta andiagaz begiratuko deutsen liburu bar guztiz ondo apaindutea; ori, diñot ostera bere, ezta edozeiñen egitekoa.

Ta ori egin dau gure Silberio Etxebarria jaunak. Zentzunik ganorazkoenagaz, somarik (zurtasunik) onenaren bitartez, kondairatzaille batzuen uste ta iritxiak jarraituaz ta beste batzuenak pixu zuzenean ondo neurturik, geiegizkoa danari zerbait kenduaz, ta igaroketa illun guztiak ondo argituta gero, bota dau iakintsuen erdira bere *Caephas*, Done Pedro'ren omenean aspaldietan agertu dan oroikarririk ederrena, lan andi ta jakituri geiagoko liburu irakurgarria.

Baiña ezteiala iñok uste izan liburuetako lanak bakarrik egin zituala Etxebarria jaunak bere bizitza diñadez betean

Arima zalea zan, abade onenetakoa zan legez, arimak Jaungoikoaganako irabazteagaitik artzen zituan bere gaiñ liburuetako arlo guztiak; baiña orrezaz gaiñera billatu oi eban beste zeregin askotarako asti ta erea. Ba-daki Eibar'ek zenbat erakutsi on zabaldu dituan *Don Silberio'k* gaztien arfean, zenbat egotaldi egin oi zituan autortokian. zenbat esonde zuzen emon ebazan, zenbat oker zuzendu, zenbat itzaldi eder egin; ba-daki Eibar'tik kanpora beste erri askok; eta, au da beretzat onena, bekian Jaungoikoak, Beregana deitu eutsanean, zein ta zelangoa zan Etxebarria jauna, ta emongo eutsan ondo etorkon saria ta zoriona.

Ixillik itxiko dodaz nire erakuslearen egikera on eder asko. Baiña eztot nai betiko estaldurik gelditu dedin orain

gogoratu yatan oartxu bat, Euskalerrirako osasungarria da-ta. Etxebarría jaunak, beste bere garaiko bilbotar danak legez, ez ekian euskerarik Eibar'era joan zanean; baiña, ezaguturik zein premiñazkoa zan euskerea erritar apalen artean ezer egingo ba'zan, ta bere biotz euskaldunak alan agintzen eutsalako gaiñera, euskerea ikasi eban ia berrogei urte eukazala, ta ordutik aurrerantzean euskeraz jarduten eban bear zan orduetan, guztiz ederto gero, naiz etxean, naiz autortokian, naiz kalean. Ai! Egia da: gura dabenak asko daike; gura eztabenak ezer bere ez.

Gazterik il zan gure *maisua* (bada gaur abade garan askoren *maisú* edo erakusle azkarra zan), garerdiko gizona dala il zan, utsune andi bat itxi zuan gure artean, eztogu geiago lurrean bere erakutsirik entzungo; baiña, nik uste dotan legez, zeruetan ba'dago, zeruetatik lagundu daigula bere ikasle izan giñanoi ta Euskalerrri maite guztikoai.

(*Euskalzale*, 1899, 58 orr.)

LEKEITIO'KO ELIZEAREN ATE NAGUSIA

Eliza andi eder asko daukaguz gure Euskalerrriko elizti zabalean. Bilbo'ko Done Jagorena, Elorrio'koa, Deba'koa, Oñati'koa, oraintsu Donostia'n egin daben barria ta beste asko ta asko; baiña danen artean onenatarikotzat daukagu Lekeitio'koa.

Ara or, edergarrian (orrelaxe etorren albistarian), eliza orretarako sarrerea, ederra bera ta ikusgarria, ta ara or, bigarreanean, altara nagusiko zatitxu bat, toki gitxitan ikusten dan erara egiñikoa.

Gazteiz edo Bitoria'n artuko leukee, uste dogunez, Apezpiko edo Artzain lenendariaren elizatzat Lekeitio'koa langotxu bat; baiña ez ei dauke lekeitiarrak eurena saltzeko.

(*Euskalzale*, 1899, 241 orr.)

BILBO JAIETAN

Beti da Bilbo ikusgarrizkoa. Egunero dagoz emen nu-naiko edozenbat ontzi andi Ibaizabal'en ertzetan; edozein ordutan gizonak asmau al aiña gauza on dendetan salgei. Astegun buruzurian bere bilbotarrak garbi ta eder jantzirik ikusten dira, suburdiak eta tximist-kaiolak beti dabilz jente ibilkariz gaiñezka, bideak eta kaleak gizadiz beterik, Ondartzea edo Arenala ta beste ibiltoki guztiak emakume bitxidunez ta gizon apainduz ondo orniduta. Eztago Bilbo langorik.

Bilbotar guztiak *kakao fiñagaz* egiñiko txokolatea goizero artuten daben edo ez, eztagigu; baiña askok baietz esan geinke, itxureari siñistea emon ezkerro beintzat.

Baiña beti bada ikusgarrizkoa Bilbo au, iñoiz baizen geiago oraintxe, bere urteroko jaialdi egunetan. Alderdi guztietatik dantzugu soiñua edonun dago zer-ikusia, naiz egunez naiz gabaz; ta bein gabera elduten gareanean, sortuten dira eguzkiaren ordezt Jaungoikoak badaki zenbat argi, or ta emen lenagotik dagozan burdin-aga luze askoren gaiñean, oiño egunetarako lurrean sartu dituen makilla polit ugarietan, zugatz tartean, etxearpe-giko leioen jiran, emen zuri, an gorri, emen eundaka, arontzago millaka, batzuk ari zuzenean, beste batzuk okerkera neurtuan, bada eguzkiaren argitasuna bardindu

nairik, beste asko izar aldra bigun pozgaxrizkoak dirudiela.

Urdailla ondo beteta gero, zezenetan deadarka nekatu ondorean, soñurik gozoenak entzuten aspertuta, or dabilz bilbotarrak, Soria ta Bribieska'tik etorri diranakaz nastean, Arenal'ean zear, udaletxe argituari begira, egun bian jaso dituen olezko dendetan dagozan gauza merkeak erosten ta barregarikeriak ikusten, oraintxe dagola Bilbo ederren, bizien eta ikusgarrien esanaz.

Bai, egia diñoe : oraintxe dago ederrena Bilbo begi ta belarrientzat. Baiña ezkaitezen aztu biotzari bere emon bear yakola bere janaria, eztitsua al bada, zenbat eta ez-titsuago ta obeagoa. Ezta gizona txokolateagaz bakarrik bizi.

Ta zer dago emen biotzarentzat? Non billatuko dau bere asete gozoa? Ez emengo jaietan. Ezta gure biotz euskalduna emen ikusten ditugun jaiakaz asetuten, bada edozein erdelerriko jolasetatik desbardintasun gitxi dauke, ta guk geure jolasak gura gendukez. (Au emen ipiñita gero ikusi ditugu euskal jai batzuk Arenal'ean, guztizko poz andiagaz. Eskerrak asmau, agindu ta zuzendu da-bezanai.)

Bizkai barruko erritxueta joakigu biotza, bada Bazkai barrua, ainbeste apainduri barik, Bilbo baiño obetzat eta euskaldunagotzat daukagu, ta euskalduntasun garbi Jaun-goikozkoa da gure biotzerako gauza ezirik eztieta.

Euskal mendietara joakigu biotza. An diraue oraindiño gure asaben ekandu zarrak, an dagoz aizerik osasuntsuenak.

Ango ekanduak eta ango aizeak gura gendukez Bilbo'n.

(*Euskalzale*, 1899, 266 orr.)

I

Erdalerritarrakaz gabiltzalako, nai ta nai ez bere ibilli bear izaten da-ta. Orregaitik lenengo, ta bigarren geu bere asko erdalzaletu garealako. ta edozein euskaldunegaz ta edozein tokitan erderaz diardugulako, euzkera zuzen garbi maitea bazterreruntz boteaz.

Bigarrenge alde au da mingarriena, geure gogozkoa dalako. Geure eskuan legoke euskeraz itz egitea, gura ba' gendu; baiña eztoqu gura edo eztakit nik zer gertetan dan, bada erderaz diardugu euskaldun geienok.

Eztago ikustea baiña Durango'n edo Mañari'n, Tolosa'n edo Asteasu'n, Etxarri'n edo Lakuntza'n jaio ta euren gurasoen aotik euskera besterik entzun eztaben gizonak zer egiten daben Iruña'n, Donostia'n edo Bilbo'n bizi ba'dira : goizetik eta gabera eztitue Iau itz euskeraz esaten. Eztago erritxueta bertan, irakasle, osagille ta jakadun guztien jarduna entzutea baiña: beti diardue erderaz, danak Izpazterr'en jaio ta aziak ba'dira bere. Eztago euskerea ondo ikasten zeintzuk saiatuten diran begiratzea ezpada: Iau zoro, edo zorotzat begiratuten ya-kuen erritar banakak.

Euskerea basserritarkeritzat dauke oindiño euskaldun askok, eta baserritar izate ori ezta gogozko gauzea erri andietako gizon arrotxuentsat.

Eta jakiña da : iñoiz, nai ta nai ez, euskeraz itz egin bear da'dabe, euren aotik Aitor'en izkuntza gozoak erdaldunduak urteten dau; ta zelan diran eurak erritxueta gizonik argienak legez ezagutuak, euren esakerea onena dalakoan, baserriko gizon apal zintzoak ikasten ditue ta esaten ditue erderazko itz zakar gaizto asko, euskerazko, itz eder egokitatzat arturik.

Kalte andia egiten dautse, gaiñera, gure izkuntz gaixo-
ari, erri txikietatik andietara etorten diran neskame ga-
norabako gangar apainduri zaleak; bada burua arro da-
bela ta parpaillaz beterik euren etxetara doiazanean, ba-
daroiez bakotxak, euren guraso ta anai-arrebai erakusteko,
berreun erbesteko itz txarto entzun ta oker ikasirikoak,
eta or geldituten dira gero itz gaiztoak erri txikietan be-
tiko. Olangoen izkerea zein barregarria izan oi dan gure
lagun P. M. langille onak erakusten dau ederto *Euskal
zaie'n*.

Ta oartu ditugun bideak euskerea galtzeko naikoa ez-
tirala, erri txikietatik egundo iñora urten bage dagozanak
eurak, igarri barik baldin ba'da bere, egiñalak egiten di-
tue euskera maitagarria alperrik galtzeko, euren bada-
ezpadako esakera motel ta nagiakaz, itz-atalak ortz tartean
janaz edo aopean gordeaz, edo ardurabagetasunez bear
eztan erara gauzak esanaz. Oraindiño egun asko eztala
entzuten geuntsan gipuzkoatar emakume bati, bere ume-
txoai errietan ziarduala: «Ez geo nei enpazi», ez gero
neri enpada-erazi, esan naian; ta beste arrain-saltzaille
bat ebillen lengo batean deadarka: «Oraintxe itorri *da
txitxarro preskuak*.

Ba-dira beste batzuk bere (abadeak gaitik diñot) eus-
kerearen alde geien egin bear leukenak, errizale ta jakin-
tsuak diralako, euren elizetako irakastegitik erdi erderaz
jardunaz ta kristiñauen ikasbide aukera bagekoak umien
eskuetan ipiñiaz, euskerearen edertasunak illundu ta gar-
bitasun apaiñak loituten dituenak.

II

Gauza zar guztiai, zarrak dirala ta beste barik, geiegi
eutsiak gagozalako bere bai.

Geure gogokoak izan bear dabe gauza zarrak, onak ba' dira; txarrak ba'dira, ez. Geure gogokoak izan bear leukee gauza barriak bere, onak izan ezkeroran: txarrak diranean, euren kontra egiñalak guztiak egin bear dirala uste dogu *Euskalzale'n* gabiltzanok.

Eta guztiok dakiguna da, barriz, lenagoko gauza ta egin-tzen artean moldakatxkeri askotxu dagozala, euskerearen-tzat kaltegarriak, eta barrien artean edozeiñek ezagutu giñ aiz guztiz era onean egiñikoak, batzuk beintzat.

Au diñogu, elizgizon batzuk, gu baiño lentxuago jaio zan *Dotriña'ko* liburuari geiegi eutsiak dagozalako

Ba-dabil or, nunbaiten, *Kristauen Dotriña* bat, abade askok, gure ustez, bear baiño geiago maite dabena. *Dotriña* orretan erakusten da, beste egokitasun bagako gauza askoren artean, Jaungoikoa dala «esan al leitekean izaterik *excelentiena, admirabliena, Jaun bat infinitamente ona, poderosa, sabioa, justoa, principioa* eta *jiña* gauza guztiena». Eztogu *ezer* asmau. Dana dan legez ipintea baiño besterik eztogu egiten, lotsaz bada bere.

Ta olango erdera mordoillo samingarriak ontzat emon-da Euskalerriko umetxoen aoan ipinten diran bitartean, ba-dakigu, ta naigabez beterik esaten dogu, *Kristiñauen Ikasbide* egundokorik era ederrenean euskeraz egiñikoak aintzakotzat artu barik dagozala, norbaitzuk ezin ikusi dituelako.

Zer dala-ta? Barriak diralako beste barik. Eurak za-rrean erakusten dan legez ikasi ebela esan oi daroe abade batzuk, eta bardin erakutsi gura deutsela ondorengoai.

A zer esakera azkar, bizkor ta zorrotza ! Ta txarto ikasi ba'dabe erakusleok? Eurak esku artean erabilli dituen *Dotriñak* ganora бага egiñikoak dirala autortu eragiten ba'yakoe?

Ta nok eztau autortuko Gorbea andi dan baiño gano-

rabagakeri andiagoa dala (eztogu beste itz gogorragorik ipiñi gura) euskeraz esatea Jaungoikoa dala «izaterik *excelentiena, admirabliena, infinitamente* ona, *poderosoa, sabioa, justoa, principioa* eta *fiña* gauza guztiena» !!!

Euskera ederra... erderaz ikasteko!

Zein burudun gizonek siñistu leike olango *Dotnñak* gipuzkoatar umetxo askoren eskuetan dabiltzala?

Gipuzkoa'ko adiskide ta lagun abadeak : euskeregaitik, zeuen izen onagaitik, Jaungoikoagaitik !, baztertuizue *Do-triña* zarra; ez zarra dalako, txarra dalako baiño; erre-izuez olango liburuak, euren gomuta edo oroipenik bere gelditu eztedin zuen errietan.

* * *

Baiña ezta au bakarrik gaur gure abade lagunei esan gura geunskioena. Erri zaleak dira danak, ori bai, guztizkoak; argitsuak asko ta jakitunak; baiña... Zelan esan geinke miñik emon barik? Batzuk erderazaletxuak dira, edo euskereari jaramon gitxi egiten deutesnak. Eta orretxegaitik igoten dabe elizetako irakastegietara erderazko euskeran itz egitera, ta erderazko euskerea erakusten dabe ederto elizetako irakastegietatik.

Zer esango genduke guk gaztelarrez ikasi barik jardun luzeak gaztelarrez egin gura dituan gizon bategaitik. Gauza on ta txalogarririk ez. Baiña, zer esan geinke jai guztietan erriari euskeraz itz egin bearrean egonda euskerazko gauza bat ikusi gura eztabenak-gaitik? Erantzun daiela irakurleak: guk eztogu nai erantzun.

Ba-dakigu zer esango deuskuen. Geiegizkoa dala euskereari emon gura deutsagun garbitasuna, ta euskera utsean itz egiten ba'da, eztabela eliztarrak ezer ulertuko. Ulertu ez? Bai abade batzuk baiño obeto; baiña esaten

jakoen dana ezin adierazoten emon ba'yakoe lenengoetan, eztago euskerazko itzak pizkaka pizkaka erakustea baiño, erderazkoak erakutsi yakoezan antzera; ta olantxe lagunduko yako euskereari len erdereari lagundu yakon legez.

Gura dabenak, asko egin daike. Gura eztabenak, ezer bere ez. Lan apurtxo bat egin ezkeru, euskera onean ezin itz egin daben euskaldunik eztago. Lanik egin barik, euskeraz ezer irakurri nai ezik, euskera onean jardungo dabenik ezta sortu, Salomon baiño jakituri geiagokoa ba'da bere.

Adiskideak, ez aserratu. Zirikadatxu bat danori egiteko gogoa geunkan ta egin deusuegu; dei esnagarri bat baiño ezta, bigun biguna. Ain biguna ze batzuk iratzartuko ez ete diran bildur gara.

Ezagutu daigun danok daukaguzala erruak, eta euskerrea ilten bada, geuk il dogula, alperrieriaz, ganorabagekeriz, maite izan eztozulako.

(*Euskalzale*, 1899, 250 ta 258 orr.)

AITA LARRAMENDI'REN BIZITZAREN BERRI LABUR BAT

{Zatitxoak}

Amazazpigarren eunkidaren azken aldian, ainbeste maite degun izkuntzik gozo ta leunena, euskera gurea, baztertua, ezkutatua eta erbestetarren urruin (destaña) azpian zegoalarik, batzuen ez-jakiñagatik, eta beste batzuen nagitasunagatik, sortu zan euskal mendietan gizon bat argitaratzera zetorrena argigarria, izkuntzik onenen gaiñetik jartzera zetorrena izkuntzik ederrena, zetorrena gauza onen gaiñean ezjakiñak amaitzera; nagitasunak kentzera

Jaungoikoaren letart (ardura) maitatiak biraltzen zigun biarren genduanean, galdu ez zedin euskera, galdu ez zitezen euskerarekin batean ain alkartuak bizi diran oitura onak, galdu ez zedin ainbeste gizalditan bizi eta garbiro gordetzen genduan fedea, Lauburu'ko bandera lerdan aidaturikan mundu zabalari erakutsi genion fede santua.

Gizon andi onen izena guziok aitatzten degu maitasun onkaituarekin. Aita Larramendi!

A. Larramendi'ren bizitzako berri labur bat izkribatzen asten naiz maitasun onek eramanda, batere gotiritz (andina) eta arrotasun gabe, dakidala lan au dala nere indar (aburren gaiñetikakoa).

Txit berri gutxirekin eta mintzoera baten jabe ez naitzala, iñola ere ezta izango A. Larramendi'ren diñakoa lantxo au; baiña eztet ere dalako siñisterikan. Zerbait bada, poztasun andi bat idukiko det ondar aletxo bat eramane dedalako nere erriaren onrara: ezertxo ere ezpada, izango al da norbait aletxo au eramango duana.

Jaiotza

Gipuzkoa'ko probintzi txit leiñargian ainbeste gizon andi, argitsu ta illezkor jaio diran lur ontan, Andoain'go uri polita menderatzen duala ikusten da baserri bat, Garagorri deitzen zaiona. Baserri onetan, Garagorri'ko etxe purubean (*solariega*) jaio zan A. Manuel Larramendi, milla seireun eta larogeta amarreko Abenduaren ogeita bostian. Bere gurasoak ziran Domingo Garagorri eta Manuela Larramendi leiñargiak, odol garbi ta aidetasun zabalekoak; zeintzuek zaintu eta azi zuten, orduan semeak zaintu eta azitzen ziran erara, Jaungoikoaren maitasun eta bildur santuan, ezagutu balute bezela bere sasoiari

Burubidea

Gorputz lerdan ta liraiñekua, indartsua, arpegi ederekoa; baiña bere begi eta kopetan distiatzen zala Jaungoikoaganako zeukan amodiua argi-erraiñua, aurkeztu zan Bilbo'n, ikas tegiko atarian, Jesus'en Lagundiko soindoiñaren eske, oraindikan amazapi urteko. O! Jakintasunezko zer agergarri ederra eman zuan Manuel'ek, eskeintzean Egille altsuari bere gaztetasun loratsua, uztean mundua, uztean etxea Jaun eta Jaungoikoa obeki serbitzeagatik! Txit asko dirade esaten dutenak gaztetasunari eman bear zaiola zor zaiona (eztaikit nola dan zor au); eta uste dute naikoa dala Jaungoikoarentzat bizitzaren azken aldera, besterik eziñean, ematia zerbait.. Erokeri eranzia ! Lotsagabekeri berdin gabea! Orrela itz egiten dutenak aztu dira jaiok gerala, Jaungoikoa maitatzeko eta serbitzeko; aztu dira zartza bezela Jaungoikoa dala gaztetasuna ere; orrela itz egiten dutenak igaro nai dute Jaunaren kontra Jaunak emandako bizitzaren zatirik onena.

Manuel'ek ezin zezakean iduki eskergabetasun ain itzala, ba-zekian zeukan guztia zor ziola Egilleari. Zor au pagatzeko ustetan sartu zan Jesus'en Lagundian milla zazpiretan eta zazpigarren urteko Azaroaren seian. Onerarako agurtu biar zituan betiko gurasoak, aideak, base-rritxoa, ainbeste oroiz gozo gordetzen zituzten leku eta gauzak, eta agur., egin zien danei. Maitatzen zituan biotz barrenetikan gauza abek, baiña gogoratzen zan Jesukristoren esanaz: *Qui amat patrem aut matrera plusquam me*

nor. est me dignus, eta Jesus zan beste dana baiño lenago.

Izan zitezkean norbaitzuek, lurreko jolasetara emanak, erruki ziotenak Manuel'i, gordetzera zijoalako bere gaztetasan ikusgarria; baita ere ¡zan zitezkean Manuel'k bere aldetik idukitzea onelakuen errukia, eta berakgatik eleizbartzetxoan pake santuan, burua makur eta biotz isiotu-arekin jasotzia Zerurontz orazio bizia.

Jesus'en Lagundian

Bilbo'ko ikaslekuan pausoak eman ta bereala biraldu zuten nagusiak Billagarzia esaten zaion Gaztelerrri'ko be-
doitegira (aztetxera), nun jarraitu zuan munduko autsa kendurikan, apaintzen bere arima birtute guziakin. Andikan joan zan ¿Medina de Kampo izena duan errira arautegiak eta egokindea ikastera. Leku abetan ikasi zuan ixiltasuna, menegindea, orazioa, norbere burua ukatzea; leku abetan erakutsi zuan jakintza mota guzietan gai-
era, gaillurtzen zala ikasleak onenen artean; baiña ezkututzen zuala bere jakinde guztia modestiako jantzi ain onirizgarriarekin.

Gerora jua zan Jainkokindea ikastera Salamanka'ko ikasleku izen andikora, eta an agertu zituan ostera bere gaikera eta ziadia, eta bertan izan zan ezagutua bere denporetako jainkokindari onenentzat.

Nola umiltasunian sustrai zakonak egin zituan, ezertan ere etzan iñoiz iduki lagunak baiño geiagotzat, eta ikusi oi zan eskoletako egarkietan (eztabaidetan) arrazoi sendoekin estutzen, mutututzen zituana, ain atsegintsu eta malsoa zebillela eskoletatik kanpora.

Lagun ikasle guziak baiño geiago zan, bere maisu Aita Luis Losada'k zionez. Aditzarik andienetakoa, oroitzar bat zan; baiña, borondate utsa, onen artian onena, arima

ta **biotz** andi ta zintzokoa, al-gabekoa gauza doillorretarako. gauza onetan geien egingo zuana ba'zan ere,

Nagusiena izanik, beti egiten zuan bere burua azkenengotzat, ezereztzat. Zein egia dan jakintasun benetakoa eta umiltasuna beti egon dirala elkarturik, anaiaturik. Zein ederki ikasi zuan A Larramendi'k Jesukristoren esakera au: *Qui se exaltat humiliabitur, qui se humiliat exaltabitur*. Orregatik goratu zuan Jaungoikoak; orregatik altxatu bear degu guk ere bere izena, ikusi dezaten mundu guztian.

Irakasle

Ikaskizun guztiak bukatu zituanian, bere nagusien aginduz asi zan erakusten. Lenbizi erakutsi zuan iru urtean Jainkokindea Salamanka'n, laguntzaille bezela. Orduan, jakindezko gudetan ain goi jarri zan ezen, esaten zutenez, etzan jakin guziakiko toki artan ordura arte **ikusi** guda zorrotz eta argitsuagorik.

Gero Palentzia'ko probintzian eta Balladolid'en izan zan Maisu, erakutsiaz egokindea (pilosopia) Jesus'en Lagundiko semiai; eta, biurturik barriro Salamanka'ra, igaro zituan oraindikan iru edo lau urte erakusten.

Izanik ere ain zakon eta entzungarriak bere eskoletako erakutsiak, denpora billatzen zuan oraindikan Jaungoikoaren **itza** sermoitegiko leku santutikan aditzera emateko, **eta ain** modutakoak izaten ziran bere sermoiak ezen, **Ikastegi** nagusiko maisuak, Eleiz nagusiko gizonak, jakintsu danak eta erri guztiak zeukaten maisu gaiñgaiñekotzat bezela.

Izkribu-lanak

Toki estuak ziran gizon garai onentzat ikasleku eta sermoteigiko neurriak: bere izena etzan kabitzen Salamanka'n; etzan kabitzen España'n; bere jakintasuna ezin zitekean gorde; Jaungoikoak eman zion munduaren onerako eta munduaren onerako begoitetu (eralgi) bear zan.

Ala, Salamanka'n zegoalarik, izkribatu zuan liburu eder bat izendatzen zuana :

1'go. *Tractatus de controversiis divinae gratiae adversus jansenistas.*

Lan onetan erakusten du egilleak jainkokíndeian zakontasuna, ziadi izugarria eta eralde indar bizikoak Frantzia'ko Jansenio Quesnel eta Febroniotar fedatzai berrien kontra. Urrikaltzekoa da liburu bikain au argitaratzea fedatzai oek ainbeste gaitz egin baiño len munduan ! Lan au eta urrengo bostak argitaratu gabe dirade oraindik.

Ara beste latíñez egiñak:

2'garren. *De systemate scholastico scholarum catholicarum*, nun egiten duan alegin guztia elkartzeko adiskidero katolikoan eskolak, bere gauza guztietan ikusen dan ziurrera eta egokeri andiarekin. Liburu onen gaia, dio A. Fita'k, izan liteke: «Bear diran gauzetan batasuna, dudakuetan pairua (neurria), danetan karidadea».

3'garren. *Fides greca galorum*, frantzes fedatzaian kontra.

4'garren. Beste izena eztakigun bat dierri artako estuzaleen iritxi barrien kontra.

5'garren. *Concordia phisicae praedeterminationis ac sciencia mediae.*

6'garren. *De grada suficiente et efficaci excerpta.* A Gabriele Daniele.

7'garren. *De Constitutivo divinas libertatis.*

Erderaz egin dituanetatik ezagutzen ditugu :

1'go. *Antigüedad y universalidad del bascuence en España*. Granada'ko dukeai donkitua. Au da Larramendi' ren lenengo egintza txit ona.

2'garren. *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria*; cuestión decidida si las provincias de Vizcaya, Guipúzcoa y Alava estuvieron comprendidas en la antigua Cantabria.

3'garren. *Corografía, o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. Emen argitzen du Gipuzkoa'ko kondaira eta ziazaltzen du probinzia guztia, ibaiak eta itxasua, baliaren arrantza, iturriak, aizea, mendia, bideak, uztak, sua, burnitegiak, uri ta baserria, erondea (gobernua), batzarrak, ekautuak (diputauak), errien anaikadeak, uritzaillea, eleizgizonak, serorak, donedeia, GiDuzkoa'ko leiñargia, leiñargi akiatua eta Aide nagusiak, Gipuzkoatarren gorputz eder, alaidetasun, ziadi eta griñak, ondasunak eta bizimoduak; Karakas'ko Laguntza erregezkoa, jantzi-berriak, obiratzeko oiturak, jaiak, jostaerak, tanbolin-dantzak, euskeraren itzera danak ; bukatzen duala ekadoiez (ederki) doanditzen Gipuzkoa'ko semea.

Liburu onetan geien ikusten da A. Larramendi'k bere erriari zion maitasun andia.

4'garren. *Araua* edo neurkida argi, zuzen eta santuak berak aukeratu eta zaintu zituan mojentzat egiñak.

5'garren. *Nueva demostración del derecho de Vergara*, S. Martin erri onetakoa zala eskudatzen.

6'garren. *Notas al manifiesto de Beasain*, gauza onen gaiñean.

7'garren. *Disertaciones y dudas sobre las obras de Mayans, de los diaristas matritenses*, etc.

8'garren. *Conferencias curiosas, políticas, legales y*

morales sobre los jueros de la M, N. y M. N. provincia de Guipúzcoa.

9'garren. Ezin kontatu ala liburu txiki. On Juan Ernesto Delmas'ek beste A. Larramendi'ren eskutitz, liburu zati eta paper askoren berriak ematen ditu «Euskalerria»-ren VII'garren liburuko 305, 306 eta 107 orrialdietan.

Euskeraz:

1'go. A. *Astete'ren dotriña*, euskerara biurtua.

2'garren. A. Mendiburu'ri izkribatu zion eskutitz txit bikain bat.

3'garren. Eleizako Erakasle aundi. S. Agustin'en doanditza. Doanditza au ez dakigu ziur nun esana dan. Ote zan diote Azpeitia'n, Mutriku'n, Mendaro'n, Plazenzia'n edo Ernani'n, leku oetan S. Agustin'en alabak diralako. S. Franzisko'ren seme A. Ignacio Egia'k du Aranzazu edo Zarauz'en lan onen lenengo eskuzkribua.

El Imposible vencido

Diccionario trilingüe

Naiustez aitatu ez ditut aurrerago A. Larramendi'ren lanen artean liburu eder bi oek: liburu oekgatikan zabaldu da geien ere jakindun onen izena; liburu oekgatikan batez ere izan da doanditua A. Larramendi'ren jakin-rasuna. Eta arrazoiz

Gauza oso gaiztzat, ezingarritzat zegoan euskerazko itzeginda moldatzea, eta siñiste au osoan egia ez bada ere, zati batean bada, zergaitik A. Larramendi'rentzat ez ban beste batzuentzat bai zan ezingarria.

Orretarako jakin bear da Euskal-errian iñork etzuala itz bat izkribatu gai onetan. Erri andi onek seme jakintsu, ziaditsu eta argi asko ba'zitian ere, miña det esan bearra!, txit gutxik zekizkiten euskeraren, beren izkuntzaren

edertasunak; jakin bear da gauza onetarako iñork ere etzula eman lumada bat eta lutartea (lur-artea) zegoala landu-eza.

Bear zan, bada, alainzo (talentu) bat zeukana indarra naikoa gaitztasun eta neke guztiak goituzteko; bear zan biotz bat erriaren maitasunez betea, eman zezan erri onentzat bere jakinde eta argia, naiz-ta beste gauza askotan obeki erakutsiko zana. Eta sortu ziran alainzo ta biotz au A. Larramendi'nj eta jaun onek lortu zigun *El Imposible vencido* (Eziña egiña) jarri zion itzeginda (gramatika).

Oi dira gai ez diranak gauza on bat egiteko; baiña bai bestien egitzetan utsaldien bat billa saiatzen diradenak, edertasunai begiratu gabe. Orregatikan A. Larramendi'ren itzeginda onegatik askok esan dute ez dala lan ongi bukatua, utsaldi asko dituela. Izan liteke egia; egia da benetan utsegiteren batzuek diradela lenengo izkribatu dan itzeginda onetan; baiña nor da diña lenengotikan gai ain astunean egiteko gauza bat amaitua, obetandua? Ezta egia lan au izan dala beste egiteko onelako lan guztien iturria? Egia ezta milla gauza ez genekizkienak erakusten dituala? Zer geiago eskatu liteke?

A. Larramendi etzan arrotua geratu egintza au azkentzean: autortzen zuan geiago egin zezaketela beste batzuek Gipuzkoa'ko probintzian esaten dionean: «lotsaz edo aalkeriz artu zuala lan onetarako artapena eta gertzen zitzaiola atsekida, (lan au) berea izateak lagunduko zualako euskeraren izen onerako, bada Larramendi'ten urrigoak (gutxitasunak) argitaratu ba'zitian izkuntza onen apainduria ain andiak, erraz ezagutuko zala zer izango zan lenengo egilleak izkuntza au egiten euki zuan manea gai onetan asten zanean zialdi obe bat, obeki zekiana zakontzen eta argitzen».

A. Larramendi'k esaten du itzegindaren asieran : «Ezagutzen dituala egintza onetan utsegite asko ezin dituanak zuzendu, zegoalako urruti bere erriagandik, nun geiago ikasi zezakean». Baiña iñork ezin lezake ukatu orregatik itzeginda au izan dala ondorengo guztien argia, A. Larramendi'k egiten ziola erriari iñork ordura artean egin etzion bezelako mesedea, erakutsi zuala bide batbear bazan euskaldunak ere etzekitena.

Eta zer esan genezake beste egintza *Diccionario tri-lingüe* edo *Iru izkuntzako* iztegiatikan?

Euskaldunen biotza pozturzen da irakurztean Iztegi onen asierako eranzukia txit aberatsa, oso betea berri on eta ezjakiñakin ; miraritzen da ikustean ainbeste arraioi egoki eta indartsuak erakusteko euskera izan dala España'ko dierri (aberri) danaren izkuntza, agertzeko euskeraren amatasuna; gozitzen da Mayans ta Armesto'ri ematen dizkion erantzuera zorrotzakin, jartzen duala euskera ain goi eta tontorrean.

A. Larramendi'k izkribatu ezpalu ere Iztegi aurreko asiera andigoi, garai au baizik, naikoa zan bere izena illezkortzeko jakintsuen artean, geiegi zan bere izena gordetzeko Euskal-erriko izenik maiteena bezela

Baiña, gaiñera, izkribatu zuan euskeraren Iztegia. **Nor** ezta miraritzen gizon baten neurri gabeko Ian onen aurrean? Nork ez du ezagutzen iru itzerako ainbeste milla itz banan banan zuzentzen, araututzen dagon nekia? Non irakurriko zituan A. Larramendi'k euskerazko izkribu esleitua? Noren laguntasuna zeukan? Zeinbat jira-bira egin bearko etzituan Gipuzkoa'n, Bizkaia'n, Araba'n, Nafarroa'n, Franzia'ko euskal errietan, urietan, baserrietan, mendian, basuan? Zenbat galdeera alperrikakoak askotan, jakiteko gauza guztien izenak?

Lan onetan ere A. Larramendi'k esaten du daukaz-

kiala gauza asko zuzentzeko eta obetandetzeko; baiña zeñek lenengotikan bukatu du osoro onelako egintza bat? Beste izkuntzetan ainbeste urtean, ainbeste laguntasun-ekin, gizon jakintsuen batzarrak egiten ez ba'dute gauza bat obetandua, nola egin lezake gizon bat bakarrak?

Ongi dator emen Mogel'ek diona: «Denborak obetandetzen ditu egintzak. Larramendi'ren lanarekin geratu ezpagaña lotan cta bai jarraitu lanean, beste irakatsi batzuk zeukazan gaur gure izkuntzak».

Eriotza

Bere lanetara geien emana zegoanean Jaungoikoaren gloriarako, igarri zuan deitzen ziola Jaunak letartiak neke, samintasun, naigabe ta eramankizun guztien saria artzera; igarri zuan aldean zुकala eriotzako ordua.

Ordu onen zai nola zegoan aspaldian, eman ziozkan eskerrak Jesus'en Biotz txit santuari, ziñen maitatia izan zan beti eta gertatu zan bear bezela, justuak gertatzen diran pake santuarekin.

]nguratu zuten malkotsu eta estutuak etxeko guztiak,, eta danen erdian A. Kardaberaz eta Mendizabal adiskideak laguntzen ziotela, eta baita ere iñolaz zeruetako aingeruak, bere mingaiñetan erregu labur eta gozuak zirala Jesus eta Maria'rentzat, eman zion bere arima Egi-lleri 1766'ko ilbeltzaren 28'an.

Il zan jakindun izugarri au, itz liraiñeko gizona, gualari garaitezgarria, euskal seme argidotarra, erriaren maitale bizia, euskerazaleen argia, A. Larramendi goianta, Jesus'en Lagundiko eta Gipuzkoa'ko doakundea, 76 urte zituala, zeintzuetatik igaro zituan 59 Jesus'en Lagundian.

Zorionekoak azken orduan bere bizitza guztian jardun.

dutenak gudatzen arimako etsaiak azpiratzeko! Zorionekoak azken orduan Jaungoikoak emantako bizitza dana igaro dutenak gatazkutzen Jaunaren alde, egiagatik sorterriaren onerako ! Zorionekoa zu, Aita Larramendi, bizi izan ziñana arima birtutez apaintzen, Jaungoikoa maitatzen ! O ! Zer paketsua dan, zer gauza gozua dan eriotza, epaia eman biar duana bera maitatzen bizi izan danarentzat! *Beati mortui qui in Domino moriuntur.*

* * *

Il zan A. Larramendi, igo zan, egatu zan betiko gozatasunezko tokira. Bere eriotza esana eta kantatua izan zan izkribu eder eta bertso liraiñetan; iraun zuen kanta soiñuak egun batzuetan, baiña laster amaitu ziran azkenengo oiartzunak eta dana geratu zan ixiltasun eskergabeen.

Gaur, edozeiñek talluntza (estatua) bat daukan denboran, A. Larramendi'k eztauka arri kaskar bat esaten: «*Emen jaiio zan euskaldun argidotar bat*»; eta gutxi dira dakitenak nun jaiio eta il zan.

Baiña, zer diot? Bizi dan artean erriaren maitale bat, bizi dan artean euskera-zale bat, bizi dan artean euskaldun benetako bat, ezta aztuko A. Larramendi'ren izena; A. Larramendi'ren izena izango da maitatua eta bedein-katua.

(*Euskalzale*, 1898, 388, 397, 421 orr.)

«TXIPRISTIN»-i

Eztakit zein zarean, baiña etzara Ondarroa'ko Txipristiñ. Ondarroa'ko Txipristiñ beste bat da : argala ta ariña,

askori bizarra kendu arren, bizar gitxi dabena. Markiñaldeko Txipristiñen bat izango zara zu. Euskaltzaletzat zaukadaz, euskeraz ondo dakizula deitzot, baiña Ondarroatarkeririk eztakizu. Orixe bai ez. Egun batzuetan bustialdi batzuk artuten egonda bakarrik eztira ikasten Ondarroatarkeriak, eta zuk eztituzu ikasi. Ondarroa'n eztago *jaixe, bier ixelogu, erremuketak, esate utsegu, sari edo premixo, ketarixarrak, geixao, belarrixek, arrauan, aspal-dixan, irrixuen* da *Andra Marixe* esaten daben itxas-gizonik. Ez, txotxo. Esate gisa ori zeure-zeurea da, ez Ondarroatarrena.

Nire errian (bada ni Ondarroatarra naz, ta eztaukat zergaitik ukatu) nire errian berba asko esaten dira zerbait janaz, erdi aldean, ta azken aldean batez bere: *eztakat*, eztaukat esan bearrean; *ostutze*, ostu deutse'ren orde; *goi-kali*, goiko kalearen tokian; *barretekeri*, barre egiteko eria esan nai danian; *nungu za?* nungoa edo nongoa zara? itandutean. Ondarroatarren aotik izen askok urteten dabe txarto, beste euskaldun askoren aotik legez. Neuk entzun ditut izen barregerri oneek: *Ikomes* (Nikomedes), *Broilon* (Froilan,) *Anemaitxu* (Ana Mariatxu), *Krasto* (Kastro), *Laero* (Laredo), *Saander* (Santander), etc., etc.

Olango itz edo berbak paperean ondo ta ziatz ipinten billatu zeinkean zuk, Txipristiñ, arlo ederra, ta Ondarroatarrak barre egingo eben, eurak egunero entzuten ta esaten dituen berbak EUSKALZALE'n ikusita. *Itz* edo *berbak* esan dot, bada jardun luzeak, oker esanak edo lenago entzun bagakoak diranean, eztira errez biurtuten zeatz ta egokitasunezko erreskada ederrean, belarri argi ta luma garbiaren jaube izanda bere. Ikastekorik gaxxenetaoak dira erri bakotxak daukazan esateko era berbereak: gitxik daki, gizonen aotik urteten daben gisara, berbeta guztiak paperean ipinten, zuzen ta direan legez,

geiagoko ta gitxiagoko barik. Gaztelerrian Pereda bat da orretarako jaioa; Euskalerrian, *Bein da Betiko'ren* egillea ezpada, ezta jaio besterik. Edo, beñik beñ, eztau iñok erakutsi orretarako jaioa danik.

Etzara, bada, zuzenbidetik asi, Txipristiñ. Alan ei diño e Ondarroa'ko itxas-gizonak. Zugaz aserratuta ei dagoz; (eztauke zegaz aserratu andirik eurak be) ardantegitik ardantegira erabilli ei dabe EUSKALZALE bat, eta uleok orraztu ei deutsez Txipristiñ'i. Zeurea da errua: etzeukan esaten eztiran berbak ez asmatea baiño.

Agur, «Txipristiñ», ta ez aserratu. Itxas-aldetik albisetxu auxe jakin daizun artu dot lumea, ta aitaturiko zure eskutitzari adiskidetasuneko oartxu bat ipinteagaitik. Eta orain jakin beie nire erritarrak ezta Txipristiñ, nire iritxiz, Ondarroa'ren areriua ta gitxiago bere; eztabela izkiratu edo eskribidu euren lepotik barre egitearren, ezpada EUSKALZALE'ri laguntasun apur bat emotearren baiño; ta ezta gizon motela, dana dalakoa. Ezagun dau egin daben eskutitz edo kartan bertan, gauza batzuk oker ipiñi ditu baiña.

(*Euskalzale*, 1898, 362 orr.)

EUSKERAREN ALDE

(*Bilbao'ko «Campos Eliseos»*—antzokian jorraitaren 2'an Euskal-Esnaleak arratsaldean egindako jaietan, egilleak berak irakurritakoa.)

Arratsalde on, euskaldunak, nere anaiak :

Zorionean gaur ainbeste jirizitako gizadiak, errikoi zeraten denok, euskeratzale guztiok oso alkarturik zakustaz.

Zer dala, baña? Agindu oker baten adorez. O! Arro-

tasun gabeko izaterik ezta, ta guk ere, aitor dezagun, bagenduan noski gurea. Aitamak utzi ziguten oroimen atsegiña jauregiko gelarik txukunenean gorde oi dan antzera, gure mendi tartean, pago ta aritzez inguraturik gendukan gure izkuntza, enda zarraren arnasa, antziñetako oiartzun biguna, gure arrotasun bakarra. Ta gure izkuntza maite oni, bere jauregi barruan, bere aterpe gozoan, ausaxd;7 ta nabarben, norbaitek, esi ta lokarriak jarri nai izan dizka.

O! Begiko ninian ikutu digute. Agindu ori da arkaitz gaiñean dagon arranoak, arranoa dala-ta beste gabe, baso itzaleko erretxiñolari esango ba'lio bezela: «ixo, utzi zazu bein zure jarduna, ixildu zait». —«Ixildu nadilla? erantzun dezaioke txoriak—; o!, ezingo naiz iñola ixildu; berezkoa det nere txio jotzea, errekarteko iturriak beren murmurra, zelaietako loreak beren usaia berezkoa duten antzera; kendu zadazu nere bizitza, baiño ez nere mintzoa, bada neri dagokitan txio ezti gabe ni ez naiz errextiñol». Era berean esan dezakegu Euskalerritarrak: «jakin zazute agintariak: gure mingañera euskera berez datorkigu; euskalduna euskera gabe ezta euskaldun ta euskaldun izatea ezingo digu iñork debekatu».

Ezta gaurkoa gure mintzoa bere kabian ito naia. Aspaldietan dabilta, orain gogor ta arpegiz-arpegi, beingoan zearka, leun ta ziraun euskera baztertzeke aitzaki billa. Ara emen asmatu dituzten andienak.

Erbestekoak ezin dutela deusik ulertu. Ezta guk ere erbestrekoen izkuntza, ikasi gabe. Bakoitzari berea utzi bear zaio ta euskaldunari euskera. Guk eztiogu erbestean iñori, nai ta naiez, gure izkuntza jakin eraziko, baiña gure etxe barruan guri ulertu nai digutenak, ikasi dezatela gure mintzoa. Au garbi dago ta eztirudi geiegizko eskabidea. Ikastunentzat euskera ezta batere zailla, uste dan baiño

askozaz errezagoa da; baiño ala ere norbaitzuk alperreriz, nagitasunez, euskerari dioten gorrotoz, ezagu nai ezpadute, zer egin bear degu euskaldunak? Arrotzaren belarria mindu eztedin gure aboa itxi? Ta ez al da ori alperreria agintzaille ta indarra nagusi jartzea? Ez al da ori ikasbide guztiak zearo estaltzeko neurria?

Zarra dala. Zarra! Amaika gauza zar gorde oi dira lurrean arduratsu. Maite izan bear! Amaika tresna, amai-ka pitxi ta egintza zar erakutsi oi dizkigute bazterretan arro asko... Urliaren eskumakilla, beste arako gudarien iskilloa, sandiaren txapel koipetsua, arako jaunaren aulkia ; erromatarrak egin zuten bidea, mairuai kendu zioten oiala, godotarren erako elizatxoa, orko zubia, ango etxea, aruntzagoko gaztelua... zer ez? Ta ongi deritzot. Badira egundaiño zartuko ez diran gauzak. Urregorria ezta beñere zartzen. Egia, izkuntza zarretan zarrenetakoa da euskera, baiño baita ere onenetkoa, baita ere berdingabea. Gauza onari ona dan bitartean, zarra izateak eztio kalterik egingo. Eztago bada :'arra dalako bakarrik zertan baztertu.

Gaur dan egunean ezertarako ezta. Jakin ezean izkuntza danak dirade alperrik.

Bai, euskera ezertarako ezta erdaldunen artean; baita ere geiago: alperrikakoa da beren mintzoaz oso azturik bizi diranentzat. Baiño ez ordea, oitura onari jarraituaz, gurasoak oi zuten bezela itz egiten degunentzat. Guretzat ezta euskera egundaiño alperrik izan. Beti ta nolanai bear da gure gogamenari jazkera egokia emateko; gure uste ta iritziak gizartean adierazteko; gure aitonen izakera garbia ondorengoai erakusteko, gure poz ta atsegiñak, gure samin ta negarrak, gure animaren maitetasunak itz neurtuetan, limurki eresitzeko; Aita Jaun Zerukoari otoitz bero ta zintzoak eroso egiteko... Ia zein asartuko dan

jiian ez, Jaunari eskerrak. Baiña gaixorik baldin badago, zein ezta gaixoaren erruki? Nola eztegu euskera babestu bear? Noixko ditugu sendagarriak? Zertan daude eskubideko jakintsuak? Zer egiten dute zaintzaille izeneko gizon oiek? Noiakoa da, batez ere, gaixoa sendatu bearrean, geiago zauritu nai duan sendagillea? Noiakoa da bere ustez il zorian dagona jo ta zapaldu nai lukean agintaria?

O! Bene-benetan arritzekoa da gure izkuntzari erbesteko gizon maltzurrok egin nai diotena; baiño, ai l askotzaz arrigarriagoa da geuk, euskaldunok, egin dioguna; bada geuk jardun degu geien bat euskeraren kaltean, geuk iraindu degu erbestetarrak baiño ere geiago, geuk bota degu gure ezpaiñetatik, geuk jaurtigi degu gure urietatik baso bazterrera, «urriz kutsutua dagoanaren gisa. Bai, auzoetako mintzo apaiñak ezagutzean gure izkuntza narraz ta baidarra iduritu zaigu ta Euskalerriko semeak euskeraz mintzatzen lotsatu egin gera! Ori egin oi dute, beren gurasoaz goizetik aberastu diran edo zerbait ikasi duten ume doillorrak. Geurea da bada errua, geurea obenik andiena.

Euskaldunak, nere anaiak! Ernaitu gaitezen ta bide berriak artu ditzagun. Nik badakit edertzaleak zeratela ta edonungo ederrari abegi ona egiten dagizutela. Ordu onean izan dedilla; baiño etzazutela orregaitik euskera iñon ukatu, etzazutela besteak baiño gutxiagotzak euki. Euskalerrian jaio zeraten guztiok, andiki ta beartsu, andikiak batez ere erri ta erbestean, etxe barruan ta enparantzaren erdian, Jaungoikoagaitik! euskeraz itz egin zazute. O euskera kutuna, nere mintzoa! Etzera zu iñoren lotsagarri. Iraunkorra zera Ernio'ko gailurrak aiña, ler-

dena zera Anboto'ko erpiñen irudira, garbia zera Aitzgorri'ko elurra beste, liraiña zera Aralar'ko Aingeruaren gisa, nerea zera ta maite zaitut. Zure kopeta zabalean antziñetako jatorri onaren kera ta kutsua dakuskizu, zure sorbaldetan izkuntza gurasoen soñeko apaiña daramazu. Naiz ta gaur gure mendi bazterrean apala egon, zure bizitza luzean alderdi askotan on egiña zera. Zuk eman diezu beste mintzo askoeri zure izatearen mendua, zure argiaren izpia, zure suaren txingarra, zure odolaren gorriunea. Izkuntza berri oiek arro ta gangar ba'dabiltza ere, beti zure zorretan egon bearko dute. O Euskera maitagarria! Zuri nai dizut eresi. Oso aurtxo nintzala, oraindik seaskatxoan nengoala, ama laztanaren aoz sartu ziñan nere biotzean ta ordutik aurrera nere biotzean zauzkat. Etzera zu neretzat egundaiño izan txiro ta itxusi; zu zera neretzat izkuntzarik gozo, samur, guri, mamitsu ta zoragarriena. Oraindik ezea zaude, oraindik kemena badezu, oraindik lore berriak eman bear dituzu. Gure arimetan dago ta gure animetatik aterako degu zure azia; geuk ereingo zaitugu soro ta zelai, ibar ta mendi, egi ta baso-lur guztietan; erneko da oparo zure landare berria; gure izerdiz ta bear bada gure odolez narotuko degu, ta geuk azalduko zaitugu azkenez, beste izkuntzen erdira onela esanaz: «ara emen euskera; ikusi zazute zein txukuna dan, ikusi zazute zein mardula dagon, begira zazute zein egoki apaindua jarri degun».

Ori egiñ ezik, ezkiñake seme onak izango.

Gora zu, nere mintzo zarra, gora euskera maitagarria!

{Euskal-Esnalea, 1916, 118-121 orr.}

Aztu eztedin, beren oroitza osoro joan eztakigun, jakin-zaleak geiagorako ikasbidea izan dezaten, ongi derizot Euskalerriko oitura zar bat albistatzea.

Oiezbezelakoa da, ipuia dirudi, ta siñisgogorra izandu naiz, baiño gaur ordea neronek baieztu nai det, neronek nai nuke siñisterazi

Ogeitak urteak badira. Arako jai arratsalde baten, apeta betetzeko era banuala-ta, Oikia deritzon gure auzotegira pozarren joan nitzan. Ta ona emen nere begietan aurkeztu zitzaidan ikuskizuna.

Elizarako sarreran, ate ondoan burua jarririk, txintxarritz ondo jantzia, apaiz jaunaren soiñeko beltzez estalia, paparrean bera purpuxetaz apaindua, adar bakoitzean ogi andi bana zituala, idi gizen bat zegoan geldita ta mentsu, eliz barruko eresiketak entzuten bezela.

Zer zan idi ura? Ildakoen alde egiten zan oparia, une artako elizkizunaren sari ta ordaiña.

—Noiztikoa da ekandu au? —galdetu nuan, arriturik.

—Antziñetakoa noski —erantzun ziraten—, asabietatik aspaldi luzean datorrena.

—Nondik ote dator? Okerreko siñistien kutsurik ez ote dauka?

—Baliteke, baiño ezetxean gaude. Jatorri bikaiñagoa duala uste degu.

—Ager zadazute.

—Ezta orren gaitza. Nola eskuartearen lenago gaur beste diru etzebillen, lurraren ematzaz, ale ta aragiz batez ere saritu oi genduan apaizen nekea. Iru mailletako illeta ziran: lenbizikoan idia eskeñi oi zan; bigarreanean, zikiro bat, eta irugarreanean laka batzuek arto edo gari. Gaurko idiak illetarik andiena oroitzen digu.

Ori aditu **nuan**, ta **beste** azterketa gabe, itxurazko mintzoa zala-ta, **atsegiñez** gelditu nintzan. **Gaiñera** berriz, esate orren **ziurgarritzat**, oraindik or dago, **Aizarnazabal'go** pulpito-pean, **zikirioa** isekitzeko **burni-kako** sendoa, ta, Arrua'ko **eliz-obietan**, sarri egondu naiz gari zorro ederrak ikusten.

Abere-opariak **aztu zaizkigu ia**, **baño** gure egun auetan ere azaldu izan **dituzte** noizean **bein**, **andikeriz** ta **norbere** jatorri ona **erritarrai** **jakin** erazteko. **Oikia'**ko **apaiz** jaunak, aitaren **elizkizunean**, oitura **zarren** gomutarako **edo** goitarra zala **erakusteagatik**, **ipiñi** zuan **beintzat** **idi** galanta eliz atarian.

Azkenengoa ote **zan?** Eztet **arrezkero** **inguruetan** **bestetik** somatu.

(R.I. *de Estudios Vascos*, IX, 1918, 69 orr.)

Atari antzean	5
---------------------	-----	---

GERTIRUDIAK

Iru eresi	43
Il gaua	50
Ekatxa	57
Zer esanak	61
Kitolis	65
Arrain saltzailleak	69
Joanes artzaia	73
Azoka ta dema	75
Ni ta ni	86

OLERKIAK

Ipuia	109
Aritzari ta euskalduneri	110
Naikua	juat.....111
Mariñela	113
Kantariak	114
Itxas-ertzian	115
On Pedro Nobia Salzedo-kuaren jaiotzako lelen- go eunkidan	118
Zer pakea!	121
Gernika'ri	123
Lora batzuk	126
Ama bat	128
Sara'ko Lorea	130
Jesus'en Biotzari	133
Agure-kanta	136
Ai balekitel	141
Itxas-aldian	146
Seiaskatxo bat!	149
Eresiak Jesus'i	150
Ondarribi	151
Txori alai	152
Au ondamenal	153
Euskaldun bat!	155

IPUIÑAK

Emango nion	162
Erloju	162
Marrubi itzala	162
Pazientzia	163
Gizon jakintsua	164
Buru-azurra	164
Mainton itzontzi	167
Anton betosko	171
Lenbiziko samiña	183

ELEIZ-GAIAK

Gabona ta egunona	191
Jesus Umearen estalkia	194
Pulvis es	197
Convertimini	199
Maitetasuna	201
Juxta crucem	205
Jesus'en nekaldiko itzaldia	209
Gogamenak	212
Esaera bereziak	212
Lulu ta	213
Mañu.....	213
Lañoa ta griña	216

KONDAIRA-KIMAK

Joan-etorri bar Erroma'ra	223
Marina Saenz Likona-tarra	231
Etxebarria'tar Silberio Franzisko jauna	232
Lekeitio'ko elizearen ate nagusia	235
Bilbo jaietan	236
Zergaitik galduten yakun euskerea	238
Aita Larramendi'ren bizitzaren berri labur bat ...	242
«Txipristin»-i	253
Euskeraren alde	255
Idia elizan	260